Hezkuntza ekosozialeko hiztegia

Diccionario de educación ecosocial



EHU

Hezkuntza ekosozialeko hiztegia

Diccionario de educación ecosocial

Hezkuntza ekosozialeko hiztegia

Diccionario de educación ecosocial

Editorea / Editor:
José Manuel Gutiérrez Bastida



EHU

CIP. Unibertsitateko Biblioteka / CIP. Biblioteca Universitaria

Hezkuntza ekosozialeko hiztegia [Recurso electrónico] = Diccionario de educación ecosocial / editorea-editor, José Manuel Gutiérrez Bastida. – Datos. – [Leioa] : Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, [2026]. – 1 recurso en línea: PDF (558 p.)
Ed. electrónica de la ed. Impresa (2025)
Modo de acceso: World Wide Web.
Edición bilingüe en euskara y español.
ISBN: 978-84-1319-840-8

1. Medio ambiente – Estudio y enseñanza – Diccionarios. 2. Educación cívica – Diccionarios. 3. Ética del medio ambiente – Diccionarios. I. Gutiérrez Bastida, José Manuel, ed. II. Tít: Diccionario de educación ecosocial.

(0.034)37.02:504(03)
(0.034)37.035(03)

Edizioa / Edita:
Hezekos
hezekos@gmail.com
hezekos.blogspot.com

Kolaboratzaileak / Colaboran:
Euskal Gune Ekosozialista
Euskal Herriko Unibertsitatea
Grupo de Investigación Ekopol
Hitz & Hitz Fundazioa
Steilas

Koordinazioa / Coordinación:
José Manuel Gutiérrez-Bastida

Lan-taldea / Equipo de trabajo:

Adrián Almazán	Javi Landeta	Mikel Barcenilla
Alfonso Caño	Jokin Lapaza	Nerea Zuluaga
Ander Cuevas	Jorge Martínez	Oihana Orkolaga
Asun Fernández-Ostolaza	José Ignacio de Guzmán	Ritxi Hernández
Edurne Ugarte	José Marañón	Soraya Bastida
Gorka Bueno	Joserra Díez	Tomi Etxeandia
Gurutzne Basterretxea	Josu Larrinaga	Unai Ortega
Iñaki Barcena	Luis Paja	

Euskarazko bertsioaren berrikuspena / Revisión de la versión en euskara:
Iñigo Gallastegi

Azala / Portada:
Kattalin Barcena

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

ISBN: 978-84-1319-840-8

PEFC
PEFC/14-33-00010

Hezkuntza ekosozialeko hiztegia



EHU

Aurkibidea

Hitzaurrea 11

Sarrera 15

Ahalduntzea 19
Androzentrismoa 21
Antropozenoa 21
Antropozentrismoa 25
Azelerazio handia 28
Aztarna ekologikoa 30

Balioak 33
Begizta errekurtsiboa 36
Biodibertsitatea 36
Biozentrismoa 40
Bizimodu inperiala 43
Bizitza erdigunean 44
Bizitze ona 46
Borondatezko sinpletasuna 48

Chthuluzenoa 51

Desazkundea 53
Desazkunderako hezkuntza 56
Donutaren teoria ekonomikoa 56

Ekoalfabetizazioa 61
Ekodependentzia 63
Ekofaxismoa 66
Ekofeminismoa 68
Ekofeminismoa: euskal herrian 76
Ekofeminismoaren historia 78
Ekogarapena 85
Ekoherritartasuna 85

Ekokapitalismoa 89
Ekokeinuak 92
Ekologia politikoa 92
Ekologia sakona 94
Ekologia soziala 97
Ekologismoa 99
Ekologismoaren historia 105
Ekonomia ekofeminista 111
Ekosozialismoa 119
Energia eta trantsizio energetikoa 128
Enfoke holistikoa 134
Erresilientzia 134
Etika ekosoziala 134
Etnozentrismoa 137
Exergia 137

Gaia teoria 139
Garapen iraunkorra 146
Gizarte justizia 150
Globalizazioa 153
Gozamena gauza sinpleetan 157
Green New Deal 157
Greenwashing 161

Hezkuntza ekosoziala 169

Ingurumen-hezkuntza 175
Interdependentzia 178
Iparralde globala - hegoalde globala 181
Iraunkortasuna-jasangarritasuna 185

Justizia klimatikoa 189

Kapitalismo berdea 191
Kapitalozenoa 191
Klima aldaketa 191
Klima-larrialdia 191
Kolapsoa 195
Konplexutasuna 197
Krisi ekosoziala 203

Nahikotasuna 211

Oilozenoa 213

Planetaren mugak 215

Sistema 219
Solastalgia 226
Sumindura 226

Taula planetarioa 231
Teknika eta teknologia 233
Teknozenoa 235

Trantsizio/eraldaketa ekosoziala 235

Zaintza lanak 245
Zor ekologikoa 249
Zuhurtasun-printzipioa 253

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza gida orokorra 259

Bibliografia 263

Hitzaurrea

HEZEKOSen alfabetoa

Eskuartean duzun lan honen zergatietan eta ezaugarrietan murgiltzeko eta egitasmo kolektibo honen xedea eta helburuak ezagutarazteko, nire aburuz, hizkiz hizki joatea ariketa ezin hobea izan daiteke. Goazen, bada.

H - Hezkuntza. Hezkuntza dugu gure bizitzaren arlo nagusietako bat, gure burua modu pertsonal eta komunitarioan garatzeko eta zaintzeko. Eta ekimen horretan amankomunean parte hartzen duten lagunek eskarmentu handia dute ingurumen hezkuntzan, urte ugari eman baitituzte ikastetxeetan erronka honi denbora eta gogoa eskainiz. Eurek argi ikusten dute gabezia edo beharrizan hori, eta Euskal Herriko gizarteari lan hau eskaini nahi izan diote krisi ekosozialari aurre egiteko-tresna edo lanabes erabilgarri legez. Hasieratik eskerrak eman behar dizkiegu egindako lan txukunagatik.

E - Ekosozial. Natura eta gizartea bereiztea, separatzea eta kontrajartzea mendebaldeko zibilizazioaren errakuntza sakona izan da. Maria Miesek, Vandana Shivak, Yayo Herrerok eta gainontzeko ekofeministek erakutsi digutenez gizakiok interdependenteak eta ekodependenteak gara. Eta hori ez da desabantaila abantaila baino. Asko dugu beste zibilizazio eta kosmobisioetatik ikasteko. Eta ikasbide horietaz jabetuz, lurtarrontzat askoz hobe izango da «planetarekin bakea» egitea, Barry Commoner biologo ekosozialista iparramerrikarrak aholkatu zigun moduan. Teknosfera eta ekosferaren arteko desakoplamenduak krisi ekosozialaren jatorria da. Ekosistemen prozesu ziklikoak, kontserbatzaileak, homeostatikoak eta koherenteak ez datoz bat sortu dugun teknosferaren prozesu linealekin. Mundu honetan ez dago bizitza egokirik oinak lurrean eta buruan izaki bizidun guztiak eduki gabe.

Z - Zientzia. Horixe dugu lagun**.** Ekologismoak harreman anbibalentea izan du zientziarekin eta aurrerapen teknologikoekin. Konplexu militar-industrial-teknologikoa deritzona, triskantza sozio-ekologikoen erantzule nagusia dena, gaur egun, energia nuklearraren berpiztea eta armagintzaren bultzada inposatu nahi dizkigu, baina bestaldetik, ezagutza zientifikoaren bitartez, ingurumen-krisia inoiz baino argiagoa eta ezagunagoa egiten zaigu. Zientzia dugu beste aliatu indartsua joera antiekologikoei aurre egiteko, zientzialarien lan eta ikerketekin gure aldeko argudio eta datuak erakusteko.

E - Ekologia eta ekologismoa. Ez dira gauza bera. Jesus Ibañez (1928-1992) soziologo kantabriarrak zioenez, ia inork ez du soziologia (zientzia) sozialismoarekin (mugimendu soziala, ideologia) nahasten; baina ia guztiek, kazetariek eta hedabideek batez ere, ekologia eta ekologismoa modu bereizigabean erabiltzen dituzte, gauza bera balira bezala. Eta horrek jakintzaren eta boterearen arteko deslotura adierazten du. Ibañezek zioenez zatiketa horrek soziologo eta ekologo herrenak sortu ditu (nahi dutena esan dezakete, ezer egiten ez badute) eta sozialista eta ekologista itsuak (nahi dutena egin dezakete, baina, zer egiten duten ez dakitenez, ez die ezertarako balioko). Eta informazioaren eta negentropiaren arteko disekzioa apurtu beharra ikusten zuen. Ekologismoak zientziaren laguntzarekin askoz ere lorpen handiagoak lortu ditzake eta lan honek bide hori urratu nahi du.

K - Kapitalismoa. Sistema sozio-ekonomiko bezala, kapitalismoak hiru mende eta erdi baino ez ditu, baina autore batzuen ustez (Francis Jameson, Slavoj Zizek, Mark Fisher…) «errazagoa dugu munduaren amaiera irudikatzea, kapitalismoaren bukaera baino». Hor arazo antropologiko izugarri handia dugu, aztertzeko eta erantzuteko. Eta lan honek bere ekarpen antikapitalista egiteko konpromisoa du, zurikeriak eta politikoki «zuzenak» diren jarrerak uxatuz. Ekokapitalismoa edo kapitalismo berdearen norabideak kolapsora garamatza. Etengabeko hazkundearen eta pilaketaren logikek ez dute zentzurik, planeta oso zabal baina mugatu batean bizi baikara. Kapitalismotik haratago, bestelako eredu sozial, kultural eta ekonomikoak jorratu behar ditugu, eta, zaila bada ere, eredu horiek irudikatu, asmatu, amestu eta egikaritu.

O - Ongi bizitzea. Abya Yalatik aspaldian Bizitze Onaren (Sumak Kawsay, kitxuaz, edo Suma Kamaña, aimaraz) filosofia eta praktikak erakutsi zizkiguten. Hala, ikasi genuen «bizi-maila» eta «bizi-kalitatea» ez direla gauza bera. Eta gure komunitateetan eta naturarekiko harremanetan ekitatea eta berdintasuna, askatasuna, demokrazia eta parte-hartzea, birbanaketa eta elkarrekikotasuna direla iraunkortasunaren utopiarako ezinbesteko balioak eta ardatzak. Kapitalismoaren ifrentzua, hain justu. Krisi ekosozialari, klima aldaketari zein energiaren auziari edo biodibertsitatearen galerari aurre egiteko eredu, irudikapen eta praktika sozial berriak asmatu

beharrean gaude baina Amalurraren baitan adibide eta erreferentzia franko ditugu «ondo bizitzeko».

S - Sozialismo-ekofeminista. Korronte ideologiko berri horretan kokatzen da idazlan hau, duda izpirik gabe. Eta ekosozialista feministek diotenez, ez dago krisi ekologikotik ateratzerik, ez bada justizia sozialaren eta demokraziaren eskutik, batetik, eta ekonomia feministaren eskutik, bestetik. Etorkizuneko edozein estrategia sozioekologikok hiru elementu hauek izan behar ditu bere baitan: ekologikoki jasangarria izatea, sozioekonomikoki justua eta sexu-genero bazterkeriarik gabekoa eta politikoki demokratikoa, hau da, inplikaturik dauden herritarrei hitza eta erabakitzeko eskubidea ematen diena. Hezekos kolektiboak egindako ekarpen xume baina aberasgarri honetan ibilbide hori indartzeko ahalegin eder bat somatzen dugu. Hala bedi!

Iñaki Barcena Hinojal

EKOPOLeko (UPV/EHU) eta
Euskal Herriko Gune Ekosozialistako kidea.

Sarrera

1950. urtea zen, eta, bat-batean, ustekabean bizkortu zen dena. Lurreko gizakien, hiri-inguruneetako populazioen edo BPGaren[1] hazkundeetatik hasi eta energiaren, uraren edo garraioaren kontsumoaren hazkunderaino. Era berean, atmosferako CO_2, nitrogeno oxido edo metano mailak, planetaren tenperatura edo biosferaren narriadura handitu ziren. Hura Azelerazio Handia izenaz ezagutzen dugu, eta, hain zuzen ere, funtsezko beste kontzeptu honi ateak irekitzen dizkion kontzeptua da: Antropozenoan bizirauten dugu, hau da, planetan giza jarduerak —batez ere industrialak— eragin dituen aldaketek markatutako aro berrian.

Aurrekaririk gabeko erronka globalek markatutako garaia da: pobrezia, gosea, desberdinkeria, eztanda demografikoa, biodibertsitatearen galera, klima-aldaketa, baliabideen agortzea eta gizakien eta haien ingurune naturalaren arteko deskonexio gero eta handiagoa. Arazo horiek, gure orainean eragiteaz gain, izugarri baldintzatzen dute hurrengo belaunaldien etorkizuna. Premiazkoa da bideragarriagoak, sozialki bidezkoagoak eta ekologikoki jasangarriagoak diren gizarteak eraikitzea, eta, horretarako, arlo ekologikoa eta soziala hertsiki lotzen dituen ikuspegi batean trebatutako pertsonak behar ditugu, ekosozialki hezitako pertsonak.

Trantsizioak behar dira arlo politikoan, ekonomikoan, kontsumoan… eta hezkuntzan? Hezkuntzak funtsezko zeregina du ezinbesteko trantsizioan. Hausnarketa ororen erdigunean bizitza kokatzen duen hezkuntza, ekonomia kapitalistaren zentralitatea alboratuz. Kontua ez da soilik ezagutzak transmititzea, baizik eta munduaren ulermen kritikoa sustatzea, justiziaren eta jasangarritasunaren balioak sustatzea eta pertsonak ahalduntzea,

[1] BPG: Barne produktu gordina.

askatasunez eta demokratikoki, modu kontzientean eta arduraz jokatzea erabaki dezaten.

Testuinguru horretan, 2022an, Hezekos (HEZkuntza EKOSoziala) elkartea sortu da, beren ekodependentziaz eta interdependentziaz jabetzen diren hainbat pertsona aktibok, kritikok eta konprometituk osatutako komunitate bat. Elkarteak, eskolako eta eskolaz kanpoko hainbat esparrutatik, euskal gizartean Hezkuntza Ekosoziala aldarrikatu, sustatu eta garatu nahi du, eta ikuspegi antropozentristaren praktika «eraldatzaileak» salatzen ditu.

Ekologia, gizartea eta etika uztartzen dituen ikuspegi batetik hezkuntza-ikuspegiak birpentsatzeko premia horretatik sortu da Hezkuntza Ekosozialaren Hiztegia. Hiztegi hau ez da soilik terminoen laburbilketa bat, planetarekin eta besteekin dugun harremanari buruz hausnartzeko gonbidapena da. Hemen bildutako terminoek definizio batera hurbiltzen gaituzte, baina, gainera, ekintzarako eta itxaropenerako bideak irekitzen dituzte, pentsatzeko eta bizitzeko modu berriak eskatzen dituen mundu batean.

Proiektu hau irakasle, aktibista, ikertzaile eta arlo ezberdinetako profesionalen arteko elkarlan komunitario baten emaitza da. Hasiera batean, dokumentuan sartzeko 150 termino baino gehiago aurkeztu ziren. Horrek, hiztegi baten ordez, entziklopedia bat suposatuko zukeen, eta ez zen gure ideia. Nolanahi ere, dokumentu honen parte ez diren horiek pixkanaka elikatuko dute monografia honekin abiatzen den Hezkuntza Ekosozialeko etorkizuneko web-entziklopedia proiektua.

Termino bakoitza kontuz ez konpromisoz landu da, ulertuta hezkuntza ez dela helburua, baizik eta gizarte bidezkoagoak, erresilienteagoak eta beren ekodependentziaz eta interdependentziaz kontzienteagoak eraikitzeko bitartekoa. Gainera, hiztegi hau sortzeko prozesua ikaskuntza kolektiboko ariketa bat izan da. Horretan, begirada, estilo eta esperientzia guztiek multzoa aberastu dute.

Orrialde hauetan, Hezkuntza Ekosozialeko 70 termino, kontzeptu edo ideia baino gehiago agertzen dira, alfabetikoki ordenatuta, edozein hiztegitan bezala. Termino bakoitzaren hasieran, definizio labur bat ematen dugu, eta, ondoren, zenbait alderditan sakontzeko elementuak, eztabaidarako osagaiak. Horien helburua gure lurraldera hurbiltzea eta proposatutako enuntziatuaren ulermena osatzen saiatzea da. Horri gehitzen zaizkio —kontzeptuak hala ahalbidetzen duenean— Hezkuntza-baliabideak eta irakasleen prestakuntza, horiek programazioan edo ikasgelan zuzenean erabili ahal izateko: baliabideak euskaraz (eus), gaztelaniaz (gaz), katalanez (cat) edo ingelesez (in). Azkenean, deskribatutako kontzeptuarekin lotutako terminoen zerrenda aurkituko duzue. Lana, bere garapenean erabilitako bibliografia zabalarekin amaitzen da. Horretan gai ezberdinetan sakontzen laguntzen duten dokumentuak aurkituko dituzue.

Espero dugu baliabide akademiko bat ez ezik, inspirazio-iturri izango den tresna praktiko bat ere eskaintzea, irakasleentzat, ikasleentzat eta mundu jasangarriago eta bidezkoago baterako trantsizio ekosoziala sustatzeko interesa duen edonorentzat. Krisi eta aldaketa garai honetan, ezagutza ekosoziala inoiz baino beharrezkoagoa da. Hiztegi hau ekarpen txiki baina esanguratsu bat da ahalegin kolektibo erraldoi eta beharrezko horretarako.

Gure esker ona eta aintzatespena adierazi nahi dizkiegu testu zorrotz eta irisgarri, ñabartu eta kritiko, oinarritu eta gaur egungo hauek bi hizkuntzatan idazteko lana baldintzarik gabe hartu duten pertsona guztiei. Uste dugu ondo bete dutela erronka, eta, horregatik, bihotzez eskertzen dizuegu zuen lankidetza, aurrerantzean ere lankidetzan jarraituko dugulakoan.

Hezekos

A

AHALDUNTZEA

Ahalduntzea prozesu bat da, zeinaren bidez pertsonek beren bizitzaren kontrola hartzen duten. Hau da, haren bitartez, beren agendak ezartzen dituzte, trebetasunak bereganatzen dituzte (edo beren trebetasunengatik eta ezagutzengatik aintzat hartuak dira) eta, hala autoestimua handitzen dute, arazoak konpontzen dituzte eta autogestioa garatzen dute. Prozesu eta emaitza bat da aldi berean (IDRC, 1998).

Ahalduntzea, azken batean, «boterea ematea da, eta pertsonak beren «boterea» eraikitzeko eta gauzatzeko gai izatea: egin ahal izatea edo ez egitea, negoziatu ahal izatea, eutsi ahal izatea, eragin ahal izatea, ezarritako arauak hautsi ahal izatea, salatu ahal izatea, konbentzitu ahal izatea, exijitu ahal izatea, erabaki ahal izatea, sortu ahal izatea, eraldatu ahal izatea (Gutiérrez Bastida, 2022).

Kontzeptua 1985ean sortu zuen DAWN Hegoaldeko eta Iparraldeko emakume- eta ikertzaile-taldeen sareak[2], hain zuzen ere, emakumeek baliabideak (materialak eta sinbolikoak) kontrolatzeko eta eremu guztietan dituzten gaitasunak eta protagonismoa indartzeko prozesua zehazteko. Ikuspegi feministatik, emakumeen ahalduntzeak barne hartzen ditu aldaketa indibiduala zein ekintza kolektiboa, eta emakumeen mendeko posizioa genero gisa birsortzen duten prozesuak eta egiturak errotik aldatzea dakar (Hegoa, 2006).

Ia 40 urtetan, kontzeptuak asko zabaldu du bere aplikazio-eremua, eta, gaur egun, emakumeez gain, kolektibo zaurgarriak eta arrisku-egoeran dauden horiek ere hartzen ditu; hau da, pobrezia edo gose egoeran, hezkuntzarik gabe edo osasunik gabe dauden pertsonak eta kolektiboak.

[2] dawnfeminist.org.

Freirek (2008) proposatzen duen ikuspegiaren arabera, hezkuntza parte hartzeko prozesu eraldatzailea da, eta, horretan, «irakastea ez da ezagutzak transferitzea, norberaren ekoizpen edo eraikuntzarako aukerak sortzea baizik».

Hala, beren bizimodua baldintzatzen duten gizarte elementu eta egiturei buruz ikasten duten horien ezagutzatik abiatzen da ikuspegi hura, ahalduntze-prozesu bat garatzeko; hau da, errealitatearen eraldaketan askatasunez eta kontzienteki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, estrategiak eta trebetasunak eskuratzeko prozesu bat garatzeko.

Hezkuntza ekosozialak protagonismoa ematen dio bai ikasten duenari eta bai irakasten duenari, *beste pertsona* ahaldundu nahian, eta, aldi berean, bere burua ahalduntzen du bere interdependentzia harremanetan. Halaber, inklusiorako eta ahalduntzerako, alternatibak proposatzeko eta ekologia eta gizarte aldetik eraldatzaileak diren ekintzak garatzeko eremuak eskaintzen ditu. Hala, hezkuntza-sisteman gaitasun berri bat sartzea eskatzen du horrek, hain justu, hasieratik egon beharko lukeena: iraunkortasunerako gaitasun ekosoziala (Arri, Etxebarria eta Gutiérrez, 2020).

Irakaskuntzaren helburua, beraz, norbait ahalduntzea da, prozesuan lagunduz eta zerbait lortzeko baliabideak emanez, eta, aldi berean, segurtasun pertsonala eta ekintzarako prestakuntza indartzea.

Azken batean, aktibismo ekosoziala ahalduntzearen ondorioa da.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) IKT Eskola. (2022). *Utzidazu lekua. Gida didaktikoa*. Eusko Jaurlaritza-Bizkiako Foru Aldundia. eima.orex.es/Bideoak/f3ef2ff59fd35d84655de9bf706e4c50_61226.pdf.

(eus) IPES: Emakumeak eta irudikapen berriak. www.cineddhh.org/eu/gida-didaktikoak/zinemateka-lehen-hezkuntza/2-emakumeak-eta-irudikapen-berriak/#g.

(eus) Sagredo, M., Martirena, O., y Txueka, A. (2020). *Begirada kontzienteak. Gida didaktikoa*. Calcuta ondoan-Ikertze. calcutaondoan.org/wp-content/uploads/pdf/Begirada-Kontzienteak-Gida-Didaktikoa.pdf.

(eus) Unesco Etxea: Garapen Jasangarrirako Helburuak. Bigarren Hezkuntzarako Gida didaktikoa. unetxea.org/dokumentuak/gida-didaktikoa-GIH-bigarren-hezkuntza.pdf.

(eus-gaz) EHU. Participación infantil y adolescente en órganos de decisión: experiencias y orientaciones sobre los Consejos de la Infan-

cia y Adolescencia / Haur eta nerabeen parte-hartzea erabaki organoetan: Haurren eta nerabeen kontseiluen esperientziak eta aholkuak. https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/UPEPD259684.pdf.

(gaz) Berritzegune Gasteiz. Empoderamiento de los estudiantes. www.berrigasteiz.com/monografikoak/digitalizazioa/digcompedu/docs/DigCompEdu_atal_5.pdf.

(gaz) Gobierno de Canarias. Área 5. Empoderamiento del alumnado. www3.gobiernodecanarias.org/medusa/ecoescuela/cdd/areas-del-marco-comun-de-competencia-digital-docente/area-5-empoderamiento-del-alumnado/.

(gaz) Oller2Colegios. Empoderamiento Estudiantil Mediante Proyectos Educativos. oller2colegio.es/empoderamiento-estudiantil-a-traves-de-proyectos-educativos/?expand_article=1.

(gaz) Vecindae. Empoderamiento Estudiantil: Transformando la Educación Secundaria a través de la Autonomía y la Autoeficacia. vecindae.com/empoderamiento-estudiantil-transformando-la-educacion-secundaria-a-traves-de-la-autonomia-y-la-autoeficacia/.

Erlazionatutako topikoak

Krisi ekosoziala, Ekoherritartasuna, Balioak.

ANDROZENTRISMOA

Ikus *Antropozentrismoa*.

ANTROPOZENOA

Antropozeno hitza, etimologikoki, grezieratik dator: *anthropos*, gizakia, eta *kainos*, berria. Beraz, Antropozenoa giza jardueraren eragina ezaugarri duen denbora edo aro berria izango litzateke.

Antropozenoa kontzeptu polisemikoa da. Alde batetik, giza jarduerak biosferan izan duen eragin handia kontuan hartuta, aro geologiko berri bat ezartzeko proposamenari dagokio; hain zuzen ere, Lurraren historian Kuaternarioaren gaur egungo aroa den Holozenoaren hurrengoa izango litzatekeena. Aro berri bat, «hiri-, nekazaritza- eta industria-sistema mundu mailan hedatzearen eta munduko biztanleriaren aparteko hazkundearen ondorio dena» (Fernández Durán, 2010).

Terminoak, bada, gizakien industria-jardueraren ebidentziek, hondakinek eta ondorioek markatutako aldi geologikoari ematen dio izena, horiek

arrasto iraunkorrak uzten baitituzte geruza geologikoetan: sedimentu berriak CO_2 atmosferiko gehiagorekin, aldaketak karbonoaren isotopo erradioaktiboen ehunekoetan, leherketa nuklearren arrastoak, lurzoruaren erabileren eraldaketak, industria astunaren hondakinak, aluminio-, zementu-, plastiko-, mikroplastiko- eta bestelako produktu sintetikoen metaketak, lindano-metaketak Antartikan, oilasko-hezurrak, etab. (Gutiérrez Bastida, 2018).

Bestetik, bere dimentsio geologikotik kanpo eta natur zientziez haratago, beste ikuspegi batzuek uste dute hura kontzeptu informal hutsa dela, baina izugarri lagungarria dela gure planetaren egungo unea eta historia berria deskribatzeko, bere historia ekologikoaz haratago. Izan ere, azken horren ezaugarri gisa, giza jardueren nagusitasuna dugu, baita jarduera horiek Lurraren sisteman eta gizakiengan eta gainontzeko izakiengan dituzten inpaktuak ere. Hitza hainbat sektoretan barneratuta dago dagoeneko, hala nola artean, arkitekturan, literaturan, aktibismoan, historian eta gizarte zientzietan (Swindles, Roland eta Ruffell, 2023).

80ko hamarkadan, Stoermer biologo estatubatuarrak Antropozenoa terminoa informalki erabiltzen zuen bere ikasle eta lankideen artean, hain zuzen, planetari dagokion krisi ekosozialaren ondorioak ulertzen laguntzeko. Geroago, Crutzen-ek (Kimikako Nobel sariduna 1995ean, Molina eta Rowland-ekin batera, kimika atmosferikoari buruz egindako lanagatik eta, bereziki, ozono atmosferikoaren eraketaren eta deskonposizioaren ikerketan egindako lanagatik) horri buruz idaztea proposatu zion Stoermerri.

Hain zegoen sinetsita Crutzen horrekin, non 2000. urteko otsailean, Mexikoko Cuernavaca hirian ospatutako nazioarteko biltzar batean, Holozenoan zehar gizakiak planetan izandako eraginaren intentsitateari buruz eztabaidatzen ari zirela, zutitu egin zen eta honako hau esan zuen: «Ez! Ez gara Holozenoan bizi, Antropozenoan baizik!». 2000ko maiatzean, Crutzenek eta Stoermerrek aro geologiko berri bati buruzko hipotesia argitaratu zuten Geosfera-Biosfera Nazioarteko Programaren (IGBP) *Global Change News Letter* buletinean, 2002an, Crutzenek gaiari buruzko gogoetak garatu zituen (Crutzen, 2002).

Zientzialari horien ikuspegiaren arabera, Lurra klima-baldintza nahiko egonkorrak zituen Holozenotik ateratzen ari da, eta, pixkanaka, aurreikusteko zailak diren ezaugarriak dituen Antropozenoan sartzen. Trantsizio horren arrazoia, bada, kapitalismoan oinarritutako giza-jarduerak lurreko sistemetan eragindako inpaktua da; izan ere, horrek itzulerarik gabeko galerak eragin ditu sistema sozial eta naturaletan (Maldonado, 2018).

Antropozenoa, beraz, garai berri bat da, eta, horretan, sakon aldatu dira garrantzi geologikoa duten eremu asko (Gutiérrez Bastida, 2018):

a) Sedimentuen higadura eta desplazamendua, prozesu antropogenikoei lotuta, hala nola kolonizazioari, nekazaritzari, urbanizazioari eta planetaren berotzeari.
b) Atmosferaren, ozeanoen eta lurzoruen konposizio kimikoaren aldaketak, eta, horien artean, karbonoa, nitrogenoa, fosforoa eta metalak bezalako elementuen banaketan gizakiak eragindako aldaketa nabarmenak.
c) Perturbazio horiek eragindako ingurumen-baldintzak, hala nola berotze globala, ozeanoen azidifikazioa eta ozeanoetan «eremu hilak» agertzea.
d) Lehorreko eta itsasoko biosferaren metamorfosia, hainbat habitat eta espezie galtzearen, beste batzuen inbasioaren eta aipatutako aldaketa fisiko eta kimikoen ondorioz.
e) Interpretazio horren arabera, gizateria indar geologiko globala da.

Geologiaren baitan hainbat hamarkadaz eztabaidatu ondoren, Antropozeno terminoa ez da formalki onartu bere kontzepzio geologikoan (Johnson, 2024). Hala ere, Swindles, Roland eta Ruffellen arabera (2023) haren esanahiak bere ahalmena eta erabilgarritasuna mantentzen du irudipen kultural eta filosofiko gisa.

Egile horien ustez, berrespen formalik ez izateak eskaintzen duen malgutasunak, bada, terminoa irudimenezko modu sortzaile batean erabiltzeko aukera eman du, hainbat diziplinatako eta jatorritako profesionalen artean desberdinak diren interpretazio eta inplementazioekin. Horregatik, kontzeptua esperimentu intelektual eta filosofiko liluragarritzat hartzen dute. Izan ere, Antropozenoa garai geologiko ofizial gisa formalizatuko balitz, haren esanahia murriztuko litzateke, kontzeptua erabiltzen eta aplikatzen den forma berritzaileak baliogabetuz. Gure planetaren egungo historia deskribatzeko, Antropozeno kontzeptu informal huts gisa erabiltzea iradokitzen da. Izan ere, industria-gizarteen metabolismoaren eta horiek Lur sistemako biztanleengan duten eraginaren nagusitasun gero eta handiagoa da historia horren ezaugarri nagusia.

Bertsio horrek, alde batetik, ikuspegi geologikoa baztertzen duten alderdi sozialak biltzen ditu, eta, bestetik, ez ditu gizaki «guztiak» krisiaren eragile gisa biltzen. Aitzitik, munduko biztanleriaren hainbat sektorek jasan behar izan dituzten kalteberatasun-baldintzak salatzen ditu, hainbat alderdiri dagokienez: gosea, osasuna, pobrezia, hezkuntza edo berdintasuna. Gizakiok planetaren ziklo handiak aldatzeko dugun gaitasun izugarria nabarmentzen du.

Testuinguru horretan, Antropozeno terminoaren esanahiari erreferentzia egiten dioten beste kontzeptu batzuk agertzen dira, baina ikuspegi desberdinetatik, eta gizakiari, teknikari, kapitalari eta abarri emandako zentraltasunean desberdintzen direnak:

- Kapitalozenoa edo Mendebaldarzenoa: hitz honek eredu ekonomiko kapitalistan zentralizatzen ditu krisi ekosozialaren kausak. Industria Iraultzarekin batera, erregai fosilak erretzen eta berotegi-efektuko gasak atmosferara isurtzen hasi ziren. Iraultza ez zen hutsune sozial batean gertatu; aitzitik, produktuak sortzeko eta planetako edozein lekutara mobilizatzeko berrikuntza teknozientifikoa bultzatzen duen sistema ekonomiko batean sortu zen. Ikuspegi honek, gainera, ohartarazi egiten du kapitalismoak botere-taldeak dituela, eta horiek ekoizpen- eta kontsumo-dinamikak ezartzen dituztela, baliabide legalen, politikoen, erlijiosoen, psikologikoen eta militarren bitartez (Ramirez, 2017).
- Teknozenoa: ikuspegi honek garapen teknikoaren eta teknologikoaren eta gobernagarritasun algoritmikoaren ondorio planetarioak nabarmentzen ditu (Costa, 2021).
- Chthuluzenoa: pentsamendu antropozentrikoa gainditu nahian, kontzeptu honek adierazten du gizakiak ez direla aro berriko eragile garrantzitsu bakarrak, erreakzionatzeko gai diren gainontzeko izakiak ere badira. Ordena aldatu egin da: gizakiak lurrekoak dira eta lurrarekin daude, eta lur horren botere biotikoak eta abiotikoak dira historia nagusia (Haraway, 2016).
- Oilozenoa: ikuskera azaltzen duenez, oilasko modernoak gure biosfera aldatuaren sinbolo dira, eta etorkizuneko geruzetan oilasko-hezur kopuru handiak agertuko dira, azken hamarkadetan horien kontsumoak izan duen hazkunde esponentzialaren ondorioz (Bennett et al., 2018). Urtero 70.000 milioi oilasko hiltzen dituzte hazkuntza industrialeko sisteman; oilaskoak berrogei egunetan hazi eta hiltzen dituzte. Munduko berrogeita hamar oilasko-ekoizle handienek urteko ekoizpenaren % 36 hartzen dute, eta gizentzeko oilaskoen genetikaren % 90 bi enpresak kontrolatzen dute. Oilaskoek, gainera, artoaren urteko munduko ekoizpenaren % 10 eta sojarenaren % 15 kontsumitzen dute.

Antropozenoari buruzko eztabaida baliagarria izan da honako haueta-rako: gizakiok planetan ditugun inpaktu negatiboak ugaritu direla nabarmentzeko; geologoak ez diren zientzialariak lur-sisteman interesatzeko; geologia klima-aldaketari lotutako gaietarako «garrantzitsu» bilakatzeko; eta komunikabideei izen erabilgarri eta «merkaturagarri» bat emateko. «Antropozenoa» terminoak klimaren eta ingurumenaren arloan ekintza positiboak sortzeko tresna izan beharko luke. Termino informal hutsa izaten jarraituko du, eta kontzeptu filosofikoa izaten jarraituko du. Gaur egun, ez da termino bat. Ez da ez muga, ez gertaera, ez garaia. «Definitu gabe» uzten bada, liluragarria izango da ikustea nola kontzeptu hori —beste askorekin lotuta dagoena ikerketa zientifikoaren komunitatearen barruan zein kanpoan— denboran garatzen den, diziplina desberdi-

nen bidez, eta gero eta aplikazio gehiagotan (Swindles, Roland eta Ruffell, 2023).

Antropozenoa kontzeptua mende honetan proposatutako beste kontzeptu batzuei lotuta dago, hala nola Taula Planetarioa, Azelerazio Handia edo Muga Planetarioak bezalako kontzeptuei (Stockholm Resilience Centre, 2015).

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) [Bideoa] Teknopolis. [Bideoa] Antropozenoa, aro geologiko berria? www.eitb.eus/eu/telebista/programak/teknopolis/bideoak/osoa/2103844/bideoa-geologia-antropozenoa-aro-geologiko-berria/.

(gaz) [Fitxa] Fuhem. La Gran Aceleración: un despegue que desequilibró nuestro planeta. www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Tiempo_Actuar/2019/La-Gran-Aceleracion.pdf.

(gaz) [Bideoa] Fuhem (2017). *Cómo educar en el Antropozenoa.* I Jornadas de Educación Ecosocial. www.youtube.com/live/PB1fhBguJRE?si=5lIaQOnlOzYEV9N2.

(in) Centro de la Resiliencia de la Universidad de Estocolmo. www.stockholmresilience.org/.

Erlazionatutako topikoak

Antropozentrismoa, Krisi ekosoziala, Azelerazio handia.

ANTROPOZENTRISMOA

Antropozentrismoa (*antropos* = gizaki), ingurumenaren eta gizateriaren arteko harremanez arduratzen den balio eta ekintza multzoa da. Gizakiak izaki bizidun eta bizigabeen gainean duen dominazioan oinarritzen den jarrera moral bat da. Antropozentrismoaren arabera, naturak sortzen duen guztia gizakiok aprobetxatzeko da.

Lehenengo gizakiak duela bi milioi eta erdi urte inguru agertu ziren Afrikan. Ordutik aurrera, gure espeziea hedatu egin da testuinguru natural batean. Naturaren eta gizakiaren arteko harremanak hainbat ikuspegik baldintzatzen dituzte.

Lehenengo gizakiak animistak ziren, hau da, beraientzat elementu batzuek (eguzkia, zuhaitzak, lainoa…) maila goreneko espiritua edo arima eta boterea zuten. Gainontzeko erlijioak agertzearekin batera espiritu goren horiek jainko bilakatu ziren. Ikuspegi horri teozentrismo (*teo* = jainko)

deitzen zaio, eta Erdi Arora arte iraun zuen Europan. Jainkoa, erlijioa eta kleroa ziren bizimoduaren ardatz.

Europako teozentrismoa katolizismoan oinarritzen zen, baina Konstantinopla —eliza ortodoxoaren erdigunea zena— musulmanen eskuetan erori zenean, eta lurralde «berriak» aurkitzearekin eta kultur gune berriak (batez ere Italiar penintsulako hiriak) sortzearekin batera, aro berri bat hasi zen. Horretan, bada, antropozentrismoa eta humanismoa garatu ziren.

Aro modernoan mugimendu protestante erlijiosoa sortu zen, katolikoen kontrarreforma eman zelarik. XV. eta XVI. mendeetan Europan, aldaketa erlijiosoez gain, aurrerapen zientifiko handiak egon ziren, adibidez, Kopernikok teoria heliozentrikoa garatu zuen (*helios* = eguzki. Eguzkia erdigunean dago eta planetak bere inguruan mugitzen dira) eta Gutenbergek inprenta asmatu zuen.

Kulturgune berriak sortzearekin batera, aro moderno berri bat hasi zen; Humanismoa, alde batetik, eta Antropozentrismoa, bestetik. Grezierazko *antropos* hitzak gizaki esan nahi du, eta aurreko garaietako doktrinek eta korronte ideologikoek ez bezala, antropozentrismoak errealitatearen erdigunean jartzen du gizakia.

Ikuspegi hura nagusitu egin da azken mendeetan, eta horrek gaur egun bizi dugun ingurumen-krisia eragin du. XX. mendearen bukaeran beste ikuspegi batzuk agertu ziren eta, horien artean, biozentrismoa (*bios* = bizitza) nabarmentzen da. Haren arabera, izaki-bizidun guztiek errespetu morala merezi dute, eta bizitzaren balioa gainontzeko gauza guztien gainetik dago.

Antropozentrismoak, gure garaiko ideia kontserbazionista asko jasotzen baditu ere, bilakaera bat izan du historian zehar, bestelako xehetasun eta baloreak gehituz. Hartara:

- Abderako Protagorasek, Grezia klasikoaren garaian (K.a. V. mendean), honako hau esan zuen: «*Gizakia da izaki guztien neurria*».
- Geroxeago, erromatar inperioaren garaian, Jenofontek beste hau esan zuen: «*Gizakiari dagozkion gaiak soilik dute dimentsio morala*».
- Errenazimentuan, aldiz, honako ideia hau nagusitu zen: «*Gizakia naturaren arerioa da berorren menderatzailea eta jauna den neurrian*».
- XVIII-XIX. mendeetan, Kantek aldaketa garrantzitsuak egin zizkion kontzeptuari esatean gizakiak besteenganako betebehar gisa hartzen duela bereganako arduratzat hartzen duen hori. Beraz, gizakiak naturarekiko eta animaliekiko dituen ardurak, zeharka bada ere, berekiko dituen betebeharren parte dira.
- XX. mendean, Jonas filosofoak honako adierazi zuen 1979an:

> Gizakia naturaz jabetu da gupidarik gabe, eta agertzen hasi dira, dagoeneko, teknikaren botere suntsigarriaren ondorioak». Haren ustez,

> «gizakiaren biziraupena ziurtatzeko, premiazkoa da etika berri bat, beharrezkoak dira balio berriak. Horretarako, gizakiak eten egin beharko ditu bere handinahi horiek; baina ez zentzurik ez dutelako, baizik eta giza espeziearen desagerpena ekiditeko.

- Ildo beretik, 1997. urtean, Gómez Gutiérrezek, biozentrismoaren planteamenduetara hurbilduz, honako hau esan zuen:

> Naturak merezi duen errespetua, bada, sistema baten elementu diren espezien biziraupena bermatzen duen eskubidea da. Beraz, pentsaera antropozentrikoaren oinarriak etika ekologikoan daude oinarrituta; izan ere, gizateriaren arazoei lehentasuna ematen deigun neurrian, gure espeziearen biziraupenari ematen diogu lehentasuna.

Nolanahi ere, antropozentrismoaren arabera, gizakien etorkizuna da gai nagusia, eta planetaren etorkizuna gizakiaren menpe dago. Mendebaldeko kulturan hura izan da pentsaera nagusia gaur egun arte. Batzuetan, etnozentrismo ere deitzen zaio, zeren jarrera horren interes nagusia planetako baliabideen % 80 kontsumitzen duten herrialde industrializatuetako biztanleen (hau da, munduko biztanleen % 20ren) interesei erantzutea baita, eta ez gizaki guztion interesei. Era berean badu kutsu *androzentrista* bat ere; izan ere, gizonak hartzen ditu kontutan batez ere, eta emakumeak gutxiesten ditu.

Jarrera antropozentrikoak berrikuspena eskatzen du, hura baita arazo ekosozial ugari (iparraldearen eta hegoaldearen arteko desoreka eta emakumeen pobrezia barne) sortu dituen garapen-eredua mantentzen duen oinarri morala.

Bestalde, jarrera moral horren aurrean, «antropozentrismo ahula«, «antropozentrismo sendoa«, «biozentrismoa» eta «ekofeminismoa» aipa ditzakegu. Antropozentrismo ahulak, bada, gizateriak talde modura dituen interesak defenditzen ditu banakako interesen gainetik, eta arrazoia erabiltzen du horiek bereizteko. Antropozentrismo jakintsua ere esaten zaio ondasunen banaketa egiteko justizia-arauetan oinarritzen denean eta luzera begira biosferaren ongizatea kontutan hartzen duenean. Jarrera hori onartzeak aldaketa garrantzitsuak eragingo lituzke ingurumenarekiko dauzkagun jarrera kolektiboetan. Halere, bere emaitzek ez dute balio handirik izan orain arte; arazoen azalean geratzen baitira eta ez baitute arrazoietan sakontzen.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

Hona hemen zenbait estrategia:

- Eztabaidak: Naturaren eta gizakien arteko harremanen zer ikuspegi egon dira historian zehar? Zer ikuspegi izan dira edo daude Euro-

patik kanpoko beste erlijio edo gizarte batzuetan? Zein dira ingurumen-krisia gainditzeko ikuspegirik egokienak?

- Artikulu bat irakurri eta ideiak kontrastatu: zein ikuspegi nabarmentzen da? Zein dira ikuspegi horren ezaugarriak?
- Ingurumen-arazo bat planteatzea eta ikasle-taldea perspektiben arabera banatzea: zer irtenbide proposatzen dira ikuspegi desberdin bakoitzetik?, zer motatakoa?, zer ondorio izan ditzake?

(eus) Azkarraga, J. (19 de julio de 2021). Atxaga eta Boff, bi adierazpen. *Argia*. www.argia.eus/argia-astekaria/2027/atxaga-eta-boff-bi-adierazpen.

(eus) Caño, A., Hernandez, R. eta Altzibar, K. (2003): *Urdaibai proiektu didaktikoa*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Lurralde Antolamendua eta Ingurumen Saila. Vitoria-Gasteiz. www.euskadi.eus/contenidos/libro/urdaibai_proiektu_didaktikoa/eu_10679/adjuntos/0.pdf.

(eus-gaz) Ingurugela (1996): *Materiales de Educación Ambiental/ Ingurugiro Hezkuntzarako materialak*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Lurralde Antolamendua eta Ingurumen Saila. Vitoria-Gasteiz. bit.ly/IngHezkMaterialak_Ingurugela.

Erlazionatutako topikoak

Antropozenoa, Biozentrismoa, Ekoherritartasuna.

AZELERAZIO HANDIA

Azelerazio Handia giza jardueraren garapena handitzen duen prozesu bat da, hazkundeari eta ekonomiaren globalizazioari lotuta. Horretan, planeten mugak gainditzen dira eta Lurraren karga-ahalmena eutsiezin bihurtzen da. Giza jarduera asko XX. mendean zehar sortu ziren, eta, 1950etik aurrera, horien garapena eta hazkundea bat-batean bizkortu zen. Zalantzarik gabe, XX. mendeko azken 50 urteetan planetaren historiako eraldaketa ekologikorik eta sozialik azkarrena eta arriskutsuena gertatu zen.

Ruiz Gilen arabera (2022), Azelerazio Handiaren kontzeptua 1999tik 2003ra bitartean garatu zen, 1995eko Kimikako Nobel Saridun Crutzenek zuzendutako Geosfera-Biosfera Nazioarteko Programan (IGBP). Lehen aipatu bezala, Crutzen izan zen Stoermerekin batera Antropozenoa aro geologiko berri gisa proposatu zuena. IGBP programaren 2004ko azken argitalpenean ageri ziren grafikoak, une horretatik aurrera, Taula Pla-

netario gisa ezagutuko dira, eta Azelerazio Handiaren kontzeptua iradokiko dute.

Kontzeptu horrek, bada, Karl Polanyik (1989) *Great Transformation. Criticism of economic liberalism* lanean proposatutako Eraldaketa Handiaren kontzeptuarenkin jolasten du. Liburu horretan Polanyik liberalismo ekonomikoaren kritika egiten du.

Hala, Taula Planetarioari buruzko ikerketak giza jardueraren Azelerazio Handiaren zirriborroa ematen du, 1750ean industria iraultza hasi zenetik 2010era arte, eta horrek Lur Sisteman eragindako aldaketak aztertzen ditu, hala nola berotegi-efektuko gasak, ozeanoen azidifikazioa, deforestazioa eta biodibertsitatearen narriadura.

Antropozenoaren hasiera-data gisa ezartzeko aukera guztien artean, Taula Planetarioan agertzen den Azelerazio Handiaren hasiera da sendoena, alde handiz, Lur Sistemaren zientziaren ikuspegitik. Hala, XX. mendearen erdialdetik aurrera agerikoa izango da Lur Sistemaren egoera eta funtzionamendua aldatzen ari direla. Izan ere, aldaketa horiek Holozenoaren aldakortasun-maila gainditzen dute eta giza jardueren ondorio dira, ez aldakortasun naturalarena (Steffen *et al.*, 2015).

XX. mendearen erdialdetik aurrera, Lur Sistemaren egoeran eta funtzionamenduan funtsezko aldaketak gertatu ziren, Holozenoko aldakortasun-mailatik haratago, eta giza jarduerek bultzatuta. Beraz, 1950eko data, edo, zehazkiago, 1945. urtea, hau da, New Mexicoko basamortuan lehen bonba atomikoa leherrarazi zuten urtea da Azelerazio Handiaren eta, ondorioz, Antropozenoaren erreferentzia; hain zuzen ere, horrek geruza geologikoetan arrasto erradioaktiboa uzteko duen gaitasunagatik.

Beste alde batetik, zenbaitek ikuspegi konplexuagoa eta dibergenteagoa eskaintzen dute, aurreko ekarpenetatik abiatuta. Esate baterako, Shoshitaishvilik (2020) Antropozenoaren eta Noosferaren paradigmaren jatorri diren tradizio zientifiko-intelektualak aztertzen ditu, eta eraldaketa globalaren ia kontrako ebaluazio normatiboak alderatzen ditu. Antropozenoa hausturaren, materialtasunaren eta ohartarazpenaren paradigma gisa sortu da, haustura material-energetiko gisa; Noosfera, aldiz, garapenaren, buruaren/kulturaren eta itxaropenaren paradigma gisa, krisi ekosozialari buruzko kontzientzia globalaren handitze gisa. Halaber, bi paradigma dibergente horiek planetaren aldaketaren ikuspegi bateratuago eta orekatuago batean hurbiltzeko izan diren ahaleginak ere nabarmentzen ditu.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Monsó, Á. (2019). *La Gran Aceleración: Un despegue que desequilibró el planeta*. Fuhem.

Erlazionatutako topikoak

Planetaren mugak, Nahikotasuna, Trantsizio ekosoziala.

AZTARNA EKOLOGIKOA

Aztarna ekologikoa gizakiak munduko ekosistemetan egiten duen presioa edo kaltea neurtzeko tresna bat da, gizakiak ingurumenean duen eraginaren neurria, bereziki ondasun komunen kontsumoari eta hondakinen ekoizpenari dagokienez. Hainbat faktore kontuan hartuta kalkulatzen da, hala nola pertsona batek edo komunitate batek kontsumitzen dituen baliabideak ekoizteko eta sortutako hondakinak —hala nola karbono dioxidoaren isuriak— xurgatzeko behar den lur eta ur kantitatea.

Lur emankorreko azalera-unitatetan (hektareatan) adierazten da, hau da, hektareatara ekartzen da giza jardueren eragina, baliabideak lortzeko ustiatutako lur-eremuei zein sortutako hondakinei dagokienez.

Beste alde batetik, Wuppertal Institutuak «Beharrezko Material Guztia» (MBG, ingelesezko siglengatik) adierazlea garatu du. MBG adierazle horrek, bada, ekonomia batek produzitzen dituen ondasunetan dauden baliabide naturalen kantitatea kalkulatzen du, masa erabiliz, baita produkzio horri lotutako ezkutuko fluxuak ere (baliabide naturalak lortzeko lekuz aldatutako materialak). Adierazle hori ekonomia bateko baliabideen erabilera eraginkorra den egiaztatzeko erabiltzen da. Baliabideen erabileraren eraginkortasuna hobetzea iraunkortasuna lortzeko aurrerapauso bat da.

Aztarna ekologikoaren garrantzia azpimarratzen duten zenbait kontu daude. Batetik, ingurumen-krisian dagoen gaur egungo gizartean, argi dago ingurumen helburuak lortzeko moduak aldatu behar direla. Aztarna ekologikoaren erabilerak gure estereotipoak eta ohiturak aldatzen lagunduko du, eta hori gizarte osoan, ekonomian, kulturan eta teknologian integratu beharra dago.

Aztarna ekologikoa kalkulatzeko metodoa (Rees eta Wackernagel, 1995), lurralde bateko ekonomiak eragiten duen inpaktu ekologikoa kalkulatzeko sortu zen, eta zentzu kuantitatiboa ematen dio honako ideia honi: hiri eta lurralde asko modu ez-iraunkor batean bizi dira; izan ere, bizitzeko okupatzen dutena baino askoz ere espazio handiagoa erabiltzen dute errekurtsoak lortzeko eta beraien hondakinak kanporatzeko. Beraz, haien bizi erritmoa ezin izango litzateke mundu guztira zabaldu, ez baitago leku fisiko nahikorik planetan.

Hau da, munduko lurralde industrializatuen eredu ekonomikoaren iraunkortasunik eza zenbakitan jartzea da aztarna ekologikoaren helburua.

Argi dago, era nabarmenean gainera, teknologia aurreratuenak erabiltzen dituzten herrialdeak direla aztarna ekologiko handiena sortzen dute-

nak, askoz gehiago kontsumitzen dutelako; eta, ostera, aztarnarik txikiena sortzen dutenak herrialde pobretuak direla.

Euskadiko aztarna ekologikoa mundukoa (2,75 hag/pertsona[3]) baino 1,57 aldiz handiagoa da. Gaur egungo premiei erantzuteko, gizakiok 1,6 planetari dagozkion baliabide naturalak kontsumitzen ditugu. Aztarna ekologiko global garbiak gora egiten jarraitu du azken hamarkadetan, eta, gaur egun, 20.000 milioi hektarea global (hag) ingurukoa da. Horrela jarraituz gero, 2020an 1,75 planeta beharko ditugu, eta 2050ean 2,5 planeta (Ihobe, 2019).

Hortaz, aztarna ekologikoak herrien artean dauden desparekotasunak nabarmentzen ditu. Gainera, herri garatuek ez dituzte beren mugen barneko baliabideak bakarrik ustiatzen, eta, ondorioz, gainontzeko herrietako ekosistemetan ere eragiten dute.

Adibidez, Espainiako Estatuko aztarna ekologikoa 5,4 hektarea globalekoa da eta ahalmen ekologikoa 2,52koa, beraz, defizit ekologikoa argia da. Non ustiatzen da hektarea multzo hori gure bizi-maila mantentzeko? Eta zein litzateke ustezko «datu iraunkorra»?

Aztarna Ekologikoa kontzeptuak baditu bere abantailak eta desabantailak ere, erabilerari dagokionez.

Abantailak:

- Sinplea eta erabilgarria da.
- Zientifikoki erakusten du gure garapen-eredua ez dela iraunkorra.
- Argi adierazten ditu Estatuak erantzukizuna hartzeko eta erantzule izateko dituen arrazoiak.
- Pertsonen kontzientziazioa ahalbideratzen du.
- Kanpo zorra eta zor ekologikoa aurrez aurre jartzea bultzatzen du.

Desabantailak:

- Kalkuluetan ez dira parametro guztiak kontuan hartzen.
- Gaur egun produktuak hemen ekoizten eta kontsumitzen dira. Aldagai hauek ez ditu era ekitatiboan neurtzen.
- Zenbait arrasto ekologiko puztuta daude «desoreka» horren eraginez.
- Emaitzak manipula daitezke aberastutako herrien alde.
- Prozesu zeharo desberdinak jarraitzen ari diren herrialdeen emaitzak parekatuta ager daitezke .

[3] hga: hektarea globala, Lurreko ekoizpen-hektarea guztien batez besteko produktibitatea adierazten duen neurri-unitatea.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Aplikazio bat ikasleekin jorratzeko: http://aztarnaekologikoa.blogspot.com.es/

(eus) Aztarna ekologikoa ezagutzen: jarduerak.ikasbil.eus/mod/scorm/player.php

(eus) Ingurugela (2004): Paisaia: gure aztarna ekologikoa. *IHITZA*, 13 zkia. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-6172/eu/contenidos/boletin_revista/ihitza_13/eu_ihitza/adjuntos/ihitza_13.pdf.

(gaz) Fundación Vida Sostenible: Evolución de la huella ecológica familiar. form.typeform.com/to/Oj71sKab?typeform-medium=embed-snippet.

(in) www.footprintnetwork.org/

(in) Visual Capitalistek egindako mapa interaktibo honetan, Nazio Batuen Populazio Dibisioaren biztanleria-estimazioak erabili dira munduko populazioa irudikatzeko, Lurrak 1.000 pertsona bakarrik izango balitu bezala. www.visualcapitalist.com/all-the-people-in-the-world-1000-peop/.

Erlazionatutako topikoak

Antropozenoa, Planetaren mugak, Zuhurtasun printzipioa.

B

BALIOAK

Giza balioak pertsonek beren bizitzan eta besteekiko harremanetan jarraitzen dituzten printzipio moral partekatuak dira. Indibidualki aplikatzen badira ere, kultura eta gizarte batean eratzen dira, eta, maiz, belaunaldi batetik bestera transmititzen dira. Giza balioen indarra handiagoa da zenbat eta partekatuagoak izan; hala, giza balio gorenak unibertsalak dira, gizaki guztiok oro har partekatzen baititugu[4].

Zibilizazio-krisiak larrialdi planetario batera garamatza; beraz, premiazkoa da gizarte-eredua eraldatzea, baldin eta bizitzak irautea eta gizakientzat modu zuzen eta solidarioan garatzea nahi badugu. Zeregin horretan aurrera egiteko, paradigma ekonomiko global sakratua ordezteaz eta patriarkatua alde batera uzteaz gain, erradikalak izan behar dugu eta arazoaren erroari erreparatu, baliorik eza gainditu eta erreferentziazko eredu etiko bat eraiki behar dugu. Einstein parafraseatzen, antropozentrismoak ez digu balio antropozentrismoak berak eragindako krisi ekosozial globalari aurre egiteko. Beste bide batzuk behar ditugu, beste paradigma batzuk. (Gutiérrez Bastida, 2018)

Iraunkortasun, ekitate edo gizarte-justizia bezalako balioek, batetik, eta gizarte- edo gizarte-hezkuntzako praxira eramateko proposatzen diren bitarteko balioek, bestetik, aukerak zabaltzen dituzte bizitzaren defentsako erretorika naturalista eta moralistatik haratago, dela giza bizitzaren defentsakoa (etika antropozentrikoetan), dela, oro har, bizitzaren edo sistema ekologikoen defentsakoa (etika biozentrikoak, ekozentrikoak, planetarioak edo ekosozialak).

[4] gizapedia.org/giza-balioak.

Axiologia gizakion balioak aztertzeaz arduratzen den diziplina da, eta balio moralak aztertzen dituen Etikarekin estu lotuta dago.

Morala (latinezko *mos, moris* hitzetatik) ohiturak edo jokabide-ohiturak sortutako arau multzo bat da, eta ezaugarriak eta debekuak finkatzen ditu. Horrela, jokabide bat ohiturarekin bat datorrenean, *morala* dela esango dugu. Bestalde, jokabide *immoral* bat ohituraren aurka doa, eta pertsona immoral batek moralaren aurka egiten du, nahita edo jakinaren gainean. Azkenik, pertsona *amorala* moraltasuna kontuan hartu gabe jarduten duena da; eta, beraz, bere ekintzak immoralak edo moralak izan daitezke.

Moral terminoak komunitate bateko kideen ohiturei eta arauei erreferentzia egiten dien bitartean, etika grezierazko *êthos* (izaera) hitzetik dator, eta giza egintzen ontasunari edo ontasunik ezari buruzko balio-judizioarekin eta guztien onarekiko ardurarekin identifikatzen da.

«Gutxieneko etika zibiko» bat nolabaiteko betebehar etikoa gauzatzeko modu zehatz bat litzateke, etika uniformeetatik urrun (gizarte anitzetan ezinezkoak), baina baita bizitza soziala/bizikidetza ezinezko egiten duen politeismo axiologiko (Weber) batetik urrun ere .

Gizalegezko moral horretara iristeko metodoa elkarrizketa etikoa da. Etika zibikoa osatzen duten balioak, funtsean, honako hauek dira: askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, errespetu aktiboa eta elkarrizketa edo, hobeto esanda, arazo komunak elkarrizketaren bidez konpontzeko prestasuna.

Balioak modu partekatuan identifikatzen dira, eta elkarrizketa/hausnarketa kritikoaren bidez, gure sinesmenez jabetu gaitezke. Sinesmenak, normalean, ekintza kolektiboa dira. Normalean, ez da norbere kontura sinesten, besteekin batera baizik, elkarrekin sinesten da. Sinesmenak indar kolektibo gisa jokatzen du.

Ideiak eduki egiten dira, sinesmenetan egon egiten da, Ortega y Gasset-ek arabera[5].

Identifikatutako balio gehienek nolabaiteko lotura dute moraltzat identifika ditzakegun balioekin. Ikuspegi etikoa funtsezkoa izango da horiek garatzeko. Gizarte mobilizazioak, azken finean, gizarteko kideek gizartean nagusi diren balioak onartzen ez dituztelako eta beste eredu komunitarioago batzuen alde egiten dutelako sortzen dira.

Trantsizio Ekosozialarako, bada, beharrezkoa da eraldaketa etikoa. Ez da klima aldatu behar, gizartea eraldatu behar da klima alda dadin. Etika ekosozial berri horrek errealitatea birpentsatzera garamatza, haren kon-

[5] Ortega y Gasset, J. (1940/2019). *Ideas y creencias.* Alianza Editorial.

plexutasuna ulertzera, arrazionaltasun berritua sortzera, jakintzen elkarrizketa berri bat eraikitzera, ezagutzera, axolagabekeria gainditzera, eta gure burua ekintzan garatzera, hain zuzen ere, ekologikoki jasangarriak eta sozialki bidezkoak eta ekitatiboak diren ekintza eraldatzaileetan.

Garatu beharreko balio ekosozialak dira, adibidez, bizitzarekiko errespetua, komuna den horrekiko errespetua, gizarte justizia, belaunaldi barruko eta arteko elkartasuna, bizikidetza eta inklusioa, erantzukizuna, ekitatea eta berdintasuna, koherentzia, lankidetza, elkarri laguntzea, zaintza-lanak...

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Antúnez, Andrea y Quiroga, Eva (2023). Jasangarritasunerako hezkuntza ikaskuntzaegoeren bidez. Irakasleentzako gida teoriko-praktikoa. unetxea.org/dokumentuak/jasangarritasunerako-hezkuntza-ikaskuntzaegoeren-bidez.pdf.

(eus) Cariño, Bety.[Proposamen didaktikoa] Ametsak ereiten, itxaropenak biltzen. mugarikgabenafarroa.org/wp-content/uploads/2020/09/giza-eskubide-balkiabide-didaktikoa.pdf.

(eus) Edukalboan. Balioei buruzko baliabideak. www.edukalboan.org/es/materiales-educativos?s=valores.

(eus) Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoa (2007) ABC. Giza Eskubideen irakaskuntza. Lehen eta bigarren hezkuntzarako ikastetxeentzako jarduera praktikoak. unetxea.org/eu/portfolio-item/abc-giza-eskubideen-irakaskuntza/.

(eus) Guztiok batera (2021). Unitate didaktikoa. Pertsonak: denak berdinak, denak desberdinak. LH5. eta 6. Maila. unetxea.org/eu/portfolio-item/unitate-didaktikoa-pertsonak-denak-berdinak-denak-desberdinak-lh5-eta-6-maila/.

(eus) ZerbIKAS. 3 gida. Ikasketa eta zerbitzu solidarioa: gizarteratzeko estrategia. www.zerbikas.es/ikasketa-eta-zerbitzu-solidarioa-gizarteratzeko-estrategia/.

(eus-gaz) UNEtxea (2021). Unidad didáctica. Personas: Todas iguales, todas distintas. 5.º y 6.º de primaria. unetxea.org/portfolio-item/unidad-didactica-personas-todas-iguales-todas-distintas-5o-y-6o-de-primaria/.

Erlazionatutako topikoak

Bizitza erdigunean, Ekoherritartasuna, Etika ekosoziala.

BEGIZTA ERREKURTSIBOA

Ikus *Gaia teoria*.

BIODIBERTSITATEA

Munduan milioika izaki bizi gara, guztiok desberdinak; eta desberdintasun horri esker gaude bizirik. Biziaren aniztasun hori da, hain zuzen ere, biodibertsitatea edo bioaniztasuna.

Biodibertsitatea, bada, ekosistema edo eskualde jakin bateko zein planeta osoko bizidunen aniztasunari eta aldakortasunari dagokio. Ez da espezieen aniztasunera mugatzen; izan ere, haien arteko elkarrekintzak eta harremanak ere jasotzen ditu.

Hau da, kontzeptuak barnean hartzen ditu espezieen barruko aniztasuna (dibertsitate genetikoa), espezieen artekoa (espezieen aniztasuna) eta ekosistemen artekoa (ekosistemen aniztasuna). Mailarik apalenean dibertsitate genetikoa dago. Hura banakoen arteko aldakortasun genetikoa da. Hurrengo maila batean, espezieen aniztasuna dugu, eta lurralde batean bizi diren espezieen kopurua adierazten du. Gorengo mailan, azkenik, ekosistemen dibertsitatea aurkitzen da, eta eremu batean dauden habitat edo ekosistemen kopurua izango litzateke.

Bioaniztasuna funtsezkoa da ekosistemen erresilientziarako eta funtzionaltasunerako; izan ere, hainbat espeziek rol desberdinak betetzen dituzte —ekoizle, kontsumitzaile edo deskonposatzaile gisa—, eta funtsezko prozesu ekologikoetan laguntzen dute —besteak beste, mantenugaien zikloan eta polinizazioan—. Era berean, bioaniztasuna funtsezkoa da Lurreko bizitzaren iraupenerako eta orekarako, gizakiarena barne. Baina gaur egungo egoera oso larria da, espezieen desagertze masiboa eta ekosistemen kolapsoa berehalako arriskuak dira premiazko neurririk hartu ezean.

Dena dela, eta biologiaren ikuspuntutik, biodibertsitateak aniztasuna ez ezik, izaki bizidunen kopurua eta aldakortasuna ere hartzen ditu kontuan.

Biodibertsitatea Lurreko biziaren egonkortasunaren neurri bat da. Aniztasun biologikoa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da izaki bizidunek ingurumenaren aldaketei aurre egiteko edo horietara moldatzeko duten gaitasuna ere. Azken finean bizitzak berak bere ibilbidea aurkitzen du beti.

Biodibertsitatea handitu egiten da ekosistemaren heldutasun mailarekin batera. Ekosistema helduek antolakuntza konplexuagoa dute, beraz, sistemaren elementuen arteko harremanak sendoagoak dira. Ondorioz, ingurumen ezaugarrien aldaketak jasateko gaitasuna handitzen da eta, horrekin batera, egonkortasuna eta oreka. Biodibertsitateak espezieen iraupena bermatzen du, eta, hortaz, gizakiona ere.

Ekosistema batek dituen nitxo ekologikoen kopuruak zehazten du haren biodibertsitatea. Nitxo ekologikoa espezie bateko izakiek bizitzeko eta ugaltzeko behar dituzten ingurumen-baldintzak dira. Kontzeptu horretan bi alderdi elkartzen dira: batetik, espezie batek habitatzen duen espazio fisikoa (faktore fisiko eta kimikoak: tenperatura, argia, hezetasuna…) eta, bestetik, ekosisteman betetzen duen rola edo funtzioa (elikadura mota, beste espezieekiko harremana...). Habitat bakoitzean, izakiek hainbat nitxo betetzen dituzte, edo, bestela esanda, espezie batek habitat batean duen lana da bere nitxoa. Nitxoak suntsitzeak biodibertsitatea gutxitzen du. Adibidez, haritz bat erortzen denean, zenbait espezieren nitxoak suntsitzen dira.

Lurrean 500 milioi espezie izan direla kalkulatzen da, eta, horietatik, gaur egun % 1ek besterik ez dute irauten. Kausa naturalek eta gizakion ekintzek gainontzekoen desagerpena eragin dute.

Hortaz, oso garrantzitsua da gure inguruko biodibertsitatea ezagutzea, hura babestu ahal izateko. Izan ere, aurretik esan bezala, biodibertsitatea funtsezkoa da ekosistemen autorregulaziorako, emankortasunerako eta egonkortasunerako.

Bioaniztasunaren galera ingurumen-krisi larrienetako bat da, eta sakon eragiten die ekosistema globalen osasunari eta funtzionatzeko eta funtsezko zerbitzuak emateko duten gaitasunari. Giza jarduera, batez ere ekoizpen eta kontsumo eredu kapitalista, bioaniztasunaren galera ikaragarria eragiten ari da mundu mailan. Galera horren faktore nagusien artean honako hauek daude:

- Deforestazioa: Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta hiri-hedapenerako basoak mozteak eta erretzeak, bada, espezie askorentzat ezinbestekoak diren habitatak hondatzen ditu. Basoetan bizi dira Lurreko espezie guztien erdia baino gehiago, eta deforestazioak, espezieen aniztasuna murrizteaz gain, dibertsitate genetikoa eta ekosistemena ere murrizten ditu.
- Kutsadura: Pestizidak, plastikoak eta metal astunak bezalako substantzia kimikoek airean, uretan eta lurzoruan eragindako kutsadura toxikoa izaten da basa-bizitzarako. Uretako eta lurreko ekosistemen osasunari eragiten dio, eta espezieen ugalketa, hazkundea eta biziraupena murrizten ditu.
- Klima-aldaketa: Klima-aldaketak baldintza klimatiko globalak aldatzen ditu. Haren jatorria, bada, erregai fosilak erretzeak zein deforestazioak eragindako berotegi-efektuko gasen isurketa da. Horrek eragina du eremu askotan, hala nola espezieen migrazio-ereduetan eta banaketan, elikagaiak lortzeko aukeran eta espezie askoren biziraupena arriskuan jartzen duten muturreko gertakari klimatikoetan. Horrez gain, biodibertsitatearen galerak jarraitzen badu, klima-aldaketara moldatzeko aukera kolokan egongo da .

- Baliabide naturalen gehiegizko ustiapena: merkataritzarako, medikuntzarako eta beste erabilera batzuetarako arrantza eutsiezinak, monolaborantza intentsiboak, gehiegizko arrantzak eta isileko ehizak maila kritikoetara murrizten dituzte espezieen populazioak eta, kasu batzuetan, desagertzera eramaten ditu.
- Espezie inbaditzaileak sartzea: Espezie ez-natiboak nahita edo ustekabean ingurune berrietan sartzeak bertako espezieak desagerraraz ditzake, ekosistemak alda ditzake eta bertako biodibertsitatea murriztu dezake.

Ekosistemetan dituen ondorioez gain, gizateriarentzat ere ondorio larriak ditu bioaniztasuna galtzeak. Besteak beste, elikadura segurtasunean eragiten du. Eskala handiko abeltzaintza eta arrantza ekoizpena espezie kopuru mugatu batean oinarritzen da, eta horrek aniztasun nutrizionala murrizten du. Gure kalteberatasuna handitzen du hondamendi naturalen eta gaixotasun berrien aurrean, eta funtsezko baliabide naturalen eskuragarritasuna murrizten du, hala nola ur gezarena eta material medikoarena. Gainera, murriztu egiten du ekosistemek klima-aldaketari aurre egiteko duten gaitasuna —karbonoaren harrapaketa naturalaren eta tokiko klimaren erregulazioaren bidez—. Bioaniztasuna leheneratzea eta kontserbatzea funtsezkoa da gure planetaren osasuna mantentzeko eta hurrengo belaunaldientzat etorkizun iraunkorra bermatzeko. Baina ez dugu ahaztu behar ekoizpen, banaketa eta kontsumo kapitalistaren eredua aldatu beharra dagoela bioaniztasuna kontserbatzeko. Beraz, bioaniztasunaren garrantziari buruzko hezkuntza eta kontzientziazioa funtsezkoak dira biodibertsitatearen kontserbazioa sustatzeko.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

Biodibertsitatearen kontzeptua genetikatik haratago zabaldu daiteke, gizartean dauden askotariko etniak, hizkuntzak, erlijioak, ohiturak eta mundu-ikusketak kontuan hartuz, eta gizakiak Lurraren historian zehar izan duen garapen multikulturalari lekua eginez. Hezkuntza ekosozialak berak ere kontuan izan behar ditu horiek.

Biodibertsitatea horrela ulertzean, gizakien eta naturaren arteko harremanei buruzko hausnarketarako eremu bat zabaltzen da, egungo gizartean periferikoak diren ikuspegi asko jasotzen dituena.

Hona hemen ikuspegi hura lantzeko proposamen batzuk:

- Euskal Herriko edo munduko biodibertsitatea mural batean irudikatzea. Irudi horretan hizkuntza, arraza (etnia), paisaia, landaretza edo animaliak bezalako elementuak adieraziko dira. Horretarako, ikasleak lantalde txikietan banatuko ditugu. Talde bakoitzak gai bat aukeratuko du: hizkuntza, paisaia, arraza, landareak eta animaliak.

Aukeratutako gaiari buruzko datuak (argazkiak, irudiak...) bilatu beharko dituzte, hori zerrenda edo mapa batean jaso, eta gero muralean antolatu beharko dute. Lurrean edo Euskal Herrian dugun biodibertsitateari buruz hausnartu ostean eztabaida-mahainguru bat zabalduko dugu. Hasieran, gai gutxiago (edo gai bakoitzean aukera gutxiago) eskainiko ditugu, eta, ikasleek eskatu ahala, aukerak zabalduko ditugu. Iritzien aniztasuna sustatuko dugu (biodibertsitatearekin lotura zuzena dutenak) .

- Biodibertsitateari buruzko erakusketa bat antolatzea. Horretan, biodibertsitatea zer den, nola adierazten den eta zer arrisku dituen azalduko dugu. Materialen artean argazkiak, haziak, musika, kartelak eta marrazkiak izan ditzakegu. Ikastetxeko talde eta unitateetako ordezkariak gonbidatuko ditugu.

(eus-gaz) [Bideoa] Berde berdea. Bioaniztasuna youtu.be/TmD5g4PbHow?si=ONw3E8umVNcmpnnA / Biodibertsitatea youtu.be/ryR5uLhUwNU?si=j94lLjTiMXYpOmoX.

(eus-gaz) [Bideoa] Ihobe. 2030erako biodibertsitate estrategia youtu.be/2wrvV9TvPW0?si=YuV8KKB3Ap-38fDY */Estrategia Biodibertsitatea del País Vasco 2030*. youtu.be/QnLc5Pg7LDE?si=5ollYYlIhwMieFOL.

(eus-gaz) CEEP-SESZ. *50 proposamen basoa ingurugiro ikuspegitik ikertzeko / 50 propuestas para estudiar el bosque desde una perspectiva medioambiental* (varios). BBK-Dep. Educación GV. Bilbao.

(eus-gaz) Ingurugela (1996): *Materiales de Educación ambiental: Biodibertsitatea. Educación secundaria*. www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ud_secundaria_ea/es_def/adjuntos/biodiversidad2.pdf */ Materiales de Educación ambiental: Biodibertsitatea. Educación primaria*. www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ud_primaria_ea/es_def/adjuntos/biodiversidad1.pdf.

(gaz) Fuhem. ¿Dónde están los peces de nuestro río? Situación de aprendizaje para Primaria. tiempodeactuar.es/blog/donde-estan-los-peces-de-nuestro-rio/.

(gaz) Fuhem. ¿Hay animales que no sirven para nada? Situación de aprendizaje para Secundaria. tiempodeactuar.es/blog/hay-animales-que-no-sirven-para-nada-situacion-de-aprendizaje-para-secundaria/

(gaz) Fuhem. Explorando vínculos entre la biodiversidad y la calidad de vida. www.fuhem.es/2024/03/08/explorando-vinculos-entre-la-biodiversidad-y-calidad-de-vida/.

(gaz) Pérez-Martín, J. M. (2023). La Biodibertsitatea Urbana para promover una didáctica de la Educación Ecosocial. *Biodibertsitatea Urbana: de los problemas ambientales a la práctica educativa*, 19-32. repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/706582/biodiversidad_jmperez-martin_2023.pdf?sequence=1&isAllowed=y.

(gaz) Plataforma Intergubernamental Científico-Normativa sobre Diversidad Biológica y Servicios de los Ecosistemas (IPBES) (2019): el informe de la evaluación mundial sobre la diversidad biológica y los servicios de los ecosistemas. Resumen para los encargados de la formulación de políticas

Erlazionatutako topikoak

Antropozentrismoa, Konplexutasuna, Bizitza erdigunean.

BIOZENTRISMOA

Biozentrismoa izaki bizidun guztiak errespetatu beharra dagoela adierazten duen jarrera etiko eta morala da; izakia beste izaki guztien gainetik jarri behar dela uste duen antropozentrismoarekiko kontrajarria.

Bi aldaera bereizten dira biozentrismoan: biozentrismo gogorrak maila berean jartzen ditu izaki bizidun guztiak; biozentrismo bigunak, aldiz, izaki bizidunak koordinatzen edo kategorizatzen ditu[6].

Agertu zen unetik, gizakiak bere buruari galdetu izan dio zer leku betetzen duen unibertsoa osatzen duten elementu desberdinen artean. Historian zehar nagusi izan diren pentsamolde edo joera nagusiek garrantziaren arabera sailkatu dute elementu bakoitza.

XV. mendearen bigarren erdian, Errenazimentua deituriko kulturamugimendua sortu zen Italian, eta, pixkanaka, Mendebaldeko Europara hedatu zen. Harekin batera, Humanismo izaneko pentsamoldea garatu zen. Humanismoaren ezaugarririk nabarmenena da gizakia unibertsoko beste gauza guztien gainetik jartzen duela. Hala, korronte hark aurre egiten zion Erdi Aroan zehar nagusi izandako teozentrismoari, hau da, jainkoa erdigunean jartzen zuen ikuspegiari. Gizakia beste elementuen gainetik jartzeko joera horrek berebiziko garrantzia izan zuen *êthos* antropozentrikoaren garapenean. Izan ere, antropozentrismoaren arabera, gainontzeko izaki bizidunak gizakiaren ongizatea lortzeko bitartekariak baino ez dira.

Biozentriko terminoak bizitzan zentratua esan nahi du. Biozentrismoentzat bizitza da moralaren ardatza, ez gizakia; azken hura ez baitago beste edozein izaki bizidunen gainetik. Schweitzerrek, biozentrismoaren aitzindarietako batek, *Civilization and ethics* (1924) lanean dio gizakiok «bizitzarekiko mirespena» sentitu behar dugula. Hala, «bizi nahi duen bizitza naiz bizi nahi duen bizitzaren erdian» printzipioa aldarrikatzen du, Descartesen «pentsatzen dut, beraz, banaiz» ideiaren aurrean (da Costa, 2009).

[6] https://gizapedia.org/biozentrismoa/.

Taylorrek, bere aldetik, 1986ko *Respect for Nature: a Theory of Environmental Ethics* (Naturarekiko errespetua: ingurumen-etikaren teoria bat) liburuan adierazten duenez, izaki bizidun guztiak berezko dituzten helburuei erantzuten saiatzen dira. Ondorioz, organismo orok berezko balioa du, bizitza teleologikoaren zentroa baita, hau da, xedeak edo helburuak dituen erakundea. Beraz, izaki bizidun guztiak objektu moraltzat hartu behar direnez, Taylorrek berdintasun morala ematen die, eta gizakiak naturaren dinamiketan ez esku-sartzearen printzipioa defendatzen du. Gatazka baten aurrean, bost printzipio ematen ditu, hura bidezko modu batean konpontzeko gida gisa: oinarrizko bat, autodefentsa (bizia edo osasuna arriskuan egonez gero, zilegi da mehatxua suntsitzea edo kaltetzea), eta bigarren mailako lau, hala nola proportzionaltasuna, gaitz txikia, justizia banatzailea eta ordainsari-justizia (Marcos, 2001). Printzipio horiek oinarrizko interesen (bizitzan, osasunean, elikaduran eta abarren eragiten duten gatazkei dagozkienak) eta oinarrizkoak ez diren interesen (hain larriak ez diren gatazkei lotutakoak) arteko bereizketan oinarritzen dira. Adibidez, funtsezkoa da paludismoaren eltxoetatik edo salmonellositik defendatzea, baina ez bisoiak hiltzea berokiak egiteko edo zezenketak ospatzea.

Argi dago egungo ingurumen krisiak lotura zuzena duela antropozentrimoaren ikuspegi horrekin, eta XX. mendearen bukaeran beste ikuspegi batzuk agertu ziren horren aurrean; horien artean Biozentrismoa (*bios* = bizitza) da nabarmenena.

Izaki-bizidun guztiek errespetu morala merezi dutela aldarrikatzen du biozentrismoak, batez ere bizitzak duen balioa aldarrikatzen du.

Biozentrismoa 1970eko hamarkadan sorturiko kontzeptua da, eta izaki bizidun guztiek —hau da, landareek, animaliek eta gizakiek— begirune berdina merezi dutela aitortzen du, bizidun izate hutsagatik, hori partekatzen dutelako. Hau da, pentsamolde hori antropozentrismoaren aurrean kokatzen da.

Antropozentrismoak berekin ekarri dituen kalteak ukaezinak dira, eta azken bizpahiru mendeetan aregotu egin dira, kapitalismoaren, kolonialismoaren eta inperialismoaren igoerarekin ere. Kontsumismoari loturiko baliabideen neurrigabeko esplotazioa, zabor ekoizpen masiboa, ekoizpen moduekin lotutako lan baldintza eskasak, baliabideak lortzeko gatazka eta gerra globalak, ekosistemen suntsiketak eta biodibertsitatearen galerak… Horiek ingurumen krisiaren sintoma garbiak dira. Azken urteetan, adierazle horien kopurua handitu egin da, eta hainbat ahots agertu dira etika antropozentristaren aurka.

Biozentrismorik erradikalenak, bizitzarekiko errespetua muturrera eramaten duenak, ez du bere burua defendatzen gizakiari kalte egin diezaioketen landare edo animalien aurrean. Bestalde, biozentrismo moderatuak

garrantzi hierarkikoa ematen dio bizitzari, gizakia piramidearen gailurrean jarriz, eta, hala, arazo ekologikoari erantzun egokia emateko proposatzen du bere burua.

Bizitzan zentratutako korronte etiko horiek erakargarriak dira publiko handi batentzat, baina badituzte beren kritikak ere. Alde batetik, izaki bizidun orok kontsiderazio morala dutelako ideia gaitzesten da, morala eta etika gizakiari bakarrik dagokiola argudiatuta, hura baita bere erabakiak erabakitzeko eta justifikatzeko gaitasuna eta izaera morala duena. Bestetik, bizitzarekiko errespetua eta gizakien eta beste izaki bizidunen arteko harremanaren harmonizazioa garatu ahal izateko eragozpenak jartzen dira, horrek mugak jartzen baitizkio pertsonek beren bizi-baldintzak (nutrizioa, osasuna, espazioa, etab.) hobetzeko duten nahiari.

Ekozentrismoarekin loturiko kontzeptua da, baina ekozentrismoan natura da, bere osotasunean, zaindu beharreko entitate morala, eta biozentrismoan, aldiz, izaki ororen banakotasuna da errespetatu beharrekoa. Bi ikuspegien ondorio etikoak berdintsuak direla dirudien arren, badira alde nabarmenak bien artean: ekozentrismoan, esate baterako, izaki bizidunak beraien artean trukagarriak direla ondoriozta dezakegu (eta beraz, bat akaba dezakegu, beste bat babesteko); biozentrismoan, ordea, ideia hori guztiz baztertzen da.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

Gure ustez, ingurumen hezkuntzan, *biozentrismoan* oinarritutako planteamenduak izan behar dute abiapuntu. Kontzeptu hauek Gizarte Zientzietan eta Historian, Etikan edota Tutoretzan lan egiteko aproposak dira.

Hona hemen estrategia posible batzuk:

- Debateak: historian zehar, naturaren eta gizakien arteko harremanei buruzko zer ikuspegi izan dira? Europatik kanpoko beste erlijio edo gizarteetan, zer ikuspegi egon dira edo daude? Zeintzuk dira ikuspegi egokienak ingurumen krisia gainditzeko?
- Artikulu bat irakurtzea eta ideiak kontrastatzea: Zer ikuspegi nabarmentzen da? Zeintzuk dira ikuspegi horren ezaugarriak?
- Ingurumen arazo bat planteatzea eta ikasleak ikuspegiaren arabera banatzea: ikuspegi bakoitzetik zer irtenbide proposatzen dira? zer motatakoak dira? zer ondorio ekar ditzakete?

(gaz) Bellomo, S. T. Modulaciones del antropocentrismo y el biocentrismo: orientaciones filosóficas para la educación ambiental. http://ixtli.org/revista/index.php/ixtli/article/view/117.

(gaz) Universidad de Alicante. rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/118150/1/Clase-etica-ecol%C3%B3gica.pdf.

Erlazionatutako topikoak

Antropozentrismoa, Konplexutasuna, Bizitza erdigunean.

BIZIMODU INPERIALA

Bizimodu inperialaren kontzeptuak gizarte egiturekin lotzen du pertsonen egunerokotasuna. Hala, nabarmendu nahi du Iparralde Globaleko gizarteetan nagusi den bizimodua Hegoalde Globaleko lurraldeekiko dominazio-harremanean oinarritzen dela.

Bizimoduaren kontzeptuak ekoizpen, banaketa eta kontsumo arau nagusiak biltzen ditu eta arau horien nagusitasuna nola normalizatzen den azaltzen du, kontsumo eta ekoizpen modu horiek jada normaltzat ez hartzeko helburuarekin. «Inperial» adjektiboak bizimodu horren dimentsio globala eta ekologikoa azpimarratzen ditu.

Bizimodu inperialaren kontzeptuak ekoizpen, banaketa eta kontsumo arauei dagokie, baina, ez dira praktika materialak bakarrik aipatzen, baizik eta, bereziki, baldintza estrukturalak eta horiek ahalbidetzen dituzten ideal eta diskurtso sozialak ere.

Esan bezala, Bizimodu Inperialaren kontzeptua (Brand eta Wissen, 2021) Iparralde Globaleko gizarteetan nagusi den bizimoduari kritika egiteko sortzen da; hain zuzen ere, Hegoalde Globaleko lurraldeekiko botere-harreman desorekatuak agerian uzteko. Esate baterako, Iparralde Globaleko gizarteetan erosten ditugun etxetresna elektrikoak edo gailu elektronikoak egiteko lehengaiak beste lurralde batzuetatik datoz. Prozesu hori ikusezina da guretzat, eta gauza bera gertatzen da produktu horiek ekoizten dituzten pertsonen lan baldintzekin ere. Ikusezintasun horrek, bada, kontsumo eta ekoizpen modu ez-ekologikoak eta ez-bidezkoak finkatzen laguntzen du.

Iparralde Globaleko bizimodu kontsumistak eta teknologizatuak baliabide naturalen erabilera desorekatua eragiten du, baita karbono dioxidoko gehiegizko isuriak ere. Berotegi Efektuko Gas (BEG) gehien emititzen duten bost herrialdeak munduko isurketen % 52 baino gehiagoren erantzule dira; eta gutxien isurtzen duten 100 herrialdeek, aldiz, karbono aztarna globalaren % 1,6 isurtzen dute (Trainer, 2021).

Naturaren erauzketa mugagabea bultzatu delako dira posible bizimodu inperialak, energia fosilak lortzeko helburuz. Horrek, bada, desorekak eragin ditu ekosistemetan; eta ondorioak, gainera, beste lurralde batzuetan pairatzen dituzte. Euskal Herrian, % 95eko energia menpekotasuna dugu (Urkidi & Garmendia, 2011; Barcena, Lago & Villalba, 2009). Gure bizimoduak mantentzeko, beraz, beste lurralde batzuetako ekosistemak kaltetzen dira eta, gainera, hurrengo urteetan ere, herrialde pobreenek jasango dituzte aldaketa klimatikoaren ondorio larrienak .

Industrializazioaren garapenarekin batera, bizimodu inperiala orokortu egin zen, lehen klase altuaren eta ertainaren pribilegio zena (Brand eta Wissen, 2021). Hala, gizartearen gehiengoak ez du zalantzan jartzen ordenagailuak gero eta adimentsuagoak (*smart*) izan behar direnik, ezta elikagaiak gero eta merkeagoak izan behar direnik ere. Izan ere, garapenari buruzko ideia jakin horiek oso onartuta daude gaur egun Iparralde Globalean, eta gero eta gehiago Hegoalde Globalean ere. Ideia horiek, bada, ziurtatuta daude sozioekonomikoki zein politikoki, eta sakon errotzen dira pertsonen eguneroko praktiketan eta pentsamoldeetan.

Nabarmendu beharra dago «bizitza onaren eta zuzenaren» estandarrak egunerokotasunetik sortzen direla, nahiz eta baldintza sozial konplexuen eta, batez ere, azpiegitura material eta sozialen parte diren (Kramer, 2016:29). Beraz, bizimodu inperialaren kontzeptua, bera ahalbidetzen duten egiturez gain, pertsonen eguneroko jardunean fokua jartzeko sortu da. Izan ere, pertsonen egunerokotasuna eta gizarte-egiturak lotzean gogoetarako eta ekintzarako eremu bat zabaltzen dugu, eta nagusi diren baldintzak kritikatzen ditugu.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) [Bideoa] Presentación y discusión del libro «Crisis del modo de vida imperial y transiciones ecosociales». youtu.be/lQFG_DYMZ0A.

(gaz) Di Donato, Monica. (2022). Entrevista a Ulrich Brand. «Modo de Vida Imperial»: Una lectura a la luz del conflicto de Ucrania. *Crisis, modos de vida y militarismo*. www.fuhem.es/wp-content/uploads/2022/05/Entrevista-a-Ulrich-Brand-sobre-Modo-de-Vida-Imperial-MDiDonato.pdf.

Erlazionatutako topikoak

Bizitze ona, Antropozentrismoa, Iparralde globala-Hegoalde globala, Gizarte justizia, Justicia klimatikoa.

BIZITZA ERDIGUNEAN

Bizitza erdigunean jartzeak bizitzaren sarearekin birkonektatzeko lehentasuna duten komunitate, politika eta kulturak sortzea esan nahi du. Ideia horrek, alde batetik, pertsona guztiok bizitza duina, hau da, bizitzea merezi duen bizitza izan dezagun butzatzen du, gure beharrak eta nahiak asetzeko modukoa, datozen belaunaldien aukerak murriztu gabe. Eta, bestetik, biosferarekin eta gainerako izaki bizidunekin ditugun harremanak leheneratu beharra dagoela adierazten du.

Bizitzaren ehuna konplexua da, sareen sarea da eta, bertan, nodoak agertzen dira, sare txikiago gisa. Beraz, sareen sare malgua eta dinamikoa da, etengabe fluktuatzen duena (Capra, 1998). Sare konplexua eta hauskorra, hura hautsi eta suntsi dezaketen erabakien aurrean.

Bizitza erdigunean jartzea, lehenik eta behin, bizitzaren ehun horren miriariaz eta konplexutasunaz konturatzea da. Bigarrenik, giza ekintza oro bizitzarekin lotuta dagoela jabetzea da; hau da, animalia- edo landare-izaki bizidunen batekin, pertsonaren batekin edo pertsona-talderen batekin. Petrolioa ateratzea, txerto bat jartzea edo ez jartzea, haurrekin jolastea, hondartzan paseatzea, gure aurrezkiak han edo hemen gordetzea, gure nagusiei arreta ematea, hirian zehar mugitzea, erostea, maitemintzea, elikatzea, burtsan inbertitzea, aisialdiaz gozatzea, sexuaz gozatzea… den-dena dago, azken batean, bizitzarekin lotuta.

Kapital-bizitza gatazkaren esparruan, eta ekonomiak egungo zibilizazioan duen zentraltasunaren aurrean, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean kokatzea ekonomia feministaren planteamendu erabat erradikala eta emantzipatzailea da. Hortik abiatuta, bizitzaren sarea erdigunean jartzea da bizitza errespetatzea, zaintzea, bere tempoari egokitzea, bere beharrak asetzea, gure harreman sozialak eta naturarekiko harremanak birpentsatzea eta gure kultura berriz aztertzea. Horrek, bada, bizitzarako heztea eskatzen du, hau da, bizitzaren sarearen iraunkortasunerako, bere zaurgarritasuna aitortzeko eta zaintzeko, balioak aztertzeko eta etika ekosoziala eraikitzeko, planetaren mugak errespetatzen jakiteko, erresilientzia eraikitzeko, eta gizarte kapitalista eta heteropatriarkaleko eredua kritikoki zalantzan jartzeko. Izan ere, guk eredu hura osatzen dugu eta haren akatsen erantzule gara neurri handiagoan edo txikiagoan; baita desberdina den horri (etnia, generoa, adina, ikuspegia, espeziea) erantzuteaz ari garenean ere.

Herreroren arabera (2018), bizitza erdigunean jartzea da komunitateak eta espazioak eraikitzen ditugula bermatzea, non inork ez dion beldurrik etorkizunari, non inork ez duen sufritzen bihar zer gertatuko den pentsatuz. Pérez-Orozcoren esanetan (2015), «bizitzaren iraunkortasunaz ari gareanean, bizitzea merezi duten bizitzak izateko aukerak mantentzeaz ari gara».

Baina, nola? Bada, Yayo Herreroren arabera (2018), ehunduz: aldaketak abian jartzeko eremu komunitarioak saretuz, energia berriztagarria lortzeko eta aire garbia arnasteko erantzun sozialak txirikordatuz, pozoitzen ez gaituzten elikagaiak jateko kontsumo-kooperatibak edo agroekologia-eremuak elkartuz, beste leku batzuetatik datozen pertsonekin inklusioa lortuz, biodibertsitatearen galerari aurre egiteko irtenbideak sortuz, pertsona arrazializatuekin eta beren sexualitatea beste modu batean bizi duten horiekin harremanak ezarriz, klima-aldaketaren edo osasun-krisiaren aurrean sare sozialak tartean sartuz, eta, azken batean, pertsona guztiak, espezie guztiak eta bizitza osoa ibiltzen garen bideak ehunduz.

Maiz, ezikusia egiten bazaio ere, bizitzaren iraunkortasuna erantzukizun kolektiboa da, eta eguneroko egoerei eta fenomenoei aurre egitea sakar, hala nola zaintza-lanen pribatizazioari eta feminizazioari. Nolanahi ere:

> Bizitza erdigunean modu desberdinean uler daiteke emakumearen ikuspegitik edo gizonezkoaren ikuspegitik, ikuspegi ekologiko, marxista edo feminista batetik. Denok ikuspegi berdina izango bagenu, ez litzateke hain zaila izango begi-bistakoa den horren inguruan aliantzak osatzea, behintzat, helburu bera dugunon artean (Carrasco, 2017).

Bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzen duen trantsizio ekosozial bat bi printzipio hauetan oinarritzen da: gizakiok erabat interdependenteak eta erabat ekodependenteak gara.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Ecotono red: Bizitza erdigunean. Propuestas didácticas para participar poniendo la vida en el centro.

lavidaenelcentro.ecotonored.es/recursos/propuestas-didacticas-para-participar-poniendo-la-vida-en-el-centro-construyendo-realidades-desde-la-epd/.

(gaz) Red educadores y educadoras para una ciudadanía global (2020). *Bizitza erdigunean del centro. Itinerario para educarnos en la Pedagogía de los Zaintza lanak.* Intermon-Oxfam. www.kaidara.org/wp-content/uploads/2022/03/La-vida-en-el-centro-del-CENTRO-1-1.pdf.

Erlazionatutako topikoak

Biozentrismoa, Zaintza lanak, Ekofeminismoa, Ekodependentzia, Interdependentzia.

BIZITZE ONA

Sumak Kawsay kitxuaz, *Suma Qamaña* aimaraz edo Bizitze Ona —euskaraz gehien erabili den moldea— Andeetako indigenek urte askotan zehar eraikitako mundu-ikuskera da. Garapenari buruzko ohiko kontzeptuen aurrean alternatiba izan nahi duten ideiak jasotzen dituen mundu-ikuskera da. Hainbat elementu partekatzeko plataforma da, etorkizunari begira, eta aldaketa bultzatzeko asmo utopikoa du (Gudynas, 2011).

Bizitze Onak zalantzan jartzen du Ipar-Mendebaldeko gizartea-eredu produktibista eta kontsumista, hain zuzen ere, ondasun materialen meta-

keta mugagabean oinarritzen dena. Bizitze Onak «beste errealitate bat irudikatzeko proposamen eta aukera bat da; errealitate bat non gizakiek naturarekin eta gainontzeko gizakiekin —hau da, egunero aberasten gaituen bestetasunarekin— osotasun harmoniatsuago bat osatzen duten» (de la Cuadra, 2015).

Bizi-kulturako proposamen hori «multibertsoaren adierazpenean» inspiratzen da «horretan, dena dago konektatuta, elkarri lotuta, ez dago ezer kanpoan; aitzitik, «dena da zerbaiten parte»; norberaren eta osotasunaren harmonia eta oreka garrantzitsua da komunitatearentzat» (Huanacuni, 2010).

Biosferaren etxe komuna osatzen duten eta bizikide diren izaki bizidun guztiak errespetatzen dituen mundu-ikuskera eta balioak aintzat hartzen ditu Bizitze Onak, eta ekoherritartasunak proposatzen duen «hemen elkarrekin bizitzea» integratzen du.

Zenbait herrialdek beren konstituzioetan sartu dituzte ideia horiek, hala nola Ekuadorrek (*buen vivir*, bizitze ona) edo Boliviak (*vivir bien*, ondo bizitzea). Boliviako Estatuko Konstituzio Politikoak, 2009ko otsailaren 7koak, bere politika publikoak gidatzen dituzten helburu eta funtzioak ezartzen ditu ondo bizitzeko helburuaren barruan. Ekuadorren, aldiz, 2009-2013 aldirako Bizitze Onerako Plan Nazionalak honela definitzen du bizitze ona:

> Beharrizanak asetzea, bizi kalitatea eta heriotza duina lortzea, maitatzea eta maitatua izatea, guztiek osasunez loratzea, naturarekin bakean eta harmonian, eta giza kulturek mugarik gabe irautea. Bizitze Onak kontenplaziorako eta emantzipaziorako denbora izatea esan nahi du, eta gizabanakoen benetako askatasunak, aukerak, ahalmenak eta potentzialtasunak zabal eta haz daitezela. Halaber, aldi berean, gizarteak, lurraldeek, nortasun kolektiboek eta banakakoek —gizaki unibertsal eta partikular gisa aldi berean— helburu duten bizitza desiragarria lortzea (bai materialki, bai subjektiboki eta beste inor menderatu gabe. (Asamblea Nacional Constituyente, 2008).

Ekuadorrek Bizitze Onaren lorpen-maila neurtzeko sistema bat ere garatu du, hiru elementu nagusi hauetan oinarrituta: pertsonen barne-harmonia, komunitatearekiko eta komunitateen arteko gizarte-harmonia, eta naturarekiko harmonia.

Ekuadorrek berak (República de Ecuador, 2009), Bizitze Ona hezkuntzaren ikuspegitik ezartzeak honako hau esan nahi du: a) balioen eguneroko praktikaren bitartez herritarren gaitasunak garatzea; b) Hezkuntza Sistema Nazionaleko eragileen parte hartzeko, antolatzeko eta ordezkatzeko eremuak eta instalazioak sustatzea eta indartzea, demokrazia eztabaidatzailea gauzatu ahal izateko; c) Hezkuntza Sistema Nazionaleko eragileen eta hezkuntza-agintarien arteko elkarrizketa eta kontsulta jarraituan

oinarritutako kultura sustatzea, administrazio publikoaren maila guztietan; d) Ikastetxeak leku aproposak izan daitezela; hain zuzen ere, gizarte demokratiko, solidario eta kulturarteko batean herritartasun kritikoa gauzatzeko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak ikasteko; eta e) Ikastetxeak beren inguruko komunitateekin erabakitasunez lotzea.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) [Bideoa] Geruzak. Ondo bizitzea. youtu.be/UzLSXnMXK6E?-si=NC5hxjXR4_LGsI9K

(gaz) Asociación Madre Coraje (2017). *Guía de El Buen Vivir*. epd. caongd.org/wp-content/uploads/2018/09/guia_buen_vivir-1.pdf.

(gaz) Chamba, M. C., y Aguilar, L. B. (2015) *Guía didáctica digital sobre el Buen vivir*. Universidad de Guayaquil.

(gaz) Jara, P.V. (2015). Guía Metodológica «Estrategias para el Buen Vivir Educativo» con técnicas activas. Universidad Nacional de Chimborazo. Ecuador. http://dspace.unach.edu.ec/bitstream/51000/2219/2/UNACH-EC-IPG-CEB-ANX-2015-0068.1.pdf.

(gaz) ReAct Latinoamérica. Guía de actividades SUMAK KAWSAY. En *Minga por la Alforja Educativa. Herramientas para la promoción de salud*. ReAct Latinoamérica y Centro Niño a Niño de Ecuador. alforjaeducativa.reactlat.org/download/guia-de-actividades-sumak-kawsay/.

Erlazionatutako topikoak

Zaintza lanak, Hezkuntza ekosoziala, Gizarte justizia.

BORONDATEZKO SINPLETASUNA

Beheranzko mugimenduen barruan, borondatezko sinpletasuna bizitzeko modu baten aldeko beste apustu bat da, arrazoi ekologiko, espiritual edo osasunezkoei erreparatzen diena, kapitalaren edo aberastasunaren aurretik. Kontzienteki jokatzea da kontua, ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko edo denbora diruagatik saltzeko irrika apaltzeko asmoz. Boluntariotza, artea, lankidetza eta laguntza borondatezko sinpletasunaren elementuak dira. Ted Trainer-ek, *La vía de la simplicidad* (2017) lanaren egileak, honakoa dio:

> Planetako baliabideek ez dute uzten gehiegikeria-eredu honek jarrai dezan; beraz, aldatu egin beharko da, gustatu ala ez. Albiste ona, gure ustez, sinpletasuna askoz eredu asegarriagoa izango dela da, ez hain

> egokia estreserako eta eskasiak eta langabeziak eragindako arazoetarako. (Sáez, 2017)

Trainer-ek oparotasun materialarekiko mendekotasun gutxi duten bizimoduak garatzea planteatzen du, komunitateei autonomia emango dieten tokiko kudeaketa- eta gobernantza-sistemak. Baina, nagusiki, bestelako ekonomia bat, eskala txikikoa, kontrol sozialpean, hazkunderik gabekoa, benetako beharrak asetzea bilatzen duena eta etekinik ez sortzea eta funtsean buruaskia. Azken batean, aldaketa bat egungo balioetan eta mundua behatzeko eta ulertzeko moduan. Estrategikoki, Trainer-ek azpimarratzen du ezin dela sinpletasunaren bidea indarrez inposatu, ez dela beharrezkoa dagoeneko existitzen dena suntsitzea eraldaketa hasteko, gizarte berriak egungoaren baitan hazi behar baitu. Hala, proposatzen du tokiko erakundeak premiaz baina pixkanaka sartzea bizitzaren hainbat esparrutan (elikadura, zainketak, hezkuntza, etab.) adibide eta traktore gisa funtziona dezatela, beren esperientziak zabalduz.

Sinpletasuna bizitzeko modu bat sustatzen duen mugimendua da, baita beharrezkoa ez den materiala baztertzera bultzatzen duen diseinu-estrategia bat ere, funtsezkoan zentratzeko, maila pertsonalean eta sozialean balioa eta gogobetetasuna benetan ematen duen horretan. Argitasuna, eraginkortasuna, jasangarritasuna eta barne-bakea sustatzen ditu, eta distrazioak eta gehiegikeriak murrizten ditu.

Ikus *Nahikotasuna*.

Ch

CHTHULUZENOA

Ikus *Antropozenoa*.

D

DESAZKUNDEA

Desazkundea eraldaketa ekologiko eta sozial erradikaleko proposamen politikoa da, gizarte justu, berdintasunezko eta autonomo bat eraikitzeko proiektu sekularrari jarraipena eman nahi diona. Hala ere, onartzen du planetako muga ekologikoen mugak eta krisi sozialak mapa estu bat marrazten duela. Horregatik, bere ardatz nagusietako bat BPGari kritika egitea eta hazkunde ekonomiko kapitalistaren amaiera defendatzea bada ere, bere proposamena zabalagoa da eta sei indar-ideiaren inguruan egituratzen da.

1. Material- eta energia-kontsumoa murriztea, ekologikoki bideragarriak diren esparruetaraino. Desazkundeak onartzen du hautsi egin behar dela gaur egun dugun energia- eta material-soberakina, bereziki berriztagarriak ez direnak. Izan ere, korrelazioa dago BPGaren hazkundearen, energia eta materialen kontsumoaren eta suntsiketa ekologikoaren artean; planetaren gehiegizko kontsumoa geldiarazteak eta birsorkuntza ekologikoko prozesuak martxan jartzeak murrizketa hori martxan jartzea dakar.
2. Ekonomia birkokatzea eta dibertsifikatzea. Egungo globalizazio kapitalista erregai merke eta ugariei esker bakarrik izan da posible eta bidegabekeria eta sakrifizio ekologiko eta sozialek zeharkatu dute. Hori dela eta, beheranzko joera batean, ekonomiak dibertsifikatu egin behar dira (eta, batez ere, erreprimitu), eta gaur egun deslokalizatuta dagoen ekoizpena lurraldeetara itzuli. Hori guztia, irabaziak beharrak asetzera bideratuta.
3. Metabolismo ekosistemikoaren barruan metabolismo soziala integratzea. Arestian aipatutako transformazioen multzoak prozesu

guztien berrantolaketa materiala ekarri behar du, ekosistemen dinamiketara egokitzeko eta zikloak ixteko (hau da, termodinamikaren mugen barruan, prozesu baten hondakinak hurrengoen sargai bihurtzeko). Hori dela eta, gizarte beherakor batek batez ere nekazaritzakoa izan behar du, eta funtsean material berriztagarrietan oinarritu behar du, eta, gehienez ere, material ez-berriztagarri oso ugarietan eta birziklagarrietan.

4. Produkzioa eta erreprodukzioa unitate ekonomiko bakar batean integratzea. Ekonomia feministak markatzen duen ildoan, Desazkundeak lan erreproduktiboaren edo zaintza eta lan «produktiboaren» bereizketa abstraktua gainditzea aipatzen du. Jarduera ekonomikoaren helburu nagusitzat bizitzari eustea hartuta, bi lan-motak unitate ekonomiko beraren zatitzat hartzen ditu.
5. Lurralde arteko eta barruko aberastasunaren birbanaketa indartsua, justizia globaleko iriz-pideekin. Gaur egungo egitura kapitalistaren gaitz endemiko bat desberdintasun izugarria da, azken hamarkadetan bereziki areagotu dena. Hori dela eta, Desazkundeak klase-harremanen eta desberdintasun kolonialen hausturatik igaro behar du, bidezko banaketa indartsu baten bidez.
6. Pertsonen autonomia handitzea eta biziraupenaz berriro jabetzea. Gaur egungo kolapso ekosozialeko ibilbide suntsitzaileetatik aparte gure bizitza pentsatzea hainbeste kostatzen bazaigu, autonomia politikorik edota materialik ez dugulako da, eta gure biziraupena produkzio industrial eta enpresarialeko sistemen guztiz mendekoa delako. Hori dela eta, Desazkundearen helburu politiko nagusia da benetako gizarte demokratikoak sortzea eta autonomia zabaltzea, biziari eusteko funtsezko eremuak demokratikoki eta lurraldeka kudeatu eta planifika daitezen.

Oso zaila da Desazkundea nozioak bere inguruan biltzen dituen eztabaida ugariak laburbiltzea. Gaur egun, eztabaida bereziki biziak daude, eta kontzeptua gero eta onarpen akademiko eta ikuspen sozial handiagoa hartzen ari da.

Gaingiroki, hiru eztabaida multzo nagusi daudela esan genezake.

Lehenengoa diagnostikoari buruzkoa da. Pertsona batzuek ulertzen dute dagoeneko kolapso ekosozialeko ibilbideetan murgilduta gaudela, eta, beraz, Desazkundeak erantzun azkarra izan beharko lukeela, gai dena hemen eta orain egungo egoerari ibilbide-aldaketa bat ezartzeko. Beste batzuek, aldiz, beharrezko eraldaketak egiteko maniobra-marjina erlatiboki zabalagoa dela ulertzen dute, batez ere materialari eta energiari dagokienez. Hala, krisi klimatikoa geldiaraztea eta desazkundea helburu izango lukeen trantsizio prozesu bat martxan jartzea proposatu dute orain, eta ez hainbeste bitarteko gisa.

Aurrekoari hertsiki lotuta, bigarren eztabaida bat agertzen da. Hemen deskribatutako Desazkunde motan, joera industrial eta kapitalistako ekoizpen- eta banaketa-logikak alde batera uzteko beharra onartzen da. Hala, txikitzea gure gizarteen berrantolaketa teknologiko integral baten sinonimoa izango litzateke, eta, neurri handi batean, desindustrializazio sakon baten sinonimoa. Hala ere, arestian aipatu den alderdi hori murrizteko erabilerak bateragarriak dira teknologizazio maila handiak mantentzearekin. Formulazio horiek posthazkunde terminoetan hitz egiten dute, eta ez hainbeste beherakada terminoetan. Gaur egungo gure matrize teknologikoaren zati handi bat matrize «deskarbonizatu» batekin ordezkatzeko aukera dago, baina, hala ere, goi-teknologiako matrize batekin.

Hirugarren eztabaida, eta garrantzitsuena, hemendik Desazkundetik harantzago joateko jarraitu beharreko estrategia politikoari buruzkoa da. Eta tradizio emantzipatzaile historikoetan dagoen aniztasuna adina aniztasun aurki dezakegu bertan. Korronte eta apustu estrategiko batzuk aipatzearren, komunalismoa, desobedientzia zibila, ekosozialismoa, populismo berdea edo lurraldearen defentsa aipa genitzake.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Fuhem. La propuesta del Decrecimiento. Situación de aprendizaje para Bachillerato. tiempodeactuar.es/blog/la-propuesta-del-decrecimiento-situacion-de-aprendizaje-para-bachillerato/

(gaz) Mètode. Marín i Monfort (2022). Educar en el decrecimiento. El cambio urgente. metode.es/revistas-metode/article-revistes/educar-en-el-decrecimiento.html

(gaz) García Díaz, J. Educar en y para el decrecimiento. nueva.redires.net/sites/default/files/2021-05/Educadecrecimiento%20IRES.pdf

(gaz) Rodríguez-Marín, Fátima et al. Los huertos escolares ecológicos, un camino decrecentista hacia un mundo más justo. raco.cat/index.php/Ensenanza/article/view/334852.

(gaz) Ruiz Morillas, N. (2016). El documental como recurso didáctico y el decrecimiento como tema de debate en el estudio de las Ciencias Ambientales. analesdequimica.es/index.php/AnalesQuimica/article/view/782/1076

Erlazionatutako topikoak

Bizitze ona, Ekokapitalismoa, Planetaren mugak.

DESAZKUNDERAKO HEZKUNTZA

Desazkunderako hezkuntza izenburupean, hainbat proposamen daude, iraunkortasunaren kontzeptua zalantzan jarri eta zaharkitutzat jotzen dutenetatik hasita (García, 2017; Rodríguez-Marín, F. et al., 2017; García Díaz, J. E., Fernández-Arroyo, J., Rodríguez-Marín, F. & Puig Gutiérrez, M., 2019), ekoherritartasuna sortzearen alde eta justizia politiko, ekonomiko eta ingurumenekorako prestakuntzaren alde egiten dutenak (Lerín, C., Llerena, G., & Espinet, M., 2023; Gutiérrez Bastida, 2022).

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Lerín Tutusaus, C., Llerena del Castillo, G., & Espinet Blanch, M. (2023). Por una educación ambiental decrecentista: estudio de ideas socioambientales críticas de jóvenes de cara a la elaboración de material didáctico. dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=8893406.

(gaz) Rodríguez-Marín, F. et al. (2017) Los huertos escolares ecológicos, un camino decrecentista hacia un mundo más justo». *Enseñanza de las Ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, núm. Extra, p. 805-10, raco.cat/index.php/Ensenanza/article/view/334852.

(gaz) Díez Gutiérrez, E. J. (2024). *Pedagogía del decrecimiento*. Octaedro.

(gaz) [Bideoa] Enrique Javier Díez Gutiérrez: Pedagogía del decrecimiento. www.youtube.com/watch?v=brVwA-dByk4.

Erlazionatutako topikoak

Desazkundea, Hezkuntza ekosoziala.

DONUTAREN TEORIA EKONOMIKOA

Donutaren teoria ekonomikoa giza beharrak eta planetaren jasangarritasuna uztartzen dituen esparru bisual bat da, hazkunde ekonomiko tradizionaletik haratago.

Kate Raworth ikerlariak (2012) garatutako teoria hori, donut baten itxurarekin adierazten da. Teoriak gizarte eta ingurumenaren mugak errespetatzen dituen tarte seguru eta justua sortzen du, gizadiaren garapenerako. Kanpoko zirkuluak planetaren mugak adierazten ditu; eta sabai ekologiko hortik harago, Lurreko bizitzari eusten dioten sistemen gainean gizateriak egiten duen presioa dugu. Barruko zirkuluak oinarri sozialaren

beheko muga adierazten du, eta bizitzaren funtsezko elementuak zehazten ditu, inori ezer falta ez dakion.

Tarte horrek ekitate askoz ere handiagoa eskatzen du baliabide naturalak erabiltzean, bai herrialdeen artean, bai herrialde bakoitzaren barnean, baita horien eraldaketa eraginkorragoa izatea ere, giza beharrak asetzeko.

2012an, Oxfamek «*Un espacio seguro y justo para la humanidad ¿Podemos vivir dentro del dónut?*» (Gizadiarentzako gune segurua eta bidezkoa. Donutaren barruan bizi gaitezke?) izeneko eztabaida-dokumentu bat argitaratu zuen, Kate Raworth Oxfameko ikertzaile nagusiak eta Oxfordeko Unibertsitateko Ingurumen Aldaketako Institutuko ikertzaile eta ekonomialariak idatzita.

Horretan, Raworthek kritikatu egiten du BPGa ekonomia neurtzeko tresna bakarra izatea. Izan ere, tresna horrek herrialdeak alderatzeko eta OCDEk nolabaiteko lehiakortasuna eta hazkunde ekonomikoa sustatzeko balio badu ere, ez da desberdintasun sozialak edo ekosistemen suntsipena azaltzeko gai. Raworthek ikuspegi berri bat proposatzen du, Donutaren teoria, alegia, ekodependenteak eta interdependenteak garela onartzen duena:

> Donut diagramaren asmoa pentsamendu ekonomiko zaharretik berrirako jauzia kondentsatzea da. Erronka, bada, donutaren eremu segurura eta justura eramango gaituzten tokiko ekonomiak eta ekonomia globalak sortzea da. Eremu hura zirkulu nagusiari dagokio, haren azpitik sistemaren gabeziak daude, eta gainetik, gehiegikeriak. Gero eta BPG handiagoa bilatu beharrean, modu orekatuan aurrera egiteko modua aurkitzeko momentua da. Donutaren ekonomiak pertsona guztien beharrak asetzen ditu, baina planetaren mugen barruan. (Kaiser, 2020)

Raworthek bereziki nabarmentzen du «gizadiarentzako espazio seguru eta justuaren» kontzeptua. Eta, garapen iraunkorraz hitz egiten duen arren, honako hau proposatzen du donutaren 1. irudian oinarrituta (Oxfam, 2012):

> Irudiaren erdigunean (donutaren zuloa) giza gabezia kritikoak kokatzen dira, hala nola gosea, analfabetismoa, pobrezia eta parte-hartzerik eza. Lehentasun nagusi gisa, bermatu beharra dago inork ez dituela gabezia horiek pairatzen, eta pertsona guztiek beharrezko eskubideak eta baliabideak dituztela, bizitza duina, betea eta aukerak dituena izateko giza-oinarria sortzeko.
>
> Aldi berean, garapen jasangarria lortzeko, gizateriak ekologikoki jasangarriak diren mugen barruan erabili behar ditu ondasun komunak. Hori lortzeko, onartu beharra dago lurreko sistema askok atalase ekologiko kritikoak edo arrisku handiagoko gradienteak dituztela (adibidez, klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera eta lurzoruaren erabileraren aldaketa), eta ezin ditugula horiek gainditu, behintzat Lurra oraingo aldi egonkorrean —Holozeno izenez ezagutzen dena— jarraitzea nahi ba-

dugu. Izan ere, aldi horrek sortzeko, garatzeko eta aurrera egiteko aukera eman die giza zibilizazio askori.



1. *irudia. Donutaren Teoria.*
Iturria: Raworth (2012).

Horren harira, Yayo Herrerok (2016) honako hau dio:

> Lurraren biogaitasuna gainditu gabe behar horiek betetzeko aukera ematen duen hori da metabolismo sozial desiragarria. Eta, gainera, denboran iraun behar du. Mugak gainditu daudela, eta dominazio-ardatz guztietan —klasea, generoa, etnia— desparekotasunek gora egiten duten testuinguru batean, argi dago lan itzela egin beharra dagoela arlo teoriko, kontzeptual, tekniko, politiko eta kulturaletan.

Alde batetik, giza zaurgarritasun eta gabezia kritikoen aurrean babes gisa jarduten duen gutxieneko oinarri sozial amankomuna dugu eta, bestetik, atalase ekologiko kritikoak gainditzea eragozten duen ingurumensabai bat. Hala, gizadiarentzat segurtasun- eta justizia-espazio bat bilatu behar da horien artean, donut itxurakoa (edo gurpil, erroskilla edo uztai itxurakoa nahiago bada). Eremu horretan, ia bermatuta daude giza ongizatea eta planetaren ongizatea, eta bien arteko interdependentzia errespetatu egiten da (Raworth, 2012). Ameskeria dirudien arren, hura da pertsona guztientzat bermatu behar den eremua. Edo, gutxienez, irmotasunez eta jarraitutasunez saiatu behar gara.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) «Doughnutaren ekonomia» *Argia*. www.argia.eus/argia-astekaria/2617/doughnutaren-ekonomia.

(gaz) Entreculturas. Un mundo en Jolasa. redec.org/sites/default/files/el_mundo_en_Jolasa_baja.pdf.

(gaz) Intermon-Oxfam (2023). *Elige un futuro. La crisis climática tiene solución*. www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/ceneam/recursos/materiales/Elige%20un%20futuro.%20La%20crisis%20clim%C3%A1tica%20tiene%20soluci%C3%B3n.pdf.

(gaz) Radiocable.com: Para relanzar la economía, en Amsterdam van a probar el plan «donut» que cambia el modelo de consumo. www.radiocable.com/amsterdam-plan-donut-relanzar-economia428.html.

(in) «About Doughnut Economics | DEAL» *doughnuteconomics.org*. doughnuteconomics.org/about-doughnut-economics#what-is-doughnut-economics.

(in) Stockholm Resilience Centre. [Bideoa] Kate Raworth: living in a safe and just operating space. youtu.be/0TI=ETGsEkc?si-SDNdxzKNPW99qQGO.

Erlazionatutako topikoak

Ekonomia ekofeminista, Planetaren mugak, Iraunkortasuna.

E

EKOALFABETIZAZIOA

Ekoalfabetatze terminoak ingurumen-erronkak modu sistemikoan ulertzeko eta jorratzeko beharrezkoak diren ezagutza, trebetasun eta jarreren multzoari egiten dio erreferentzia. Ekoalfabetizazioa oinarrizko kontzeptu ekologikoak ulertzetik haratago doa; gizakien eta beren ingurune naturalaren arteko lotura sakon ulertzea da, baita erabaki informatuak hartzeko eta jokabide jasangarriak hartzeko gaitasuna ere. Ikuspegi horrek berekin dakar harremanak, loturak eta testuinguru naturala nabarmentzen dituen pentsamolde bat, eta gizakien eta naturaren arteko interdependentziari buruzko kontzientzia pizten duena. Hala, pertsonek mundu naturala osotasun integratu gisa ulertzeko eta balioesteko gaitasunak garatzen ditu, ingurumen-arazoak sistemikoak eta elkarri lotuak direla onar dezaten.

Ekoalfabetatzea funtsezkotzat jotzen da bizi garen mundu naturala ulertzeko, balioztatzeko eta babesteko, eta zuzenean eragiten du gizakion erabakietan eta ingurumenarekiko jokabideetan (Orr, 1992). Azken batean, gaur egungo gizartearen ingurumen-erronkak ulertzeko eta hauei eraginkortasunez heltzeko trebatzen ditu pertsonak. Pertsona ekoalfabetatuek ekologiaren oinarrizko kontzeptuak ez ezik, biodibertsitatea, ziklo biogeokimikoak eta organismoen eta haien ingurunearen arteko elkarreraginak ere ulertzen dituzte; eta, gainera, beren ekintzek ingurumenean dituzten inplikazio sozial, ekonomiko eta etikoez jabetzen dira. Ekoalfabetzatzeak, beraz, ingurumen-politikak kritikoki ebaluatzeko, ingurumenarekin lotutako erabakietan parte hartzeko eta eguneroko bizitzan eta komunitatean jardunbide jasangarriak sustatzeko gaitasunak hartzen ditu. Beraz, bizitzako hainbat alderdi birdiseinatzeko gaitasun praktikoak azpimarratzen ditu, eta naturako elementu guztien interkonexioa eta interdependentzia balioestera animatzen gaitu, ingurumen-testuinguru zabalagoak jorratzen dituzten soluzioak lortzeko (UNESCO, 2019).

Hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, ekoalfabetatzea sustatzeak nabarmen lagun dezake etorkizun iraunkorragoa eta erresilienteagoa eraikitzen. Alfabetatze ekologikoa hezkuntza-esparruetan txertatuz, eskolek ikasleak gaitu ditzakete, ingurumenarekiko kontzientzia duten herritarrak eta aldaketa positiboko eragileak izan daitezen. Hortaz, oinarrizkoa da iraunkortasunerako, eta hezkuntza sistemen helburu nagusia izan behar du (Sterling, 2001).

Hezkuntza prozesuetan ekoalfabetatzea integratzeko, aldaketak egin beharra dago hezkuntza pentsatzeko eta bideratzeko moduetan, hain zuzen, harremanak, loturak eta testuinguru naturalak azpimarratuz. Horri esker, gizabanakoek askotariko gaiak azter ditzakete ikuspegi holistikotik, eta ez zatikatutako ezagutza batetik. Beraz, ekoalfabetatzea hezkuntza-curriculumetan txertatzeko, diziplina anitzeko ikuspegia behar da, hau da, curriculum-arteko konexioak ezartzen dituena, ingurumen-kontzeptuak beste diziplina akademiko batzuekin lotzen dituena eta ingurumen-gaiak hainbat ikuspegitatik aztertzen laguntzen duena; ekologiarekin, ingurumen-zientziarekin eta jasangarritasunarekin zerikusia duten kontzeptuak hainbat gaitan txertatzen dituena, besteak beste, zientzia, geografia, gizarte, literatura eta arte ikasketetan. Era berean, ekoalfabetatzea lurraldean oinarritutako hezkuntzaren bitartez garatu behar da, hobeto garatzen baita inguru naturalarekiko harreman adierazgarriak ahalbidetzen dituzten esperientzia praktikoen bitartez (Sobel, 2005).

Ikasleen ekoalfabetatzea ebaluatzeak erronkak sortzen ditu ingurumen-ulermenaren konplexutasuna eta portaeraren aldaketa atzematen duten ebaluazio-metodo esanguratsuak garatzeari dagokionez. Ebaluazio-estrategia berritzaileek, hala nola proiektuetan eta portfolioetan oinarritutako ebaluazioek, ikuspegi integralagoak eskain ditzakete ikasleen ekoalfabetatzearen garapenari buruz. Hortaz, hezkuntza-sistemetan zehar ekoalfabetatzea ezartzeko arduradun politikoen, hezitzaileen eta interesdunen arteko lankidetza funtsezkoa da; hezitzaileek laguntza eta baliabideak behar dituzte, oztopo instituzionalak gainditu behar dira eta hezkuntza-estandarrekin bat datorrela bermatu behar da.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus-gaz-in) UNEtxea (2024). *La sostenibilidad del océano y el cambio climático. Alfabetización oceánica*. unetxea.org/portfolio-item/la-sostenibilidad-del-oceano-y-el-cambio-climatico-alfabetizacion-oceanica/.

(gaz) Instituto Esteban Lugo. Conversatorio de Alfabetización Ecológica y Educación EcoSocial. www.youtube.com/watch?v=1EYSEGu2XT4.

Erlazionatutako topikoak

Ekoherritartasuna, Hezkuntza ekosoziala, Ahalduntzea.

EKODEPENDENTZIA

Ekodependentzia terminoa *eko-* ekologiaren apokopeak eta *dependentzia* hitzak osatzen dute. Bigarren horrek bere buruaren jabe ez den pertsona baten egoera adierazten du eta etimologikoki, norabidea adierazten duen latinezko *dē-* aurrizkitik eta *pendêre* (eseki edo itxaron) aditzetik eratortzen da.

Oro har, ekodependentzia hitzak izaki bizidun guztien eta bizi diren ekosistemen artean dagoen bizi-harremana adierazten du; eta, ikuspegi ekosozialetik, nabarmentzen du gizakiak, izaki bizidun gisa, natura garela eta bere baldintzen eta mugen eraginpean gaudela.

Gizakia erabat ekodependentea delako idei horrek gogorarazten digu bizitza garela, natura ere garela. Berretsi egiten du testuinguru naturalak gizakiarentzat duen garrantzia (elikagaia eta ura, energia, airea, mineralak, aterpea eta babesa, gozamena...), eta izaki bizidunen arteko interes-komunitate baten ideiara hurbiltzen gaitu, hain zuzen, bizitza mantentzera bideratuta dagoena. Horretarako, gizakiaren ekintza ekosistemen ziklo naturaletara eta dibertsitate biologiko eta geologikora egokitu behar da. Halaber, printzipio horrek gogorarazten digu planetan dugun presentziak ezin duela zero inpaktua izan; izan ere, gutxieneko baldintza batzuk behar ditugu bizirik irauteko. Baina beste gauza batzuei buruz ere hitz egiten digu, hala nola bizitza biosferaren berezko balio gisa onartzeaz eta biosferako kide izateaz, gure ekodependentzia eta jarduera biosferaren zikloen barruan artikulatzeaz eta doitzeaz, edota bizitzaren sarearen iraunkortasunaz.

1995ean, Mitchell Tomashowk, ingurumen-hezkuntzari buruzko hausnarketatik abiatuta, gure giza nortasunaren dimentsio ekologikoa agerian utzi zuen honako galdera hauek planteatuz: nola ulertzen dugu bizi garen ingurune naturala? zer jasotzen dugu bertatik eta zer ekarpen egiten diogu? nola lotzen gara harekin? (Tomashow, 1995).

Ekodependentzia hezkuntza ekosozialaren paradigma bat da, bizitza hausnarketaren erdigunean jartzen duena (Assadourian, 2017). Hortik aurrera, ekodependentzia integratzea funtsezkoa da hezkuntza-jardueraren eta bizitza pertsonalaren eta sozialaren antolaketan. Ingurune natural batean bizi gara, eta ingurune horrekin elkarreragiten dugu; hartzen eta ematen dugu, eta bizitza mantentzeko behar dugun guztia jasotzen dugu. Horrela, ingurumenaren kontserbazioa beharrezkoa da gure biziraupenerako; izan ere, bertatik sortzen gara eta berak hartzen gaitu.

Gaia izeneko hipotesian edo teorian, gizakien ekodependentziaren esparruari buruzko ikuspegi oso iradokitzailea planteatzen da. Horretan, James Lovelockek bere habitata sortzen duen izaki bizidun gisa aurkezten du planeta. «Lurraren, atmosferaren eta ozeanoen gainazalaren baldintza fisikoak eta kimikoak bizitzarako egokiak izan dira eta badira bizitzaren

presentziari berari esker» (Lovelock, 1983). Izaki bizidun horrek, beharbada, bere eboluzioan bertan adierazten den adimen bat du, bere burua erreproduzitzeko propietatea duena (autopoiesia) eta bere burua erregulatzen duena bere barne-orekako egoerari eusteko (homeostasia).

Lynn Margulisek (1999) Gaia teoriarekin bat datorren ikuspegi bat planteatzen du. Izan ere, organismoen arteko sinbiogenesia berritasun biologikoaren eragile gisa hartuta, eboluzioa berrinterpretatzen du, eta Lurrak oso ekosistema konplexua osatzen duela uste du; baina, bere esanetan, horrek ez du esan nahi lehen aipatutako ezaugarriak dituenik.

Ikuspegi feministatik, ekodependentziaren kontzeptuak mendebaldeko pentsamenduaren oinarrizko dualtasuna gainditu nahi du, hark banaketa horren terminoak hierarkizatzen baititu. (Rodríguez eta Herrero, 2017). Horrela, Platonen arimaren eta materiaren, Descartesen arrazoiaren eta emozioaren, eta zientzia modernoaren arrazoiaren eta naturaren artean, beti nagusitzen da lehen elementua, normalean gizakiaren gorpuztasunetik urrunduz. Logika horretan gertatzen da, halaber, honako bi esparru hauen banaketa: batetik, ekoizpena, kontuan hartzeko moduko esparru publiko bezala; eta, bestetik, erreprodukzioa, ikuspegi eta kontsiderazio publikotik urrun dagoen esparru pribatu gisa. Mendebaldeko pentsamenduari dagokion paradigma erredukzionista horren arabera, «gizona» —gizonezko, kaukasiar eta adin ertaineko gisa ulertua— gainerako izaki bizidun guztien neurketa eta helburu unitatea izango litzateke, baita erretratuan sartzen ez diren gainerako pertsonena ere. Hala, antropozentrismoak paradigma teozentrikoa aldatu zuen, eta, pentsamendu zientifikoaren eboluzioarekin, nolabait, bilakatu egin zen Darwinen eboluzioaren gailur, Teilhard de Chardinen omega puntu (1974), kontzientziaren eboluzioaren puntu goren, eta eboluzio horren helmuga teleologiko. Hala, antropozentrismoa ekodependentziaren begirada mugatzailea izango litzateke .

Hezkuntza ekosozialarentzat, naturarekin dugun harreman antropozentrikoa aldatzea erantzukizun bat da. Horrela, bizitza hausnarketaren irizpide nagusitzat hartuz, irakasten eta ikasten dutenek biosferan duten posizioa ulertu eta sentitu behar dute.

Hezkuntza ekosozial hori inguruko lurraldearekiko loturatik abiatzen da, ulermena eta afektuak garatzeko lehen espaziotik, alegia, eskala handitzeko oinarri bat izateko. Era berean, aniztasuna ulertzea eta baloratzea sustatzen du, hura biziaren funtsezko ezaugarria baita, bai alderdi biologiko hutsari —biodibertsitateari— dagokionez, bai errealitate sozialaren giza adierazpenari dagokionez. Era berean, gure bizitzek eta jarduerek espazio bereizi eta deskonektatu gisa aurkezten dituzten praktika ekonomiko, kultural eta politikoak indentifikatu behar ditu ikaskuntzak, horien ezkutuan egon arren. Izan ere, horiek alde batera uzten dute ekosistemetan bizi garen izaki korporala garela, eta ekosistema horietatik kanpo izango bagina bezala jokatzen dute. (Herrero, 2024).

Lotura estua dago ekodependentzia eta interdependentzia ulertzean, izaki ekodependenteak eta interdependenteak garela onartzean; izan ere, biosferaren parte garen aldetik, bizirik dagoen guztia batzen duen sare delikatuak eta konplexuak lotzen gaitu. Era berean, interdependenteak garen aldetik, zaintzen etika gure gain hartzen dugu, batez ere beste pertsona batzuekin dugun harremanean. Izan ere, gure bizitzan, pertsona horiek behar izan ditugu, behar ditugu eta beharko ditugu. Bizitza ez da ingurune pasibo batean ematen eta horretara moldatzen; aitzitik, bere ingurune propioa eraikitzen du behin eta berriz»

Gizakien bizitzaren ekodependentziaren alderdi espezifiko bat ekosistemen zerbitzuak aztertzen dituen hori da. Pertsonok, biosferaren osagai garen aldetik, inguruko ekosistemetatik jasotzen ditugun onurak eta baliabideak sartzen dira zerbitzu horietan. Bizi-mendekotasuneko harreman hori ez ohi da balioesten, eta, are larriago, ez da hautematen, zerbitzu horietan anomalia bat gertatzen denean izan ezik.

Sistema ekonomikoak kritikoki berrikustera garamatza ekodependentziaren paradigmak; izan ere, sistema ekonomiko horiek ez omen dute aintzat hartzen giza bizitza zein ekonomia eta teknologia bakarrik direla posible naturan, eta gure ekosistemek berezko mugak dituztela. Muga fisikoak dituen leku batean bizi garela onartzen badugu, ezin dugu hazkunde amaigabeko sistema ekonomiko batean pentsatu, ekosistemen energia, material, produktu eta zerbitzuen mugen eta hondakinak eraldatzeko gaitasunaren gainetik.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus-gaz) Federación de Movimientos de Renovación Pedagógica (MRPs) de Madrid y Ecologistas en Acción. 99 galdera eta 99 esperientzia mundu bidezko eta iraunkor batean bizitzen ikasteko www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/adjuntos-spip/pdf/99-preguntas-euskara.pdf / 99 preguntas y 99 experiencias para aprender a vivir en un mundo justo y sostenible www.ecologistasenaccion.org/20300/99-preguntas-99-experiencias-aprender-vivir-mundo-justo-sostenible/.

(gaz) Fuhem (2020). Gaia. Una mirada ecosocial e interdisciplinar www.fuhem.es/2020/10/30/lo-que-la-tierra-tiene-que-ensenarnos/.

(gaz) Tiempo de actuar. tiempodeactuar.es/.

(gaz) Guakía Ambiente. ¿Qué es la ecodependencia? : descubre por qué nuestra vida depende del equilibrio con la naturaleza. bvearmb.do/handle/123456789/6258?locale-attribute=es.

Erlazionatutako topikoak

Krisi ekosoziala, Interdependentzia, Planetaren mugak.

EKOFAXISMOA

Ekofaxismoa ekologismoa eta faxismoa uztartzen dituen terminoa da. Ingurumena baliabide-iturri gisa babesteko eta defendatzeko helburuz, eskuin muturreko sistema totalitario bat ezarri nahi du. Haren arabera, gainpopulazioa da mehatxurik handiena, eta gizakia, bereziki gizon zuria, naturarekin birkonektatzea du helburu.

Gizarte justizia eta iraunkortasun ekologikoa helburu dituen trantsizio ekosozialik ezean, ekofaxismoaren arriskua dago, behar bezalako arreta eskaintzen ez bada.

Cuevasen arabera (2023), ekofaxismoaren jatorria maltusianismoan eta kontserbazionismoan aurkitzen da; hain zuzen ere, honako hauei lotuta: alde batetik, baliabide naturalak mugatuko lituzkeen populazio-hazkunde esponentzialaren gaineko kezka, eta, bestetik, baliabide naturalak babestu nahi dituen mugimendua, etorkizuna ziurtatzeko eta horiei erabilera hobea emateko. Eta Cuevasek honako hau gehitzen du:

> ... ekofaxismoaren jatorririk zuzenena Alemaniako nazismoa da. Ideologia nazionalista eta supremazista gisa, bere helburuetako bat «lebensraum» edo «bizi-espazioa» konkistatzea zen. Nazismoak etnonazionalismo alemaniarretik hartu zituen ideiak, esate baterako, «blut und boden» («odola eta lurra») ideologia. Hala, mugimenduak, hasieran, kide kontserbazionistak izan zituzten, eta proposamen ekologistak egin zituen, nekazaritza-bizitzaren erromantizazioarekin lotuta. Hala ere, Hirugarren Reicha industrializaziora bideratu zen bere boterea sendotzeko, eta ekologistek protagonismoa galdu zuten. (Cuevas, 2023)

Azken hamarkadetan, klima-krisiaren eta Interneten eraginez, ingurumen-erradikalismoaren zati bat mugimendu ultraeskuindarretan kokatu da, hala nola, AfD Alemaniarentzako Alternatiba edo Frantziako Bilgune Nazionala bezalako alderdietan. Horietan parte hartzen duten defendatzaile gazte supremazisten ustez, zuriak ez diren pertsonen gainpopulazioak ingurumenari kalte egiten dio eta baliabide naturalak agortzen ditu (Cuevas, 2023).

Taiboren ustez (2016), dagoen energiaren muga ideologien historiaren benetako amaiera izango da, eta egoera ezezagun bat sortuko du, hainbat elementurekin. Hasieran, natura asaldatuko da klima-aldaketaren eraginez. Gizarte eta ekonomia arloetan, energiarik eza eraldaketa sozial, politiko eta teknologikoaren funtsezko faktorea izango da. Bi egoera horiek ekintza bateratu bat behartuko dute, eskura dagoen energia urria

kudeatzeko. Hala, Estatua, erakunde zentralizatzaile gisa, krisi egoeran sartuko da, eta indarraren erabilera funtsezko faktore gisa agertuko da energia eskuratzeko borrokan .

Horrek, bada, bidegurutze batera garamatza berriz ere: edo trantsizio ekosoziala aukeratzen dugu edo ekofaxismoa nagusituko da. Taiboren arabera (2021):

> Ekofaxismoa planetan jende gehiegi dagoelako ziurtasunean oinarritzen da. Hala, bere bertsiorik leunenean, soberan daudenak baztertzea proposatzen du, eta, gogorrenean, sarraskia. Ikuspegi horrek antz handia du agintari nazien diskurtsoarekin. Beste gauza bat litzateke, noski, planetaren ingurumen- eta baliabide-mugak ikusita, geure burua kontrolatzeko borondatezko ariketa bat egitea, desazkundeko eskola gehienek demografia arloan proposatzen duten bezalaxe. Ekofaxismoaren aurkako antidoto gisa, lehen esandakoa errepikatzen dut: desazkundea, desurbanizazioa, despatriarkalizazioa... Hori guztia autogestioan, demokrazia zuzenean eta elkarri laguntzean oinarritzen diren gizarteak babestearekin batera.

Krisi ekosozialaren aurrean, ekofaxismoa benetako aukera bat da, behintzat, maila indibidual, sozial eta globalean behar besteko premiaz eta energiaz jarduten ez bada.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) [Bideoa] Canal UNED. Carlos Taibo: Ecofascismo. canal.uned.es/video/648983a26ff5a7417418bcc2.

(gaz) [Bideoa] Mad Max: Furia en la Carretera (2015) — Escena: Adictos al agua. youtu.be/wxgW7EvpZZA?si=INl_aZUxc-CO9v6d.

(gaz) Gaiarekin lotutako beste film batzuk: «The Road» (2009), «Cloud Atlas» (2012), «Elysium» (2013), la serie «El cuento de la criada» (2017) o «Dune» (2021) y (1984).

(gaz) Perspectiva Lunar. Vídeo: El Ecofascismo explicado por Carlos Taibo. youtu.be/qG-Rtm5BqJw?si=PvuIy34quoe8JlmU.

(gaz) Díez Gutiérrez, E. J. (2025), *Pedagogía antifascista*. Octaedro.

(eus) [podcast] Hauxe gure lurra: Ekofaxismoa (Barcena & Larrinaga). www.bilbohiria.eus/74579.

(eus) Barcena, I. Argia. Ekofaxismoa al datorkigu? www.argia.eus/argia-astekaria/2880/ekofaxismoa-al-datorkigu.

Erlazionatutako topikoak

Ekologia politikoa, Ekoherritartasuna, Balioak.

EKOFEMINISMOA

> Basamortua atzeratu zuten. Pentagonoa inguratu zuten. Standing Rock erreserba indigenan manifestatu ziren. Eraikitzen ari ziren zentral nuklearrak saboteatu zituzten. Nekazarien haziak landu zituzten eta labore transgenikoak zapaldu zituzten. Girlanda ikusgarriak ehundu eta basoan zintzilikatu zituzten. Aldizkariak sortu eta manifestuak idatzi zituzten. Etsaiaren lerroak zeharkatu eta zauritutako jendea zaindu zuten. Munduaren errautsen gainean dantza egin zuten, hontzaren oihua entzun zuten, eutsi, borrokatu, sendatu, maitatu… (Virginie Maris, 2024)
>
> Ekofeministentzat, naturaren suntsiketa eta emakumeen zapalkuntza lotuta daude. (Emilie Hache, Massemin-ek aipatua, 2016)
>
> Naturarik eta zaintzarik gabe, ez dago ez ekonomiarik, ez teknologiarik, ez politikarik, ez gizarterik. (Yayo Herrero, Cuneo-k aipatua, 2006)
>
> Gure ustez, gaur egungo kontraesanak birpentsatzeko, nagusi diren imajinarioei buelta emateko, naturarekin eta pertsonen artean harreman-modu berriak proposatzeko, eta, azken baten, lurraren gainean leun zapalduko duen bake-kultura baterantz abiatzeko gakoak ematen ditu ikuspegi ekofeministak. (Vandana Shiva, 2006)

Françoise d'Eaubonnek ekofeminismo terminoa sortu zuen 1970ko hamarkadan. Hark, garai hartako ikuspegi feministek bezala, patriarkatuaren kritikan oinarritu zen. Gizarte indarkeria eta desparekotasun guztien aurkako borroka, bizitzaren zaintzaren ikuspegi antipatriarkal batetik, kontzepzio ekofeministen oinarrian dago. Alicia Puleoren arabera (2011), ekofeminismo kritikoa, hain zuzen ere, justizia ekologikoa eta iraunkortasuna helburu dituena, berdintasunaren eta autonomiaren ideietan oinarritzen da. Izan ere, ideia horiek sexismoari, arrazakeriari eta etnozentrismoari, klasismoari, sexu-aukeraren ondoriozko diskriminazioari eta antropozentrismoari aurre egiteko oinarri sendo gisa hartzen ditu. Hala, honako ezaugarri hauek ditu: 1) berdintasunaren eta autonomiaren printzipioen defentsa; 2) genero maskulino eta femeninoei buruzko ikuspegi konstruktibista; 3) kulturen arteko elkarrizketa sustatzea; 4) zientzia eta teknika zuhurtziaz onartzea; eta 5) zaintzaren bertuteak unibertsalizatzea, horiek gizakiei eta gainerako naturari aplikatuta.

Yayo Herreroren esanetan (2015), ekofeminismoa mugimendu sozial bat da, eta batez ere mugimendu feministaren eta mugimendu ekologistaren arteko elkarrizketan oinarritzen da, berdintasunean oinarrituta. Hala, pertsonen arteko eta naturarekiko harremanak birpentsatzeko eta berreraikitzeko aukera ematen du, giza bizitza sostengatzen duten oinarri materialak arriskuan jartzen ez dituzten harremanen alde. Halaber, nolabait esatearren, aukera ematen digu geure burua espezie gisa hobeto ulertzeko, eta gizakiak naturarekin eta gainerako gizakiekin dituen harremanei garrantzi material, politiko eta sinbolikoa emateko, hura baita gizadiari eusteko oinarria.

Hala ere, beren burua feministatzat duten emakume guztiak —eta gizon asko— poztuko dituen definizioa ematea ez da erraza. Neurri batean, mugimendu feministan eta ekologistan dagoen aniztasuna erakusten duen ispilua da. Izan ere, horretan ez da ekofeminismoaren *queer* interpretazio bat ere falta.

Virginie Maris-en ustez, zentzu hertsian, «ekofeminismoa ez da teoria bat, ez mugimendu bat, ez borroka-sare baten beste zati bat. Kolore anitzeko bandera bat da […]. Ekofeminista guztiak ez dira iritzi berekoak; aitzitik, hainbat norabidetan zabaltzen dituzte beren adarrak: intersekzionalitatetik hasi eta landa-komunitateetan bizitzeraino, zientzia esperimentaletan edo gizarte-zientzietan ikertzeraino eta alderdi ekorreformistaren batean militatzeraino ere». Baina «hor daude, bizirik, boteretsu, beste modu batera borrokatzeko prest, ordena falokratikoak ezarri nahi duen frontismo militarrari aurre egiteko prest» .

Aniztasun horri esker, ekofeminismoak hainbat eremutan proiekta dezake bere burua, eremu akademikoenetatik hasi eta aktibistenetaraino. Hala, Mendebaldeko garapen-ereduaren, teknozientziaren eta ekonomia konbentzionalaren gehiegikeriak eta akatsak salatzen ditu; eta ekoizpena, lana edo zuzenbidea birpentsatzeko eredu eta bide berriak proposatzen ditu. Izan ere, pertsonen beharrak berdintasunez betetzera bideratu nahi ditu eremu horiek guztiak, planetaren muga fisikoetara moldatuz.

Ekologistak Martxan erakundeak ekofeministatzat du bere burua, eta ekofeminismoko sail bat du. Sail horrek honako definizio hau egin du:

> Pentsamendu- eta aktibismo-korronte bat da, eta korronte horrek bizi-eredu ekozida, patriarkal, kapitalista eta koloniala indartzen duten usteak kritikoki aztertzen ditu, eredu horrek pertsonei eta gainerako izaki bizidunei eragiten dizkien arriskuak salatzen ditu, eta bizitzaren aurkako gerra hau gelditzeko ikuspegi alternatiboak proposatzen ditu.
>
> Ekofeminismoa anitza da, eta era askotan aurkezten da, baina baditu ezaugarri komun batzuk. Ekofeminismo guztiek berrikusi egiten dituzte gizarteen eta naturaren eta gorputzen arteko haustura faltsua sortzen eta mantentzen duten mitoak. Ekonomia, ekoizpena, garapena, lana edo gizabanakoa bezalako kontzeptuak deseraiki eta birformulatzen dituzte. Kultura hierarkiko bati aurre egin nahi diote, hain zuzen ere, bizitza batzuek beste batzuek baino gehiago balio dutela uste duen kulturari, eta etekinaren maximizazioari mugak jarri nahi dizkion guztia indarkeriaz menderatzen duen kulturari.
>
> Ekofeminismoek salatzen dute giza bizitzaren zikloak eta muga ekologikoak ekonomia konbentzionaletik kanpo geratzen direla, eta egunerokoa errealitateari eta politikari buruzko beste begirada bat proposatzen dute. Hala, balioa ematen diote pentsamendu hegemonikoak gutxietsitako elementuei, praktikei eta subjektuei; izan ere, horiek bazter utzi dira historikoki.

> Ekofeminismoaren azterketek eta proposamenek gure burua kokatzen eta espezie gisa hobeto ulertzen laguntzen digute, eta zenbait arrisku identifikatzeko irizpidea ematen digute. Hain zuzen ere, arrisku horietako asko errealitatea modu erredukzionista batean ulertzetik sortzen dira, hau da, osotasuna ulertu gabe. Ikuspegi horrek konplexutasuna sinplikatzen du eta harremanek gizakiontzat duten garrantzi materiala eta sinbolikoa ezkutatzen du.
>
> Gizakiak naturatik eta gorputzetatik bereizten dituen mendebaldeko artifizio teorikoa desegiten laguntzen du ekofeminismoak. Izan ere, giza bizitzaren immanentzian eta zaurgarritasunean jartzen du arreta, eta bizitza erdigunean kokatzen duten gizarte seguruak eraikitzeko oinarri sendoak ematen ditu. (Ecologistas en Acción, 2018)

Analisi hori, antikapitalistatzat ere jo daitekeena, ez da soilik erakunde ekologista erradikalena; izan ere, ingurumenaren aldeko mugimendu eta erakunde moderatuagoetan ere ikus dezakegu. Har dezagun adibide gisa Lurraren Lagunak erakundea, nazioartean bi milioi kide baino gehiago dituena. Erakundeak honela adierazten du «gure ikuspegia»:

> Naturarekin harmonian bizi diren gizarteek osatutako mundu baketsu eta iraunkor baten aldekoa da gure ikuspegia. Duintasunez eta osotasunez bizi diren pertsona interdependenteen gizarte bat nahi dugu, berdintasuna, giza eskubideak eta herrien eskubideak errespetatzen dituena. Herrien burujabetzan eta parte-hartzean oinarritutako gizartea izango da. Gizarte. ingurumen, ekonomia eta genero justizian oinarrituko da, eta ez du inolako dominazio eta esplotazio modurik izango, ez neoliberalismoa, ez globalizazioa, ez neokolonialismoa eta ez militarismoa. Egiten dugunari esker, gure neska-mutilen etorkizuna hobea izango dela uste dugu. (Amigos de la Tierra, 2020)

Zentzu berean hitz egiten du Inglaterrako, Galeseko eta Ipar Irlandako Lurraren Lagunak erakundeko Fiona Ranford-ek ere:

> Gaur egungo eredu ekonomiko kapitalista eta neokolonialistak, baliabide naturalak indarrez erauztean oinarrituta, balio hierarkia arriskutsu bat adierazten du: hazkundea mantenuaren gainetik kokatzen du, produkzioa erreprodukzioaren gainetik, Iparralde Globala Hegoalde Globalaren gainetik, maskulinoa femeninoaren gainetik. Bizitza bera mantentzeko beharrezkoak diren baldintzak kaltetzen dituen eredu patriarkala da, eta emakumeak zaintzen emaile gisa kokatzen dituzten gizarte rolak indartzen ditu eta behar ditu, bere kostu larriak ezkutatzeko asmoz». (Amigos de la Tierra, d.b.)

edo Ugandako Lurraren Lagunak erakundeko Peruth Atukwatse-ren esanetan:

> Patriarkatuarekin amaitzea, batez ere Afrikan, emakumeek bizi dituzten eguneroko atsekabeekin amaitzea da, nire ustez, horien artean, za-

> palkuntza, beren eskubideen ukapena eta erabakitzeko ahalmenik eza. Ezin dugu ezer espero, ez bada gugandik. Federazio gisa EZ esaten badiogu kapitalismoari eta haren oinarriei, lehenik bera sostengatzen duen patriarkatuta ezabatu behar dugu, borrokan dugun parte hartzea berdintasunez garatu ahal izateko guztion artean. (Amigos de la Tierra, s.f.)

Adierazle askok erakusten dute gure bizimodua eta hura sostengatzen duen ekoizpen-sistema berrikusi eta eraldatu beharra dagoela. Zentzu horretan, ekofeminismoek gauzen ordena aldatzea helburu duten proposamen etiko eta praktikoak eskatzen dituzte, eta, zibilizazio-krisiaren aurrean (Riechmann-ek eta beste batzuek horrela definitu dute gaur egungo krisia), garapen-eredu alternatibo bat eraikitzen laguntzen dute. Ekofeminismoak ekologismoa eta feminismoa eskola bakar batean batzen ditu, eta naturaren gehiegizko ustiaketak eta emakumeen menderakuntzak jatorri bera dutela ulertzen du; hain zuzen ere, gorputzak eta lurraldeak irentsiz funtzionatzen duen ekonomia kanibala. Haren oinarrian, natura makina gisa eta zientzia botere-tresna gisa ulertzen duen ikusmoldea dago. Hala ere, Alicia Puleok dioen bezala, mugimendu feministak, oraindik, errezeloak ditu ingurumenaren auzira hurbilketa bat pentsatzeko. Jarrera horren arrazoietako bat da, izan ere, feministek XIX. mendetik hainbat proiektu emantzipatzaile eta solidariotan parte hartu dutela —hala nola esklabotza abolitzeko borrokan edo hainbat prozesu iraultzailetan— eta ez dela elkarrekikotasunik egon[7].

Ekofeminismoak, gaur egun, hainbat dimentsiotan agertzen dira, hala nola filosofikoan, hezkuntzakoan, artistikoan, ekonomikoan, zientifikoan… eta, jakina, aktibismoan. Hala, gizarte, hezkuntza, ekonomia eta kultura eredua, eta, batez ere, eredu politikoa eraldatzeko beharra azpimarratzen du.

Zaintzak ekofeminismoaren funtsezko alderdi bat dira, feminismoen postulatuen oinarrizko elementua; eta ekofeminismoak ekarpen hori egin die mugimendu ekologisten ideiei[8]. Eremu erreproduktiboak ekonomiaren eta bizitzaren sostenguan produkzio-eremu gisa —batez ere etxeko eremuan— duen garrantzia nabarmendu egin dute aktibista ekofeministek. Baina ez teoria ekonomiko kapitalistak, ez marxismo klasikoak, ez dute garrantzi hura onartu. Izan ere, ekofeministek nabarmendu egin dute

---

[7] Celia Amorósen «aliantza galgarriak» terminoa jasotzen du Alicia Puleok: «Emakumeak askatasunaren eta berdintasunaren aldeko borrokalari gisa erabili izan dituzte behin eta berriz, eta, gero, gizartea berrantolatzeko eta promesak betetzeko orduan, ahaztu egin dituzte». Hemen: Alicia Puleo (2022). «El ecofeminismo y sus compañeros de ruta. Cinco claves para una relación positiva con el ecologismo, el ecosocialismo y el de-crecimiento», in *Estudios* 48: 102. Horretan aipatzen da beste hau: Amorós, C. (2005). *La gran diferencia... y sus pequeñas consecuencias para las luchas de las mujeres.* Madril: Cátedra. (342).

[8] Mugimendu ekologistetan ere, 1970ko hamarkadan sortu zirenetik, jokabide matxistak egon dira; berdinzaleak, eraldatzaileak edota iraultzaileak omen ziren beste erakunde batzuetan gertatzen zen bezalaxe..

ez dagoela hain bereizketa garbia eremu produktiboaren (merkatuan adierazten dena, monetizatzen dena) eta jarduera erreproduktiboen artean. «Enpleguari soilik deitzen diogu lana, eta besteak, eguneroko bizitzaren zaintzari lotutako lan-kantitate izugarri horrek ez du, ez izenik, ez baliorik»[9].

Eredu nagusi horren barruan, emakumeek talde sozial gisa duten denbora, energia eta gaitasun (erre)produktiboak baliabide amaigabetzat hartzen dira. Sistema, bada, baliabide horietan oinarritzen da naturaren suntsiketa eta pribatizazioa zein kapitalismoaren ingurumen, ekonomia eta beste arlo batzuetako krisiak «konpentsatzeko». Hain zuzen ere, natura patriarkatu kapitalistarentzat balio erantsia sortzeko erabiltzen den bezalaxe banatzen da emakumeen doako lan erreproduktiboa.

Historikoki, emakumeak gizarte-estraktibismo baten biktimak izan dira —eta dira oraindik—; izan ere, bizitzaren zaintza eta erreprodukzio lanak haiei dagozkiela uste da, eta eremu pribatuan egiten dira. Gaur egun ere, ongizate-estatuko gizarteetan, emakumeek zaintza-lanen zati handi bat hartzen dute beren gain; horiek, neurri batean, zerbitzu publikoek betetzen dituzten arren. Izan ere, ohikoa da lan hori «amona esklabo» delakoek edo herrialde pobreetako emakume etorkinek egitea, maiz, esplotazioko baldintzetan (eta horrek klase kutsu bat gehitzen du). Izan ere, gizon gehienek ez du beren gain hartu zaintza lanen elkarrekikotasuna, edo partzialki eta gutxiegi egin dute. Yayo Herreroren (2023) hitzetan:

> Periferiako herrialdeei dagokienez, zor ekologikoaz hitz egiten dugu, baliabideen erabilera desorekatuagatik, suntsipen desorekatuagatik eta hondakinen sorrera desorekatuagatik. Modu berean, oinarrizko zibilizazio-zor edo zaintza zor batez ere hitz egin dezakegu —metafora gisa, zaila baita hura kontabilizatzea—. Hori gizon gehienek emakumeekin duten zorrari dagokio, oinarrizko lan horretan izandako parte-hartzean dagoen desparekotasun izugarriagatik.

Produkzio jardueraren zati txiki bat baino ez da adierazten kontu ekonomikoetan: enplegua, erosten eta saltzen dena, zorra, arrisku-prima, akzioak… hau da, dirutan kalkula daitekeena. Baina bada aintzat hartzen ez den beste zati handi bat: material amaikorren erauzketa, eta etxeetan egiten diren lanordu ugarien konfiskazioa. Biziaren ekoizpena, giza bizitzarena zein naturarena, ekoizpen kapitalista existitu ahal izateko aurrebaldintza da. Kapitalak ezin izango luke inola ere bizi-ekoizpen hori bere

[9] Yayo Herrerok (2023, p. 195) tratu despareko horren adibide bat ematen du, hain zuzen ere, gizonek eta emakumeek tratu desberdina jasotzen dutela amiantoaren eraginez gaixotzen edo hiltzen direnean. Izan ere, gizon langileen kasuan, gaixotasuna eta enpresaren erantzukizuna aintzar hartu da, baina ez da beti horrela izan senarren arropa astintzean eta garbitzean amiantoa arnastu duten emakumeen kasuan.

logikarekin ordaindu, ezin baitu ez hura —teknologikoki— produzitu, ez eskulana belaunaldiz belaunaldi ekoiztearen kostua ekonomikoki ordaindu[10].

Horregatik, ekonomia feminista eta ekologikotik, ekonomia konbentzionalak erabiltzen dituen kontabilitate sistemak (BPG, per capita errenta…) birplanteatzea proposatzen dute. Izan ere, sistema horiek kontuan hartu beharko lituzkete material eta energiaren benetako beharra, lehen mailako ekoizpen garbiaren giza jabetzea, lan denborak, giza ekoizpen eta kontsumo ereduek kliman duten eragina, bioaniztasunaren galera, jarduera jakin batzuek giza osasunean eragiten duten kaltea, eta abar. Eredu berriak garatu beharra dago, irizpide anitzeko adierazleetan jasotzen diten beste aldagai batzuk sartzeko. Hala, adierazle horiek baloratu egingo dituzte zaintza-lanen ekarpena, ingurumen kostuak, bizitza mantentzeko baliagarriak diren ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, gizarte eta ekonomia arloko desparekotasun-maiulak… Horiek irabazien gainetik lehenetsi beharko dituzte, «eta bizitza ulertzeko egungo eredu ultrakontablea eta ultrakapitalista alde batera utzi» (Herrero, 2015).

Ekonomia ekofeministaren azterketak eta ikerketak bat etorri ohi dira desazkundearekin, energia berriztagarrien ekoizpenarekin, elikagai osasungarrien ekoizpen agroekologikoarekin[11], gizarteak birbaserriratzeko proposamenarekin, hiri-eredu feminista eta ekosozialen ezartzearekin, industria-, energia-, bide- eta turismo-megaproiektuak gaitzestearekin… Eta beste hainbat eta hainbat proposamen partekatzen dituzte mugimendu ekologistekin.

Hala ere, ekofeminismoak modu ezberdinean kokatzen ari dira eztabaidetan proposatutako irtenbideen aurrean. Izan ere, ikuspegi batzuek uste dute posible dela gaur egungo eredu ekonomikoaren ondorioak zuzentzea, kapitalismo liberal batetik kapitalismo «berde» batera igarotzeko prozesu baten barruan (Green New Deal). Beste batzuek, aldiz, ez dute inola ere uste konponbidea planetaren mugak gainditzeko arazoak sortu dituzten horien eskutik etorriko denik, eta, ondorioz, egitura politikoak errotik aldatzea proposatzen dute.

Ekofeminismoek, gainera, emakumeei arreta berezia eskaintzea eskatzen dute. Alicia Puleok dioen bezala, Hirugarren Belaunaldiko Giza Eskubideek ingurumena zaintzea exijitzen dute. Hura guztion eskubidea da. Baina emakumeen osasunaren gaiari erreparatzen diogunean, arazo espe-

---

[10] Interesgarriak dira ICTAren (Institut de Ciència i Tecnologia Ambientals, uab) zenbait ikerketa, hain zuzen ere, gizarte metabolismoa aztertzen dutenak. Ikerketa horiek zaintza lanen zein funtzio ekosistemiken balioa diruan adierazten saiatzen dira produktu baten prezioan, une jakin batean eta nekazaritzako eta abeltzaintzako gizarte oso jakinetan.

[11] Vandana Shivak dio «gure gizartean sakratutzat jotzen dena petrolioa dela, baina benetan sakratua ura eta haziak direla, natura dela benetan sakratua» (González Reyes, 2023).

zifikoak aurkitzen ditugu. Estatistiken arabera, emakumeok gara ingurumenaren kutsaduraren eta hondamendi «naturalen» lehenengo kaltetuak. Hala aitortzen zuen 2000. urtean Emakumeari buruzko Nazio Batuen Biltzarrak. Hala ere, oro har, ez da genero-estratifikazioaren eta ingurumen-arazoen artean dagoen lotura ikusten; aitzitik, oso gutxitan lotzen dira gai bi horiek.

> Ekoizpen ekologikotik ez datorren elikadurarekin, egunean berrogeita hamar pestizida-mota ere har daitezke. Londresen kokatzen den Emakumeen Ingurumen Sareak instituzioen pasibotasuna nabarmendu du azken berrogeita hamar urteetan bularreko minbiziak izan duen gorakada larriaren aurrean, batez ere xenoestrogenoen ingurumen-kutsaduragatik. Xenoestrogenoak emakumearen estrogeno naturalaren antzeko substantziak dira, eta pestizida organokloratuetan, erraustegietako dioxinetan, erretxina sintetikoetan, pinturetan, eguneroko beste garbiketa-produktu batzuetan eta bilgarrietan aurki daitezke. Emakumeok aintzat hartuko gaituzten ingurumen politikak aldarrikatu behar ditugu. (Puleo, 2014)

Ondorio gisa, ezin da ukatu ekofeminismoak, beren aniztasunean, interes handiko ekarpen globalak egiten ari direla botere-harremanei, gizarte-harremanei, genero-harremanei, merkatu-harremanei, planetarekiko harremanei eta abarri buruz. Ekarpen horiek feminismoetara nahiz mugimendu ekologistara[12], baita gizarte osora ere. Hala ere, ekologismo sozialarekiko harremanak nabarmentzen dira batez ere; izan ere, ekofeminismoa, bere korronte guztietan, kezka sozialagatik ezaugarritu da. Hala, eragin hori argiagoa den alderdi batzuk aipa ditzakegu:

- Ekofeminismoak, Silvia Federici eta beste batzuen eskutik, kapitalismoaren aurkako diskurtso ekologista kritikoa zabaltzen lagundu du, baita marxismoa eta sozialismo sobietarra berrikusten eta kritikoki aztertzen ere.
- Feminismoetatik, ekofeminismoak agenda ekologista zabaldu du, alderdi sozialak, kulturalak, arrazazkoak edota giza eskubideei buruzkoak sartuz. Bereziki, zaintza-lanen funtsezko gaia landu du. Bizitzaren iraunkortasuna eta ekodependentzia eta interdependentzia; patriarkatuari eta dominazio harremanei aurre eginez, bai zentzu makro batean (merkatu kapitalistak), bai zentzu mikro batean (etxeko eta banakako mailan).
- Enpatia sortzen ere lagundu du, eta fokua zabaltzen pertsona arrazializatuen, migratzaileen, pobreen edo indarkeriaren biktimen inguruan, horiek, maiz, emakumeak baitira. Horixe da, adibidez, ingurumen-justiziaren aldeko emakumeen mugimenduaren kasua.

[12] Aipatutako ekarpen guztiak ez dira ekofeminismoarenak bakarrik. Askotariko mugimendu libertarioek, politikoek eta sozialek ere parte hartu dute.

Hura langile-klaseko emakume beltzen mugimendu batean sortu zen —eskubide zibilen mugimenduaren jarraitzaile zirenak—, baita langile-klaseko emakume latinoamerikar eta zurien mugimenduan ere.

- Ekofeministek mugimendu ekologistan berdintasuna sustatzen lagundu dute, beste gizarte mugimendu batzuetan bezala. Sarriegi, gizarte eraldaketarako mugimenduetan ez da koherentziarik egon, jokabide matxistak mantendu baitituzte beren egitura eta ohituretan. Baina zerbait aldatzen ari da; izan ere, Ekologistak Martxan elkartean, adibidez, emakumeek bakarrik osatutako koordinazioa aukeratu zuten 2023an.
- Ondasun komunei, eta, oro har, komunitateari eta kudeaketa komunalari garrantzia ematea. Yayo Herreroren hitzetan, «guztien ona, bada, zaintzeko gaitasuna da, eta beste modu batera banatu behar da».
- Zaintzaren etika «gainontzeko animalietara» eta ekosistemetara zabaltzea. Eztabaida antiespezista ere botere-harremanen prismatik ikusten da.
- Beste mugimendu batzuetan, desazkundearen diskurtsoak eta praktikak sartzen laguntzen du.

Bestalde, eta ekofeminismoen ekarpenak eta barne-eztabaidak azpimarratu beharra badago ere; aldi berean, paradigma hori demagogikoki bereganatzeko arriskua dago. Hau da, gerta daiteke hura mugimendu ekologistaren deklaraziozko dekorazio-objektu bihurtzea, eta ekarpen horiek praktika eta diskurtsoa benetan eraldatzeko ez baliatzea.

Alicia Puleoren (2011) hitzetan:

> Ekofeminismorako garaia da, beste mundu bat posible izan dadin, esplotazioan eta zapalkuntzan oinarrituta ez dagoen mundu bat, alegia. Etorkizuneko jendarte hau dagoeneko ikusten da dominazio guztiak ezabatzeko borrokan; hau da, dominazio zaharrak eta berriak, hertsadurazko patriarkatu zaharraren eta onespenezko patriarkatu berriaren dominazioak, hau da, neurrigabekeria neoliberalean bere manuak inposatzen dituen patriarkatuarenak. Garapenean, konkistan eta esplotazio suntsitzailean oinarritutako eredu androzentrikoa eraldatzeko, bada, naturari buruzko begirada enpatikoa hartu eta botere-harremanen azterketa kritikoa egin beharra dago.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Steilas (2023). Eskola feminista eraiki dezagun. Unitate didaktikoa. steilas.eus/wp-content/uploads/2023/05/Unitate-Didaktikoa-2023_compressed.pdf.

(eus-gaz) Emakunde y Eudel (2025). Beldur barik. beldurbarik.eus/beldur-barik/actitud-bb/que-es/.

(gaz) Fariñas, S. Maleta pedagógica ecofeminista. Segundo y tercer ciclo de Educación Primaria (CERAI & Garúa). cerai.org/wordpress/wp-content/uploads/2021/09/maleta-pedagogica-ecofeminista-sostenibilitat-al-plat-cerai_compressed.pdf.

(gaz) Herrero, Y. (2020). Ekofeminismoas para el buen vivir: vivir y trabajar en un mundo justo y sostenible. www.elaularevuelta.org/wp-content/uploads/Ekofeminismoas-para-el-Buen-Vivir-vivir-y-trabajar-en-un-mundo-justo-y-sostenible.pdf.

(gaz) López Llamas, C. Ekofeminismoa para la enseñanza secundaria. www.ecologistasenaccion.org/308840/ecofeminismo-para-la-ensenanza-secundaria/.

Erlazionatutako topikoak

Ekofemismoa Euskal Herrian, Ekonomia ekofeminista, Ekofeminismoaren historia.

EKOFEMINISMOA EUSKAL HERRIAN

Paradigma ekofeminista, bere askotariko adierazpenekin, nahiko berriki sartu da Euskal Herrian. Esan daiteke ez dela eratu planteamendu horietan soilik inspiratutako talde sozialik edo aktibistarik[13]. Aitzik, ekofeminismoa bere egin dute feminismoetako emakume aktibistek; baina talde ekologistek, sindikatuek eta beste talde sozial batzuek ere hura hartu dute, maiz formalki edo teorikoki.

Mugimendu feministaren alorrean, aipatzekoak dira 2019an antolatutako V. Jardunaldi Feministak[14], 2019an. Horien esparruan, ekofeminismoari buruzko tailer bat egin zen, eta, horretan, Euskal Gune Ekosozialista, Ekologistak Martxan, Mugarik Gabe, Feministalde! eta Desazkundea ekimenetako 70 emakume inguruk parte hartu zuten. Era berean, beste tailer batzuetan, ekofeminismoek aztertzen dituzten beste gai batzuk ere landu zituzten, hala nola feminismo dekoloniala, feminismo antiespezista,

[13] Madrilen Sare Ekofeminista osatu zen 2012an. Talde horrek ekofeminismo kritiko eta konstruktibistarekin bat egiten du, eta, beraz, ikuspegi esentzialistetatik urrun kokatzen da. Halaber, 20212tik Donostiako Emakumeen Etxeak ekofeminismoari buruzko jarduerak antolatzen ditu, hala nola hitzaldiak, laborategi ekofeminista, eta abar.

[14] V. Jardunaldi Feministak Bizkaiko Durango herrian ospatu ziren 2019ko azaroaren 1ean, 2an eta 3an, «Salda badago» lelopean. horietan 2.000 feminista baino gehiago izan ziren.

bizitza mantentzeko ardura kolektiboa, zaintza-lanen berrantolaketa soziala, ekonomia feminista, elikadura burujabetza eta abar. Gainera, partehartzaileek zenbait dokumentu eta material aurkeztu zituzten, ingurumenari eta ekofeminismoaren antolakuntzari buruzko gaiak proposatuz (Pérez Orozco, 2014; Martí, 2019; Herrero, 2020, besteak beste).

Agenda ekofeministan, aurrekaririk gabeko mugarria ezarri zuen 2023ko azaroaren 30ean antolatutako Greba Feminista Orokorrak, Bizitzak Erdigunean Euskal Herriko Koordinadora Feministak bultzatuta. Koordinakunde hura COVID-19aren pandemian dekretatutako konfinamenduarekin batera sortu zen. Greba agenda ekofeministaren une gogoangarri bat izan zen Hego Euskal Herrian, eta zaintza sistema publiko komunitario feminista bat aldarrikatu zuen[15]. Deialdia langile klaseko gizonei ere egin zitzaien. Hala, sindikatuek eta beste hainbat gizarte erakundek (tartean ekologistek) grebarekin bat egin zuten. Hala ere, mugimendu feministaren baitan eztabaida piztu zuen, eta, azkenik, zenbait erakundek ez zuten deialdiarekin bat egin, hala nola CCOO eta UGT sindikatuek. Grebaren balorazioa oso positiboa izan zen, espero zena baino irismen handiagoa izan baitzuen, bai jarraipenari dagokionez, bai izan zuen eragin sozialari dagokionez.

Azken urteetan, ekimen berritzaile horren kideko beste batzuk izan dira, esate baterako, *kontsumo greba feministak*. Izan ere, mobilizazioak eragin ohi dituzten lan- eta zaintza-alderdiez harago, emakumeek kontsumo-grebak antolatu dituzte, martxoaren 8arekin bat eginez. Horien bitartez, emakumeak eta beren gorputzak publizitate-erakargarri gisa eta modu iraingarrian erabiltzen direla salatu dute, emakumeentzako produktuak garestitzen dituen «tasa arrosa» bat dagoela azaldu dute, eta sistema ekonomiko eta kontsumo-sistema iberiarrak eragiten dituen ingurumen ondorioetan enpresek —oro har, gizon zuzendariak dituztenak— erantzukizun handia dutela agerian utzi nahi izan dute.

Espero daitekeen bezala, mugimendu ekologistan badaude beren burua ekofeministatzat jotzen duten taldeak, eta horien artean Ekologistak Martxan nabarmentzen da. Izan ere, Ecologistas en Acción konfederazioko kide horrek, gainera, ekofeminismoko eremu espezifiko bat du, Euskal Gune Ekosozialista, alegia. Hura ez da ohiko talde ekologista bat, eta ekofeminismo kritikoarekin ideiekin bat egiten du.

Sindikatuei dagokienez, ekofeminismoa ez da ezezaguna. Izan ere: Etxaldeko Emakumeak (2020), EHNE Bizkaia (2023), Steilas[16], LAB,

[15] Greba Feminista Orokorra antolatzeko prozesuaren emaitza zenbait gisa gizarte taldek eta sindikatuk *Herri Akordioa. Zaintza kolektiboa eskubidearen alde* akordioa sinatu zuten, 2023ko urrian (https://www.feministas.org/IMG/pdf/herri-akordioa_cas.pdf).

[16] STEILAS sindikatuak urteak daramatza ekosozialismoa eta hezkuntza lotzen, eta hala adierazi zen sindikatuaren azken Biltzarrean (Iruñea, 2022). Gainera, idazkaritza feminista bat du eta feminismoari buruzko material didaktikoak argitaratzen ditu.

ESK, ELA (2023), CC OO[17], UGT[18] o CGT/LKN[19] sindikatuek paradigma ekofeminista integratu dute beren definizioan, eta sare sozialetako argitalpen eta komunikazioetan hari buruzko erreferentziak erabili ohi dituzte, tarteka bada ere.

Era berean, REAS, Mugarik Gabe eta Desazkundea bezalako gizarte mugimenduak oso lan ona egiten ari dira erakundeen jardunean balio ekofeministak gauzatzeko.

Maila akademikoan, ekofeminismoa garapen nabarmena izaten ari da, eta hori agerian geratzen da bai argitalpenetan, bai ikastaroen antolakuntzan. Instituzio-maila batzuetan ere, terminologia ekofeminista erabili izan dute, esate baterako, Emakunderen kasuan[20].

Erlazionatutako topikoak
Ekofeminismoa, Ekonomia ekofeminista, Ekofeminismoaren historia.

EKOFEMINISMOAREN HISTORIA

Ekofeminismoa globalizazioaren aurkako mugimendu bat da, baita kritika ideologiko bat ere, gizartea erreproduzitzeko lanean emakumeek izandako esperientzia historikoetan oinarritzen dena. Gainera, ekofeminismoa diziplina akademikoa ere bada, ekonomia feministarekin edo zaintza-ekonomiarekin loturak dituena.

Izan ere, emakumeek eta naturak elkarrekin aurrera egin dezaketela argudiatu zuten. Mende horren amaierarako hainbat interpretazio sortzen ari ziren, oro har korronte politiko nagusiekin lotuta.

Ekofeminismoa 1970eko hamarkadan sortu zen, emakumeen eta naturaren arteko loturen kontzientzia gero eta handiagoarekin. Ekofeminismo

[17] Estatu mailan ekofeminismoari buruzko ikastaroak eta argitalpenak egin ditu, batez ere landa eremuari eta klima aldaketari dagokienez.

[18] UGT sindikatuak, azken urteetan, M8ko deialdiekin bat egin du, ekofeminismoaren aipamenekin ere. Halaber, gaiari buruzko zenbait hitzaldi antolatu ditu, esate baterako, Iruñean, Alicia Puleorekin eta Yayo Herrerorekin.

[19] Estatu mailan ezarritako sindikatua bada ere, CGTk arreta eskaintzen die eztabaida ekofeministei, honako monografiko honetan ikusten den bezala: M. Gulia Costanzo Talarico (2023), Ecofeminismos. Resistencias para un horizonte de justicia eco-social, *La Brecha*, 10, marzo, Secretaría de Formación Confederal de CGT, https://cgt.org.es/wp-content/uploads/2023/03/LaBrecha-10-web-v4.pdf.

[20] Emakundek (Emakumearen Euskal Erakundea) «Aldaketa klimatikoa eta feminismoa» izeneko ikastaroa antolatu zuen UPV/EHUren udako ikastaroen esparruan, Izaskun Landaidaren zuzendaritzapean. https://www.uik.eus/es/curso/cambio-climatico-feminismo-repensar-presente-construir-futuro.

terminoa Françoise d'Eaubonne[21] (1974) idazle feminista frantsesak asmatu zuen, eta emakumeei dei egin zien iraultza ekologiko baten buru izateko, emakumeen eta gizonen arteko eta gizakien eta naturaren arteko genero-harreman berriak ekarri behar baitzituen. Hala ere, data hori baino lehenagoko argitalpen asko daude, corpus ekofeminista eraikitzen asko laguntzen dutenak: Rachel Carson...

Kontzeptua mugimendu bihurtu zen 1980an, Amhersten (Massachusetts) egindako *Women and Life on Earth [Emakumeak eta bizitza Lurrean]* konferentziaren ondorioz, eta horren ondorengo ekintza *Pentagonoa inguratu*, emakumeek gerra nuklearraren eta armen garapenaren aurka protesta egiteko egindakoa. 1980ko hamarkadan, Estatu Batuetako feminista kulturalek bizitza berria eman zioten ekofeminismoari, emakumeek eta naturak elkarrekin aurrera egin zezaketela argudiatuz. Mende amaiera hartan, hainbat interpretazio sortu ziren, nagusi ziren korronte politikoekin zerikusia zutenak, oro har.

Orduz geroztik, feminismo liberala, kulturala, soziala eta sozialista, hau da, joera eta adierazpen guztiak, gizakien eta naturaren arteko harremana hobetzeaz arduratu dira. Joera horiek, gainera, hainbat ekarpen egin dizkiote ikuspegi ekofeministari. Ekofeminista liberalen ustez, ingurumen-arazoak baliabide naturalen espoliazio azkarregiaren eta kutsatzaileen erregulaziorik ezaren ondorio dira. Hala, feminismo liberala koherentea da ekofeminismo erreformistaren helburuekin. Esate baterako, gobernu-egituretan lege eta araudi berriak onartu bitartez, gizakion eta naturaren arteko harremanak aldatzeko helburua du. Ekofeminismo kulturalak patriarkatuari kritika eginez aztertzen ditu ingurumen-arazoak. Ikuspegi horretatik, bada, emakumeentzat zein gizonentzat askatzaileak izan daitezkeen alternatibak eskaintzen ditu. Feminista marxistek —gehienak Europan— giza bizitzaren oinarri material gisa ikusten zuten gizakiaz besteko natura; hain zuzen ere, elikagai, jantzi, etxebizitza eta energia beharrak asetzen dituena. Azkenik, ekofeminismo sozialak eta egungo ekofeminismo sozialistak (ekofeminismo erradikala izenaz ere ezagutzen da beste ikerketa batzuetan) patriarkatu kapitalistan oinarritzen dituzte beren analisiak. Hala, bi dominazio hauek aztertzen dituzte: batetik, erreprodukzio-harreman patriarkalek adierazten dutena (gizonek emakumeen izaera menderatzen dute), eta, bestetik, erreprodukzio-harreman kapitalistek adierazten dutena (gizonek natura mende-

[21] Ekofeminismoari buruz zituen ideiek ez zuten ia oihartzunik izan Frantzian; hobeto hartu zituzten Australian, Ingalaterran eta Estatu Batuetan. Lehenago ere eman zuen bere kezka ekologikoen berri *Histoire et actualité du féminisme* (Paris, Alain Moreau, 1972) liburuan, non falokraziaren garapena aztertzen duen (beste termino bat, ustez, sortu zuena). 1973 eta 1974 artean, Ekologia Feministako Zentroa sortu zuen, eta, handik, hainbat arazo ekologikoren aurka borrokatu zen, ikuspegi feminista aipatuz. *Le féminisme ou la mort* saiakeran jaso zuen ikuspegi hori, ekofeminismo terminoa proposatu zuen, haren ikuspegian sakondu, eta garapenaren logika kritikatu zuen, bai mundu kapitalistan, bai bloke «sozialistan».

ratzen dute). Haien ustez, emakumeen esplotazioa eta naturaren esplotazioa merkatu-ekonomiaren berezkoak dira. Izan ere, merkatuak baliabide bihurtzen baititu biak. Ekofeminismo kulturalak emakumeen eta naturaren arteko loturan gehiago sakondu badu ere, ekofeminismo sozialak eta sozialistak dominazioaren kritika sakonagoa egiteko eta gizarte justizia askatzailea garatzeko ahalmen handiagoa dute.

Carolyn Merchantek, beste alde batetik, eragin handia izan du Ipar Amerikako ekofeminismoan. Hark gogoratzen du 1960ko eta 1970ko hamarkadetan mugimendu feministaren erritmora eratu zela bere kontzientzia soziala. Urte horietan, feminismoa eskubide zibilen aldeko borrokarekin eta gerraren aurkako mugimenduarekin estu lotuta zegoen Halaber, 1959az geroztik, hainbat ekintza ekologikotan parte hartu zuen. Gainera, Merchantek prestakuntza zientifikoa du, eta kritikoa da zientzia mekanizistarekin. Hiru elementu horiek —zientzia, emakumeak eta natura— *The Death of Nature*[22] [Naturaren heriotza] liburuaren muina osatzen dute. Lan hori ekofeminismoaren klasikoetako bat da.

---

[22] Carolyn Merchanten lan hori ekofeminismoaren fundaziotzat jotzen da [Carolyn Merchant (1980). *The Death of Nature. Women, Ecology, and the Scientific. Revolution*, San Frantzisko: HarperCollins. Gaztelaniaz: Merchant, C. (2020) *La muerte de la naturaleza. Mujeres, ecología y revolución científica*, Buenos Aires: Siglo XXI Editores / Granada: Comares. Oraingoz, ez dago euskarazko bertsiorik.] Merchantek, XVI. eta XVII. mendeetako zientzia modernoaren oinarriak ikertuz, ulertzen du merkantilizazio- eta industrializazio-prozesuak iraultza zientifiko modernoaren eta aldaketa teknologikoen eskutik garatu zirela. Ondorioz, naturaren eta emakumeen irudikapen berriak sortzen hasi ziren, horiek rol pasibo batean eta makinen engranajearen eta edozein kostutako aurrerapen ekonomikoaren agindupean kokatzen zituztenak. Merchanten apusturik handiena, oraindik indarrean dagoena, ez da mundu aurremoderno batera itzultzea, ezta naturaren eta emakumeen begirada esentzialista defendatzea ere. Aitzitik, bere buruari galdetzen dio nola eraiki dezakegun mundu-ikuskera berri bat, hain zuzen ere, XXI. mendeko herritarrak genero-zapalkuntzarik gabeko bizitza jasangarri baterantz gidatuko dituena. Maristella Svamparen ustez, «Carolyn Merchanten klasiko hau aukera bikaina da feminismoak eta ekologismoak elkar indartuko duten etorkizuna irudikatzeko».

Beste ikertzaile ekofeminista batzuek ere kritikatu egin dute zientzia modernoak emakumeen dominazioan izan duen papera. Esate baterako, Virginie Marisek, Silvia Federiciren ildotik, uste du zientzia modernoa sorginen jazarpenaren jarraipena izan zela; hala, modernitatea emakumearen eta naturaren aurkako gorroto partekatu baten gainean eraiki da. Izan ere, Bacon (1561-1626), Descartes (1596-1650) eta Newton zientzia modernoaren, metodo zientifiko esperimentalaren eta ezagutzaren teoria enpirikoaren sortzaileak omen dira, zientzia modernoaren gurasoak, nolabait esatearren Baina Merchantek misoginotzat jotzen ditu; izan ere, metafora sexistak erabiltzen dituzte etengabe naturaz aritzean, eta hura femeninotzat jotzen dute: «Natura emakume publiko bat bezalakoa da, eta hura menderatu, haren sekretuetan sartu eta gure nahietara kateatu egin behar da» (Francis Bacon, *Novum organum*, 1620)

Yayo Herreroren iritziz, zientziaren eta teknologiaren zeregina berriz pentsatu beharra dago. Helburua da planetan dauden milioika lagunak bizitza ona eta bidezkoa eraikitzeko gai izatea, betiere ditugun mugetara egokitua. «Planeta kartzela moduko bat bihurtzen ari gara, kapitalismoaren zerbitzura dagoen zientzia eta teknologia baitugu. Kapitalismoaren helburu nagusia etekinak lortzea da, eta ez teknologia eta zientzia bizitzaren zerbitzura ipintzea». Herrero, Yayo (2023). *Toma de tierra*. Caniche (183-185).

Mugimendu feminista eta ekologisten arteko artikulazioan funtsezkoa izan zen Pennsylvaniako Three Mile Islandeko[23] hondamendi nuklearra. Hura 1979ko martxoaren 28an gertatu zen, eta eragin handia izan zuen. Hamar bat urtez, ehunka emakumek, feministak, bakezalek, anarkistak eta nuklearren aurkako aktibistak zentral elektrikoen aurkako blokeoak, eserialdiak eta kanpalekuak antolatu zituzten. Beste adibide bat da Ingalaterran misil nuklearren aurka egindako Greenham Common kanpamentua, gaur arte egindako kanpamentu ekofeministarik handiena, alegia. Hark 1981etik 2000ra iraun zuen, ia hogei urtez!

1990eko hamarkadatik aurrera, Gerra Hotza amaitutakoan, ekofeminismoaren zati bat instituzionalizatu egin zen, eta ikerketa akademikoko objektu bihurtu zen. Baina ez da otzandu; aitzitik, bere analisietan sakontzen du, eta ekintza-eremu eta lankidetza-gune berrietara irekitzen da.

Bestalde, ekofeminismo sozialista sendotu egin da, ekosozialismoarekin etengabeko elkarrizketan. Izan ere, azken horretan eragin nahi du: produkzioa baino, erreprodukzioa azpimarratzen du, zeren hura gizarte justu eta iraunkor baten funtsezko kontzeptua baita. Ulertu egiten du gizakiaz besteko natura bizitzaren oinarri materiala dela, eta janaria, arropa, babeslekua eta energia funtsezkoak direla bizitzari eusteko. Natura ez da menperatu eta hezi beharreko objektu pasiboa. Alderantziz, subjektu aktiboa da, eta gizakiok harreman iraunkorra izan behar dugu harekin. Ekofeminismo sozialista kritikoa da patriarkatu kapitalistarekin. Hala, batetik, produkzioaren eta erreprodukzioaren arteko eta, bestetik, produkzioaren eta ekologiaren arteko dialektikan zentratzen da (erreproduziorik gabe ez dago produkziorik!, diote ekofeministek). Abiapuntu egokia eskaintzen du aldaketa sozial eta ekologikoak aztertzeko eta mundu bidezkoago eta iraunkorrago batera eraman gaitzaketen ekintza sozialak proposatzeko.

Ekofeminismo sozialista dualismo ideologikotik sortutako sexismoaren urraketak, klasearen errepresioa eta naturaren esplotazioa sendatzen ahalegintzen da. Izan ere, dualismo horien arabera, batek balioa eta pribilegioak ditu bestearen aurrean[24].

---

[23] Harrisburgetik (Estatu Batuak) gertu dagoen zentral nuklearra, Babcok & Wilcox enpresak eraikia. Bertan, bi erreaktoreetako batek nukleoaren fusio partziala izan zuen. Hura 5. mailako istripua izan zen, 7. maila dituen nazioarteko eskalaren arabera (1986ko Txernobylgo eta 2011ko Fukushimako istripuak 7. maila horretara iritsiko lirateke).

[24] Ariel Salleh dualismoen zerrenda luze batez ari da (gizakia-natura, arrazionala-emozionala, kultura-natura, produkzioa-erreprodukzioa, Iparralde globala-Hegoalde globala, gizona-emakumea, etab.). Hura erlijioko, filosofiako, zuzenbideko, zientziako eta ekonomiako praktika hegemoniko baten bidez mantentzen da.

Silvia Federici ondasun komunen defendatzaile sutsua da. *Caliban eta sorgina*[25] liburuan, Federicik emakumeen ikuspuntutik berridatzi du kapitalismoaren sorreraren historia. Hala, bere ikerketek, hausnarketek eta aktibismoak ekarpen nabarmena egin diote ekofeminismoari. Bere ustez, XX. mendeko hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadan politika koloniala itzuli zen, Munduko Bankuaren (MB) eta Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) eskutik. Politika hura natura arpilatzean oinarrtitzen da, erabat suntsitzaileak diren ustiapen-moduak bultzatuz. Hain zuzen ere, hura lurra hesitzeko prozesu berri bat izan zen.

> Aldi horretan ere, nazioartean ulertu egin zen gorputzaren politikak zer esan nahi zuen feminismoarentzat; hau da, gorputza sexualitatea eta ugalketa dela, eta kapitalismoarentzat gorputza ustiapen-eremu garrantzitsuenetako bat izan dela. Gure gorputza ezagutzeko prozesu horretan, sentiberagoak gara inguruarekin, naturarekin, gure bizitzaren mantenuarekin —airearen, uraren, eta janariaren bitartez—. Mugimendu feministak ulertu egin du nola erreproduzitzen den bizitza, eta gorputza ez dagoela isolatuta, baizik eta giro natural baten parte dela». (Navarro & Gutiérrez, 2017)

Feminista batzuek salatu dute horrek emakumeak naturalizatzen dituela, baina Federici ez dator bat iritzi horrekin. Alderantziz, ekofeminismoak ulertzen du kapitalismoak emakumearen gorputza eta natura behar izan dituela eta ustiatu dituela. Intersekzio horiek elkar areagotzen dute. Federiciren ustez, ekofeminismoak asko aldatu du mugimendu feministaren zentzua, hain zuzen, gizarte-eraldaketari buruz pentsatzeko duen gaitasuna handitu du. Horri esker, diskurtsoa zabaldu eta gai berriak sartu ahal izan ditu, hala nola lurra, ura, gorputza, lurraldea, gorputz-lurra.

Federiciren hitzetan:

> Kapitalismoa iristean, pobretze masibo bat gertatu zen. Izan ere, isolatu egin gintuen, banandu gintuen. Ekofeminismoak eta ekologismoak ere banaketa hori azpimarratu dute. Baina kapitalak pertsonen eta lurraren artean eragin duen banaketa ez da soilik ekonomikoa. Aldi berean, botere-ahalmena ere galdu da, giza gorputza bere ingurune naturaletik bakandu delako. Hori lurra eta gorputzak hesitzeko modu bat da. Argi dago ingurumenaren suntsipen kapitalistak eragin handiagoa izan duela emakumeengan gizonengan baino, emakumeok zuzenean parte hartzen baitugu bizitzaren erreprodukzioan. Erreprodukzio-prozesuak lotura oso garrantzitsuak sortu ditu emakumearen eta ingurumen naturalaren artean. Horregatik ez zait kasualitatea iruditzen feministek eta beste emakume batzuek kapitalismoaren aurkako ekologisten diskurtso

[25] Silvia Federici (2017). *Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta jatorrizko metaketa*. Elkar. Jatorrizko lehenengo edizioa 1984koa da: *Il grande Calibano. Storia del corpo sociale ribelle nella prima fase del capitale*.Silvia Federici (2017).

> kritikoa zabaldu izana. Emakumeek zuzenago ulertu dute natura suntsitzeak gure bizitzan duen inplikazio osoa. Eta ulertzen saiatu dira kapitalismoak nola esplotatzen duen, nola jabetzen den bizitzaren ekoizpenaz, nola menderatzen dituen bizitza sortzen duten sistema eta prozesu guztiak eta nola eraldatzen dituen, horiek irabaziak sortzeko prozesu eta sistema bilakatuz. Labur esanda, nola bideratzen dituen emakumeen gorputzaren eta naturaren indar produktiboak metaketara. Emakumeek beren gorputzean sufritu dute jabetze hori, bizitza sortzeko gaitasunaren distortsioa, ugalketaren eta sexualitatearen kontrola zigortzea. Esperientzia horietatik abiatuta ulertu dute patriarkatua eta naturako elementuen suntsipena pentsamendu- eta menderatze-sistema beraren parte direla. Adibidez, *fracking*-a metafora sozial bat da: erauzteko, lurra esplotatzeko eta suntsitzeko metodo bat, altxor guztiak arpilatzeko helburua duena. Gauza bera gertatzen da pertsonekin. Kapitalismoak ahal duen guztia xahutzen du bere metaketa-logikarekin jarraitzeko, eta gero eta indarkeria gehiago erabili behar du irauteko. Gerra neurri ekonomikoa da. Horren bidez, harreman ekonomikoak aldatzen dira, egoera osoa aldatzeko asmoz». (Navarro & Gutiérrez, 2017)

Federiciren (2018) ustez:

> Liberalismoa mundu mailako erreprodukzio-moduen aurkako eraso basatia da: estraktibismoa, lurraren pribatizazioa, egiturazko doikuntzak, eta ongizate-sistemaren, pentsioen edo lan-eskubideen aurkako erasoak... Baina gero eta gehiago, horren aurkako borrokaren buruan, emakumeak ikusten ditugu. Izan ere, ulertzen dute gaur egun ezin direla borroka hauek bereizi: hierarkiarik gabekoa eta bidezkoagoa den gizarte ez kapitalista baten aldeko borroka, natura berreskuratzeko borroka eta borroka antipatriarkala. Horiek banandu ezineko borroka bera dira eta.

Era berean, Federicik, ikuspegi marxista-feminista batetik, herrialde sozialista deiturikoetan sortutako kontzepzio desarrollistak kritikatzen ditu. Izan ere, XX. mendeko pentsalari marxista askok uste zuten produkzio-indarren garapenak, berez, emantzipazio-prozesu bat ekarriko zuela; baina Federiciren ustez:

> Optika hori oso maskulinoa da, eta lana salgaien ekoizpen gisa baino ez du ulertzen. Izan ere, lan kategoria horretan, zaintzako eta bizitza erreproduzitzeko lana sartzen bada —estatistikoki munduko lan sektorerik handiena dena—, begi-bistakoa da lan horren gehiena ezin dela «teknologizatu». [...] Nire ustez, lehenengo aldaketak erreprodukzio-lana, erreprodukzio-jarduerak eta horien aintzatespena berreskuratzea izan behar du. Hau da, Marxen hitzetan, bizitza erreproduzitzera eta zorion-tasunera bideratutako gizarte bat eraikitzea, ez lanaren esplotaziora.

Hala ere, Federicik kritikatu duenez, «Marxek, *Das Kapital* liburuan, ez du onartzen lan-indarraren erreprodukzioak emakumeen etxeko lan ez-

ordaindua eskatzen duela». Antza denez, Marxek ez zuen ikusten etxeko lanak iraultzaren norabidean eralda zitzakeen indar sozialik.

Azterketa osagarri batean, Gitte Pedersen ekofeministak azaldu du kapitalismoaren oinarrietako bat etengabeko hazkundearen ideia dela. Gaurko mantra hazkunde handiagoa da, gehiago ekoiztea eta merkatu berriak sortzea etengabe, amaierarik gabeko lasterketa baten. Eta horrek kalte handia egiten die ingurumenari eta klimari. Merkatu ekonomia neoliberala omen da garapen komunitario posible bakarra. Baina desiragarria al da hazkundean eta ahalik eta etekin handienean soilik oinarritzen den ekonomia bat? Pertsonen arteko harreman sozialak suntsitzen dituen eta natura esplotatzen eta kaltetzen duen ekonomia nahi dugu? Horri mundu sistema patriarkal kapitalista deitzen diote Maria Miesek eta Vandana Shivak. Sistema hori «emakumeen, 'atzerriko' herrien eta haien lurren eta suntsitzen ari den naturaren kolonizazioaren bidez eraikitzen eta mantentzen da» (Pederseen, 2017).

Gaur egun, bi korronte handi identifikatzen ditugu ekofeminismoetan: esentzialistak eta konstruktibistak. Lehenengoen ustez, emakumeak, ama izateagatik, gizonak baino lotuago daude naturarekin. Bigarrenen ustez, aldiz, naturarekiko lotura hori, existitzen bada ere, gizarte patriarkaletan bizitzearen ondorio da, horietan gizonenak ez bezalako rolak esleitzen baitizkiete emakumeei. Hala ere, Yayo Herrerok (2013) dioen bezala, emakumeak ez gaude naturatik gertuago:

> Eta ez dugu, berez, maitasuna emateko edo zaintzeko gaitasun handiagoa. […] Denok ditugu inguruan harreman samurrak garatzeko gai diren gizonak, maitagarriak izateko eta bizitza zaintzeko gai direnak». Aldi berean, «ezagutzen ditut eta asko miresten ditut ekofeminismo esentzialista horren zenbait aplikazio. [...] Adibidez, Vandana Shivaren ekofeminismo indiarrak erresistentzia mugimendu superindartsuak antolatu ditu hazien merkataritzaren, nekazaritza industrialaren edo garapen txarraren aurka.
>
> Ekofeminismoak balioa ematen dio, halaber, emakumeen, beren lurraldeen eta naturaren arteko lotura espiritualari eta harreman historikoari eta militanteari. Aldi berean, saiatu behar gara lotura hori emakumeek landa eta hiri eremuetako bizitzaren sortzaile eta zaintzaile gisa duten zeregin «naturalaren» arabera ez azaltzeko. Izan ere, ikuspegi hori, batzuetan, lanaren banaketa sexuala legitimatzeko erabil daiteke, emakumeen ugalketa-biologiaren arabera.

Naturarekiko harremana oraindik ere eztabaidagai kritikoa da ekofeministen artean. Ekofeministentzat, gauza bat da onartzea emakumeek ez dutela arropa lisatzeko gene berezirik, edo ez duela zertan amatasun-senik izan. Baina beste gauza bat da bigarren aldiz engainatzen uztea eta erditzeko ahalmenarekin batera beste hauek ere baztertzea: norberaren gorputzaren balioespena —gure kultura misoginoan hain iraindua dagoena— edo besteak zaintzeko ditugun trebetasun sozialak. Gutxietsi den horri

balioa ematea aldarrikatzen dute, hau da, emakumeen gorputzei eta gaitasun intelektual edo emozionalei; hain zuzen ere, autoestimua, norbere buruarekiko konfiantza eta abar berreskuratzeko. Naturaren ideiaz eta feminitateari dagokion horretaz jabetu nahi dute. Hala, birjabetze/birgaitze/berrasmatze keinu hori berreskuratze bilaka daiteke, horixe baita ekofeministen kontzeptu nagusietako bat.

Erlazionatutako topikoak

Ekofeminismoa, Ekonomia ekofeminista, Ekologismoa.

EKOGARAPENA

Ikus *Garapen iraunkorra*.

EKOHERRITARTASUNA

Ekoherritartasuna munduarekiko giza harremaneko forma bat da, testuinguruan kokatutako harreman bat, «*hemen* elkarrekin bizitzeko» kontzeptuan eta beharrean zentratzen dena. Harreman horrek bizi-sistemekiko erantzukizun kolektiboa eskatzen du —horien parte baikara—, eta gizarte eta ekologia gaiei buruz erabakitzeko eta jarduteko dinamika politikoetan modu eraginkorrean sartzeko eskumenak behar ditu.

Gizartearen eta naturaren arteko funtsezko loturez jabetzen diren eta errealitate sozioekologikoez informatuta dauden herritar kritikoak, trebeak, sortzaileak eta konprometituak eraikitzeari dagokio terminoak. Horrelako herritarrak gai dira eta prest daude eztabaida publikoetan, konponbideen bilaketan eta berrikuntza ekosozialean parte hartzeko (Sauvé, 2024).

Krisi globalean, ezinegonaren, antsietatearen edo asalduraren adierazpen indibidual eta sozialak agertzen dira, planetako larrialdiaz inoiz baino kontzientzia handiagoa hartzearekin batera. Antsietate soziala agerikoa da, eta, gero eta gehiago, eko-antsietateaz edo eko-nekeaz hitz egiten da, krisi ekosozialaren eskakizunen tamainaren aurrean. Solastalgiaz ere hitz egiten da, hau da, galdutakoaren nostalgiaz, baita dolu ekologikoko prozesuei buruz ere.

Fenomeno horien aurren ikusten diren erantzunetan, negazionismoko, iheseko edo bakardade indibidualistako arriskua atzematen da.

Baina, zorionez, beste erreakzio askoz egokiago batzuk ere ikusten dira, munduko osoko gizarte mugimendu indartsuei buruz ari gara, hain zuzen, justizia soziala eta iraunkortasun ekologikoa eskatzen duten horietaz. Horrela, borroken konbergentzia indartzen da.

Ekoherritartasunari edo herritartasun ekologikoari buruzko lehen proposamenak Andrew Dobson-en eskutik datoz, batez ere *Citizenship and the Environment* (2003) eta *Ecological Citizenship* (2005) lanetan:

> Herritar ekologikoak egin behar duena egiten du, ez pizgarri jakin batzuekiko erreakzio gisa, baizik eta hori delako ekintzarik zuzena... ez du, beraz, modu iraunkorrean jardun behar pizgarri ekonomiko edo praktikoengatik bakarrik: jendeak, batzuetan, beldurra (zigorra edo galera) edo desioa (sari ekonomikoak edo estatus soziala) ez diren beste arrazoi batzuengatik egiten ditu gauzak. (Dobson, 2005)

Claeysek (2006), berriz, honako hau dio:

> Ikuspegi rousseaunista batetik, interes orokorrean pentsatzen dakien hori da herritarra, hura interes partikularren baturara murriztu ezin den interes gisa ulertuta. [...] Hedaduraz, ekoherritarra da interes orokorrean pentsatzen dakiena, ez bakarrik gizakiena, baita kolektibo zabalago batena ere, «gizakiak ez diren izakiak» barne.

Horrela, interes orokorraren definizioan ingurumenaren babesa integratzen duen herritartasuna izango litzateke ekoherritartasuna. Hau da, ekoherritartasunak interes orokorrean pentsatzeko gaitasuna izango du, bere burua munduaren ikuskera erabat antropozentrikotik askatuz.

Hala, Latourren eta Schultzen arabera (2022), beste Lur batean bizi gara dagoeneko. Izan ere, gizarte-klase berri baten eraikuntzaren aurrean gaude, ikuspegi klasikotik aldenduta; hau da, gizarte-klase ekologiko bat, bere buruaren kontzientzia hartu nahi duena, eta bizitza suntsitzen duen politikak inposatutako hierarkiari aurre egin nahi diona. Klase sozial horretan, bada, orain arte beren aldarrikapenengatik banaka borrokatzen ziren mugimenduak aurkitzen dira, baina orain borrokarako puntu komunak aurkitzen dituzte beste mugimendu batzuetan eta mundua aldatzeko lankidetzan aritzeko eta sinergiak bilatzeko gai dira. Bertan daude munduko hainbat tokitako ikasleen adierazpenak, kalitatezko eta guztiontzako hezkuntza baten alde borrokatzen direnak, eta, bereziki, gazteen mugimendu berriena. Azken horiek klima-aldaketaren aurrean erabakitzen dutenen inertzia salatzen dute eta herritarron ahotsa ulertzeko eskatzen diete (Sauvé, 2024).

Gaur egungo hezkuntza formala ez dator bat behar den hezkuntza ekosozialaren dinamikarekin. Hezkuntzak, izan ere, ez du herritarren dinamika sustatzeko eta babesteko eginkizun proaktiboa izan. Hezkuntzako Lan Taldeak 2012an adierazi zuen bezala[26], Rioko Goi Bilerako agiri ofizialari kontrapuntu eginez:

[26] Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Biltzarreko (RIO+20) Hezkuntza Lantaldea (2012). *La educación que precisamos para el mundo que queremos.* Hemen: http://rio20.net/propuestas/la-educacion-que-precisamos-para-el-mundo-que-queremos/

> Krisi globala hezkuntza krisia ere bada (hura bizitzan zeharreko hezkuntza gisa ulertuta), hezkuntzaren edukiaren eta zentzuaren krisia. Izan ere, hezkuntza giza eskubidetzat jotzeari utzi diogu pixkanaka, eta merkatuen beharrak asetzeko bitarteko pribilegiatu bihurtu da, horiek ekoizpenerako eta kontsumorako eskulana eskatzen baitute (…) Hezkuntzari bere eduki politiko sakona kendu zaio, batez ere, bestelako ordena ekonomiko eta sozial bat pentsatzeko gai diren herritarrak prestatzeko ahalmena». Agerian geratzen da hezkuntza-ibilbide eta -politika egokiak garatu beharra dagoela, lurraldeen ezaugarrietara egokitzen direnak. Halaber, herritarren beharretan oinarritutako ibilbideak garatu behar dira, «giza bizitzarekin eta ama lurrarekin harmonian bizitzeko aukera emango duen gizarte-proiektu bat eraikitzeko.

Hezkuntza, ekoherritartasun global baterako gizarte trantsizioaren oinarri izango bada, balio etiko ekosozialetan oinarritutako hezkuntza izan behar da, gizarte berriak eraikitzera eramango gaituzten aldaketa sozial eta kulturalekin konprometitua:

> Garrantzitsua da gizabanakoak ingurumena errespetatzeko eta xahutzea baztertzeko heztea. Hala ere, korapilo nagusia beste nonbait dago: egitura ekonomiko eta sozial kapitalista-komertzialak aldatzea, ekoizpen eta banaketa paradigma berri bat ezartzea [...] premia sozialen aintzat hartzen dituena, batez ere narriatu gabeko ingurune natural batean bizitzeko oinarrizko beharra.
>
> Aldaketa horrek gizarte-eragileak, gizarte-mugimenduak, erakunde ekologikoak eta alderdi politikoak eskatzen ditu, eta ez borondate oneko pertsonak bakarrik. (Löwy, 2012)

Lucie Sauvé-k (2014), ekoherritartasuna ingurumen-hezkuntzara hurbildu zuenak, honela definitzen du:

> Munduarekin harremanean egoteko modu bat, «hemen elkarrekin bizitzea» ardatz duena; testuinguruan kokatutako harreman bat, parte garen bizi-sistemekiko erantzukizun kolektiboa eragiten duena, eta gizarte eta ekologia gaiei buruz erabakitzeko eta jarduteko dinamika politikoetan eraginkortasunez sartzeko eskumenak behar dituena.

Hezkuntza ekosozialaren dimentsio politikoan murgiltzeak, halaber, ekoherritartasuna praktikatzeko, erabilzeko eta eraikitzeko funtsezko «konpetentzia politiko» bat garatzen laguntzea esan nahi du. Lucie Sauvéren arabera (2013), honela defini daiteke konpetentzia hori hori:

> Jakintzak —hala nola egitura eta dinamika soziopolitikoak, legeak eta araudiak, eragileak eta botere-jokoak edo proposamen politiko alternatiboen aukerak—, trebetasunak —egoeren azterketa, arrazoiketa, eztabaida, ekintza-estrategien inplementazioa eta beste batzuk— eta jarrerak eta balioak, hala nola egin ahal izatearen sentimendua, egin nahi iza-

> tea, eta konpromiso pertsonala eta kolektiboa. Konpetentzia politikoak, bada, ideiak eta produktuak kontsumitzetik, hirian eragile izatera garamatza, eta, hala, ekoherritar identitate horren kontzientzia eta jarduteko boterea garatzen da.

Gaitasun horren garapenak lotura estua du pertsonak eta kolektiboak ahalduntzeko lanarekin. Ekoherritarrek, beraz, parte hartzeko prestakuntza, hausnarketa komunitarioa, alternatibak bilatzea eta jarduera-proiektuak behar dituzte. Tokikoa indartzera itzultzea da, demokrazia parte-hartzailea; desberdintasunaren, aniztasunaren eta gizarte-ekintzan elkarrekin ikastearena balioa. Era berean, herritarren konpromisoa edo jakintza kritikoaren eraikuntza kolektiboa baloratzea da.

Ekoherritartasunean tokia dute ekokeinuek, baina ez bakarrik. Ekokeinuak arlo pribatuan garatutako ohituratzat hartzen dira (energiaren eta materialen eguneroko erabilera), eta garrantzitsuak dira berez; baina arlo pertsonaletik arlo publikora igarotzen direnean ekoherritartasunak behar duen izaera politiko hori hartzen dute: «Kontsumitzailearen ohiko keinu bakoitza oso keinu politikoa da, eta kontzientzia har dezake, ez bakarrik ohiturak aldatzeko, baizik eta batez ere eztabaida publikoan parte hartu nahi duelako (Cottereau, 2017).

Ekoherritartasuna sortzean, prestakuntza eta ekintza ez dira bi une desberdin; aitzitik, ikaskuntzak sortzen diren leku komuna da. Testuinguru horretan, Morinen (2006) *ekintzaren ekologia* kontzeptua berreskuratuko dugu; izan ere, horrek gure ekintzek eta esku-hartzeek errealitatean dituzten ondorioez ohartarazten du. Ekintza hasten den unetik, esku hartzen duen ingurunearekin elkarreragiten du, eta emaitza horiek ez dira egilearen borondatearen araberakoak; are gehiago, kasu batzuetan, aurretiazko asmoaren kontrakoak ere izan daitezke. Ziurtasunik gabeko ingurune batean, jarduera orok arriskua dakar berekin, eta, beraz, ekintzak estrategia bat behar du, baita aurkitutako oztopoen eta jarduera garatzean jasotako informazioen arabera aldatzeko ahalmena ere.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Carbonell-Alcocer, A., Romero-Luis, J. & Gertrudix, M. Metodologías y Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza para fomentar la cultura ecológica y la concienciación climática en la escuela. doi.org/10.6018/rie.520901.

(gaz) Sauvé, Lucie: La educación ambiental: Un proyecto político-educativo para la ecociudadanía. youtu.be/RGCon2Rr8LY?si=lNlLiCDJDiHzjQyS.

(eus-gaz) Oxfam Intermon. (2025). Educar para una ciudadanía global. www.oxfamintermon.org/es/como-puedes-colaborar/educacion.

(in) Youth conservation. Eco-citizenship. youth-conservation.org/en/?s=eco-citizenship.

(in) EcoCiv. The ecocivilization Coalition Programs. ecociv.org.

Erlazionatutako topikoak

Ekoalfabetizazioa, Ekologia politikoa, Balioak.

EKOKAPITALISMOA

Ekokapitalismoa eta bere sinonimoa kapitalismo berdea, merkatu libreko ekonomiari buruzko teoria edo praktika bat da. Horretan, baliabide naturalak kapitaltzat hartzen dira eta irabaziak ingurumenaren babesaren eta iraunkortasunaren menpe daude. Hala, ikuspegi edo ideologia horren arabera, kapitalak naturan aurkitzen dira «kapital natural» gisa. Beraz, krisi ekosozialeko garai honetan, gobernuek eta instituzio politikoek merkatuan oinarritutako tresnak erabili behar omen dituzte ingurumen-arazoak konpontzeko.

Zenbait idazleren ustez, 1968an *Science* aldizkarian argitaratutako Garret Hardinen *The Tragedy of the Commons* (*Komunen tragedia*) lan ospetsuan kokatzen da ekokapitalismoaren hasiera. Hardinen iritziz, gobernuek planetaren gainpopulazioa geldiarazi behar dute, eta, horretarako, merkatuak emandako neurriak erabili behar dituzte, ez Ongizate Estatuaren laguntza-politikak. Horren ildotik, Property and Environmental Research Center (Jabetza eta Ingurumena Ikertzeko Zentroa) delakoak ingurumenaren kalitatea merkatuaren eta jabetza pribatuaren bidez hobetzea proposatzen du. Eta ildo horretatik, ekokapitalismoaren proposamen nagusi bat karbono-isurketen merkataritza dugu. Hura, 1997an abiatu zen, Kyotoko Ituna sinatzearekin batera, eta isurketa-baimenak salerosteko aukera ematen die enpresa kutsatzaileei.

Bestalde, liberalismo berdea, pentsamendu politikoko eskola gisa, 1990ko hamarkadaren amaieran sortu zen. Mundu akademikoak hamarkada bat zeraman kapitalismoari kolore berdea eman nahian. Hala, korronte hura argudio ekonomiko horien birformulazio filosofiko bat izan zen (Arias, 2020). Liberal berdeen ustez, sistema sozioekonomiko kapitalistan ez da arazorik ikusten, arazoaren konponbidea baizik. Hala, sistemaren hazkunde ekonomikoa panazea ekologiko bilakatzen da.

Corporate Wacht erakundearen arabera (2016), kapitalismo berdea askotariko erakundeek osatzen dute (gobernuek, korporazioek, ikasketa-zentroek, ongintzako erakundeek, GKEek, nazioarteko finantza-erakundeek, eta abarrek) eta, horiek, naturan merkatu-mekanismoak sartzeko prozesuak ezartzen dituzte. Horrela, gaur egungo ingurumen-krisi glo-

balek —hala nola klima-aldaketak eta habitaten eta biodibertsitatearen galerak— irabaziak lortzeko merkatu berriak sortzen dituzte.

Kapitalismo berdea sustatzen dutenen logikan, natura behar bezala baloratzen bada, hura babestu ez ezik, hobetu ere egingo da, eta horrek ekonomiaren osasuna eta gizarte-ongizatea ekarriko du. Ekokapitalistentzat, ingurumenak ematen dituen aktiboen, ondasunen eta zerbitzuen prezioa finkatzean, merkatuaren «esku ikusezinak» ingurumen-degradazioa neurtu, salerosi eta gutxitu dezake.

Hazkunde ekonomikoa ezinbestekoa da kapitalismoarentzat, eta, hala, kapitalismo berdearen funtsezko ideia bat da ekonomiek banandu eta hedatzen jarrai dezaketela, baliabideen kontsumoa eta ingurumenari egindako kaltea murrizten edota ezabatzen duten bitartean. Bere burua berrasmatzeko beharra beti izan da kapitalismoaren osagai bat. Zentzu horretan, kapitalismo berdeak funtzionatzen jarraitzeko aukera emango dio sistema kapitalistari. Diru-sarrerak lortzeko modu berriak sortzen ditu, mundu naturalaren gero eta alderdi gehiago salerosgai bihurtzen baititu. Horrela ikusita, kapitalismo berdea kapitalismoaren barneko bilakaera bat da, eremu berrietara hedatzeko eta irabaziak sortzen jarraitzeko bide bat ematen diona.

Hala ere, kritika ekofeministari jarraituz, irabazien logika hura bizitzaren logikaren aurka doa. Yayo Herreroren esanetan, gizarte kapitalistetan onura ekonomikoa ematen duen hori lehentasunezkoa da, pertsonei mesede egiten dien horren aurrean. Biziaren funtzionamenduaren oinarrian dagoen logikak talka egiten du hegemonikoa izan nahi duen eta etengabeko hedapenean eta hazkundean oinarritzen den eredu ekonomikoaren antolaketarekin. Kontraesan handia dago pertsonen eta izaki bizidunen ugalketa-prozesuaren eta kapitala metatzeko prozesuaren artean. Bi logika horien helburuak eta helburu horiek lortzeko estrategiak desberdinak dira, eta, maiz, nekez uztartzen dira, oso lehentasun desberdinei erantzuten baitiete (Herrero, 2010). Halaber, Silvia Federicik gogorarazten digunez, deigarria da gizakiok geure biziraupenari bizkarra ematen diogula. Horrek, bada, zerikusia du gure kultura egituratzen duten bi elementu hauekin: batetik, erreprodukzio sozialeko lanaren desbalorizazioa, gizarte-ordena patriarkalak sustatuta, eta, bestetik, mendebaldeko kulturak eta kapitalismoak naturari ematen dion tratamendua, jabetu daitekeen baliabide gisa (Federici, 2010).

Kapitalismoa berdetzea izan da nazioarteko zenbait erakunderen eta munduko ingurumen-krisiaz kezkatuta dauden gobernuen erantzuna. Baina merkatu «berdearen» errezetak ez dira eraginkorrak izan azken mende erdiko arazo eko-sozialak konpontzeko. Leheneratze ekologikoa eta gizarte harremanen oreka aurreikusten dituen «ekonomia berdea» honako hauetan oinarritzen da: biomimesia (prozesu ekosistemikoen imitazioa), baliabide naturalen produktibitatea handitzea, produktuen ordez zerbitzuak saltzea, eta kapital naturalean inbertitzea (Hawken, Lovins &

Lovins, 1999). Hala ere, Riechmannek (2006) dioen bezala, bide hori ezartzeko zailtasunak nabarmenak dira: ez dago lurraren eta baliabide materialen ordezkorik, kapital naturala baloratzea oso zaila da, eta teknologiak ezin du bizitza ordezkatu.

Ez fotosintesia, ez karbonoaren, uraren edo nitrogenoaren ziklo naturalak, ez ugalketarekin eta giza zaintzarekin lotutako zereginak, ezin dira roboten bitartez egin, ezta beren prezioaren arabera aztertu ere. Kapitalismo berdearen helburua hazkunde mugagabea mantentzea da, naturari eta bere «zerbitzuei» finantza-irizpideak aplikatuz, «merkatu libreko» tresnak erabiliz, «kutsatzen duenak ordaintzen du» logikatik «berdetzen duenak kobratzen du» logika berrira pasatuz (Barcena, 2020).

«El imposible capitalismo verde: del vuelco climático capitalista a la alternativa ecosocialista» (*«Kapitalismo berde ezinezkoa: klimaren iraulketa kapitalistatik alternatiba ekosozialistara»*) (2011) liburuan, Daniel Tanuro sindikalista belgikarrak sistema kapitalista berdetzeko eragozpenak aztertu ditu. Bere ustez, kapitalismoari irtenbide berdea emateko bi oztopo daude: bata mozkinaren eta produktibismoaren logika da, eta, bestea, ekoizpen materialaren eta kontsumoaren etengabeko hazkundea. Lehenari dagokionez, errentaren edo mozkinen bilaketak baliabide naturalen, mineralen eta organikoen harrapakaritza bultzatzen du etengabe. Batez ere nekazaritza-industria gero eta intentsiboagoa izateko joerak lurzoruak agortzen dituelako, monolaborantza praktikatzen duelako eta haragiaren ekoizpena hobesten duelako.

Gainera, David Harveyk (2005) planteatzen duen bezala, egungo kapitalismoa desjabetzean oinarritzen da. Ez dago kapitalismorik hazkunderik gabe eta, hortaz, etengabeko erreprodukziorik gabe. Hala, mugimendu bikoitza dago: batetik, lan-indarraren jabetzea/esplotazioa eta, bestetik, baliabide naturalen jabetzea/harrapakaritza.

Hala ere, Tanuroren esanetan, klima salbatzeko, gutxiago produzitu beharra dago, eta erabiltzaileengandik gertuago ere. Horrek, bada, bigarren oztopora garamatza. Energia fosilak energia berriztagarriekin ordezkatzea ezinezkoa izango da herrialde kapitalista garatuenetan energia-kontsumoa nabarmen murriztu gabe, eta horrek materialen ekoizpena eta garraioa nabarmen murriztea ekarriko du, hau da, gizarte gaingaratuen metabolismo soziala izugarri argaltzea.

Aitzitik, energiaren, teknologia nuklearraren, bioerregaien edo hidrogenoaren arloan izandako porrot nabarmenak eta alternatiba faltsuak gorabehera, kapitalismoak hazkuntza amaigabearen logikaren legitimatzaile gisa funtzionatzen duen marka kultural prometeotar batean hondoratzen ditu bere sustrai ahaltsuak (Santiago, 2015).

Egun, pertsona askorentzat «errazagoa da munduaren amaiera imajinatzea kapitalismoaren amaiera baino» (Fisher, 2019). Horrela, kapita-

lismo berdeak sistema ekonomiko bideragarri bakar gisa saldu nahi digu bere burua, eta badirudi ezinezkoa dela horren aurrean beste alternatibarik irudikatzea. Hala ere, munduan, milioika lagunek bere aurka borrokatzen jarraitzen dute egunero.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) [Jolasa] Commonspoly. commonspoly.cc/es.

(gaz) [Jolasa] Consortium/ Accionistas de la Tierra/ Jolasaconsortium.com/porque-nace-consortium/

(gaz) [Bideoa] Yayo Herrero: La crítica ecofeminista del «capitalismo verde» www.youtube.com/watch?v=3Wr0b2h4bzg

(in) A-Z-of-Green-Capitalism. corporatewatch.org/wp-content/uploads/2017/09/Corporate-Watch-A-Z-of-Green-Capitalism.pdf

Erlazionatutako topikoak

Ekosozialismoa, Ekofeminismoa, Ekogarapena, Bizitze ona.

EKOKEINUAK

Ikus *Ekoherritartasuna*.

EKOLOGIA POLITIKOA

Ekologia politikoa gizarte-zientzietako ikerketa korronte bat da. Gizarte-taldeen eta ingurunearen arteko harremanak aztertzen ditu, eta bere ezagutza-eremua ekologiaren aplikazio politikoari dagokio.

1960-70eko hamarkadetan, proposamen keynestarren nagusitasuna krisian zegoen eta, ondorioz, ongizate-estatuak desegiten hasi ziren. Gainera, krisi ekologikoa gero eta handiagoa zen. Bada, testuinguru horretan sortu zen ingurumen-ekonomia, ekonomia kapitalistak bere azterketan eta hausnarketan ingurumena sartzeko modu gisa.

Horren aurrean, 1970ko hamarkadan, ekologia politikoa eta marxismo ekologikoa sortu ziren. Korronte horiek, bada, ezarritako ordena ekonomikoarekin disruptiboak diren eskema analitikoak proposatzen dituzte, baita zenbait galdera sakon ere. Hain zuzen ere, galdera horiek jarduera produktiboaren iraunkortasun ekologiko bakanari eta arlo horretan hasieratik izandako botere-harremanei buruzko eztabaidak gaindituko dituzte.

Hala, hainbat idazle agertuko dira, hala nola, M. Wolf. Wolfek, «*Ownership and Political Ecology*» (1972) artikuluan, funtsezko bi elementu hauek zeharka eztabaidatzen ditu: batetik, baliabideen jabetzarako sarbidea eta, bestetik, lurralde-kudeaketako dinamikak, epe luzeko ikuspegia eta jabetza kolektiboko izaera dutenak, hain zuzen ere, jabetza pribatuaren, ekintza indibidualen eta epe laburreko kudeaketaren ordez.

Geroago, Gorz-ek (Gerhart Hirsch idazlearen ezizena da) *Écologie et politique* (Ecologia eta politika)(1975) eta *Écologie et liberté* (Ecologia eta askatasuna)(1977) lanak argitaratu zituen. Lan horiek ekologia politikoaren hastapenetzat jotzen dira.

M. Watts (1983) ekologia politikoaren kontzeptua aipatzen duen lehenetarikoa da. Hark darwinismo sozialaren ondorio normalizatzaileak kritikatzen ditu, baita ordena etnologikoaren eta praktika antropologikoen ekologizazioa ere.

Ekologia kulturaleko eta ekonomia politikoko ikuspuntuak dira, eta horiek frogatu ahal izan dute politika global desparekoek (gutxi batzuen aldeko desjabetzeak, eskubideak ukatzea, bizirauteko ondasunak merkantilizatzea, etab.) larriki mugatu zituztela tokiko praktikak (Bouleau eta Hautdidier, 2020).

2000ko hamarkadan, ekarpen feminista eta poskolonialei esker, ekologia politikoak bere eremua zabaldu zuen. Hala, diskurtsoetan transmititutako irudikapen eta ideologietan zentratu zen, batez ere zientziaren arloan garapen ekologikoak kalifikatzeko eta horien kausak identifikatzeko autoritatea duten horietan (Forsyth, 2003).

Gaur egun, ekologia politikoak aztertzen du nola naturaren erabileraren bitartez lortutako irabazi ekonomikoak eta onura sozialak modu desparekoan banatzen diren gizartean. Hortaz, onura horien banaketa bidezkoa bultzatzeko politikak nola egin ere ikertzen du (ent, 2024). Hori egiteko, askotariko metodologia kuantitatiboak eta kualitatiboak erabiltzen ditu, hainbat lan-eskolatakoak; adibidez, materialen eta energiaren fluxuak, azterketa instituzionala, inkestak edo historiografía.

Ekologia politikoan erreferente den Martinez-Alier ekonomistaren ustez (1995), zientzia hori bi paradigma hauek deseraikitzean oinarritzen da: ekonomia kapitalista eta ekonomia politikoa. Horien aurrean, marxismo berdea eta ekonomia ekologikoa sortzen dira. Horrela, ekologia politikoa bere mugetan kokatzen da, eta ekonomia ekologikoak xurgatu eta konpondu ezin dituen banaketa ekologikoko gatazketan zentratzen da.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

Joan Martínez-Alier-ek *Ecología Política* (https://www.ecologiapolitica.info/) aldizkaria sortu zuen 1991n. Bere webgunean agertzen de-

nez, hainbat alderdi ditu ardatz aldizkari horrek: ingurumen-gatazkak, baliabideak eskuratzeko desberdintasunak eta kutsadura-kargak, ingurumen-politikak, erresistentzia-sareak eta gizarte-mugimenduak, eta ingurumen-pentsamenduaren erreferenteak. Goi-mailetarako, irakurketetarako, eztabaidetarako, hausnarketetarako eta abarretarako baliabide-iturri handia da.

(portuguesan) Consequência (2024). Dicionário de Ecologia Política. Consequência Editora.

Erlazionatutako topikoak

Krisi ekosoziala, Ekologia soziala, Ekologismoa.

EKOLOGIA SAKONA

Ekologia Sakona kontzeptua ekozentrismoarekin parekatu dezakegu. Hau da, planeta eta bizitzari buruzko begirada holistikoagoa eta transbertsalagoa da, eta izaki bizidun guztien egoera eta eginkizuna parekatzen du, giza-espeziearen inongo nagusitasunik onartu gabe. Hala, bada, antropozentrismoa gainditzen du. Arne Naess filosofo norvegiarrari zor diogu kontzeptua, nahiz eta Fritjof Capra fisiko austriarra izan den agian hura gehien garatu duena. Halaber, ikuspegi horrek zerikusi handia du Gaia teoriarekin, bai James Lovelock kimikari eta ekologo britainiarrak formulatu zuen planteamendu teorikoarekin, baita Lynn Margulis biologo ipar-amerikarraren ikerketek honi eman zioten oinarri enpirikoarekin ere.

Naess filosofo entzutetsua izan zen Norvegian —eta mendizale aparta—. Ekologia Sakona kontzeptua 1973an argitaratutako artikulu batean proposatu zuen. Horretan, esan bezala, gizakia munduaren erdigunean kokatzen duen ikuspegia edo jarrera (antropozentrismoa) gainditu beharra zegoela azpimarratu zuen. Hain zuzen ere, izaki bizidun guztiei eta ekosistemei edozein gizakiari zor zaion begirune berdina eman behar zaiela argudiatu zuen, batez ere gizakiok ere naturan gertatzen diren prozesu eta aldaketen menpe bizi garelako, eta ez inolaz ere gure espeziak sortutako tekno-esfera edota burbuila batean.

Naessen planteamendu normatiboak (Iglesias, 2009) (funtsean Lurrean gizakion zein gainontzeko izakien bizitzaren loratzeak eta ongizateak berezko balioa dutela maila beretsuan eta, beraz, ezin direla gureak hobetsi) bat egin zuen Lovelock-ek proposatutako Gaia Hipotesiarekin. Azken hori urte batzuk lehenago sortu zen baina beranduago argitaratu zen, 1979an, alegia. Haren arabera, planetak (atmosferak eta lurraren gainazalak), oreka bilatuz, bere baldintzak auto-erregulatzen dituen sistema

gisa jokatzen du, hau da, izaki bizidun bat bezala. Hala, ingurune horretan bizi garen espeziok soberan egon gaitezke, hau da, arriskuan, gure portaera kolektiboak oreka hori kolokan jarriz gero. Esan bezala, Lynn Margulisen lan enpirikoak -organismoen arteko sinbiosiak izango lirateke eboluzioaren motorra (1999)- sendotasuna ematen dio Gaia hipotesiari, Teoria izaera emateraino ere.

Hala ere, zalantzarik gabe, Capra-ren lan holistikoa izan da Ekologia Sakonari heldutasuna eman diona. 1986an argitaraturiko *The web of Life* (Bizitzaren bilbea) lanean sintesi aparta lortzen du, ez bakarrik Naess, Lovelock eta Margulis-en planteamenduen artean, baizik eta beste honako proposamen hauek ere txertatuz: Ilya Prigogine fisiko errusiarraren egitura disipatiboak (oreka ez, baina bai ordena ziurtatu dezaketenak), Maturana eta Varela biologo eta filosofo txiletarren autopoiesis kontzeptua eta Ekialdeko zenbait filosofien proposamenak ere. Planetako bizitzaren ehuna ulergarriagoa litzateke sare/ehun konplexu gisa, baina horretan gizakion eginkizuna apala da, eta ez ezinbestekoa, Beraz, kolokan jartzen du Mendebaldean garatu den antropozentrismo harroa. Hala ere, Capra baino lehen, Bill Devall eta George Sessions (informazio zehatzik gabe) soziologo kaliforniarrek kontzeptua osatu zuten 1985eko *Deep Ecology* lanean.

Ezin da esan Ekologia Sakonak sekulako arrakasta izan duenik, ezta ekologismoaren alorrean ere. Batez ere Ilustrazioaren ondarean sortutako Humanismotik eta Natura Zientzietatik edaten du ekologismoak. Izan ere, horiek antropozentristak dira, baita marxismoa ere. Existentzialismoak, agian, nolabaiteko eragina izan dezake ekologismo ez hain antropozentriko bat bultzatzeko. Europan —batez ere Frantzian— Andre Gorz-en obraren bitartez sortutako horretaz zein, batez ere, bere bertsio ipar-amerikarraz ari gara, hau da, *beat generation* delakoaz. Hala, Gary Snyder-en saiakera eta poesia, adibidez, bai koka daiteke esparru biozentrikoan. Edota Ed Abbey saiogile eta nobelistaren obra ere dugu. Horretan, natura lehenesten du, gizaki lerdo eta berekoien gainetik. Abbeyren nobelatako protagonistek *monkeywrenching* edo ekosabotajeko praktikak inspiratu dituzte mundo osoan zehar, baina bereziki AEBetan. Bertan, Earth First taldeak bereziki aldarrikatu zuen Ekologia Sakona. Gauza bera egin zuten geroago Earth Liberation Front talde ingelesak edota Animal Liberation Front talde internazionalak (VV. AA., 2010).

Azken horri dagokionez, animalismoak (normalean militanteek azpimarratzen dute ez direla ekologistak) lotura handia izan dezake Ekologia Sakonarekin, noski; nahiz eta bere ideologo eta inspiratzaile nagusiak, hau da, Peter Singer australiarrak filosofo utilitarista gisa aurkezten duen bere burua (1975). Izan ere, zentzu horretan, humanismoan kokatu beharko genuke, hau da, antropozentrikoa izaki bizidun ororen sufrimenduaren aurkakoa.

Zenbait ekofeminismo ere Ekologia Sakonetik hurbil koka ditzakegu, batez ere Indian edota Latinoamerikan garatutako horiek. Esate baterako, Vandana Shivaren lanaren zati handi bat edota Lurra planetari eskubide juridikoak aitortzeko mugimenduak ere, adibidez Ekuadorreko Konstituzioan «sumak kawsay» (bizitze ona) kontzeptuaren bidez adierazitakoa (2013).

Europan oso gutxi ezagutzen da AEBetako biorregionalismoaren aldeko mugimendua. Hark ekosistema edota bioeskualdea kokatzen du teoria eta praktika ekologisten erdigunean. Hala, hura da, agian, Ekologia Sakonaren garapen zentzuzkoena eta egingarriena (Moran, Fdez. Casadevante, Prats eta Hernandez, 2023).

Lovelock, Naess, Capra, Shiva eta Latinoamerikako ekofeminismoaren planteamenduetan nolabaiteko espiritualismoa atzeman daiteke eta horrek arbuioa eragitzen du Mendebaldeko ekologismo materialistan. Lovelock-en kasuan, Gaia (lurraren jainkosa greziarraren izena) erabiltzea kontu praktikoa dirudi, baina, Naess eta Capra-ren kasuetan, ekialdeko erlijio edota espiritualismoekiko interes argia dago, taoismoarekiko batez ere (Capra, 1975). Alan Sokal fisikariak, zientziaren ondarearen erabilpen interesatuak edota friboloak salatu ohi dituena, horixe leporatzen dio Capraren azken lanari, hau da, 2007ko *Beyond the Hoax: Science, Philosophy and Culture* («*Hoaxetik harago: Zientzia, Filosofia eta Kultura*») lanari, horretan, fisika eta taoismoa lotzen baitira. Aitzitik, ez du inolako kexarik *The Web of Life* lanaren inguruan.

Naessek azpimarratu egiten du giza-populazioaren hazkundeak ezin duela kolokan jarri planetaren oreka (Iglesias, 2009), eta Abbeyren azken orduko planteamendutan emigrazioari buruzko kezka ageri da; Finlandian oso ezaguna izan den Pentti Linkola idazle ekologistak ere natibismoaren gehiegikeriekin bat egin zuen azken urteotan, eta horrelako ikuspegiei ekofaxismoarekiko hurbiltasuna leporatzen zaie (Stefanoni, 2023).

Misantropia ere leporatu zaie Ekologia Sakonaren defendatzaileei. Hala egin zuen, adibidez, Al Gore AEBetako presidenteorde-orde eta ekonomia berdearen sustatzaileak (Iglesias, 2009).

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

Ed Abbeyren literatur lanetan basamortuko bizitza basatia goraipatzen da, eta zibilizazioaren ergelkeria salatzen da, betiere estilo sarkastiko eta kontrakulturalean. Hiru obra aipatuko ditugu, gaztelaniazko edizioetan: 2012, *La banda de la tenaza*. Córdoba: Berenice; 2014. *¡Hayduke vive!* Córdoba: Berenice; 2016, *El solitario del desierto*. Madrid: Capitan Swing.

(gaz) [Pelikula] Kurosawa, A. (1975). Dersú Uzalá. Lurraldea ezagutzen duen eta eguraldi txarrari aurre egiten dakien ehiztari nomada ba-

tek Vladimir kapitainari eta bere destakamenduari natura nola errespetatu eta harekin erabateko harmonian nola bizi irakatsiko die, bizitza osoan nekez ahaztuko duen ikasgaia. youtu.be/_31PYZ96_0s?si=FzyP7o6bkdX0rVNy

(gaz-azpim)[Película] Herzog, W. (2005): Grizzly man. Kritika gogorra Ekologia Sakonaren planteamenduei (hartzekin bizi nahi duen pertsona baten abenturak eta eldarnioak kontatzen baitira), baina antropozentrismotik ihes egitea zein konplikatua den ulertzeko ere balio du. m.ok.ru/video/3069207710232

Erlazionatutako topikoak

Ekologia politikoa, Ekologia soziala, Ekologismoa, Ekologismoaren historia.

EKOLOGIA SOZIALA

Ekologia soziala eskola filosofikoa eta ekologismoaren eta anarkismoaren korronte politikoa da, Murray Bookchinek sortua.

Gizarte-ekologiak gizadiaren eta bere ingurunearen arteko lotura aztertzen eta zalantzan jartzen du. Hala, gizakiengan jartzen du arreta; izan ere, planetan duten okupazio-mailaren eta eragiten dituzten inpaktuen ondorioz, nabarmen eraldatzen ari da biosfera.

1869an, E. Haeckelek honela definitu zuen ekologia: izaki bizidunen eta bere ingurunearen arteko harremanen ikerketa, inguru hori organikoa zein inorgarnikoa izan. Joan den mendearen amaieratik, zenbait pentsalarik proposatu zuten ikuspegi ekologikoa lagungarria izan zitekeela gizakia aztertzeko ere, giza ekologian oinarrituta. Hala ere, ikuspegi hori partziala izan zen, gai espezifikoetara mugatu baitzen, hala nola ingurune fisiko espezifikoetarako egokitzapen biologikora, faktore demografikoetara eta kutsadurak gizakiarengan dituen ondorioetara.

Ikuspegi ekologikoa batez ere gizarte-zientzietan garatu zen, bereziki hiri-ekologian eta antropologian, eta kultura eta ingurumen-baldintzen arteko artikulazioan sakondu zuen. Hortik sortzen dira «ingurumen-psikologia» eta «psikologia ekologikoa», ingurumen-testuinguruetan eta haren eraginetan sakontzen dutenak.

Marcusek eta Heideggerrek ekarpen esanguratsuak eta aitzindariak egin zituzten gizakiaren eta ingurunearen arteko elkarreraginen gaian. Horietan, argi eta garbi azaltzen da harreman horien balioa handitzea, teknikaren eginkizuna, eta abar.

Pentsamendu-ildo sendo horretan Murray Boockhin, Edgar Morin, Arene Naess eta Holmes Rolston III nabarmentzen dira. Bookchinek eko-

logia soziala gizarte eta ingurumen krisiek sortutako arazoak aztertzea ahalbidetzen duen diziplina gisa pentsatzen du, non kritikari, eratzeari, teoriari edo praktikari balio berdina ematen zaien. Era berean, natura ulertzeko, bertan baloreak ezarri behar dira., A. Naessek, bere «ekologia sakoneko» adarrean proposatzen duen moduan.

Bookchin antikapitalista sutsua eta gizartearen deszentralizazioaren aldekoa zen. 1982an «*Ecology of Freedom: The Emergence and Dissolution of Hierarchy*» (Askatasunaren ekologia: hierarkiaren agerpena eta disoluzioa) lana argitaratu zuen. Bertan azaltzen du gizartean dauden dominazio eta kontrol moduak erabat basatiak eta ankerrak zein oharkabeki sotilak eta etereoak izan daitezkeela. Askatasunerako eta gizarte-aldaketarako bidea hartzeko, beharrezkoa da kontrol eta dominazio horien kontzientzia izatea, Izan ere, horiek ez dira askotan erraz antzematen, kontrol-ahalmena ezkutatzeko ahalmenari gehitzen baitzaio. Ideia horiek eragin handia izan zuten sortzen ari zen mugimendu ekologistan. Bookchinek Naessen ekologia sakona kritikatzen du, misantropiko, neomalthusiar eta irrazionaltzat hartzen baitu.

Bere *«What Is Social Ecology» (Zer da ekologia soziala?)* saikeran, Bookchinek adierazten du ekologia soziala honako ideia honetan oinarritzen dela: gure problema gehienak gizarte arazo sakonetatik datoz, gizarte oso hierarkizatuek baliabide naturalak agortzeko eta ingurune naturala kaltezeko joera baitute. Hierarkia hori, ondasunak bereganatzearekin eta natura kontrolatzearekin batera, arrakasta eta garrantzia sozialarekin identifikatzen da gure gizartean. Horregatik, arazo ekologikoak ezin dira ulertu, eta are gutxiago ebatzi, gaur egungo gizartea eta horretan nagusi diren irrazionaltasunak ondo ulertu gabe. Ekologia sozialaren aita gure bizimoduan aldaketa nabarmenak egitearen aldekoa zen. Horretarako komunitate txiki eta buruaskietarako trantsizio soziala egitea proposatzen zuen (nekazaritza euskarrietako bat izango litzateke). Komunitate horiek, gainera, ekologikoki iraunkorrak eta demokratikoak ere izan behar dute, eta gizakiari askeago izateko aukera eman beharko diote (Gutiérrez Bastida, 2018).

Etika biozentristen eta ekozentristen sektoreek utopikotzat jotzen dituzte Bookchinen ekologia sozialaren ideia anarkistak. Izan ere, sektore horien ustez, «dominazio soziala/baliabide naturalen ustiapena» segida ez da argia, eta, gainera, zalantzan jartzen dute gizabanakoek gizarte txikietan benetako askatasuna dutenik.

Gudynas eta Eviaren esanetan (1993):

> Egoera horretan, ikusten dira, alde batetik, gizakiaren zientziak, hain zuzen ere, gizakien arteko patroi eta prozesuetara mugatu direnak (eta kasu batzuetan, eraikitako giroarekin); eta, bestetik, zientzia naturalak, gainerako izaki bizidunen (landareak, animaliak, mikroorganismoak) eta

bizigabea den horren arteko ereduak eta prozesuak nabarmendu dituztenak.

Ekologia sozialak haustura hori gainditu nahi du, goian aipatutako korronte guztien ekarpenak bilduz. Alde batetik, ekologoei gogorarazten die osagai sozial bat dagoela ; eta, bestetik, soziologoei, antropologoei eta abarrei, gizakiak ez diren osagaiak daudela.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Ecologistas en acción. Tejer la vida en verde y violeta. www.ecologistasenaccion.org/10818/cuaderno-tejer-la-vida-en-verde-y-violeta/.

(gaz) Intermon-Oxfam. ¿Cuáles son los principios y valores de la ecología social? blog.oxfamintermon.org/cuales-son-los-principios-y-valores-de-la-ecologia-social/.

(gaz) Tratarde. Treinta libros sobre ecología social. tratarde.org/treinta-libros-sobre-ecologismo-social/.

Erlazionatutako topikoak

Krisi ekosoziala, Ekologia soziala, Ekologismoa.

EKOLOGISMOA

Oro har, eta gaur egungo ikuspegitik, ekologismo terminoaren atzean hainbat ikuspegi ideologiko, pentsamolde eta jardunbide biltzen dira. Horien adierazpen modernoa, XX. mendearen bigarren erdian, gizarte-mugimendu heterogeneo batean gauzatu zen. Hala, bi jarduera-ildo partekatzen zituzten: alde batetik, naturaren edo garai hartan ingurumen deitzen hasi zen horren defentsa —XIX. mendean edo lehenago sortutako mugimendua—; eta, bestetik, planetaren mugez jabetuta, gizarte kapitalistaren produktibismoari zibilizazio-kritika egiten dion ekologismoa.

Bigarren Mundu Gerraz geroztik, nazioartean oihartzun handia izan zuten hainbat ingurumen-hondamendi gertatu ziren[27]. Hondamendi ho-

[27] Londres *smog* laino batek eztali zuen 1952ko abenduan, eta haren eraginez lau mila pertsona inguru hil ziren; Japoniako Minamata badiako merkurio isurketek (1953-1960) kalte neurologiko atzeraezinak eragin zituzten; petroliuntzien istripuek marea beltzak eragin zituzten (hondamendi handietako lehena Torrey Canyonekoa izan zen, 1967an, Ingalaterrako hegoaldeko kostaldean); Seveso herriko (Italia, 1976) lantegi kimikoan sutea piztu zen, eta dioxina kopuru handiak askatu zituen; edo Bhopalgo hondamendi kimikoak (Madhya Pradesh, India, 1984), 25.000 hildako eta 500.000 zauritu baino gehiago eragin zituen, besteak beste.

riek gero eta argiago erakusten zuten zibilizazio-krisia. Baina kasu bakanetatik haratago, euri azidoa, baso tropikalen suntsipena, gehiegizko arrantza, basamortuen hedapena, lehengaiak ustiatzeko gerrak, Gerra Hotzak sortutako gatazkak, Hego Globaleko herrialdeen zorpetzea, populazioen desplazamendu behartuak eta, batzuetan, sarraski fisiko eta kulturalak, berotegi-efektuko gasen isurketak, espezieen desagerpena eta jatorri antropikoko beste prozesu batzuk hedatu dira. Hainbat analistaren ustez, ekologismoak porrot egin du, eta XX. mendeko azken hiru hamarkadetan galdutako aukeraz hitz egiten dute. Izan ere, ekologismoa ez omen da gai izan arazo horien kausei aurre egiteko gizarte kontzientzia zabala sortzeko.

1970eko eta 1980ko hamarkadetatik aurrera, liberalismo ekonomikoak gorakada handia izan zuen, eta hedatzen eta hazten jarraitu nahi du. Baina, horrekin batera, ekologismoaren zati handi batentzat —batez ere «anbientalistentzat»— sistema onargarri bilakatzen duen ideia bat sortu da, garapen iraunkorra, alegia. Izan ere, ekologismo anbientalista horrek ekoefizientzian sinesten du, kapitalismoak sortzen dituen arazoen konponbide gisa. Aitzitik, ekologismoaren zati handi batek argi eta garbi planteatzen du «automugatzeko» beharra dagoela, planetaren mugak ez gainditzeko. Haren ustez, berotze globala kapitalismoak eragiten duen hondamendiaren sintoma bat da.

1990ko hamarkadaz geroztik batez ere, hainbat ideia hedatu dira, hala nola «eko», ekoizpen eta kontsumo «berdea», «hazkunde iraunkorra», «birziklatzea» eta antzeko beste batzuk. Liberalismo ekonomikoak horiek sustatzen eta hobetzen ditu, bere burua betikotzeko. Gainera, apurka-apurka, gizarte osoari leporatu diote orekak hausteko egoera ekosozialaren errua[28]. Hala, ke-laino bat zabaldu dute, arazoen benetako jatorria ezkutatzeko, eta pertsonei egotzi diete arazoak konpontzeko erantzukizuna —eta maiz arazoen jatorria ere— (pertsona orok behar dute ura aurreztu, ontziak birziklatu, osasuntsu jan, jatorri berriztagarriko elektrizitatea emango dion energia-enpresa bat kontratatu, auto elektriko bat erosi, kirola egin, bere aukeren gainetik ez gastatu, erretirorako aurreztu...).

Ekologismoak gizarte-lana egin du hainbat zentzutan. Nagusietako batzuk aipatuko ditugu. Alde batetik, industrializazioak eta hazkunde neurrigabeak planetan sortzen ari diren arazo larriei buruzko kontzien-

[28] Nahiko ezaguna da nola sortu zen karbono aztarnaren kontzeptua. Hura, hain zuzen, William Reesek eta Malthis Wackernagelek 1996an proposatutako aztarna ekologikoaren kontzeptu generikotik abiatuta sortu zen. British Petroleum (BP) petrolio-enpresa britainiarrak, bere jarduerak ingurumenean zuen eraginaren jakitun, publizitate-kanpaina bat abiarazi zuen 2005ean, jendeari bere karbono-aztarna zein zen galdetzeko. Kanpaina horren bitartez, errua norbanakoei leporatzeko estrategia inauguratu zen, nahiz eta petrolio-enpresa handiak ziren efektu txar horiek sortzen zituztenak (batez besteko estatistikoaren bitartez). Helburua, bada, enpresa handien eta sistema kapitalista osoaren erantzukizuna ezkutatzea zen.

tzia soziala pizten lagundu du. Gogora ditzagun, adibidez, hainbat konposatu kimikoren isuri antropogenikoek ozono-geruzari egindako kalteak salatzeko egindako kanpainak. Mugimendu ekologistaren presioari esker, besteak beste, Montrealgo Protokoloa (1986) sinatu zen, hain zuzen ere, orain arteko nazioarteko ingurumen-hitzarmenik arrakastatsuena.

Mugimendu ekologistaren beste jarduera-eremu bat bakezaletasunarekin lotu da, arma nuklearren eta, hedaduraz, energia nuklearraren kontrako jarrera kontuan hartuta, eta, beste adierazpen batzuetan, antimilitarismoarekin ere lotu izan da. Gerra Hotzaren garaiari buruz ari gara, NATOrekin eta Varsoviako Itunarekin identifikatutako munduko botere-blokeen artean. Nazioartean, armagabetze nuklearraren aldeko kanpainak Estatu Batuetan hasi ziren 1970ko eta 1980ko hamarkadetan. Gero, Alemaniara, Frantziara, Japoniara eta beste herrialde batzuetara hedatu ziren (Austriak eta Suediak beren programa nuklearrak bertan behera utzi zituzten bi erreferendumetan hartutako erabakiaren ondorioz, eta Finlandian milaka emakumek umetokien greba deklaratu zuten energia nuklearraren aurkako jarrera adierazteko). Nuklearren aurkako eztabaida meatzaritzara, atmosfera egindako proba nuklearretara, zentral nuklearren eraikuntzara, hondakinen arazora eta, oro har, teknologia nuklearraren segurtasun faltara hedatu zen. Hain zuzen ere, Greenpeace nazioarteko erakundea Vancouverren (Kanada) sortu zen 1971n, eta indarkeriarik gabeko ekintza zuzenak antolatu zituen AEBek Aleutiar uharteetako batean (Alaska) egiten zituen proba nuklearren aurka.

Espainian, hainbat zentral nuklear eraikitzeko planak aurkaritza eta erresistentzia piztu zituen. Hala, ekimen eta talde ugari sortu ziren, gehienak Nuklearren Aurkako Estatuko Koordinakundean (CEAN, 1977) bilduta.

Eragin soziala eta egungo eztabaidak

Aktibismo ekologistak eragin nabarmena izan du beste erakunde batzuetan. Alderdi politikoek eta administrazio publikoek diskurtso «berdea» hartu dute, batez ere modu oportunistan. Baina beren jardunbideak diskurtso horren aurkakoa dira, eredu ekonomiko estraktibista bati lotuta baitaude. Espainiako Estatuan edo Euskal Herrian, alderdi berdeen presentzia politikoa eta eragiteko gaitasuna oso txikiak[29] izan dira orain arte;

[29] Euskal Herriko Berdeak alderdia 1990ean sortu zen, Estatu mailako Berdeen barruan. Batzuetan, Euskadiko Ezker Batuarekin edo, Europako hauteskundeetan, PSOErekin elkartu zen, eta, azkenik, 2011n Equon sartu zen. Equo, halaber, ezkerreko beste alderdi batzuekin batera aurkeztu da zenbait hauteskundetan. Hala ere, alderdi berde horiek ez dute inoiz emaitza nabarmenik lortu hauteskundeetan. Katalunian, *Esquerra Verda-Verdes Equo* 2021ean sortutako alderdi politiko ekosozialista da, *Iniciativa per Catalunya Verds* alderdiaren ondorengoa.

ez, ordea, Europako beste herrialde batzuetan (Suitza, Erresuma Batua, Alemania, Herbehereak, Irlanda, Austria, Belgika…) [30].

Ordezkaritza politikoa alde batera utzita, mugimendu ekologistak, bere bilakaeran, beste esparru batzuetan proiektatu du bere aktibismoa, beti honako hauek kritikatzearekin lotuta: azpiegitura handiak, ingurumenari egindako kalteak, hirigintza- eta lurralde-plangintzako ereduak, turismoa, xahutze kontsumista, makroetxaldeak... Era berean, defendatu egin ditu elikadura-subiranotasuna, biodibertsitatea, agroekologia, jatorrizko herriak, zerbitzu publikoak, ondasun komunitarioak, justizia klimatikoa, munduko bakea... Hau da, bizitza defendatu du. Ibilbide horretan, askotan, beste gizarte-mugimendu batzuekin bat egin du, batez ere sindikatuekin, feminismoekin, auzo-elkarteekin, indigenistekin, arrazakeriaren aurkakoekin, migratzaileen defentsarekin, sexu-aniztasunaren aldekoekin, antimilitaristekin, desazkundearen aldekoekin, giza eskubideen aldekoekin, altermundialistekin, internazionalistekin eta abarrekin. Azken batean, demokrazia parte-hartzailearen aldeko bat-egite transzendentala da, pertsona guztiei —gaur egungoei eta hurrengo belaunaldietakoei— justizia eta ekitatea ematen diena, antropozentrismoa gainditzen duena eta gizakiak ez diren izaki bizidunak eta haien ekosistemak babesten dituena. Gaur egungo fase kapitalistaren berezko estraktibismoaren aurka dago erabat, eta hazkunde-politiken eko-itxurakeria edo

[30] Lehenengo alderdi berdeak 1960ko hamarkadan sortu ziren. Hasiera batean, naturaren defentsaren aldeko eta kutsaduraren aurkako gizarte-mugimenduek osatzen zituzten. Berdeen erreferentzia politiko nagusia Alemanian 1980an sortutako *Die Grünen* alderdia izango litzateke (Alemania bateratzean *Bündnis 90/Die Grünen* alderdian elkartu zen). Hasieran, mugimendu kontrakulturala zen alderdi politikoa baino gehiago, eta Petra Kelly izan zuen erreferente nagusi. Botere-kuota handiena lortu duen alderdi berdea da. Lehenago, 1973an, *People* (gero *Ecology Party* eta, azkenik, *Green Party*) alderdia agertu zen Britainia Handian. Zeelanda Berriko eta Tasmaniako aurreko formazio berdeen urratsak jarraitzen zituen. Hala ere, lehen legebiltzarkide nazionala 1979an ikusi genuen, Suitzan. Hortik aurrera, eta nahiz eta ezberdintasun ideologikoak egon —bai alderdi berdeen barruan, bai haien artean—, alderdi horiek hauteskundeetan egon dira eta hainbat gobernu nazionaletan parte hartu dute, beti koalizioan. Gobernuetan ingurumena babesteko eta kontserbatzeko politika publikoak sustatu dituzte. Jakina, kontraesanak ere izan dituzte, hala nola Alemaniako berdeek Bosniako esku-hartze militarrari edo Ukrainako gerrari emandako babesa. Era berean, Israel palestinarren aurka egiten ari den genozidioa babestu dute.

Europako Alderdi Berdea (Europako Berdeak izenez ere ezagutzen da) 2004an sortu zen Erroman. Horretan, Europar Batasuneko 29 herrialdetako 32 alderdi ekologista eta Europar Batasunaz kanpoko (Suitza, Errusia, Georgia eta Ukraina) lau alderdi elkartzen dira, Europa mailako erakunde bat osatuz. 2024an, Europako Parlamentuko taldea osatu zuten, ezkerreko hainbat diputatu independente, nazionalista eta erregionalistarekin batera, Europako Berdeak/Europako Aliantza Librea (The Greens/EFA) izenpean, eta guztira 53 eurodiputatu dituzte (Europako Parlamentuak dituen 720 diputatuetatik).

2001ean, Camberran, alderdi berdeek Munduko Berdeen Karta sinatu zuten. Nazioarteko sare horrek Afrikako 29 alderdi, Amerikako zenbait herrialdetako 17, Asiako eta Ozeaniako 20 eta Europako 44 biltzen zituen. Gainera, beste 18 alderdik parte hartzen dute, behatzaile gisa.

itxurazko berdatzea salatzen du (*Green New Deal* instituzionalak eta *greenwashinga*).

Gaur egun, borroka eta aldarrikapen eremu berriak gehitu zaizkio agenda ekologistari. Era berean, adierazpen eta talde aktibista berriak sortu dira. *Fridays for Future*, esaterako, 2018an sortuako nazioarteko mugimendu bat da (Greta Thunberg izan zen hasierako erreferentea), berotegi-efektuko gasen isurketek sortutako berotze globalari aurre egiteko politiken eraginkortasunik eza salatzen duena. Izan ere, gas horiek klima-aldaketa bizkorraren jatorrian daude.

Azken urteetan Espainiako Estatuan, talde berriak agertzen ari dira. Lehendik daudenei, hain zuzen ere, gorago aipatutako horiei, nazioarteko izaera duten beste batzuk elkartzen zaizkie (*Greenpeace*, *ATTAC*[31], *Fridays for Future* edo *Extinction Rebellion*). Euskal Herrian, talde eta plataformen izaera ezberdinetan sakondu gabe, azken aldi honetan, Sukar Horia, Jauzi Ekosoziala, Euskal Herria Bizirik eta beste batzuk sortu dira.

Era berean, Etxalde, EHNE Bizkaia, ELA, ESK edo LAB sindikatuek, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta plataformak, Euskal Gune Ekosozialistak edo Sustrai Erakuntzak, beren aniztasunean, ekologismoaren ideietako batzuk hartu dituzte.

Bukatzeko, ekologismoaren aniztasuna mantentzen dela esan dezakegu. Hala ere, bilakaera nabarmena izan da mugimendua XIX. mendean sortu zenetik. Laburtzeko asmoz, Riechmannen analisiari jarraituko diogu. Hark, bada, anbientalismoa eta ekologismo kontsekuentea bereizten ditu gaur egungo ekologia politikoaren barruan.

Lehenengoari ekorreformismo ere deitzen dio, eta natura babesteko mugimendu kontserbazionistaren bilakaera da, eta, gaur egun, nagusi den sistema sozioekonomikoarekin bateragarria da. Ingurumena hobetzeko, baliabideen agortzeari aurre egiteko eta pertsonek —batez ere herrialde garatuetan— bizi-kalitate hobea izateko borrokatzen da. Ondorioz, kapitalismo berde baten bideragarritasunean sinets dezake.

Bigarrena, berriz, 1970ko hamarkadaz geroztik, proposamen postkapitalista eta dekrezentistetarantz mugitu da. Bizitza ekonomiko, sozial eta

[31] ATTAC (euskaraz Finantza Transakzioen Zergapetzearen eta Herritarren Ekintzaren aldeko Elkartea) merkatuen diktadura eta finantza espekulazioa salatzeko helburuz sortutako nazioarteko mugimendua da. Beraz, ez da zehazki ekologista. ATTAC finantza-merkatuak desarmatzeko borrokatzen da. Erabakitzeko ahalmena herritarrei itzultzea sustatzen du, ekintza politiko eraldatzailea bultzatuko duen hausnarketa eta eztabaida demokratikorako gune bat eskainiz. Erakundea Frantzian sortu zen (1998), paradisu fiskalen existentzia salatzeko. Bere helburua, bada, kapitalaren errenten fiskalitatea handitzea eta nazioarteko finantza-transakzioetan zerga bat sartzea da (Tobin Tasa izenarekin ezagututa), kapital espekulatiboen merkatuen aldakortasuna murrizteko. Egungo proposamenen artean ekologismo sakonaren printzipio asko aldarrikatzen ditu.

politiko osoa berregituratu nahi du, eta, beraz, mugimendu antikapitalista da, argi eta garbi. Gaur egungo industrialismoa, estraktibismoa, bizi-eredu kontsumistak eta sistemak mantentzen duen ilusio teknologikoa[32] kritikatzen ditu. Ekologismo kontsekuentearen aterki ideologiko horren azpian sartzen dira ekosozialismoa eta ekofeminismoa, beren korronte anitzekin.

Hala ere, kontuan izan behar dugu bi korronte horiek —eremu anglosaxoietan azaleko ekologia eta ekologia sakona izendatzen dituztenak— beti ez daudela argiro bereizita edo ez direla antagonikoak; aitzitik, korronte bietako erakundeek elkarrekin parte hartu ohi dute ekintzetan eta kanpainetan[33].

Ekologismoaren azken eztabaidetan agertu berri den eta beste esparru politiko batzuetara zabaldu den kontu bat da kolapso ekologikoari dagokioa.

Azkenik, Adrián Almazánek Espainiako ekologismo kontsekuentearen barruan sei ekintza-estrategia bereizten ditu, proposatzen dituzten eraldaketetan Estatuari ematen dioten agentzia-mailaren arabera:

- Populismo berdea. Alderdi berde berri bat eraikitzeko ahalegina. Hura, ekonomiaren modernizazio ekologikoan eta arkitektura fiskalaren eta aberastasuna banatzeko sistemen eraldaketan oinarrituko litzateke.
- Komunismo ekologista. Beharrezkotzat jotzen du krisi ekosozial globalari zentraltasuna eta zeharkakotasuna ematea, haren oinarria metaketa kapitalistaren dinamika baita. Estatuak enpresak zentzarazi behar ditu eta bizitzaren suntsipena geldiarazi (kapital-bizitza gatazka). Ez die lehentasuna ematen hauteskundeei, baizik eta herriaren mobilizazioa aktibatzeari, lanpostuetako borrokari eta baita estatu-kolpe ekoleninista bat antolatzeari ere.
- Desobedientzia ekologista. Taldeen artean erradikaltasun maila desberdinak daude (*Fridays for Future*, *Extinction Rebellion*, *Rebelión Científica*, *End Fossil Occupy!* edo *Futuro Vegetal* aipa ditzakegu hemen). Hala, ekintza mediatikoak eta deskarbonizazioan oinarritutako mobilizazioak edota ekintza disruptiboagoak antolatzen dituzte.

---

[32] Sistema kapitalista eta *Green New Deal* delakoa arduratzen dira ideia hau zabaltzeaz: teknologiak beti konpontzen dituela arazoak eta zerbait asmatuko dela. Jarrera hori desmobilizatzailea da, eta ukatu egiten du gaur egungo teknologia arazoaren parte delako ebidentzia, nahiz eta biosferako arazo itzeletako baten bati irtenbide partzialen bat eman diezaiokeen.

[33] Adibide bat *Les Soulèvements de la Terre* (Lurraren altxamenduak) mugimendu frantsesa da. Horri buruz, ikus: Zenbait Egile (2024). *40 voces por las sublevaciones de la tierra. Abecedario para desarmar el colapso social*. Bartzelona: Virus, 2024. https://lessoulevementsdelaterre.org/es-es webgunea ere kontsulta daiteke (frantsesez).

- Lurraldearen defentsa. Izen horren azpian, lurralde jakin batean edo gai jakin baten inguruan egituratu ohi diren talde ugari daude. Testu hau idazteko unean, gorakada nabarmena izan du goi-mailako teknologiako poligono eolikoak eta fotovoltaikoak egiteko proiektu ugarien, makroetxaldeen edo eragin handiko proiektu turistikoen aurkako borrokak.
- Komunalismoa. Planteamendu libertarioa dute, eta, horren arabera, gizartea eraldatzeko eragiletasuna ez dago Estatuan, gizartean baizik. Ez dago hutsik egiten ez duen estrategia iraultzailerik; aldiz, beharrezkoa da pixkanaka eraldatzeko prozesu bat abian jartzea, bizimoduak aldatzeko helburua duena. Komunalismoak eraldaketa hura askotariko eremuetan abian jartzea proposatzen du: elikaduran (agroekologia), energian (energia-komunitateak), lan-arloan (kooperatibak), hezkuntzan (eskola autogestionatuak), etxebizitzan (etxebizitzak erabilera-eskubideko erregimenean), eta abar; hau da, merkatuaren eta Estatuaren esparrutik gero eta gehiago ihes egitea.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) IES Campos de San Roque. Departamento de Filosofía. Programaciones Didácticas: ética ecológica. escholarium.educarex.es/useruploads/r/a/3240947/activity_other_imported/PROGRAM_F.pdf.

(gaz) Soberanía Alimentaria, Biodibertsitatea y Culturas. (s. f.). *Revista Soberanía Alimentaria, Biodibertsitatea y culturas.* www.soberaniaalimentaria.info/.

(eus-gaz) Steilas: M8: eskola ekofeminista eraiki dezagun! steilas.eus/2023/03/01/m8-ko-unitate-didaktikoa-eskola-ekofeminista-eraiki-dezagun / M8 ¡CONSTRUYAMOS ESCUELAS ECOFEMINISTAS! steilas.eus/wp-content/uploads/2023/03/UnitateDidaktikoa_Steilas_-m8-gazteleraz-def.pdf.

Erlazionatutako topikoak

Krisi ekosoziala, Ekologia politikoa. Ekologia soziala.

EKOLOGISMOAREN HISTORIA

Ekologismoaren sustraiek XIX. mendeko kontserbazionismoan kokatzen diren arren, mugimendu ekologista modernoa 1960ko hamarkadan sortu zen, mendebaldeko demokrazia liberaleko herrialdearen inguruan. Garai

hartako zenbait gertakarik, hala nola 1952an Londres estali zuen smog hodeiak edo energia nuklearrarekin edo petrolio isurketekin lotutako gertakariek, ingurumen kontzientzia areagotu zuten hainbat lagunen artean.

Mugimendu ekologistaren ildo kontserbazionistak edo «anbientalistak» naturaren suntsipenari eta giza ekintzak ingurumenean eragindako desorekei buruzko gero eta kontzientzia handiagoa zuen —eta neurri batean oraindik ere badu gaur egun—. Ekologismoak, esan bezala, XIX. mendean du jatorria, baina jatorri anitza da: naturaren ulermen erromantikotik hasi eta balio berezia zuten paisaia eta espazio birjinak babestea eskatzen zuen ikuspegi burgeseraino. Azken horrek, izan ere, Estatu Batuetan eta Europan lehen parke naturalak sortzea ekarri zuen. Hastapenetan, gainera, langileen mugimendu hasiberrian ingurumen-kontzientzia garatzen lagundu zuen, proletario industrialak jasaten zituen lan- eta bizi-baldintza gogorren aurkako erreakzio gisa. Halaber, beste korronte batzuk agertu ziren, hala nola naturismoa, begetarianismoa, higienismoa, medikuntza naturala eta beste batzuk. Era berean, XIX. mendearen amaieratik, hainbat hezkuntza-korronte hedatu dira Europan zehar, bizitza osasuntsua, txangozaletasuna, ikaskuntza esperimentala naturan, sormena eta hezkuntza zibikoa haurtzarotik sustatzen dituztenak.

Natura babestearen eta bizitza basatia kontserbatzearen aldeko joera horrek mugimendu ekologistaren jarduera-eremu ezagunenetako bat sortu zuen, gaur egun arte irauten duena. Lehen kontserbazionismo zientifikoa Britainia Handian agertu zen[34], industria-iraultzaren sorlekuan, hain zuzen. Estatu Batuetan, *Sierra Club* da elkarte kontserbazionistarik zaharrena (Kalifornia, 1892), *Audubon Society* (Boston, 1905) elkartearekin batera. Baina 1872. urterako ere Zuhaitzaren Eguna ospatu zen lehenengoz. Lur-eremu handiak eta paisaiak beren jatorrizko egoeran babesteko ideiatik abiatuta, santutegiak balira bezala, urte horretan bertan sortu zen Ameriketako Estatu Batuetako lehen Parke Nazionala, Yellowstone Parkea, alegia. Prozesu kontserbazionista bat sortu zen *Far West*eko konkista predatzailearen aurrean, eta, hala, monumentu nazionalak ezarri ziren.

---

[34] Londresko Zoologia Elkartea [*Zoological Society of London*, 1830], Espazio Ireki eta Komunalak eta Oinezko Bideak Zaintzeko Elkartea [gaur egun *Open Spaces Society*, 1865], Kea Ezabatzeko Batzordea [*Smoke Abatement Comittee*, 1881], Hegaztiak Babesteko Errege Elkartea [*Royal Society for the Protection of Birds*, 1889], Interes Historiko eta Edertasun Naturaleko Tokietarako Institutua [*National Trust for Places of Historic Interest or Natural Beauty (National Trust)*, 1895], Naturaren Kontserbaziorako Errege Elkartea [*Royal Society for the Conservation of Nature*, 1912], eta Elkarte Ekologiko Britainiarra [*British Ecological Society*, 1913], azken hori munduan sortutako zientzia ekologikoko lehen elkartea. Mugimendu kontserbazionista antolatuak indarra hartu zuen Britainia Handian 1920ko eta 1930ko hamarkadetatik aurrera, nahiz eta bibisekzioaren abolizioaren eta animalien askapenaren aldeko lehen aldarrikapenak XVIII. mendekoak diren.

Alemaniak[35] eta Frantziak[36] antzeko prozesuak izan zituzten. Espainian Francisco Giner de los Ríos dugu pentsamendu ekologista modernoaren aurrekari hurbila, eta Francesc Ferrer i Guàrdiak, bere aldetik, Eskola Modernoa sortu zuen. Bestalde, nazionalismo katalanak txangozaletasuna eta naturaren babesa sustatzen zituen bere ideien artean. 1871n Historia Naturaleko Errege Elkartea [*Real Sociedad de Historia Natural*] sortu zen, eta 1906an Gredosko ehiza-erreserba. Lehenengoko parke nazionalak, Ordesakoa eta Covadongakoa, hain zuzen ere, 1918koak dira. Donostian Aranzadi Natur Zientzien Elkartea sortu zen 1947an, eta 1954an Espainiako Ornitologia Elkartea (gaur egun SEO-BirdLife). Nazioartean, 1948an, Natura Babesteko Nazioarteko Batasuna (UICN) eratu zen, hau da, kontserbazioan diharduten erakundeak biltzen dituen munduko sarerik zabalena. Urte horretan bertan sortu zen Espainian Naturaren Defentsarako Elkartea (*Asociación para la Defensa de la Naturaleza*, ADENA[37]). Diktadura frankistak onartu egiten zituen erakunde horiek; izan ere, beste herrialde batzuen antzeko irudi berde baten itxura egiteko erabiltzen baizituen. Egia esan, ingurumenaren aldeko protesta langileen eta auzo-elkarteen anbientalismoaren eskutik dator. Gogora ekarri nahi dugu 1969an poliziak tiroz hil zituela Antón Fernández eta Jesús Murueta langileak Erandion (Bizkaia), kutsaduraren aurkako protesta batean. Kontuan izan behar da hirietako auzo eta industria-inguru berrietan bizi eta osasun baldintza gogorrak zeudela, landa-eremutik zetozen biztanleak hartzeko plangintzarik ezaren ondorioz. Horrek, kontzientzia piztu eta mobilizazioak eragin zituen, ingurumen-aldarrikapen argiekin.

SEOren eta ADENAren kontserbadurismoaren aurrean, 1970ean AEORMA sortu zen, benetako talde ekologista. Hura autobideen plan nazionala eta zentral nuklearren eraikuntza gelditzearen aldekoa zen. Elkarte ekologista horretatik, AEDENAT sortu zuten 1985ean, *Ecologistas en Acción* konfederazioaren barruan. Urte horietan talde ugari[38] sortu ziren. Ba-

[35] 1825 urtearen inguruan, lehenengo talde kontserbazionistak sortu ziren klase altuetan. Geroago, Txorien Mundua Babesteko Alemaniako Elkarteak [*Deutscher Verein zum Schutze der Vogelwelt*, 1878], Animalien Oinazeen Aurkako Ligak [*Liga gegen Tierversuche und für die Rechte des Tieres*, 1879] eta Hegaztiak Babesteko Ligak [*Liga Vogelschutz* 1890] etorri zuten.

[36] Natura Babesteko Elkarte Nazionala [*Société Nationale de Protection de la Nature*] 1854an sortu zen (hasiera batean Aklimatazio Sozietate Inperiala deitua), eta Frantziako Paisaiak Babesteko Sozietatea [*Société pour la Protection des Paysages en France*] mende horren amaieran. Industria-kutsaduraren aurkako Legea (1917) nabarmentzekoa da.

[37] Gero, Naturarentzako Mundu Funtsean integratu zen (*World Wildlife Fund*, WWF). 1969 urterako, Naturaren Lagunen Nafarroako Elkartea (*Agrupación Navarra de Amigos de la Naturaleza*, ANAN) sortua zegoen Nafarroan.

[38] Estatuan, adibidez, Hegaztien Defentsarako Koordinakundea (*Coordinadora para la Defensa de las Aves*, CODA) edo Mugimendu Ekologistaren Koordinakunde Asanblearioa (*Coordinadora Asamblearia del Movimiento Ecologista*, CAME).

tzuk ingurumen-gai espezifikoetan zentratzen ziren, edo eskualde edo autonomia-erkidego batera mugatutako eragina zuten.

Naturaren berezitasunen babes-sentimendu horrek nazioarteko kanpaina historikoak bultzatu ditu desagertxzeko arriskuan dauden espezieak babestuak izan daitezen eskatzeko (fokak, balea urdina, panda hartza, adibidez), horiek sinbolo bilakatuz; edota planetako hainbat eremu zabal ustiatzearen aurka (Antartika edo Amazonia, esaterako). Multzo honetan sartuko genituzke ehizaren, larruen merkaturatzearen laborategiko praktiketan animaliak erabiltzearen edo animaliei tratu txarrak ematearen aurkako duten taldeak edo kanpainak. Horiek guztiak mugimendu animalista batean gauzatu dira. Mugimendu horren ustez, gizakiok ez gara espezie nagusia, eta ezin ditugu naturako gainontzeko espezieak esplotatu. Zenbait elkarte alor horretan espezializatu dira, hala nola WWF/ADENA eta UICN (Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna). Eta, tokian-tokian, asko dira gune jakin bat babestea helburu duten elkarteak, baita animaliak babesteko elkarteak ere. Hala ere, esan beharra dago, praktikan, gune babestuak deklaratzeak, horien kalitatea bermatu beharrean, erakargarritasun turistiko bihurtu dituela, eta horrek narriatu dituela kasu gehienetan.

Aldi berean, XIX. mendean koka dezakegu ekologia politikoaren jatorria ere —ekologismoaren bigarren zutabea—. Sozialismo utopiko eta anarkistetan (adibidez, Kropotkinek inspiratutako anarko-komunismoan) garai hartako industrialismo basatiaren aurkako alternatibak ikusten ditugu[39]. Etxebizitzetan eta lantokietan baldintza hobeak eskatzen zuten langileen anbientalismotik haratago, ekoizteko eta kontsumitzeko beste modu batzuk planteatzen zituzten, eta nagusi zen teknologia eta antropozentrismoa kritikatzen zituzten. XX. mendearen lehen hamarkadetan, pentsamendu zientifikoak eta filosofikoak industrialismoari egindako kritikak ohartarazi egingo du planetaren muga biofisikoak alde batera uzten dituen ekoizpen-eredua ez dela iraunkorra. Albert Schweitzer, Walter Benjamin, Simone Weil, Lewis Mumford, Elyne Mitchell, Aldo Leopold edo Bernard Charbonneau bezalako aitzindariek, XX. mendearen bigarren erdian, ezagutza zorrotzago batean oinarritutako humanisten eta zientzialarien belaunaldi berri bat ekarriko dute: Rachel Carson, René Dubos, Barry Commoner, Murray Bookchin, Cornelius Castoriadis, eta abar. Hala, 1972. urtea, kontuan hartu beharreko data garrantzitsu bat da; izan ere, horretan, Stockholmeko Gailurra ospatu zen eta *The Limits to Growth*[40] txostena argitaratu zen (Hazkundearen mugak).

---

[39] Sozialismo zientifikoaren helburua, berriz, produkzio-indarrak ahalik eta gehien garatzea zen, gizarte desparekotasunak eta indarkeria gainditzeko. Beraz, naturarekiko axolagabetasuna erakusten zuen, eta mende bat behar izan zuen pentsamendu ekologikoan interesatzeko.

[40] Erromako Klubaren txostena, Forrester/Meadows txostena izenaz ere ezagutzen dena.

Bonba atomikoa Hiroshimako eta Nagasakiko biztanle zibilen aurka erabiltzeak mobilizazio kolektibo gogorrak ekarri zituen, eta ingurumenhondamendiaren arriskuari eta garapen zientifikoaren eta teknologikoaren etikarik ezari buruz kontzientzia hartzea eragin zuen. Mugimendu ekologista ez da ingurumenaren eta bizi-kalitatearen narriadura salatzera mugatzen; aitzitik, botere ekonomikoek eta administratiboek eguneroko kultura suntsitzearen aurkako protesta espontaneo gisa adierazten da. Hau da, natura eta askatasuna salbatu nahi ditu; ez bakarrik espezie biziak eta ekosistemak, baizik eta giza autonomia ere. Hura emantzipazio-mugimendu bihurtu da, eta bizikidetza eta demokrazia eskatzen ditu. Gainera, kosta ahala kosta, industrializazioa eta merkantilizazioa nabaren uzteko helburua du[41]. Bada, giza ekintzaren eragin planetarioaz jabetzen dela esan dezakegu, Antropozeno, Mendebaldekozeno eta Kapitalozeno deituriko —bakoitzak lehenesten dituen faktoreen arabera— aro honetan. Izan ere, Holozenotik Antropozenorako trantsizioa Bigarren Mundu Gerraren ondoren gertatu zen, eta «Azelerazio Handia» izenaz ezagutzen da. Belaunaldi bakar batean, gizateria eskala planetarioko indar geologiko bihurtu zen.

Puntu honetara iritsita, interesgarria izan daiteke zientzia ekologikoaren eta ekologismoaren arteko harremanari buruzko hausnarketa labur bat egitea. Ekologia zientzia bat da, izaki bizidunak —ingurune bateko biztanle gisa— eta beren artean eta ingurunearekin dituzten harremanak aztertzen dituena. Horrela, ekologismoak, hasieratik, zientzia horretan eta beste zientzia esperimental eta sozial batzuetan egindako aurrerapenen eragina jasan du. Erromako Klubak agindutako *Hazkundearen mugei buruzko Txostene*tik (1972) Gaia hipotesira (James Lovelockek 1979an argitaratua eta Lynn Margulisek garatua), ekologiak eta beste zientzia batzuek oinarri zientifikoak eta zilegitasun soziala eman dizkiote ekologismoari, aurkari politikoek eta enpresarialek haren izena zikintzeko egindako ahaleginen aurrean. Era berean, klase zientifikoaren interesik eza edota gutxiespena gainditzeko aukera eman dio ere bai. Eta, batez ere azken hamarkadetan, hainbat erakundek biosferaren egoeraren inguruan (klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera, itsas uren azidotzea, biosferaren oinarrizko zikloen haustura, etab.) egiten dituzten ikerketa eta txosten ugariak[42] ba-

[41] Teknofilo baikorren kontrara, adierazten du mendebaldeko herrialde industrialen hazkundearen bi heren energia fosilen txutearen ondorio direla, eta heren bat baino ez aurrerapen teknologikoen ondorio.

[42] Hona hemen adibide garrantzitsu bat: IPCCk (*Intergovernmental Panel on Climate Change*) egiten dituzten txostenak. Erakunde hura Nazio Batuen Ingurumen Programak (PNUMA) eta Munduko Meteorologia Erakundeak (OMM) sortu zuten 1988an. Haren helburua da klima-aldaketaren arloko ezagutzen egungo egoerari eta ingurumenean eta gizarte eta ekonomia arloan izan ditzakeen ondorioei buruzko ikuspegi zientifiko argia eskaintzea (argitalpen horiek eskuragarri daude https://archive.ipcc.ch/home_languages_main_spanish.shtml helbidean). Beste iturri nabarmen bat IPBES Biodibertsitateari eta Ekosistemen Zerbitzuei buruzko Gobernu arteko Plataformaren txostenak dira (https://www.ipbes.net/es).

liatu ahal ditu ekologismoak, bai generikoak, bai eremu zehatzetan egindako lan espezifikoak. Horiek argudio-oinarri bat ematen diote bere salaketak, erreklamazioak eta proposamenak aurkezteko.

Hala ere, zientzia ekologikoen eta mugimendu ekologistaren arteko harremanak ez dira norabide bakarrekoak. Izan ere, ekologismoak gizartean egiten duen lanak eragina izaten du ikerketak bideratzean, eta bere ikerketen emaitza zabaltzeko adorea eman die hainbat zientzialariri. Izan ere, zientzialari horiek eztabaidetan parte hartzen dute, eta merkatuei eta kapitalari aurre egiten diete. Jarrera aldaketa hori, batetik, mugimendu ekologistak berak markatu duen agendaren emaitza da eta, bestetik, klase zientifikoan kontzientzia etiko handiagoa garatu izanaren ondorio.

Azkenik, azken urteetan ekologismoari egindako ekarpen zientifikoak pertsonalak ere izaten ari dira. Mugimenduko hainbat aktibistak zientzia esperimentalen eta sozialen arloetan dihardute. Horrek pentsamendu ekologista aberastu du eta aktibistak prestatzen lagundu du. Ekologismoak berak sortzen dituen txostenen eta argitalpenen ugaritasunean argi ikusten da hori. Izan ere, lan horiek hainbat gairi buruzkoak dira eta, askotan, beste gizarte-mugimendu batzuekin lankidetzan egiten dira..

Nuklearren aurkako mugimenduaren adibide argi bat Euskal Herrian ikusi dugu, Burgosko Garoñako zentralarekin batera, Lemoizen, Ispasterren, Deban eta Nafarroan zentralak eraikitzeko egitasmoari dagokionez. Azkenean, Garoña izan zen gure inguruan abian jarri zuten bakarra (1971-2013), eta, gaur egun, eraisketa fasean dago. Euskal kostaldean Lemoizko zentrala eraiki egin zuten, Basordas kalan, baina hura ez zen martxan jarri, euskal gizartearen gehiengoa horren aurka agertu zelako, mugimendu antinuklearraren gidaritzapean[43]. Izan ere, mugimendu horrek pertsona arruntak, intelektualak eta artistak, alderdi politikoak eta elkarte-sare zabala bildu zituen, baita mugimendu ekologista ere, jakina. Estatu Batuetan (Harrisburg, 1979), Ukrainan (Txernobyl, 1986) eta Japonian (Fukushima, 2011) gertatutako istripu nuklearrek, eta beste istripu larri batzuek ere[44], energia nuklearraren erabileraren aurkako jarrera areagotu zuten.

Komite Antinuklearretatik abiatuta, eta ezkerreko zenbait aukera politikoren eraginez, Euskal Herriko mugimendu ekologista bi taldetan bana-

[43] Euskal Herriko zentral nuklearren aurkako jarrera ekologismotik agertzen da hainbat mailatan. Alde batetik, eskualdeetan nuklearren aurkako batzordeen sare bat (Komite Antinuklearrak) sortu zuten, eta Euskal Kosta Ez Nuklearra plataforma osatu zen. Azken horrek hainbat eremutako pertsonak eta gizarte-erakundeak biltzen zituen. Bestetik, herritarrek manifestazioetan parte hartu zuten, eta manifestazio horietako batzuk herrialdean egindako handienak izan dira. Hirugarrenik, Lemoizko zentralaren eraikuntzan parte hartzen zuten enpresetako langileek sabotajeak egin zituzten. Eta, azkenik, ETAk indarkeriaz esku hartu zuen, instalazioen eta zentralarekin lotutako pertsonen aurka atentatuak eginez.

[44] https://eu.wikipedia.org/wiki/Istripu_nuklear

tuko da gero: Eki eta Eguzki. Erakunde biek eraldaketa-prozesu bat bizi izan dute, ekologia sozial eta politikoago baterantz, hainbat erresistentzia-borroketan oinarrituta. Lehenengoa, Erreka Plataforma bihurtu zen eta, geroago, Ekologistak Martxan, eta, gaur egun, *Ecologistas en Acción* konfederazioko kide da.

Hainbat bateratze-prozesu egin dira, baina, oro har huts egin dute. Hala ere, horrek Euskal Herriko ekologismoaren planteamenduen aberastasuna erakusten du. Talde batzuk 1980ko hamarkadan sortu ziren, lurraldearen defentsari lotuta, hala nola Gernikako Ekologia Tailerra eta Zain Dezagun Urdaibai (Busturialdea-Urdaibai eremuan), eta Txipio Bai (Plentziako eremuan). Beste batzuk azpiegitura-proiektu handiei aurre egiteko sortu ziren, hala nola Leizarango autobideari, Itoitzeko urtegiari eta AHTari, Euskadin eta Nafarroan. Beste batzuk, berriz, honako arazo hauei erantzuteko: aurkitutako lindano-biltegi klandestinoak, Bilboko superportuaren eraikuntza, Bardeetako tiro-poligonoa[45], Bilbo Handiko Metropoli Hegoaldeko Saihesbidea, zabor-erraustegiak (Zabalgarbi Bizkaian eta Zubieta Gipuzkoan), ur-hornidurako arazoak eta Petronorren ondorioak Muskizen. Talde horien jardunaren oinarrian, neurri handi batean, nazioarteko mugimendu ekologistan hedatu den «globalki pentsatu eta tokian-tokian jardun» leloa dago.

Erlazionatutako topikoak

Ekologia politikoa, Ekofeminismoa Euskal Herrian, Ekologismoa.

EKONOMIA EKOFEMINISTA

Ekonomia ekofeminista proiektu etiko-politiko bat da, eta ekonomiaren subjektuak zaintza-subjektu gisa birpentsatzera zuzendutako eredu ekonomiko berri bat bideratzen du. Horrek esan nahi du, halaber, merkatuak, gutxi batzuen pilaketak eta naturaren ustiapen mugagabeak eta pertsona eta herri gehienen jarduera ordaindu eta ez-ordainduek eragindako logika androzentriko-matxistarekin haustea.

Paradigma ekofeminista militantzia feministaren, ekologistaren, sindikalaren eta beste gizarte-mugimendu batzuen militantziaren hainbat eremutan sartu da. Halaber, gero eta ohikoagoa da irakurketa eta ikerketa ekofeministak beste eremu batzuetan aurkitzea, eremu akademikoetan ere. Hala, esate baterako, etika ekofeministaz, arte-estetika eta -kritika ekofe-

[45] 1979ko ekainaren 3an, Tuteran, Bardeako tiro-poligonoaren aurkako manifestazio batean, José Martínez Salas guardia zibilak tiro batez hil zuen Gladys del Estal ekintzaile donostiarra.

ministaz edo antropologia ekofeministaz hitz egiten da, eta, nola ez, ekonomia ekofeministaz.

Hurrengo lerroetan Amaia Pérez Orozcoren (2014) ekarpenak aurkeztuko ditugu batez ere. Haren hitzetan,

> ekologismo sozialak eta desazkundearen aldeko mugimenduak esaten dute mundua aldatzen ari dela; are gehiago, aldaketa saihestezina dela, «bai ala bai» izango dela (hementxe dugula jada!). Horregatik, galdera ez da ea hura ekidin edo geldiaraz dezakegun. Galdera da ea hura justizia-irizpideen arabera gobernatu nahi dugun edo merkatu-irizpideen arabera gobernatzen utziko dugun. (…) Baina, zer edo nortzuk dira merkatu horiek? Merkatu kapitalistak ez dira jainko-jainkosak; erakunde sozioekonomikoak dira, eta horietan subjektu jakin batzuk lehenesten dituzten botere-harremanak artikulatzen dira. Egitura multzo bat dira, eta bizitza gutxi batzuk beste guztien artean mantentzekoak izatea eta krisi garaian erreskatatuak izatea sustatzen dute. Beraz, bizitzak hierarkizatzen dituzten mekanismoak dira, eta modernitatearen subjektu pribilegiatuaren bizitza ezartzen dute erreferente eta lehentasun nagusi gisa. Hau da, Maria Jose Capelliniren arabera, BBVAh[46] deituko diogun horri mesede egitea: subjektu zuria, burgesa, gizonezkoa, heldua, funtzionaltasun normatiboa duena, heterosexuala.

Abiapuntu horren aurrean, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzeko aldarrikapen feminista sortu da. Zentzu horretan, ekofeminismoak landu duen funtsezko kontzeptu bat «kapital-bizitza gatazka» delakoari dagokio.

Bizitzaren iraunkortasunaz hitz egitea janaria nork prestatzen duen aztertzea al da? Bai eta ez. Jakina, horretaz hitz egin beharra dago, baina baita megaproiektuez, merkataritza libreko akordioez edo ordainketa-balantzaz; mahai-tresnetako altzairua nola erauzi, eraldatu eta esportatu den; nola jarduten duen jaten dugun janaria ekoizten duen elikadura-kateak; nondik datorren janaria prestatzeko erabiltzen dugun energia, eta abar. Bizitzaren iraunkortasunetik begiratzean, aztertu behar dugu engranaje konplexu horren bitartez jendeak jateko aukera duen ala ez, ondo edo gaizki jaten duen, elikadura-burujabetzaz edo burujabetzarik gabe, mahaira esertzeko kalitatezko denboraz ala ez, inposatutako edo aukeratutako konpainiarekin... Eta jendeak gaizki jaten badu, ezer gutxirako balio digu ordainketa-balantzaren saldoa positiboa izateak.

Feministen eta ekologisten ikuspegi kritikoetatik ere zalantzan jarri da marxismoak heterodoxiaren barruan duen hegemonia. Salatu dute mar-

[46] Euskarazko bertsioan BBVAh siglak mantendu egin ditugu. Gaztelaniazko «*blanco, burgués, varón, adulto, con una funcionalidad normativa y heterosexual*» esaldiari erreferentzia egiten dio. ZBGHH siglak erabiliz gero, Capelliniren ironia galduko litzateke.

xismoak kanpoan utzi dituela ekonomia feministak eta ekonomia ekologikoak orain barne hartzen dituzten funtsezko elementu batzuk. Baina proposamen feminista ere ez dago osatuta edo bukatuta. Adibidez, ez du ikuspegi orokorra behar beste birpentsatu, ekonomia sistema ekologiko askoz zabalago baten zati bat dela ulertuta. Bestalde, ekologismoak ere ez die behar besteko garrantzirik eman ordaindu gabeko lanei. Beraz, azken batean, ikuspegi kritiko guztiak integratu beharko lirateke, merkatu-teokraziari aurre egiteko. Zorionez, konbergentzia-bide horretan aurrera egiten ari gara.

Proposamena feminista da, lehenik eta behin, heteropatriarkatua mundua eta sozioekonomia eratzeko sistema gisa ulertzen duelako. Horrek zer esan nahi duen argitzen saiatzen da, «gehitu emakumeak eta nahastu» estrategiatik harago joanez; izan ere, estrategia horretan, dena berdin geratzen da eta emakumearen egoerari buruzko eranskin bat baino ez dugu jarri. Bigarrenik, feminista da zentzu genealogikoan, bere edukiak feminismoen proposamen historikoekin lotzen direlako. Arlo pertsonala politikoa dela aldarrikatzen dute. Azkenik, esan beharra dago hizkuntzan ere feminista dela, hizkuntza ez baita transmisore neutroa: haren bidez botereharremanak adierazten eta berritzen dira.

Baina, feminismoetan ere —dio Amaia Pérez Orozcok—, baditugu zalantzan jarri beharreko gauzak eta indartu beharreko argudioak. Askotan, feminismoek «kaltetuak» terminoa aldarrikatzen dute, «biktimak» terminoaren ordez. Hainbeste aldiz errepikatutako «eta emakumeak, okerrago» lelotik harago joan behar dugu; izan ere, lelo horrek, biktimista izateaz gain, mendekotasun-egoera berean jartzen ditu emakume guztiak, haien arteko desberdintasunak aintzat hartu gabe.

Hortaz, Amaia Pérez Orozcok paradigma androzentrikoetatik eta klasikoetatik ihes egitea gomendatzen du ekonomia eta krisia pentsatzeko. Adibidez, Lorena Escobarrek (2008) azaldu egin ditu kañari hizkuntzan (Ekuadorreko hegoaldeko Azuay eta Cañar probintzietan) jasotzen diren lan egiteko moduak, eta Pérez Orozcok azalpen horren berri ematen du. Izan ere, Espainiako kolonizazioaren aurretik, kañari kulturan honako hauek bereizten zituzten: *llamcay*, lana; *minca*, lan komunitarioa; *aini*, lan kolektibo familiarra; *rantinpac*, lan solidarioa, elkarri laguntzekoa; *mita*, lan behartua, espainiarrek behartua eta txandaka egina (kultura inkan); eta *maquimañachii*, elkarrekin kolaboratzeko lana, itzuli egiten dena. Ez zegoen enplegua edo norberaren konturako lana bezalako kontzepturik, lana antolatzeko eta ulertzeko moduak ez baitzetozen bat merkatuan eskulana saltzearekin.

Ekonomia feministak salatu egiten du paradigma neoklasikoak joera androzentriko sakonak dituela: emakumeen absentziaren gainean eraikitzen da, feminitatearekin lotzen diren esparruei (arlo pribatua-etxekoa eta ordaindu gabeko lanak) ez zaie garrantzi ekonomikorik aitortzen, eta gi-

zonek merkatuetan duten esperientzia erabiltzen da normaltasun ekonomikoa definitzeko. Ez da erreprodukzioaren eremua aintzat hartzen, ezta ekoizpenaren esparruan dauden emakumeak ere, eta ez da eremu horietako batean ere genero-desparekotasuna bistaratzeko eta azaltzeko ahalegina egiten. Bestalde, ekonomia ekologikoak paradigma klasikoari antropozentrikoa izatea leporatzen dio, baita ekoizpenaren metaforaren sinesmenean oinarritzea. Diskurtso hori, ingurumenari dagokionez jasanezina den eta periferiako herrialdeen espoliazioan oinarritzen den erauzketa-ereduarekin batera nagusitu zen.

Diskurtsoaren joera androzentrikoak esku-hartze politikoaren esparruan errepikatzen dira. Hala, ekoizpenaren esparru merkantilizatua eta maskulinizatua da gatazka sortzeko eremu pribilegiatua; hain zuzen ere, soldatapeko lanak klase-nortasuna ematen du eta borroka-subjektua artikulatzen du (BBVAh delakoaren isla langile-klasean). Zilegitasun politiko formala duten eragile bakarrak patronalaren, sindikatuen eta gobernuaren arteko hiruko negoziazioari dagokionak dira. Gainera, gatazka ez da esparru ekonomiko ikusezin eta feminizatuetatik artikulatzen[47].

Hala, Amaia Pérez Orozcok egiaztatu egin du *ekonomia feminista* etiketa esparru akademiko anglosaxoietan sortu zela, baina hori ezin zitekeela gertatu feminismoaren Bigarren Olatuaren bultzadari esker izan ez balitz. Nolanahi ere, nahiago du «ekonomiari buruzko ikuspegi feministak» esamoldea erabili, feminismoek aniztasun handia baitute. Hori gertatzen da, alde batetik, ikuspegi feminista desberdinak ikuspegi ekonomiko desberdinekin konbinatzen direlako, eta, bestetik, diskurtsoa oraindik nahiko berria delako eta bere oinarriak bilatzeko prozesu betean dagoelako. Bere burua etengabe berrikusten du eta erreflexibitatea du ezaugarri. Ikus ditzagun desberdintasun garrantzitsu horietako batzuk:

- Genero-ekonomia. Bere postulatu nagusi gisa, sinesten du posible dela diskurtso ekonomiko neoklasikotik joera androzentrikoak ezabatzea, baina diskurtso horren mamiari eutsiz. Halaber, emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak ezaba daitezkeela uste du, kapitalismoa zalantzan jarri gabe. Ikuspegi teknokratiko horren arabera, emakumeen erabateko parte-hartzea eragozten duten oztopoen erruz, ez dira giza baliabideak behar bezala baliatzen. Emakumeak trebatuta badaude eta produktibitate berdina edo handiagoa badute, zer zentzu du potentzial hori ez baliatzeak? Zenbat eta berdintasun

[47] Ikus Mirian Garcia-Torresek (2018) ekofeminismoari buruz egindako sarrera. Gai hori dimentsio ekonomikoan garatzen du, beste lau dimentsiorekin batera: dimentsio politikoa, erabakitzeko eremu hierarkikoak eta patriarkalak; dimentsio ekonomikoa, lan-egitura patriarkalak eratzea; dimentsio ekologikoa, bizitzaren ugalketa-zikloak haustea; dimentsio kulturala, irudikapen eta estereotipo sexistak areagotzea; eta dimentsio korporala: gorputzak bereganatzea eta kontrolatzea.

handiagoa izan, orduan eta hazkunde ekonomiko handiagoa eta ongizate handiagoa lortuko da. Ikuspegi horrek harreman monetarioa duten dimentsioetara mugatzen du analisia. Ordainsaria duten jarduerak bakarrik hartzen ditu lantzat, eta ongizatea diru-sarreren arabera neurtzen dela uste du. Hortaz, garrantzi handia ematen dio datuak sexuaren arabera bereizteari, eta bere helburu nagusia botereeremuetarako oztopoak kentzea da (kristalezko sabaia).

- Ekonomia feminista. Akotariko ikuspegiak badaude ere, ekonomia feministetan hiru elementu bereizgarri ikus ditzakegu gutxienez: lehenik, ekonomiaren nozioa zabaltzea, gizarte-hornikuntzako prozesu guztiak barne hartzeko, horiek merkatuetatik igaro ala ez; bigarrenik, genero-harremanak sistema sozioekonomikoaren osagai gisa sartzea, eta, beraz, generoa kategoria analitiko nagusi gisa lantzea, datuak sexuaren arabera bereizteaz harago; eta hirugarrenik, ezagutza beti helburu politikoetarako balio duen prozesu soziala delako sinesmena.

Fundamentu partekatu horietatik abiatuta, ikuspegi desberdinak daude. Horiek sailkatzeko modu bat abiapuntu androzentriko batekin duten haustura-mailaren araberakoa da. Hori, era berean, bi mailatan gerta daiteke: maila teorikoan, batez ere zein neurritan askatzen diren paradigma neoklasikotik eratorritako esparru teorikoetatik; eta maila politikoan, egiten dituzten aldarrikapenek zenbateraino eskatzen duten egungo sistema sozioekonomikoa haustea edo birformulatzea (bere helburuak emantzipazioa, berdintasuna, liberazioa edo subertsioa diren).

Alde horretatik, ekonomia feminista integratzailea eta hausturaren ekonomia feminista bereizten ditugu. Lehenengo ikuspegiaren asmoa da feminismotik datozen kontzeptuak eta edukiak merkatuei buruz dakigun horren eta merkatuon inguruan dauden aldarrikapenen barruan integratzea. Bigarrenaren arabera, ekonomiari buruz pentsatzeak eta horretan esku hartzeak garrantzi handiagoko aldaketak dakartza, eta, askotan, kontzeptu-, metodologia- eta politika-hausturak suposatzen dituzte. Hurrengo grafikoan aniztasuna lau ardatzen inguruan erakutsi nahi dugu: abiapuntuko epistemologia, zeri deitzen zaion ekonomia, zer metodologia erabiltzen den eta zer jarrera politiko defendatzen diren[48]:

[48] Amaia Pérez Orozcok (*Op. cit.*, 2014: 46) ohartarazi du sailkatzea ez dela inor mugatzea. Aitzitik, baliabide narratibo bat da, jarraitutasun-hariari lehentasuna ematen diona kontrajartzearen gainetik. Nolanahi ere, ekonomia aztertzeko betaurreko moreak jartzeak, behintzat, ekonomia neoklasikoak ikusi nahi ez dituen harremanak kontuan hartzea dakar. Ekonomia feministarentzat, oinarrizkoa da emakumeak teoriatik kanpo geratzea ez dela kasualitate bat. Aitzitik, desparekotasuna legitimatzen duen ezagutza sortzeko modua da. Ekonomia feministarentzat, ordea, gaia ez da hain erraza. Ez du egia absolutu eta ukaezina bilatzen, baizik eta behatzeko tokiaz arduratzea eta beste begirada batzuekin elkarrizketan hastea, egia partzialak batuz eta mundu hobeak pentsatzeko mapak eraikiz joateko.



2. *irudia. Ekonomiaren begirada feministak*
Iturria: Pérez Orozco (2019)

Amaia Pérez Orozcok honako galdera honi erreparatzen dio: zertarako axola digu ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena (kapitalismoa) ulertzea, pertsonak erreproduzitzeko duten gaitasuna aztertzeko ez bada? Ardatz analitikoa kapitalaren balorizazio-prozesuetatik bizitzaren iraunkortasun-prozesuetara lekualdatu behar dugu.

Genero-ekonomiak metodologia androzentrikoei eta merkantilistei lotuta jarraitzen du, eta metodologia horiek kuantitatiboak eta matematizatuak dira. Ekonomia feminista erradikalenak, aldiz, ezkutuan izan diren dimentsio sozioekonomikoetan arreta jartzeko joera du. Adibidez, kanpokotzat jotzen diren baldintzatzaileak (sozialak, politikoak, psikologikoak, ingurumenekoak, etab.) interesatzen zaizkio; kontzeptuak, kategoria analitikoak, datuak lortzeko metodoak eta abar berritzen ditu; eta, laburbilduz, diskurtso androzentrikoetatik jasotako metodologiekin hausten du. Irekitasun metodologiko horren ildotik, metodologia feministan bi elementu bereizten ditugu ekonomia pentsatzeko. Alde batetik, maila anitzeko azterketaren aldeko jarrera argia dago, heteropatriarkatuari buruzko galderak zeharka sartzeko. Bestalde, diziplinartekotasunaren aldeko apustu gero eta argiagoa eta esplizituagoa dago: non hasi eta amaitzen dira arlo ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturala?

Arlo politikoan, nabarmentzekoa da berdintasuna bideraezina dela sistemaren erabateko eraldaketarik gabe. Ikuspegi integratzaileenentzat, emakumeek lan-merkatuan bete-betean sartzea da oinarrizko helburua; feminismo erradikalarentzat, berdintasunik garrantzitsuena ez da auke-

rena, emaitzena baizik. Kapital-metaketaren nagusitasunaren pean, bizitza beti dago mehatxupean, hura etekina lortzeko bitarteko bat besterik ez baita. Bizitzaren zenbait dimentsio eta bizitza oso batzuk ere soberan daude, ez baitira errentagarriak; edo errentagarriagoa baita horiek suntsitzea, mantentzea baino. Egungo sistemak bizitzea merezi duen bizitzaren nozioa bera galtzen du, zaurgarritasuna eta ekodependentzia ukatzen baititu, existentziaren oinarrizko baldintza gisa. Autosufizientzia-ideal bat ezartzen du, baina hori ezin da unibertsalizatu, interdependentzia esplotazioaren bidez kudeatuz bakarrik lor daitekeelako. Eta egitura sozioekonomikoen funtzionamendua ahultzen du; izan ere, guztia metatze-prozesuaren zerbitzura jartzen du, eta, prozesu horretan, bizitza gutxik irabazten dute, bizitza osoa haien zerbitzura jartzen baitute. Krisiaren aurrean ez dugu enplegurik nahi, ez dugu soldatarik nahi, ez dugu ongizate-estaturik nahi, dio Amaia Pérez Orozcok. Soldata-harremana bera zalantzan jarri nahi dugu, egitura kapitalista bere osotasunean. Ez dago atzera egiterik, eraikitzeko dauden etorkizunak baizik. Guztiontzat lana nola lortu galdetu beharrean, zertarako lan egiten dugun ere galdetu behar diogu geure buruari. Proposamenak iraultza sistemikoa aldarrikatzen du, guztion bizitze ona (anitza) lortzeko baldintzak ezartzea bultzatuko duena. Erronka da demokratikoki definitzea zeri deituko diogun bizitze ona eta nola bihurtuko dugun hura erantzukizun kolektibo. Joera androzentrikoak ezabatzeko borondate horrek ez du BBVAh bere ispilu femeninoarekin ordezkatu nahi. Aitzitik, beste joera iparzentriko, klasista, heteronormatibo edota antropozentriko batzuk izateko edo ezkutatzeko arriskuaz ohartarazten gaitu, Ipar globaleko herrialdeetako emakume hiritar zuri eta heterosexualen —eta gaitasun norbatiboak dituzten horien— begirada feministen eskutik.

Ekonomia neoklasikoak bata bestearen atzetik datozen krisi finantzarioak nola gainditu aztertzen du. Hala, 2007-2008ko krisiaz geroztik, agerian geratu zen, berez, krisi multidimentsional batean (ekologikoa, erreprodukzio sozialekoa, zaintzakoa) murgilduta gaudela, edo, zentzu zabalago batean, zibilizazio-krisi[49] batean. Desazkunde ekofeministaren[50] ikuspegitik, ondo bizitzea zer den hausnar dezakegu, hain zuzen ere, ongi-izatea merkataritza kontsumoarekin lotzen duen ideiarekin hausten badugu (edo, are gehiago, gutxiago hobe dela onartzen badugu). Halaber, interdependentzia eta ekodependentzia nola kudea ditzakegun ere az-

[49] «Ez da krisia, sistema baizik», oihukatu da M-15etik manifestazio eta grebetan.

[50] Amaia Pérez Orozcok «desazkunde feminista edo basakeria» esamoldea erabiltzen du, Rosa Luxemburgok hasieran erabili zuen «sozialismoa edo basakeria» esamoldea parafraseatuz. Mugimendu dekrezentistak erabiltzen duen «desazkundea edo basakeriaria»ri «ekofeminismoa» gehitzen dio, baina —ohartarazi du— keinu bat da; ez da hitzez hitz pentsatu behar, eta ez dira aztertu behar haren balizko joera kolonialistak (barbaroak zibilizazioaren aurrean?).

ter dezakegu. Arazo saihestezinak dira, baldin eta aitortzen badugu bizitza kaltebera dela eta mugak dituela. Muga horiek esplotazioan oinarrituta bakarrik uka daitezke. Egokia da kapital-metaketaren logikan oinarritutako esferak murrizteko proposamenaren inguruan hausnartzea. Eta, aldi berean, etxeak demokratizatzea, lanaren banaketa sexualarekin amaituz eta ekonomiaren azken helburua (bizitze ona garatu ahal izateko baldintzak lortzea) erantzukizun kolektibo bihurtuz.

Desazkunde ekofeministak mugimendu, ekologistek eta feministek planteatutako gaiak sartzen ditu eztabaidan, zer bizitza motari eta hura konpontzeko moduari buruz:

1. Taula. *Zer bizitzari eta nola konpondu proposamenak*

	Desazkundea	Ekologismo soziala	Feminismoa
Zer bizitza mota	Hobeto gutxiagorekin (merkataritza-kontsumoa murriztea).	Ekodependentzia.	Interpendentzia eta zaurgarritasuna (autosufizientzia maskulinizatuari kritika).
Nola	Merkatu kapitalistaren esferak murriztea.	Austeritatea eta birbanaketa. Benetan dauden fluxu material eta energetikoekin.	Erantzukizun kolektiboa bizitzaren iraunkortasunean.

Iturria: Pérez Orozco (2019).

Ekofeminismoak bi ideia hartzen ditu desazkundetik: *zer bizitza mota*ri dagokionez, ondo bizitzea ez da merkatuan gero eta gehiago kontsumitzea, aitzitik, *hobeto gutxiago*rekin; *nola egitea*ri dagokionez, metatze-logikan oinarritutako eremuak murrizteko apustua dugu. Ekologismo sozialak, aldiz, adierazten du giza bizitza ezin dela ulertu planetaren gainerako bizitzatik kanpo, eta, aitzitik, planetako bizitzaren zati gisa ulertu behar dela. Ekodependentzia onartzeak biosferaren mugak aintzat hartzera behartzen gaitu, eta, are gehiago, muga horiek gainditu ditugula onartzera ere. Hala ere, kontuan hartu behar da, mugak gainditze horretan erantzukizunak oso modu desparekoan banatzen direla. Horregatik guztiagatik, planteatzen dugun edozein *nola*tan, austeritate eta birbanaketa irizpide bikoitza sartu behar dugu baliabide material eta energetikoen erabileran, baita hondakinak eta kalteak sortzeari dagokionez ere. Azkenik, feminismoarekin zuzenean lotuta, bizitza bere zaurgarritasunetik eta interdependentziatik pentsatu beharra dagoelako ideia jasotzen du ekonomia ekofeministak. Indargabetu egiten du, beraz, autosufizientziaren ameskeria faltsua, kaltegarria eta maskulinizatua, helburu existentzial gisa, baita bere mendekotasun

immolatuko eta feminizatuko ispilu ezkutua ere. Gainera, funtsezkotzat jotzen du ardurak etxeetatik ateratzea, eta komunean eta agerian jartzea. Feminitatea eta bizitzari eusteko zeregina bereiztea proposatzen du, lanaren sexu-banaketarekin amaituz, eta, azken batean, lanaren banaketa erantzukizun kolektibo eta demokratikoaren arabera eraikitzea.

Bestalde, ekonomiaren ikuspegi ekofeministak, Mary Mellorren eskutik, ikuspegi antropozentrikoa gainditzen du eta ekodependentziaren garrantzia azpimarratzen du. Arreta jartzen du planeten mugetan, funtzio ekosistemikoetan, naturaren birsortzean...

> Edozein organismo bizidun inguratzen duen ekosistemak baldintza mugatzaileak ezartzen dizkio organismo horri. Gizateriak, bada, porrot egin du baldintza murriztaile horien muga ekologikoak errespetatzeari dagokionez, eta horrek gaur egungo krisi ekologikoa eragin du. [...] Gizateria bere ingurune fisikoaren menpe dago, baina, are gehiago, mundu naturala —gizateria barne— elkar konektatuta eta elkarren mende dagoen osotasun gisa ikusi beharra dago. Horrek giza mundu soziokulturalari buruzko funtsezko gaiak planteatzen ditu, gizakia ez den mundu naturalari dagokionez; eta gizadiaren existentzia fisikoa bera ere barne hartuz. (Mellor, 2000).

Erlazionatutako topikoak

Ekokapitalismoa, Ekofeminismoa, Ekosozialismoa.

EKOSOZIALISMOA

Ekosozialismoa (eko + sozialismoa) pentsamendu eraldatzailearen korronte bat da. Bere hastapenetik helburu bikoitza izan du: gizarte-ekitatea eta ingurumen-iraunkortasuna. Horregatik, gaur egungo ekosozialismoaren iparrorratza bizitzaren zaintzara eta defentsara[51] bideratzen da, hau da, pertsona guztiei zuzendutako bizitza duin bat mantentzera (sozialismoa), naturarekin adiskidetutako gizarte batean, hau da, oinarrizko oreka eta muga ekologikoak errespetatzen dituen gizartean.

Ekosozialismo modernoaren teorikoetako bat den M. Löwy-k ondoko ezaugarriak dituen *etika ekosozialista* baten beharra azpimarratzen du: soziala, berdintasunezkoa, solidarioa, demokratikoa, erradikala eta arduratsua.

Ekosozialismoaren ideien jatorria eta genealogia aztertzen baditugu, laster konturatuko gara horiek askotariko korronte ideologikoen eragina dutela. Barcenak (2021) egiten duen ibilbideari jarraituz, aipa ditzakegu,

[51] Ozeano Bareko Niue uhartean, 4 eguneko lan-astea sustatzen da, eta geratzen den denbora zeregin komunitarioetara, zaintzetara edo aisialdira bideratzen da (Morán, 2018).

besteak beste, ekosozialismo marxista (Riechmann, Löwy), ekoanarkismoa (Murray Bookchin), ekofeminismo sozialista (Ariel Salleh, Yayo Herrero), eguzki-komunismoa edo sozialismo dekrezentista (Andre Gorz, Wolfang Harich, Ted Trainer), pobreen ekologismoa (Chico Mendes, Vandana Shiva, Hugo Blanco). Ez da harritzekoa, beraz, ekosozialismoez pluralean hitz egin behar izatea. M. Löwyk (2012) dioen bezala, ekosozialismoaren bertuteetako bat aniztasuna da, hau da, bere ikuspegien pluratasuna eta ugaritasuna.

Hala ere, ekosozialismoaren erronka nagusia, XXI. menderako, honako hauetan oinarrituta garatzea da: korronte ideologiko horien arteko elkarrizketa, lankidetza eta, ahal den neurrian, hibridazioa.

Ekosozialismoarentzat —batez ere europarrarentzat— badago funtsezko data bat. Hain zuzen ere, 1989. urtean, «*Europan Alternatiba Berdearen Alde. Manifestu Ekosozialista*» izeneko adierazpen politikoa aurkeztu zuten. Hura, bada, Carlos Antunesek (Portugal), Wilfried Telkämperek (RFA), Frieder Otto Wolfek (RFA), Penny Kempek (Britainia Handia), Isabelle Stengersek (Bélgica) eta Pierre Juquinek (Francia) sinatu zuten, ideal gorri-berde-moreak aldarrikatzeko. Geroago, 1990ean, liburu gisa argitaratu zen.

Hamarkada bat geroago, 2001. urtean Vincennesen (Paris) ospatutako «Ekologismoa eta sozialismoa» topaketetan bigarren Manifestu Ekosozialista agertu zen, Joel Kovel *Capitalism Nature Socialism* aldizkariaren zuzendariak eta Michael Löwy Frantziako CNSRaren zuzendari emerituak sustatuta.

2014. urtean, Lehengo Topaketa Ekosozialista antolatu zen Suitzan, eta, 2016. urtean, III Topaketa Sozialistak Bilbon. 2024ko ekainean, seigarrenak ospatu ziren, kasu horretan Europatik kanpo, hain zuzen ere, Buenos Airesen.

Esparru horretan, bada, Euskal Herrian Euskal Gune Ekosozialista eratu zen. Hark aipatutako hirugarren topaketen eta, bereziki, horietan onartutako manifestuaren eragin zuzena izan zuen. (Red de Encuentros Ecosocialistas, 2016).

Oso interesgarria izango litzateke gaur egungo ekosozialismoaren adierazpenak konparatzea, baina ez da posible hori hemen egitea. Horregatik, Euskal Gune Ekosozialistak babesten dituen oinarrizko ezaugarriak azaltzera mugatuko gara. Hona hemen ezaugarririk esanguratsuenak:

1. **Ekosozialismo antikapitalista bat**

«Ekosozialismoaren bertute nagusietako bat bere argitasun teoriko antikapitalista da» (Riechmann, 2024). Kapitalismoa, berez, sostengaezina da, eta desberdinkeria eta injustizia soziala haren parte dira:

- Sostengaezina da, sistema kapitalistak ondo funtzionatzeko gero eta gehiago ekoitzi behar duelako, gero eta gehiago saltzeko, gero eta diru gehiago pilatzeko. Gurpil horrek biratzeari uzten dionean, sistema krisian sartzen da. Horregatik, hau da, bere DNAren sakonean grabatuta duelako, sistemak ez du mugarik, eta «hazkunde mugagabearen azeleragailua zapaltzen» jarraitzen du. Hala, energia fosilezko injekzio masiboen bitartez, gaurko krisi ekologiko globala eragin du. Krisi hura logika hedatzailearen emaitza da; izan ere, logika horrek muga biofisikoekin aurrez aurre talka egitera (muga gainditzera) eraman du. Halaber, krisiaren oinarrian naturarekiko harrenana markatu duen haustura metabolikoa dago[52]. Hala, inpaktu ekologikoak eta sozialak ugaritu egin dira. Beraz, Riechmannen ustez (2024), «kapitalismoaren eutsiezintasuna ulertzeko bi gako dago: haustura metabolikoa eta gehikeria».
- Ez da berdintasunezkoa. Gaur egungo gizarteek, aurrerapen zientifiko eta teknologiko ukaezinak gorabehera, desparekotasun[53] eta injustizia sozial handia dituzte. Baina horiek ez dira gobernuen edo, oro har, eliteen gaitasunik ezaren ondorio; aitzitik, merkatu-sistema kapitalistaren berezkoak dira. Izan ere, sistema horretan merkatuak agintzen du, merkatuak erabakitzen du zer, nola, zenbat eta norentzat ekoizten den. Bere iparrorratzak epe laburra besterik ez du seinalatzen, eta beti inbertitzaleen mozkin handienak lortzeko. Hala, kapitalismoak «kapitala esku gutxitan metatzeko gurpilari» eragiten dio. Ondorioz, ez da gai, indondik inora, pertsonen oinarrizko premiei lehentasuna emateko (gaur egun, adibidez, ehunka mila persona malariaz hiltzen dira, pobreen gaixotasunetan inbertitzea ez baita batere errentagarria), ezta modu ekitatiboan banatzeko ere (are gutxiago, etorkizuneko belaunaldiak kontuan hartzen baditugu).

---

[52] Haustura metabolikoa gizartearen eta naturaren arteko elkarrekintzan sortzen den arrakala edo haustura da. Hura industria-iraultzak energia fosilak erabiltzen hasi zenean sortu zen, batez ere ikatz minerala. Izan ere, nekazaritza industriala eta fabrika handiak iritsi arte gizateriak bizi izan zuen eguzki-ekonomiarekin hautsi zuen.. J. Riechmannek (2024) bi aldi hauetan kokatzen ditu gizateriak naturarekin duen metabolismoaren bi haustura moderno handiak: 1750-1830ean (kapitalismo industrialaren garapena, lehen iraultza teknologikoa) eta 1920-1950ean (kapitalismoaren fase «fordistaren» trantsizioa, bigarren iraultza teknologikoa).

[53] Desparekotasuna lau mailatan agertzen da. Izan ere, gurea bezalako gizarte patriarkalen berezko genero-desberdintasunarekin batera, honako hauek ere aipatu behar ditugu: gizarteen barruko gizarte-sektoreen arteko desparekotasuna (Oxfamen arabera, 2020an, munduko % 1 aberatsenek munduan sortutako aberastasunaren % 63 metatu zuten); gizarteen arteko desberdintasuna (Lanaren Nazioarteko Erakundearen 2021eko txosten batek adierazten duenez, «20 herrialde aberatsenen eta 20 herrialde pobreenen *per capita* Barne-Produktu Gordinaren (BPG) arrakala 42:1 da»); eta belaunaldien arteko desberdintasuna, zeren, modu guztiz arduragabean, gure ondorengoei etorkizuna lapurtzen ari baikara eta ez baitugu horretarako eskubiderik.

Ekosozialismoak, beraz, sistemaren funtzionamenduaren eta egituraren aldaketa erradikala du helburu, hau da, sistema kapitalistaren galtzerdiari buelta osoa ematea. Hala, gizartea eta natura ekonomia depredatzailearen eta injustuaren menpe egon ordez, egoera buelta eman nahi dio, eta naturan modu orekatu eta jasangarrian integratzen den gizarte ekitatibo baten zerbitzura jarri, hori logikoagoa baita. Hau da, beste ekoizpen-logika bat duen ekonomiaz ari gara: ekoizpena etekina lortzera bideratu beharrean, «pertsona guztien oinarrizko beharrak betetzea[54], planetaren mugak kontuan hartuz eta modu demokratikoan» (Tanuro, 2019).

2. **Ekosozialismo dekrezentista bat**

Ezin dugu hazkunde sostengaezinaren lokomotora elikatzen jarraitu.

Planeta mugatu batean mugarik gabe haztea da, hain zuzen ere, sistema kapitalistaren funtzionamenduaren oinarrian dagoen mitoetako bat. Bide horretan jarraitzeak amildegira eramango gaitu zuzenean[55]. Ezinbestekoa da «larrialdiko balaztak aktibatzea». Horregatik, erabat premiazkoa da ekonomiaren oinarri materialaren desazkunde planifikatu bati ekitea. Baina ez gauza bera egiten jarraitzeko, baizik eta «elkartasunaren, berdintasunaren, askatasunaren eta natura errespetatzearen balioetan oinarritutako zibilizazio-aldaketa bat» sustatzeko. Zibilizazio ekosozialistak produktibismoarekin eta kontsumismoarekin hausten du, eta, aitzitik, landenboraren murrizketa lehenesten du, besteak beste. Hala, jarduera sozialei, politikoei, ludikoei, artistikoei, zaintzakoei eta abarri eskaintzeko dugu denbora hedatzeko helburua du (Löwy, 2020). Azken finean, bidezko modu batean garatuko den desazkunde batez ari gara, bizitzaren eta lurraldearen defentsa erdigunean jartzen duena.

Riechmannen iritziz, planifikatutako beherapen horren emaitza ez dira izango:

> … energia handiko sozietateak, baizik eta erdi-mailako teknologietan oinarrituta industria arinak dituzten komunitateak». Funtsezkoa da merkatu handi eta urrunerako produkziotik, gertuko pertsonen, familien eta komunitateen kontsumo zuzenera pasatzea, hartu-emanetako asko desmerkantilizatuz (…). Gaur egungo erronka nagusia, bada, XX. mendean lortutako zibilizazio-maila (demokrazia, giza eskubideak, gizarte-segu-

[54] Max Neefen (2006) proposamenaren arabera, giza beharrak unibertsalak eta anitzak dira: biziraupena, babesa, afektua, ulermena, parte-hartzea, aisialdia, sorkuntza, identitatea eta askatasuna (González Reyes eta Almazán, 2023).

[55] «Oina azeleragailuan trabatuta daukagu eta amildegirantz goaz» (Ban Ki-Moon, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusia, 2009).

> rantza eta osasun unibertsala, etab.) mantentzea da, eta baliabide naturalen kontsumoa drastikoki murriztea (gaur egungoaren hamarren bateraino ere gizarte oparoetan) (…). Etorkizunean ezin dugu *high-tech* ekosozialismorik espero, ekosozialismo oinutsa baizik.

Desazkunde hori nola egin behar den hobeto ulertzeko, hona hemen bi zehaztapen:

1. Desazkundea bai, baina ez ekonomiaren sektore guztietan neurri berean. Izan ere, eremu batzuk izugarri murriztu beharko dira, adibidez, sektorerik kutsatzaileenak[56], xahutzaileenak, kaltegarrienak...; aldiz, hazi beharko dira, batez ere, «bizitza duina inguru osasungarrietan» bermatzen dutenak.
2. Desazkundea bai, baina modu justuan egin nahi badugu ezinbestekoa da herrialde desberdinen erantzukizunak eta betebeharrak bereiztea. Hau da, herrialde aberatsek (Euskal Herria tartean[57] gehiago desazi beharko dute, eta pobreenek, aldiz, hazteko aukera izango dute, beren populazioei bizitza duinak bermatzeko. «Pertsona bakoitzeko, urtean, 6 tona behar dira bizitza duina izateko. Herrialde aberatsetan, 70 tona baino gehiago erabiltzen ditugu» (Riechmann, 2023).
3. Kontuz ibili behar da aurreko datuekin; izan ere, batezbestekoak dira eta ezkutatu egiten dute pertsona guztiek ez ditugula erantzukizun eta murrizteko obligazio berdinak[58]. Datu bat: «% 50 pobreenek munduko biztanleriaren kontsumoari lotutako CO_2 isurketa guztien % 12 baino ez du eragiten.

---

[56] Enpresa kutsatzaileen Europako erregistroaren datuen arabera (PRTR, 2021), Petronorrek Muskizen duen findegia Euskal Autonomia Erkidegoan gehien kutsatzen duen enpresa da (Berria, 2023-04-26).

[57] Ildo horretan, honako datu hauek oso argigarriak dira: a) Mundu guztia Euskal Herrian bizi garen bezala biziko balitz, 2,8 planetako baliabideak beharko genituzke; b) 2030ean nazioarteko klima-helburuen barruan mantentzeko, herrialde aberatsek 2,3 tona CO_2/pertsona/urte isuri beharko lituzkete. Euskal Herrian, gaur egun, 8,4 tona/pertsona/urte isurtzen ditugu (IHOBE, 2019); c) munduko biztanleria osoari bizitza duina bermatuko dion azken *per capita* kontsumoaren gutxieneko eta gehieneko ataria 15GJ eta 31GJ artean egongo litzateke biztanleko 2050. urterako (Almazan eta Riechmann, 2021). Azken *per capita* kontsumoa EAEn, hain zuzen, 2020an (EEE), 85,11 GJ izan zen biztanleko; beraz, energia kontsumoa % 71 inguru murriztu beharko litzateke (munduko batez bestekoa 25GJ da biztanleko).

[58] OXFAMen arabera, gizateria ondo eta modu ekitatiboan bizi dadin, berotze globala 1,50°Cren barruan mantenduz, beharrezkoa da 2030erako pertsona aberatsenen % 10ek beren kontsumoari lotutako emisioak murriztea, 2015an izandako mailaren hamarren bateraino; eta, prozesuan, munduko pertsona pobreenen % 50i lekua uztea, funtsezko kontsumo-beharrak asebete ditzaten (Raworth, 2022).

4. Desazkundea bai, baina aberastasunaren birbanaketa sakon batean oinarrituta[59]. Izan ere, ekonomiaren desazkunde materialak aberastasunaren tarta globala murriztea ekarriko du, eta, horregatik, pertsona askorentzat hil ala bizikoa[60] izango da birbanaketa justu baterako bidean premiaz aurrera egitea.

3. **Ekosozialismo dekoloniala, antimilitarista eta solidarioa**

Zor ekologikoaren kontzeptua Hegoaldeko herrialdeetan sortu zen 1990eko hamarkadan, kolonialismo garaitik etorritako nazioarteko harremanak salatzeko. Horietan, bada, «herrialde pobretuak Iparralde Globaleko herrialdeen despentsa eta zabortegia izan dira, eta azken horiek, aldiz, eragin handiagoa izan dute ingurumen-arazo globaletan» (R. Lago eta L. Urkidi, 2012). Ingurumen justiziaren ikuspegitik, Iparraldeko herrialdeek Hegoaldeko herrialdeekin pilatutako zorra da, baliabide naturalen harrapaketagatik eta lapurretagatik, esportaziorako baliabide horiek erauzteak dakarren gizarte- eta ingurumen-kostuagatik, haien lurraldeak herrialde industrializatuetan sortutako hondakinen sarbide gisa erabiltzeagatik, kutsadura globalaren erantzule nagusiak izateagatik…[61], etc.

Aski ezaguna da elite politiko eta ekonomikoek gaur egungo larrialdi ekosozialaren aurrean egiten duten proposamena, erabateko norabide-aldaketa sustatu beharrean, hazkundearen bidetik jarraitzen duela; orain, hazkunde «berdea eta digitala». Hala, azpimarratu beharra dago hazkunde horren B aldea estraktibismoa[62] areagotzea dela (batez ere Hegoalde Globalean), hain zuzen ere, meatzaritzako, basogintzako edo energia arloko

---

[59] «Deskarbonizazioak birbanatzea eskatzen du: ez da sakoneko deskarbonizaziorik egongo aberastasunaren birbanaketa sakonik gabe» (Lucas Chancel, Thomas Piketty, Emmanuel Saez eta Gabriel Sucman, World Inequality Report, Harvard University Press, 2022).

[60] % 10 aberatsenek munduko aberastasunaren % 76 dute (...), eta % 50ek (2.500 milioi pertsonak) aberastasunaren % 2 baino ez dute hartzen (Oxfam, 2021).

[61] Ipar Globaleko herrialdeek krisi klimatikoan duten eginkizuna eta erantzukizuna ondo dokumentatuta daude: agerian geratu da, beren iragan historikoa eta zenbait kasutan koloniala direla eta, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioak (CMNUCC) «1. eranskina» kategorian sailkatutako herrialdeek (hau da, industrializatuenek) gehiegizko isurien % 90 eragiten dituztela, eta, zehazki, Ipar Globaleko herrialdeek % 92. (Oxfam, 2023).2019an, munduko populazioaren % 1 aberatsenek karbono-isurien % 16 egin zituzten mundu mailan, % 66 pobreenek (5.000 milioi pertsona) bezainbeste (Oxfam, 2023).

[62] «NBEren arabera, munduan erauzitako lehengaien kopurua % 70 hazi zen 2002tik 2017ra bitartean» (Reyes eta Almazán, 2023). Hona hemen hazkunde berde eta digitalaren grina estraktibista horri buruzko datu bi: a) Nazioarteko Energia Agentziaren (IEA) arabera, ibilgailu elektriko batek, batez beste, 53 kilo kobre, 9 kilo litio, 25 kilo manganeso, 13 kilo kobalto, 66 kilo grafito eta kilo erdi lur arraro behar ditu. (A. Pérez, 2022); b) Batez besteko Smartphone batek 50 metal desberdin ditu, eta dauden lur arraroetako gehiengehienak (Valero *et al.*, 2021).

megaproiektuetan oinarrituta. Korporazio handiek bultzatzen dituzte proiektu horiek, eta gobernuek «alfonbra gorria» jartzen diete, merkataritza- eta inbertsio-hitzarmenen[63]. Hegoaldeko feminista komunitarioek adierazi duten bezala, estraktibismo neokolonial baten aurrean gaude, lurra suntsitu eta komunitateak mehatxatzen dituena, baina gorputzei ere kalte egiten diena, patriarkatua areagotzen duena eta lan[64] eta haur esplotazioan[65] oinarritzen dena.

Krisi ekosozialaren larriagotzea eta gizarte- eta ingurumen-arloko ondorioak, batez ere herrialde ahulenetan (klima aldaketa…), gizarte desparekotasun izugarria, elikadura-burujabetzaren galtzea, komunitateak desjabetzea eta beren habitatetatik kanporatzea, gatazkak areagotzea, horietako asko baliabide naturalak eskuratzearekin lotutakoak… Horiek guztiak direla eta, herrialde pobreetatik iparraldeko herrialdeetara doazen migrazio-fluxuak areagotu egin dira. Eta iparraldeko eliteek, erantzun gisan immigrazioarekiko gorroto-diskurtsoak elikatu, harrera-baldintzak gogortu eta mugak blindatzeko jarduera sekuritarioak areagotu egin dituzte. Hori da, hain zuzen, Europako Parlamentuak 2024ko apirilean onartutako Migrazioko eta Babeseko Itunean jasotzen duena.

Gure munduak gero eta ekologia hauskorragoa eta narriatuagoa du, eta gizarteak gero bidegabeagoak eta insolidarioagoak dira. Dudarik gabe, testuinguru horretan, eliteek, pribilegioak mantentzeko, gobernu autoritarioen, errepresiboen eta militarizatuen alde egiten dute. Gaurko tsunami atzerakoiak amildegira eraman gaitzakeen estrategia belizista sustatzen du. Azpimarratu beharra dago, nahiz eta ezkutatzen duten, estrategia horrek zerikusi handia duela erauzketa neokolonialarekin. Estrategia hori bermatzeko «merkataritza-akordioak eta lankidetza estrategikoak» (Ramiro eta González, 2024) bultzatzen dituzte, eta norgehiagoka militarista sustatzen dute[66], besteak beste, merkataritza-ibilbideak eta energiarako eta funtsezko lehengaietarako sarbidea ziurtatzeko.

---

[63] EBk 2015etik aurrera sinatutako merkataritza- eta inbertsio-itun berriek energiari eta lehengaiei buruzko kapitulu bat dute, eta horien gaineko sarbide kolonialaren eta blindaje korporatiboaren logika indartzen dute, haien aldeko araudi sendoa garatzen baitute (OMAL, 2024). 150 enpresak mundu osoko lehengaien erauzketaren ia % 90 kontrolatzen dute (Ericsson, 2012).

[64] Maiz, erdi-esklabotzako lan-egoerak gertatzen dira; izan ere, herrialde pobretuetako pertsona askok amore eman behar izaten dute korporazio handien boterearen aurrean.

[65] UNICEFek salatu duenez, 360.000 haurrek baino gehiagok Kongoko Errepublika Demokratikoko meategietan lan arriskutsuak egiten dituzte, eta kobaltoaren hornikuntza-katean nabarmen laguntzen dute (2024).

[66] EBk segurtasunera eta defentsara bideratutako aurrekontuak 2.800 milioi eurokoak izan ziren 2007-2013 aldian, 6.500 milioi eurokoak 2014-2020 aldian eta 19.500 milioi eurokoak gaur egungo 2021-27 esparru-programan (Ruiz *et al.*, 2021. Jordi Calvok aipatua, 2024)

Estraktibismo neokolonialak, immigrazioaren estigmatizazioak eta militarismoak osatutako hiruko horren aurrean, ekosozialismo dekolonialak, antimilitaristak eta solidarioak honako printzipio hauek defendatzen ditu:

- Ingurumen-justiziaren defentsa, hau da, planetako biztanle guztiek baliabide berdinak eta ingurumen-espazioaren zati berdina izateko duten eskubidea. Horregatik, Hegoalde Globaleko herrialdeek eskubidea dute Iparraldeko herrialdeek haiekin duten zor ekologikoa aintzat hartua izateko, eta konpentsazio finantzario justu eta nahikoa ezartzeko mekanismoa jartzeko ere, dirulaguntza gisa eta ez mailegu gisa, gaur egun jasotzen duten finantziazio klimatiko urriarekin gertatzen den bezala. Halaber, Nazio Batuen Garapenerako Programak (PNUD, 2022) txosten batean erreklamatu zuen moduan, kanpo-zorra modu masiboan berregituratzeko, edo, Legez Kanpoko Zorrak Indargabetzeko Batzordeak behin eta berriz eskatu duen bezala, zorra baliogabetzeko eskubidea dute.
- Pertsona guztiok, bazterketarik gabe, bizitza duina izateko eskubidea dugu. Ez sexua, ez generoa, ez baliabide ekonomikoak, ez etnia, ez jatorria, ez sinesmenak, ez hizkuntza, ez kultura… ezin dira diskriminaziorako arrazoi izan. Horregatik, «lotsaren harresien» aurrean («Europa Gotorlekua»...), Iparraldeko herrialdeak benetako harrera-eremu bihurtuko dituzten ekimen, programa eta estrategia guztiak defendatu behar dira.
- Bakea ez da lortzen gerrarako prestatuz. Herritarren segurtasuna ez da bermatzen industria militarra elikatuz eta armamentuen erosketa handituz, baizik eta pertsona guztien oinarrizko beharrak asetzen direla bermatuz. Ezinbestekoa eta premiazkoa da gure gizarteak eta ekonomia desmilitarizatzeko bidean aurrera egitea

4. **Ekosozialismo erabat demokratikoa**

Adierazi bezala, elite ekonomiko eta politikoek demokrazia mugatzearen[67] eta herritarren kontrol eta errepresio handiagoaren alde egiten dute argi eta garbi (adibide ugari daude).

[67] Arau pribatuak arau-piramidearen gailurrean kokatzen dira. Eta «konstituzio ekonomiko» bihurtzen dira, gehienetan gobernuek aurka egin gabe botere betearazle eta legegileei inposatzen zaiena, herri-subiranotasuna sistema ekonomiko kapitalistaren menpe jarriz... Demokrazia gobernariak izendatzeko prozedura bihurtzen da, eta horien erabakiak armadura juridiko gaindiezin batek mugatzen ditu, hauteskundeetako txandakatzea alde batera utzita (Juan Hernández, Mónica Vargas, 2018). Monica Vargas Collazos eta Juan Hernández Zubizarreta, botere korporatiboa eta Herrien Ituna. https://www.iparhegoa.eus/formakuntza-soziala/talaia/alternatibaz-alternatiba-euskal-herri-burujaberako-bidea/monica-vargas-collazos-y-ju-hernandez-zubizarreta.

Horren aurrean, ekosozialismoak errotik demokratikoa izan behar du, demokraziaren mugak ahalik eta gehien zabaldu behar du, gehiengo sozialen parte-hartze zuzena eta dagozkien kontuetan erabakitzeko ahalmena bultzatu behar ditu, politika zein ekonomia arloan. Horixe da, hain zuzen, erabaki horiek gehiengo handi horien beharren arabera hartzen direla bermatzeko modurik onena. Behar horiek ez dira merkatu kapitalistaren lehentasuna izango, inondik inora, ezta ohiko teknokratena eta burokratena ere[68]. Izan ere, merkatu kapitalista lehia itsuan eta epe laburreko mozkinean oinarritzen da. Hortaz, planifikazio demokratikoa funtsezko pieza bat da proposamen ekosozialistan.

5. Kolore anitzeko ekosozialismoa: herritarren ahalduntzean oinarritutako ekosozialismo feminista

Etorkizun ekosozialistaren definizioa ez dago bukatuta, etengabe eraikitzen ari da. Nolanahi ere, bere oinarrian dauden ikuspegien sintesi bat izan beharko luke, gutxienez, *lau kolore-ikuspegi* hauena: justizia sozialaren gorria, ikuspegi ekologikoaren berdea, genero-berdintasunaren morea eta herritarren ahalduntzearen beltza (Euskal Gune Ekosozialista, 2021). XXI. mendeko unibertso ekosozialistaren lau puntu kardinalak seinalatuko lituzketen lau kolore dira:

- Gorria: gizarte desparekotasunak beren forma guztietan gainditu nahi dituen gizarte ekitatibo baterantz ibili nahi duelako.
- Berdea: zeren Barcenak (2021) gogoratzen digun bezala:

  Tarta produktiboaren eta haren «oinarri» erreproduktiboen banaketa justua bezain garrantzitsuak direla hura osatzen duten osagaiak edo elementuak. Muga biofisikoak eta ziklo naturalak errespetatu gabe eta haien erritmoetara egokitu gabe, ez dago sistema sozial iraunkorra lortzeko aukerarik.
- Morea: bizitzaren defentsan eta babesean zentratzen denez, ezinbestekoa egiten du zaintzei buruzko ikuspegi feminista onartzea. Esparru horretan, emakumeek duten berdintasun eskubidea bermatu eta zapalkuntza patriarkalaren gaitzekin amaitu beharra dago.
- Beltza: Ahalduntzea defendatzen duelako, subiranismoaren[69] zein autegestioaren ikuspegitik. Izan ere, garrantzi berezia dute egin

[68] «Ezin da erabaki demokratikorik egon, Europako itunen aurka» (Jean-Claude Juncker, Europako Batzordeko presidente ohia, 2016).

[69] Subiranotasuna; izan ere, Euskal Herrian elikagaien ekoizpen hurbila, askotarikoa eta ingurune biofisiko eta kulturalera egokitua lortzera, eta tokiko herritarren oinarrizko beha-

nahi dugun gizarte ekosozialista hura gaurdanik aurreikusten duten esperientzia autogestionarioek; bereziki, ondasun komunen (energia, ura...) kudeaketa berreskuratzen duten esperientziek, autogestio-esperientzia alternatiboak garatzeko okupazioak sustatzen dituzten eta komunitatea eginten duten horiek (Errekaleor Bizirik...), ekonomia sozial eta solidarioaren esparruan lan egiten dutenek, oinarritik trantsizio ekosozialeko prozesuak garatzen dituztenek (ekoherrixkak...), baratzeak eta tailer komunitarioak bultzatzen dituztenek...

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Euskal Gune Ekosozialista.[Bideoa] Solasaldia Michael Löwy eta Yayo Herrerorekin. www.youtube.com/live/ydSCLmqHW0A?si=sxhqZNghhrAjnf6M.

(gaz) Fuhem. Para una caracterización del ecosocialismo en diez rasgos. https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Analisis/2013/para-una-caracterizacion-del-ecosocialismo-en-diez-rasgos_J_RIECHMANN.pdf.

(gaz) LibreRed. [Bideoa] Michael Löwy: Anticapitalismo y Ekosozialismoa. youtu.be/srzKgnhXdYg?si=R_OU_psNC_ugfo_Y.

(gaz) PNUMA. Red de Formación Ambiental para América Latina. Latinoamerikako 14 herrialdetako ingurumen-hezkuntzako 29 esperientzia-fitxa. http://www.pnuma.org/educamb/publicaciones/ANEXO1.Fichas_de_experiencias_sobre_educacion_ambiental_comunitaria.

Erlazionatutako topikoak

Ekologia politikoa, Ekonomia feminista, Gizarte justizia.

ENERGIA ETA TRANTSIZIO ENERGETIKOA

Energia lan bat egiteko, mugimendu-aldaketa sortzeko eta beroa edota argia sortzeko gaitasuna da.

---

rrak asetzera bideratuta badago, elikadura-subiranotasuna da; edo pertsona guztien energia-beharrei erantzungo dien energia-eredu berriztagarri, deszentralizatu eta autogestionatu berri baterantz jo nahi badugu, subiranotasun energetikoaz ari gara; edo aniztasunean eta berdintasunean oinarritutako gizarte baterantz aurrera egin nahi badugu, gure gorputzen subiranotasunaz ere ari gara... eta, hori posible izatea nahi badugu, erabaki horiek demokratikoki hartu ahal izatea, subiranotasun politikoaz hitz egingo dugu (Euskal Herriko herriarena).

Energia-iturri nagusia eguzkitik datorren argi-energia da. Fotosintesi prozesuagatik, organismo fotosintetikoek (bakterio, alga eta landare batzuek) energia hori hartu eta energia kimiko bihurtzen dute, eta sortzen duten materia organikoan gordetzen dute. Energia kimiko hori hainbat modutan metatzean, lehen mailako energia-iturriak sortuko dira: biomasa, ikatza, gas naturala eta petrolioa. Azken hiru horiei energia fosilak ere esaten zaie, denbora luzea igaro behar izan baita eguzki-energia hartu zuten organismo horiek metatu zirenetik energia-dentsitate handiko material bihurtu arte.

Energiak kontuan hartu beharreko lau propietate ditu: transferitu, eraldatu, biltegiratu eta garraiatu egin daiteke. Alde horretatik, energia-iturriak eta -bektoreak bereizi behar dira.

Iturriak energia lortzeko erabil daitezkeen baliabideak dira, hau da, eraldatzeko eta erabiltzeko dagoen energiaren jatorriak. Iturri horiek berriztagarriak eta berriztaezinak izan daitezke, Berriztagarrietan, eguzki-energia, energia eolikoa, energia hidraulikoa, energia geotermikoa eta biomasa dauzkagu. Hauek, giza mailan agortezinak dira eta ingurumen-inpaktu txikiagoak eragiten dituzte. Hala ere, azpimarratu beharra dago hura erauzteko gailuak eta sistemak (sorgailu eolikoak, eguzki-plakak eta abar) ez direla agortezinak. Beste aldetik, iturri berriztaezinak ditugu, hala nola petrolioa, ikatza, gas naturala eta energia nuklearra (uranioa erabiltzen du); izan ere, horiek mugatuak dira eta ingurumen-inpaktu handiagoa dute, erauzketatik hasi eta erabileraraino.

Energia-bektoreak, aldiz, energia bere iturritik erabiliko den tokira garraiatzeko edo biltegiratzeko erabiltzen diren bitartekoak edo sistemak dira, eta energia hura giza kontsumorako erabilgarriagoak diren formatara bihurtzen dute. Azken batean, energia hura hainbat aplikaziotan erabiltzea errazteko bitartekoak dira, energia-horniduraren kudeaketa eraginkorragoa eta malguagoa ahalbidetzen baitute. Aipatu beharra dago bektoreak erabiltzean energia primario horren zati bat galtzen dela.

Energia-bektoreen adibide bi elektrizitatea eta hidrogenoa dira. Elektrizitatea hainbat iturri izan ditzake, berriztagarriak zein berriztaezinak, eta distantzia luzeetara garraia daiteke sare elektrikotik. Hidrogenoa ez dago aske naturan, eta beste energia-iturri batzuetatik sortu behar da. Energia biltegiratzeko eta garraiatzeko erabiltzen denean, hura bektore energetikotzat hartzen da.

Energia ere bizi-indarra da, halaber, sistema ekologikoak bultzatzen dituen, giza gizarteak mantentzen dituen eta ekonomiari eusten dion bizi-indarra. Hala ere, ekoizteko, banatzeko, kontsumitzeko eta hondakin energetikoak kudeatzeko moduak ondorio sakonak ditu hainbat arlotan, besteak beste, genero-berdintasunean, harreman kolonialetan, gizarte-justizian, gure planetaren osasunean eta komunitateen parte-hartze demokra-

tikoan erabakiak hartzerakoan… Hau da, energia, baliabide fisikoa ez ezik, gizarte bidezkoagoak, solidarioagoak, ekitatiboagoak eta iraunkorragoak eraikitzeko elementu nagusi bat da.

Ikuspegi horretatik, energia oinarrizko eskubidetzat hartzen da, eta eskubide hori erabiltzeko aukerak ekitatiboa eta bidezkoa izan behar du, pertsona eta komunitate guztiek bizitza duin eta beteak bizitzeko beharrezko baldintzak izan ditzaten bermatzeko. Ondorioz, gaur egungo energia-sistemak kritikatu behar dira, arrazoi askorengatik, besteak beste, korporazio handien menpe daudela eta erregai fosiletan oinarritzen direla; larrialdi klimatikoari larriagotzen dutela; desberdintasun sozioekonomikoak eta genero-desparekotasunak betikotzen dituztela; harreman kolonialak betikotzen dituztela eta tokiko komunitateen autonomia ahultzen dutela.

Energia ere bizi-indarra da, halaber, sistema ekologikoak bultzatzen dituen, giza gizarteak mantentzen dituen eta ekonomiari eusten dion bizi-indarra. Hala ere, ekoizteko, banatzeko, kontsumitzeko eta hondakin energetikoak kudeatzeko moduak ondorio sakonak ditu hainbat arlotan, besteak beste, genero-berdintasunean, harreman kolonialetan, gizarte-justizian, gure planetaren osasunean eta komunitateen parte-hartze demokratikoan erabakiak hartzerakoan… Hau da, energia, baliabide fisikoa ez ezik, gizarte bidezkoagoak, solidarioagoak, ekitatiboagoak eta iraunkorragoak eraikitzeko elementu nagusi bat da.

Ikuspegi horretatik, energia oinarrizko eskubidetzat hartzen da, eta eskubide hori erabiltzeko aukerak ekitatiboa eta bidezkoa izan behar du, pertsona eta komunitate guztiek bizitza duin eta beteak bizitzeko beharrezko baldintzak izan ditzaten bermatzeko. Ondorioz, gaur egungo energia-sistemak kritikatu behar dira, arrazoi askorengatik, besteak beste, korporazio handien menpe daudela eta erregai fosiletan oinarritzen direla; larrialdi klimatikoari larriagotzen dutela; desberdintasun sozioekonomikoak eta genero-desparekotasunak betikotzen dituztela; harreman kolonialak betikotzen dituztela eta tokiko komunitateen autonomia ahultzen dutela.

1. **Bidezko trantsizio energetikoa**

Larrialdi klimatikoaren eta energia-iturri fosilen gainbeheraren ondorioz, gure gizarteek beste energia-sistema batzuetara igarotzea planteatu behar izan dute, egungo energia-iturriak (jatorri fosilekoak, neurri handi batean) energia berriztagarriekin ordezteko.

Beste garai batzuetan gertatu diren trantsizio energetikoek iturri berriak gehitu dizkiete garai hartan zeuden horiei. Petrolioak ez zuen ikatza ordeztu, mix energetikoari gehitu zitzaion. Hala ere, eta lehen aldiz, ener-

gia-iturri berriak ezin izango zaizkie fosilei erantsi; aitzitik, azken horiek erabat ordezkatu beharko dituzte.

Erregai fosilen ezaugarriek —dentsitate energetiko handikoak, garraiatzeko eta biltegiratzeko errazak— energia-kontsumo masiboa izateko aukera eman zioten sistema kapitalistari, eskala erraldoi batean, hazkunde esponentzial batean, produktu eta zerbitzuen eskala handiko produkzioarekin batera.

Etorkizuna berriztagarria izango da, baina energia horiek —dituzten ezaugarriengatik— ezingo dituzte sortu kontsumitzen ditugun energia kantitate itzelak, bereziki Iparralde globalean. Beraz, energia-ekoizpena eta -kontsumoa erabat murriztu beharko da.

Aipatutako arazoei aurre egin nahi dien trantsizio energetikoak hiru oinarri nagusi izan behar ditu:

- Ingurumen-jasangarritasuna, materialen —amaikorrak baitira— eta energia-iturrien mugak eta horien inpaktuak kontuan hartzen dituena. Hori lortzeko, besteak beste, energia-kontsumoa nabarmen murriztu beharko da.
- Justizia soziala genero-ekitatearekin. Onura ekonomikoa helburu duen egungo ereduaren aurrean, beharrezkoa izango da biztanleria osoaren oinarrizko behar energetikoak asetzera bideratzen den sistema, sozialki bidezkoa den banaketa baten bitartez.
- Energia-eredua demokratizatzea eta herritarrek eredu berri hura kontrolatzea.

Trantsizio energetikoak energia nola eta norentzat sortzen den sakon aztertzea eskatzen du, baita ingurumen- eta gizarte-justizia ardatz nagusi gisa hartzea ere. Hortaz, energia-kontsumo osoa aintzat hartu beharra dago, txertatutako energia barne. Txertatutako energia produktu, zerbitzu edo prozesu baten bizi-zikloaren etapa guztietan erabilitako energia-kantitate osoa da; hau da, diseinutik, ekoizpenetik eta banaketatik hasi eta erabilera eta bere hondakinen trataeraraino. Kontzeptu hori funtsezkoa da ondasun eta zerbitzuen aztarna energetiko osoa ulertzeko, ageriko energia-kontsumo zuzenaz harago.

Adibidez, sakeleko telefonoa erostean, txertatutako energia honako prozesu hauetan erabilitako energia hartuko luke barne: lehengaiak erauztean, osagaien fabrikazioan, gailuaren muntaian, salmenta-puntuetara garraiatzean, kontsumitzaileak hura erabiltzean eta azkenik, birziklatzean edo botatzean. Beste adibide bat elikagaien ekoizpena da. Horretan, bada, kontsumo txertatuak nekazaritzan (ongarrien ekoizpena, makineriaren erabilera), prozesamenduan, paketatzean, garraioan eta hozketan erabilitako energia osoa hartzen du, kontsumitzailearengana iritsi arte.

Txertatutako energia kontsumoa ulertzea eta murriztea funtsezkoa da sistema iraunkorragoetara igarotzeko, diseinu ekologikoa, ekonomia zirkularra eta kontsumo arduratsua bezalako praktikak sustatuz.

2. **Muga ekologikoak errespetatzea**

Trantsizio energetikoa jasangarritasun ekologikoaren printzipioekin lerrokatu behar da, eta horrek esan nahi du berriztagarriak diren energia-iturriak erabiltzeko gai diren sistemak aukeratu behar direla (eguzki-energia, eolikoa, hidroelektrikoa...), horiek energia mekaniko edo bero-energia bihurtzeko zein elektrizitate bihurtzeko.

Energia berriztagarria eraldatzeko instalazioek ingurumen-inpaktua minimizatu behar dute. Hau da, klima-aldaketari aurre egiteko berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteaz gain, biodibertsitatea babestu, ekosistemak zaindu eta baliabide naturalak modu eraginkorrean erabili behar dira.

3. **Genero ekitatea**

Genero-berdintasuna funtsezkoa da trantsizio energetikoan. Historikoki, pobrezia energetikoak neurriz kanpo eragin die emakumeei, eta erabaki energetikoak haien parte-hartzerik gabe ere eraman dira aurrera. Energia-politikan genero-ikuspegia txertatzeko, oinarrizkoa da emakumeen parte hartze aktiboa ziurtatzea.

4. **Trantsizio energetiko antikoloniala**

Elementu hori funtsezkoa da munduko energia-sisteman dauden bidegabekeriak ulertzeko eta benetako justizia energetikoa sustatuko duten estrategiak diseinatzeko. Kolonialismoak aztarna ezabaezina utzi du nazioarteko harreman ekonomiko eta politikoen osaeran, energiaren sektorea barne. Praktika kolonialek eta neokolonialek Hegoalde Globaleko herrialdeetatik baliabide naturalak ateratzea erraztu dute, Iparralde Globaleko herrialdeen industrializazio- eta kontsumo-eskaerei erantzuteko. Praktika kolonialek garapen-eredu eutsiezin bat mantendu dute, garapen gutxien duten eskualdeei ingurumen- eta gizarte-kostuak kanporatzen dizkiena, eta klima-aldaketaren eta beste ingurumen-arazo batzuen aurrean kalteberatasuna larriagotuz. Kolonialismo hori bateraezina da justizia sozialarekin, eta enpresa multinazionalek, bereziki Hegoalde Globalean, baliabide energetikoen eta mineralen gainean duten kontrolean ageri da.

5. **Tokiko komunitateen ahalduntzea**

Energia-sistema jasangarrien eta demokratikoki kudeatuen funtsezko alderdi bat tokiko komunitateak ahalduntzea da. Horrek esan nahi du beharrezkoak diren proiektu energetikoen eta meatzaritzako proiektuen jabego eta kudeaketa komunitarioa sustatu behar dela. Horri esker, bada, proiektu horien onurak komunitateen barruan gera daitezke eta tokiko garapen ekonomikoari lagun diezaiokete. Energia komunitarioak tokiko autonomia sustatzen du, energia-korporazio handiekiko mendekotasuna murrizten du eta komunitateek beren beharretara eta testuinguru espezifikoetara hobekien egokitzen diren energia-sistemak diseinatzea ahalbidetzen du.

6. **Oinarrizko demokrazia indartzea**

Energiaren demokratizazioa gizarteko sektore guztiek energiarekin lotutako plangintzan eta erabakiak hartzean parte-hartze aktiboa eta esanguratsua izatea da. Horrek esan nahi du mekanismo inklusiboak eta gardenak sortu behar direla, komunitateek energia-prozesu guztietan eragina izan dezaten: nola planifikatzen den, nola erauzten diren mineralak, nola ekoizten den, nola banatzen den, nola kontsumitzen den eta nola kudeatzen diren hondakinak. Oinarrizko demokrazia indartzean, energia-politikek eta -praktikek herritar guztien interesak eta beharrak islatzen dituztela ziurtatzen da, batez ere tradizionalki prozesu horietatik baztertuta edo kanporatuta dauden horienak.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Diseño Autosuficiente. [Bideoa] Antonio Turiel: El capitalismo es incompatible con las energías renovables. youtu.be/n-kZLFm_Fwc?si=Dau0h86y0McO6h__.

(gaz) Ecologistas en acción. Elena y Goyo y la central nuclear. www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/adjuntos-spip/pdf/elena_y_goyo.pdf.

(gaz) Ecologistas en acción. Los medios de transporte en la ciudad. Un análisis comparativo. www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/adjuntos-spip/pdf_Cuaderno_2_Comparativa_medios.pdf.

(gaz) TEDx Talk. [Bideoa] Decisiones ante un mundo sin combustibles fósiles | Antonio Turiel. youtu.be/mukpAM7t85A?si=yeMfR8AbnR5_Z1ki.

(eus) Amarauna. Energia berriztagarriak. www.amarauna.euskadi.eus/baliabidea/energia-berriztagarriak/4ab5e4e6-493b-4bad-93c9-26ca2b0f4acf.

(eus) Serna Martin, M. J. Energia ikertzen. descargas.intef.es/cedec/proyectoedia/fisica_quimica/contenidos/energia_ikertzen/index.html.

(eus-gaz) Coordinadora de ONGD Euskadi. Energia Trantsizioak: Iraunkortasuna eta demokrazia energetikoa recursoseducativos.ongdeuskadi.org/eu/recurso.php?id=143 / Transiciones energéticas: Iraunkortasuna y Democracia Energética recursoseducativos.ongdeuskadi.org/recurso.php?id=143.

(eus-gaz) Eco House TV. [Bideoa] Transición Energética. youtu.be/8hN7Sauvbb4?si=sEy82RqUpRcnF2Uy.

(eus-cas). Alboan. Energia berriztagarriak. centroderecursos.alboan.org/eu/materia/1688-energia-berriztagarriak/registros.

Erlazionatutako topikoak

Krisi ekosoziala, Klima-larrialdia, Exergía.

ENFOKE HOLISTIKOA

Ikus *Gaia teoria*.

ERRESILIENTZIA

Ikus *Sistema*.

ETIKA EKOSOZIALA

Etika ekosozialak gure ohiko jarduerek ezkutatzen dituzten balioak —indibidualak zein sozialak— aztertzen ditu. Hala, antropozentrismoarekin dugun adostasuna erakusten du, balio berriak agerian uzten ditu edo erabiltzen ez diren zaharrak aldarrikatzen ditu. Guztion parte-hartzearekin eta konpromisoarekin eraikitzen da, nolabaiteko erosotasuna galduz eta beste mundu bat, bertan jarduteko beste modu bat, bideragarria dela erakusteko jarduten du.

Löwyk (2012) etika ekosozial baterako zenbait ideia proposatzen ditu. Lehenengoa, etika soziala da. Hura ez da jokabide indibidualen etika; ez die pertsonei errurik leporatzen, eta aszetismoa eta autolimitazioa sustatzen du. Bigarrenik, etika humanista da, naturarekin harmonian bizitzeko. Hirugarrenik, etika berdinzalea da, aberastasuna planeta-mailan birbanatuko duena eta baliabideen garapena komunean egingo duena, ekoizpen-paradigma berri bati esker. Laugarrenik, etika demokratikoa, ekonomiari

eta ekoizpenari buruzko erabakiak demokratizatuko dituena. Bosgarrenik, arazoaren errora doan etika erradikala da, paradigmaren erabateko eraldaketa eragingo duena, eraldaketa iraultzailea ekarriko duena. Azkenik, etorkizuneko belaunaldiekiko erantzukizunaren ideia (Jonas, 1995) gaindituz, geure belaunaldiarekin ere arduratsua den etika da; izan ere, klima aldaketa bezalako arazoek pertsona eta talde ugari jartzen ditu arriskuan, gaur edo etorkizun hurbilean.

Gutiérrez Bastidaren arabera (2018, 2022), etika ekosoziala ekofeminismoaren bi printzipio saihetsezin hauetan oinarritzen da: gizakia interdependentea eta ekodependientea da. Interdependentziaren eta ekodependentziaren premisak balio kuantitatibo eta monetaristatik urrun daude, gizarte- eta ekologia-premiei erantzuten dien eraldaketa ekosozialera bideratzen dute beren ekintza, ondasun komunak erabiltzeari eta gozatzeari buruzko balioen eta iritzien arabera, horiek berriztagarriak izan (airea, ura, pentsamendua...) edo ez (erregai fosilak, energia atomikoa, mineralak...).

Printzipio horiek etika ekosozial bat sustatzen dute, eta hark, aldi berean, beste etika batzuk barne hartzen ditu: zaintzarena (ekofeminismoa), bizitzaren bilbearen jasangarritasunarena (Capra, 1998), justizia sozialarena (sozialismoa), guztien onarena (*Bizitze Ona*-ren korronteak) eta ekintzarena (Morin, 2006). Etika praktikoa da, ekintzarako gida, eta ingurunean giza ekintza doitu eta autoerregulatzen du, interes pertsonala eta komunitatearen arteko erlazioak aintzat hartzen ditu guztien onaren ideiaren inguruan.

Agundezek (2004) ondoko galdera egiten du: zergatik da garrantzitsua hezkuntzan etika ekosoziala? Eta erantzuten du: «hezkuntza guztiek balioak dituztelako eta balioetan oinarritutako argitze eta eztabaidatze ariketa bat egin gabe ez delako posible ekosozialki heztea». Etika ekosoziala garrantzitsua izan behar da gure gizarte itsu, paralizatu, gaixo eta nekatuetan. Izan ere, gizarte horiek kapitalismoa eta neoliberalismoa onartzen dituzte eta, ondorioz, eskola itsu, gaixo eta nekatuak sustatzen dituzte. Irakasleek testuinguru horretan lan egiten dute.

Lehenik, etika ekosoziala garrantzitsua da ingurumen hezkuntza orok balioak dituztelako. Bigarrenik, garrantzitsua da, hain zuzen, balio ekosozialetan hezteko, balioak etengabe argitu eta eztabaidatu behar direlako. Hirugarrenik etika ekosoziala garrantzitsua da hezkuntza elementu bat ematen duelako, hausnarketa axiologikoari dagokiona, alegia; eta hori oinarrizkoa da balio gatazkak dituzten gizarte eta eskoletan.

Agundezek (2024) azpimarratu egiten du, lehenik eta behin, pentsamendua atomizatuta dagoela, erabat banatuta, baina, «modu sakonean, hezkuntza-inguruetan ez dago pentsamendu dekoloniala». Bigarrenik, eskola neoliberalak oso pribatizatuta daude. Eta duela zenbait hamarkadatik hona, eskola publikoaren barruan ere pribatizazio handia ikusten dugu.

Borroka ekosozialeko bi eremu dira. Hona hemen printzipio nagusiak (Agúndez, 2024):

- Neutraltasun ezaren printzipioa. Beste edozein hezkuntza bezala, hezkuntza ekosoziala ez da hezkuntza neutroa. Balioak dituen hezkuntza eta hezkuntza politikoa da.
- Konplexutasun-printzipioa, hau da, hezkuntza-testuinguruetan maiz diziplinetan banatuta edo atomizatuta dagoena berriro biltzeko printzipioa.
- Ekoherritartasunaren printzipioa: kritikoa, zaintzailea, zelataria, sortzailea konponbideak bilatzeko orduan. *Polis*-ean aldaketak sortzeko eta errealitate ekosozialak eta hezkuntzakoak eraldatzeko lan egiten duen ekoherritartasuna.
- Diziplinartekotasun-printzipioa, hainbat jakintza-mota sartzea sustatzen duena, hala nola bertako jakintzak.
- Jarraitutasun-printzipioa, modernitatearen dikotomiak hausteko, hala nola natura/gizatasuna, arrazoia/emozioa, kognizioa/afekzioa, natura/kultura…

Gutiérrez Bastidaren ustez (2018), gizarte iraunkor eta bidezkoetarako trantsizio ekosozialaren erronka etikoa da, lau dimentsioen arabera: Lehenik, eta behin, etika ekosoziala bizitzaren ehuna errespetatzeko eta zaintzeko etika bat da. Bigarrenik, bizitzaren iraunkortasunaren etika da. Hirugarrenik, estetikari, naturaren edertasunari, ekintzari eta politikari estu lotutako etika da. Azkenik, planetako justiziaren eta ondasun komunen etika da.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus-gaz) Edukalboan. Labirintoa bit.ly/4dSWamK / El laberinto www.edukalboan.org/es/unidad/el-laberinto-0.

(eus-gaz) Edukalboan. Munduko hiritarrok. bit.ly/43V9PFg.

(gaz) Entreculturas. Comunicación para el cambio ecosocial: Palabras que sostienen la tierra. redec.org/publicaciones/comunicacion-para-el-cambio-ecosocial-palabras-que-sostienen-la-tierra/.

(gaz) Entreculturas. Exploración de la dimensión humana y global de la realidad. redec.org/publicaciones/exploracion-de-la-dimension-humana-y-global-de-la-realidad/.

(gaz) Entreculturas. Guía de situaciones de aprendizaje significativas en el aula para la Ciudadanía Global y el Desarrollo Sostenible en Secundaria. redec.org/publicaciones/guia-de-situaciones-de-aprendi-

zaje-significativas-en-el-aula-para-la-ciudadania-global-y-el-desarrollo-sostenible-en-secundaria/.

(gaz) FISC ONGD [Bideoa] Una ética ecosocial para un mundo en cambio: Impactos Ambientales. youtu.be/lBIOvBdcanY?si=pLnBFMlsJ0aouFZq.

(gaz) FISC ONGD [Bideoa] Una ética ecosocial para un mundo en cambio II: ¿Qué puedes hacer? youtu.be/m80sOEZDbYc?si=0tl9dLsLTcAwJJAl.

(gaz) Observatorio 3sEuskadi Behatokia. [Bideoa] Etica Ecosocial (I). youtu.be/tUzo39sq554?si=xNJypAEnTErqtO23.

(gaz) Observatorio 3sEuskadi Behatokia. [Bideoa] Etica Ecosocial (II). youtu.be/-_haTsxweOw?si=L-1m9EFH5Fd--HPd.

Erlazionatutako topikoak

Ekoalfabetizazioa, Bizitza erdigunean, Balioak.

ETNOZENTRISMOA

Ikus *Antropozentrismoa*.

EXERGIA

Exergia honela defini daiteke: eraldatua izateko erabilgarri dagoen energia. Horren aurrean, sistema baten energia totalak zati aprobetxagarria zein ez-aprobetxagarria barne hartzen ditu.

Lurraren jarduera geologiko naturalak berebiziko garrantzia izan du mineralen kontzentrazioan. Izan ere, biltegiak sortu ditu, eta, horietatik, mineralak modu eraginkorrean atera daitezke. Eonetan zehar, hainbat prozesuk, hala nola bolkanismoak, higadurak, sedimentazioak eta meteorizazioak, mineralak leku zehatzetan kontzentratu dituzte, eta hainbat erabilera industrial eta teknologikotarako erauzteko aukera dute. Mineralen kontzentrazio natural hori, funtsean, exergia biltegiratzeko modua da; izan ere, mineral kontzentratuak ateratzeko eta prozesatzeko energia gutxiago behar da, lurrazalean sakabanatuta dauden mineralekin alderatuta.

Hala ere, industria-jarduerak kontzentrazio natural horren kontra jokatzen du. Izan ere, baliabide horien erauzketaren eta erabilera intentsiboaren bidez, mineralak modu zabalean banatzen ditu, eta ingurumenean eta azkenean hondakin bihurtzen diren produktu teknologikoetan sakabanatzen ditu. Dispertsio horrek entropia areagotzen du, hau da, eskuragarri

dagoen exergia murrizten du, zeren mineral horiek sakabanatu ondoren berreskuratzeak energia kantitate askoz handiagoa eskatzen baitu.

> Adibidez, gailu elektronikoak fabrikatzeko, askotariko mineralak erabiltzen dira, eta, horien balio-bizitza bukatzen denean, zabortegietan edo erraustegietan sakabanatuta amaitzen dute, jatorrizko aztarnategietan zuten kontzentrazio handi hori eta, hortaz, exergia galduz. Prozesu hori itzultzeko, hau da, mineral horiek birziklatzeko edo berreskuratzeko, energian intentsiboak diren teknologiak behar dira, eta, askotan, berotegi-efektuko gas asko isurtzen dute.

Dinamika horrek inplikazio garrantzitsuak ditu iraunkortasunaren eta gizarte- eta ingurumen-justiziaren ikuspegitik. Exergia-galera murrizteko, meatzaritza eta manufaktura praktika jasangarriagoak hartu beharra dago, hain zuzen ere, mineralen sakabanaketa minimizatzen dutenak eta materialak ahalik eta gehien berrerabiltzen eta birziklatzen dituen ekonomia sustatzen dutenak. Ikuspegi horrek, exergia gehiago gordetzeaz gain, meatzaritza-erauzketa berrien beharra eta ingurumen-inpaktua murriztuko lituzke, eta ekitatea sustatuko luke, meatzaritzaren kalteak jasaten dituzten komunitateen eta ekosistemen gaineko presioa murriztuko bailuke.

Azken batean, jarduera geologikoaren, mineralen kontzentrazioaren eta exergiaren arteko erlazioak Lurreko baliabide mineralak nola kudeatzen ditugun birplanteatzearen garrantzia nabarmentzen du. Exergia baliabide mugatutzat hartzen badugu, benetan iraunkorrak eta bidezkoak diren ekoizpen- eta kontsumo-sistemetara igaro gaitezke, planetaren erritmo eta mugetara hobeto egokituz.

Erlazionatutako topikoak

Energia eta trantsizio energetikoa, Klima-larrialdia, Donutaren teoria ekonomikoa.

G

GAIA TEORIA

James Lovelock zientzialari britainiarrak 1970eko hamarkadan proposatutako Gaia teoriaren arabera, Lurra organismo biziduna da, eta bertan osagai biotikoek (izaki bizidunek) eta abiotikoek (elementu ez-bizidunek) modu konplexuan elkarreragiten dute bizitzarako baldintza onuragarriei eusteko.

Planeta bizidunaren ideia (Gaia) ez da berria zientziarentzat. Duela 200 urte baino gehiago, geologiaren aitatzat hartzen den James Huttonek Lurra izaki bizidun gisa deskribatu zuen, eta horren ikerketa fisiologian (organismo organikoen funtzionamendua aztertzen duen zientzia biologikoa) oinarritzea proposatu zuen. Huttonek, 1789an, Lurraren Teoria argitaratu zuen. Bertan adierazten du biosferak etengabe birziklatzen duela materia organikoa. Hala ere, zientzien artean banaketa argi bat zegoela ikusi zuen: biologoek, alde batetik, uste zuten Lurraren aldaketa fisikokimikoak ausazkoak zirela, eta geozientziek, bestetik, bizitzak eskala globalean duen eragina baztertzen zuten.

James Lovelock 1960ko hamarkadaren hasieran hasi zen Gaia Teoria formulatzen. Lovelockek Lurraren prozesu fisiologiko autorregulatuak aztertu zituen, eta Lynn Margulis mikrobiologo estatubatuarraren laguntzaz, 1972an, «*Gaia as seen through the atmosphere*» («Gaia atmosferatik ikusia») izeneko artikulua argitaratu zuen *Atmospheric Environment* aldizkarian.

1. **Gaia autorregulatzeko funtsezko mekanismoak**

a. *Karbonoaren zikloa*

Landareek eta beste organismo fotosintetiko batzuek karbono dioxidoa (CO_2) xurgatzen dute atmosferatik, eta hura materia organiko bihurtzen dute fotosintesiaren bidez, prozesuan oxigenoa (O_2) askatuz. Animaliek eta organismo deskonposatzaile batzuek, arnasketaren eta deskonposizioaren bidez, CO_2 itzultzen dute atmosferara. Gainera, prozesu geologikoek, hala nola harri karbonatatuen eraketak, karbonoa bahitzen dute epe luzera, eta jarduera bolkanikoak, berriz ere, karbonoa askatzen du. Ziklo horrek tenperatura globala eta atmosferan dagoen CO_2 kontzentrazioa erregulatzen laguntzen du.

b. *Nitrogenoaren zikloa*

Lurzoruan eta landare batzuen sustraietan nitrogenoa finkatzen duten bakterioek nitrogeno atmosferikoa (N_2) organismoek erabil ditzaketen formetan bihurtzen dute, hala nola amoniakoa (NH_3) eta nitratoak (NO_3^-). Beste mikroorganismo batzuek berriz ere N_2 bihurtzen dituzte konposatu horiek, zikloa osatuz. Prozesu hori funtsezkoa da lurzoruaren emankortasunerako eta landareen hazkunderako, eta ekosistemen produktibitatea mantentzen dute.

c. *Klimaren erregulazioa*

Lurraren sistemak klima egonkortzen laguntzen duten berrelikadura-mekanismoak ditu. Adibidez, Lurraren gainazala elurrez eta izotzez estaliz, aldatu egiten da albedoa —hau da, eguzki-erradiazioa islatzeko duen gaitasuna—: izotz gehiagok eguzki-argi gehiago islatzen du, planeta hoztuz. Bestalde, landaretzak ere kliman eragiten du, ebapotranspirazioaren bidez; izan ere, hodeiak sor ditzakeen ur-lurruna askatzen du eta, hala, prezipitazioetan eta tenperaturan eragiten du.

d. *Uraren zikloa*

Ura ozeano, aintzira eta ibaietatik lurruntzen da, atmosferan kondentsatzen da, hodeiak sortuz, eta berriro erortzen da gainazalera, prezipitazio gisa. Ziklo horrek ur geza ekosistemetara banatzeaz gain, tenperatura globala erregulatzen ere laguntzen du, beroa ur-lurrun gisa garraiatuz eta ondoren kondentsazioan askatuz.

e. ***Ozeanoen erregulazio kimikoa***

Itsas fitoplanktonak —ozeanoen azalean bizi diren organismo fotosintetiko txikiek— zeregin garrantzitsua du ozeanoaren eta atmosferaren kimikaren erregulazioan. Fotosintesia egitean, fitoplanktonak CO_2 xurgatzen du O_2 askatzen du. Gainera, ozeanoetako sufrearen zikloa ere —batez ere fitoplanktonaren bidez— sistema bizidunek klimaren autorregulazioan eta kimika atmosferikoan duten eraginaren adibide argia da.

Itsas fitoplanktonak dimetilsulfoniopropionato (DMSP) izeneko konposatu bat sortzen du bere metabolismo zelularraren parte gisa. Fitoplanktona hiltzen denean edo itsasoko beste organismo batzuek hura irensten dutenean, DMSP hura dimetilsulfuro (DMS) bihurtzen da. Eraldaketa hori itsas bakterioen eta beste prozesu biologiko batzuen eraginez gerta daiteke. DMSa lurrundu egiten da, eta ozeanoaren azaletik askatzen da atmosferara. Behin atmosferan, DMSak kondentsazio-nukleo gisa jokatzen du, eta ur-tantak sortzen laguntzen du; gero, tanta horiek hodei bihurtzen dira.

DMSaren kondentsazio-nukleoei esker eratutako hodeiek espaziora bueltan islatzen dute eguzki-argia, eta horrek Lurraren gainazala hozteko efektua izan dezake. Beraz, prozesu horrek tenperatura globala erregulatzen laguntzen du.

Aipatutako adibideak organismo bizidunen (fitoplanktona) eta prozesu abiotikoen (hodeien sorrera, klimaren erregulazioa) arteko interkonexioa erakusten du. Erakutsi egiten du ozeanoetako jarduera biologikoek eragin handia izan dezaketela atmosferan eta kliman, eta, hala, Lurreko sistema osoaren autorregulazioa bultza dezaketela. Ozeanoaren tenperatura igotzen bada, fitoplanktonaren ekoizpena eta haiek askatutako DMS kantitatea alda daitezke eta, ondorioz, hodeien eraketa eta klimaren erregulazioa.

2. **Bizitzaren jatorriari buruzko gaia teoriaren inplikazioak**

a. ***Interkonexioa eta koeboluzioa***

- Ikuspegi holistikoa: Gaia Teoriak aditzera ematen du bizitzak eta ingurune fisikoak ez zutela modu independentean eboluzionatu, baizik eta modu interdependentean koeboluzionatu dutela. Ikuspegi horren arabera, bizitzaren jatorria ez da gertaera isolatu bat soilik; aitzitik, organismo bizidunen eta haien ingurunearen arteko interakzio- eta atzeraelikadura-prozesu jarraitu baten parte da.
- Ingurune egokia: Lurrean baldintza espezifikoak egotea (ur likidoa, atmosfera egokia eta tenperatura egonkorra izatea), zorioneko

egoeratzat ez ezik, bizitzak berak egonkortzen lagundu duen prozesuen emaitzatzat ere hartzen da.

b. ***Autoantolakuntza eta sistema konplexuak***

- Sistema Autoantolatuak: Gaiak Teoriak nabarmendu egiten du sistema biologikoek beren burua antolatzeko eta osagai sinpleetatik abiatuta egitura konplexuak sortzeko gaitasuna dutela. Printzipio hori bizitzaren jatorrira hedatuz, aditzera ematen du bizitza giro aproposetan autoantolatutako prozesuen bidez azaleratu zela.
- Kimika Prebiotikoa: Tximinia hidrotermalak edo putzu beroak bezalako tokietan, baldintza kimikoek molekula organiko konplexuak sortzen lagundu omen zuten, eta, hala, bizitzaren lehen formak sorrarazi zituzten sistema autoantolatuak ekarri omen zituzten.

c. ***Homeostasia eta egonkortasuna***

- Ingurune egonkorrak: Gaia Teoriak nabarmendu egiten du organismo biziek beren inguruneak egonkortzen laguntzen dutela. Ikuspegi horren arabera, bizitza egonkortze-mekanismo naturalak zeuden inguruneetan sortuko zen, hala nola inguruko kimika erregulatzen zuten ziklo biogeokimikoak.
- Mikroorganismoen rolak: Lehen mikroorganismoek funtsezko eginkizuna izan omen zuten baldintza egonkorragoak eta bizigarriagoak sortzeko, eta atmosferaren eta ozeanoen kimikan eragin egin zuen, biziaren bilakaera bultzatuz.

d. ***Eboluzio integratua***

- Eboluzio kooperatiboa: Gaia Teoriak aditzera ematen du eboluzioa ez dela lehia bakarrik, espezieen eta haien ingurunearen arteko lankidetza ere badela. Bizitzaren jatorriaren testuinguruan, horrek esan nahi du, agian, lehen bizimoduek eboluzio kooperatiboa izan zutela, baliabideak partekatuz eta elkarri mesede egiten zioten mikrobio-komunitateak eratuz.
- Sinbiogenesia: bizitzak elkarlanaren eta sinbiosiaren bidez eboluzionatu zuelako ideiak —Lynn Margulisen endosinbiosiaren teoriak bezala— Gaia Teoriaren ikuspegia biribiltzen du, eta erakusten du organismoen arteko lankidetza funtsezkoa izan zitekeela zelula eukarioto konplexuen eraketan..

3. **Txiribiten Mundua eredua. Nola lagundu ikasleei Gaia Teoria ulertzen**

«Txiribiten Mundua» (Daisyworld) simulazioa eredu konputazional erraza baina indartsua da. Hura James Lovelockek eta Andrew Watsonek sortu zuten, 1983an, Gaia Teoriaren oinarrizko printzipioak ilustratzeko. Simulazioak erakusten du organismo bizidunek beren ingurune fisikoarekin elkarreragin dezaketela planeta bateko klima erregulatzeko, atzeraelikadura-mekanismoen bidez bizitzarako baldintza onuragarriak mantenduz.

a. ***Bitxiloreen Munduaren deskribapena:***

- Oinarrizko kontzeptua: Daisyworld planeta hipotetiko bat da, bi bitxilore mota baino ez dituena: bitxilore beltzak eta bitxilore zuriak. Bitxilore horiek albedo—propietate ezberdinak dituzte (albedoa gainazal batek eguzki-argia islatzeko duen gaitasuna da).
- Bitxilore beltzak: Eguzki-argi gehiago xurgatzen dute eta, beraz, ingurua berotzen dute.
- Bitxilore zuriak: Eguzki-argi gehiago islatzen dute eta ingurua hozten dute.
- Atzeraelikadura mekanismoa: ereduak erakusten du bitxilore beltzen eta zurien populazioak planetaren tenperaturaren arabera alda dezakeela, eta, hori egitean, tenperatura erregulatuko dutela, bizitzarako egokia den tarte baten barruan mantenduz.

Ereduaren funtzionamendua:

- Zikloaren hasiera: Hasieran, planetaren tenperatura bitxiloreen hazkunderako optimoa den tenperaturaren gainetik edo azpitik egon daiteke .
- Hasierako Tenperaturaren Efektua: Hasierako tenperatura baxua bada, bitxilore beltzak (bero gehiago xurgatzen dutenak) gehiago ugalduko dira, planeta berotuz.
- Hasierako tenperatura altua bada, bitxilore zuriak (argi gehiago islatzen dutenak) gehiago ugalduko dira, planeta hoztuz.
- Tenperaturaren egonkortzea: Bitxilore beltzek planeta berotu eta zuriek hoztu ahala, oreka dinamikoa ezartzen da. Planetaren tenperatura globalak bitxilore barietateen hazkunderako egokia den tarte batean egonkortzeko joera du.
- Atzeraelikadura Negatiboa: Kolore bateko bitxiloreak ugaritzean beste kolorearen aldeko baldintzak sortzen dira, tenperaturaren muturreko aldaketak saihestuz.

- Atzeraelikadura Positiboa: Baldintza jakinetan, bitxilore mota bat erabat nagusitzen bada, eragin positiboa izan lezake, bitxilore beltzen kasuan tenperatura are gehiago handituz edo margarita zurien kasuan jaitsiz. Hala ere, orekak bere horretan jarraitzeko joera duela erakusteko diseinatuta dago eredua.

Gaia Teoriak planetako elementu guztien arteko interdependentzia nabarmentzen du, eta oreka ekologikoa mantentzearen garrantzia azpimarratzen du. Halaber, ekosistemak eta biodibertsitatea kontserbatzea sustatzen du, ingurumenaren egonkortasuna eta iraunkortasuna bermatzeko modu gisa, eta onartzen du sistemaren zati bat degradatzeak ondorio globalak izan ditzakeela.

Autorregulazio prozesuek ekosistemen osotasuna mantentzearen garrantzia azpimarratzen dute. Habitaten suntsiketak, poluzioak eta klima-aldaketak ziklo natural horiek alda ditzakete, eta aurreikusi gabeko ondorioak eta hondamendiak eragin ditzakete. Horregatik, ezinbestekoa da sistema natural horiek errespetatzen eta babesten dituzten jardunbide jasangarriak eta ingurumen-politikak ezartzea.

Ikuspegi feminista batetik, Gaia Teoria naturarekin dugun harremana birkontzeptualizatzeko deia izan daiteke, tradizionalki patriarkatuarekin lotutako ikuspegi dominatzailetik eta estraktibistatik aldentzeko. Izan ere, ingurune naturalarekiko zaintza, errespetua eta elkarrekikotasuna sustatzen ditu. Horrez gain, emakumeen ahotsen eta ezagutzen garrantzia nabarmentzen du, batez ere praktika jasangarrietan eta naturaren defentsan murgilduta dauden horienak.

Lurraren autorregulazioak, halaber, izaki bizidun guztien interdependentzia eta baliabideen kudeaketa ekitatiboaren beharra onartzen duen ikuspegi integratzailea dakar. Horrek aurre egiten die zenbait komunitateren esplotazioa eta bazterketa mantentzen duten botere-egiturei, batez ere emakume eta herri indigenei dagokienez, horiek, maiz, praktika iraunkorren ezagutza sakona baitute. Ingurumen-arloko erabakiak hartzean berdintasuna eta inklusioa sustatzea funtsezkoa da benetako justizia ekologikoa lortzeko.

Gaia Teoriak, sistema bizien interkonexioa eta autorregulazioa nabarmentzean, justizia soziala modu integralean lantzeko oinarri kontzeptuala eskaintzen du. Horrek, bada, gizarte-desberdintasunen eta ingurumen-krisien arteko lotura sakonak onartzea eta horien gainean jardutea dakar, baita ekitatea, inklusioa, giza eskubideen babesa eta ekonomia jasangarria eta epe laburreko irabazien gainetik pertsonen ongizatea eta ingurumena lehenesten dituen ekonomia solidarioa sustatzea ere. Printzipio horiek aplikatuz, etorkizun bidezkoago eta orekatuago baterako bidean aurrera egin dezakegu, gizakien eta gizakienak ez diren komunitate guztientzat.

Azkenik, Gaia Teoriak oinarrizko parte-hartze demokratikoa babesten du, aitortu egiten baitu ingurumen-kudeaketa eraginkorra lortzeko tokiko komunitateak tartean sartu eta ahaldundu beharra dagoela. Ingurumen-arloko erabakietan pertsona guztien parte-hartze aktiboa sustatzeak ziurtatu egiten du irtenbideak inklusiboak, bidezkoak eta komunitate bakoitzaren behar espezifikoetara egokituak direla, eta haien jakintza tradizionalak eta ingurunearekin duten harremana errespetatzen dituztela.

Lurraren autorregulazio naturaleko mekanismoak ulertzeak eta errespetatzeak, bada, ingurumenaren babesean komunitatearen parte-hartze handiagoa eragin dezake. Ingurumen-arloko erabakiak ez dira zentralizatu behar, ezta goitik inposatu ere. Tokiko komunitateek parte hartu behar dute, haiek baitira ingurumen-narriaduraren ondorioak gehien sentitzen dituztenak, eta, askotan, ezagutza eta irtenbide baliotsuak baitituzte.

Bestalde, teoria hura epistemologia ekologikotik ere eztabaidatutako ikuspegia da. Garcíaren eta beste batzuen arabera (2017), asko dira holismo organikoa kontzeptu erredukzionista eta idealistatzat hartzen duten autoreak (holismo materialistarekin alderatuta). Horien argudio nagusia da organismoak eta ekosistemak propietate emergente desberdinak dituzten sistemak direla, eta, beraz, erredukzionista dela bata bestearen terminoetan azaltzea. Organismo bizidunen ezaugarria antolamendu hierarkikoak eta zentralizatuak dira, eta haien egonkortasunak aurrez zehaztutako optimo baten inguruan fluktuatzen du. Antolamendu horietan oso sartuta daude begizta errekurtsiboak eta aldizkako aldaketak, eta hori ohikoa da autoantolaketa-prozesuan (Morin, 1987). Egoera optimo horretan jarduten duten bitartean, «orekan» egongo dira. Aldaketen arteko tartea laburra bada (adibidez, odoleko azukrearen balioa ezin da gehiegi desbideratu, sistema aldatzea ekidin nahi badugu), organismoa oso kaltebera bihurtzen da (gaixotzen da, hil egiten da eta erraz asaldatzen da), eta horrek zaintzea justifikatzen du. Zaintza hori harreman intraespezifikoetan (populazioen eta espezieen biziraupena) zein interespezifikoetan (elikadura sareen parte diren sinbiosiak eta beste harreman osagarri batzuk) egiten da. Hala ere, ekosistemek sare-antolamendu horizontala eta deszentralizatua dute, eta oreka dinamikoak dituzte, denboran zehar berrantolaketaren bidez eboluzionatuz (berregokitze bakoitzak sistema aldatzen du, atzera bueltarik gabe) (Morin, 1987).

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) [Bideoa] Ude@. El mundo de las margaritas. youtu.be/EkeScwcFR3c?si=Xb36PMhRyL0UcoAm.

(gaz) [podcast] Canal UNED.¿Qué es el mundo margarita? canal.uned.es/video/5a6f4834b1111f510e8b4cac.

(eus-gaz) Hiru.eus. Gaia hipotesia. www.hiru.eus/eu/medio-ambiente/la-hipotesis-de-gaia.

(gaz) [Bideoa] Fuhem. 1º de ESO: Gaia. youtu.be/I_uFRSdKKX0?-si=fphaRIFLBwmCWqs6.

(gaz) Ballenilla, F. (1989). Los Jolasas de simulación de sistemas: un recurso didáctico necesario. Investigacion En *La Escuela, 8*. Universidad de Sevilla. revistascientificas.us.es/index.php/IE/article/view/9129.

Erlazionatutako topikoak

Biodibertsitatea, Ekologismoaren historia, Sistema.

GARAPEN IRAUNKORRA

Ingurumenaren eta Garapenaren Munduko Batzordeak (CMMAD) honela definitu zuen «garapen iraunkorra» *Gure Etorkizun Komuna* (haren zuzendariaren ohorez Brundtland Txostena ere deitzen diote) dokumentuan:

> Garapen iraunkorra egungo belaunaldiaren beharrak asetzen dituen garapena da, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe. Garapen Iraunkorarren kontzeptuak funtsezko bi ideia hartzen ditu:
>
> — «beharrak» kontzeptua, bereziki pobreen funtsezko beharrak. Horiei lehentasuna eman beharko genieke;
> — ingurumenak egungo eta etorkizuneko beharrak asetzeko duen gaitasunak ezarritako mugen ideia. (CMMAD, 1989).

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1987ko abuztuaren 4an onartu zuen txosten hori.

Garapen Iraunkorra hitzaren jatorria bitxia da, ekogarapena hitza saihesteko sortu baitzen. Ignacy Sachsen hitzetan (1978), ekogarapena hitza Giza Inguruneari buruzko Nazioarteko Konferentziaren esparruan sortu zen (Stockholm, 1972), Konferentziako idazkari Maurice Strongen eskutik. Helburua zen esparru ekonomikoetatik bultzatutako eko-eko (ekologia-ekonomia) formula ordezkatzea.

Ekogarapena, beraz, garapen-estrategia bat zen, eta herrialde pobretuetako landa-eremuetako tokiko baliabideen eta nekazaritza-ezagutzen erabilera zentzudunean oinarritzen zen. Ekologikoki orekatutako ekonomia tradizionalaren oinarriek, antza denez, baliabide ekosistemikoak harrapakatzen zituen garapen predatzailea ekiditeko aukera egokiak eskaintzen

zituzten. Hala, Iparraldetik etorritako ereduak (kapitalistak zein sozialistak) errefusatzeko eta hobeto egiteko aukera emango zuten (Sachs, 1978).

Ideia hori garatzeko, Mexikoko Cocoyoc herrian Sinposium bat ospatu zen, eta haren emaitza Cocoyoceko Deklarazioa izan zen. Horretan, agerian geratzen da zaila dela giza beharrak asetzea presio handi baten pean dagoen ingurumen batean. Halaber, deklarazioak laburbildu egiten du pobrezia, gosea, analfabetismoa, osasuna eta etxebizitzarik eza bezalako gaietan izandako aurrerapenik eza, eta baliabideen narriaduraren arazoa ere lantzen du. Jarraian, garapenaren jomugak zein izan behar diren adierazten du (oinarrizko beharrak asetzea), eta nazioarteko ordena ekonomiko berri batean eta Estatuen Eskubide eta Betebehar Ekonomikoen Gutunean oinarritutako kudeaketa ekonomiko globalaren araberako jarduerak gomendatzen ditu.

Hala ere, H. Kissinger-ek ekogarapena hitza ordeztea eskatu zuen, hura Nazio Batuen barruan inoiz egindako adierazpenik erradikalena omen baitzen. Haren ordez, hain konprometigarria ez den sustainable development (garapen iraunkorra) terminoa proposatzen zuen. Azken hura, Sachs-en arabera, self sustainable growth (hazkunde auto-iraunkorra) kontzeptuari dagokio, Walt W. Rostow ekonomialariaren terminologia erabiliz. Harrezkeroztik, ekogarapen terminoa desagertu egin zen jokaleku politiko eta ekonomikotik.

Ingurumenaren eta Garapenaren Munduko Batzordeak (Brundlant Batzordea izenez ere ezagutzen da, garai hartan Norvegiako presidente Gro Harlen Brundlant baitzen Batzordearen zuzendaria) Gure etorkizun komuna txostenean (IGMB, 1989) garapen iraunkorra terminoa erabili zuen lehen aldiz.

Garapen iraunkorraren kontzeptuak, bi elementuren artean (ekologia eta ekonomia) sortutako tentsioari, hirugarren bat gehitzen dio; hain zuzen ere, dimentsio soziala, eta intersekzionatutako hiru zirkuluen eskema ospetsua sortzen du. Ildo horretan mugitzen dira hiru dimentsioak elkartzearen aldeko egile eta erakunde asko. Hala, hiru «E» ospetsuak ditugu: ekologia, ekitatea eta efizientzia. Horien helburu nagusia, bada, sistema ekonomiko kapitalistaren iraunkortasuna da.

Ingurumen-ekonomiaren esparruan edo Kapitalismo Berdean (joera horiek eragin handia izan dute nazioarteko erakundeetan) beste azpibanaketa bitxi batzuk topatzen ditugu:

- *Garapen iraunkor ahula*: iritzi-korronte horrek ingurumen-arloko gaiak kontuan hartzen ditu, aurrerapena eta ingurumen kudeaketa artikulatzeko ikuspegi erreformista sustatzen du, muga ekologikoak alda daitezkeela uste du, Naturaren ekonomizazioaren alde dago eta ikuspegi tekniko bat erabiltzen du.

- *Garapen iraunkor sendoa*: joera horrek kritika handiagoak egiten dizkio aurrerapena ulertzeko eta garatzeko modu ortodoxoari, naturaren ekonomizazioa du helburu, baina stock kritiko bat zainduta, eta ikuspegi tekniko-politikoa erabiltzen du.
- *Garapen iraunkor oso sendoa*: korronte horrek aurrerapen kontzeptua ere kritikatzen du, garapen-estilo berriak bilatzen ditu, Natura Ondarea terminoa erabiltzen du; Naturan berezko balioak aintzat hartzen ditu, eta ikuspegi politikoa sustatzen du.

Garapen iraunkorraren kontzeptua onartzeak esan nahi du ingurumen-baliabideen mugak, gaurko teknologiaren eta gizarte-antolaketa mugak eta biosferaren mugak onartzen direla, gizakion eraginei dagokienez.

Garapen iraunkorrak guztion oinarrizko beharrak asebete behar ditu, hala nola elikagaiak, etxebizitza eta lana. Baina benetako egoera bestelakoa da: pobrezia munduaren berezko ezaugarri bilakatu da eta endemikoa da, eta horrek hondamendiak eragiten ditu etengabe. Oso garrantzitsua da bestelako garapen-eredu bat lantzea, eta, horretarako, teknologia eta gizarte-antolaketa hobetu behar dira. Azken batean, gure bizimodua aldatzeaz ari gara.

1992an, Rioko Gailurra ospatu zen. Gailurrak mundu osoan Garapen Iraunkorra lortzeko helburua ezarri zuen, eta, aitortu egin zuen planetaren bizitza bermatzeko oreka bat lortu behar zela interes ekonomiko, soziala eta ingurumenekoen artean.

2015. urtean, Nazio Batuen Erakundeko Estatu kideek plan bat garatu zuten helburu hori lortzeko: Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda. Agendaren 17 helburuek —2030. urterako xede handiak dituztenak— garapen iraunkorraren hiru dimentsioak barne hartzen dituzte: ekonomia, gizarte-garapena eta ingurumena. NBEren esanetan (2023):

> Garapen iraunkorrak esaten digu nola bizi behar dugun gaur egun etorkizun hobea nahi badugu. Izan ere, egungo premiei erantzun behar diegu, baina etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak betetzeko izango dituzten aukerak arriskuan jarri gabe. Gure gizarteek eta planeta komunak irauteko mundu iraunkorragoa behar du.

Ikuspegi ekosozialetik hainbat kritika egin dizkiote kontzeptu horri. Redcliften iritziz (2001), «iraunkortasunaren» kontzeptua —zentzu existentzialista batean— «garapenaren» eremuan txertatzean, ingurumenaren diskurtsoa askotan erabiltzen da aurrerapenari buruzko oinarrizko ideia indartzeko eta ez ahultzeko».

Iraunkortasun hitzaren erabilera ekonomia- eta ingurumen-eremuan, gaur egun, «gizarte-zientzien esparrutik datozen modako terminoen inflazioan kokatzen da; termino horien anbiguotasunak arao gisa erabiltzen

dira, benetako munduko arazoak ulertzeko eta konpontzeko kontzeptu baliagarri gisa baino gehiago» (Naredo, 1998). Barcenak «anbiguotasun kalkulatua» aipatzen du, Brundtland Batzordeko kideen arteko konpromiso-formula gisa: batetik, «garapena-hazkundea» bikoteari garrantzi handiagoa ematen zioten horiek, eta, bestetik, muga naturalez, hau da, iraunkortasun ekologikoaz arduratutakoak (Barcena, 2002).

Griffinen iritziz (2001), eskema iruzurti edo faltsua da, ez baitu onartzen «esparru "ekonomiko" eta "sozialaren" bereizketa artifiziala dela». Zentzu berean, Bermejoren hitzetan (2005) «ezinezkoa da dimentsio soziala eta ekonomikoa bereiztea, ekonomia gizarte-zientzia baita; eta ezin da ulertu ingurumen-dimentsioa eta natura-ingurunearen babesa, hura narriatzen ari diren faktore ekonomiko eta sozialetatik bereizita».

Michela Mayeren iritziz (2002), garapena eta iraunkortasuna kontzeptu kontrajarriak eta bateraezinak dira, behintzat garapena beti haztea dela eta iraunkortasuna planetaren baliabideak gordetzea dela ulertzen bada. Riechmannen ustez (2012), «garapen iraunkorraren» kontzeptua etengabe degradatu da, eta zalantzan jartzen du garapen iraunkor kapitalista posible ote den. Hala, bere ustez, prozesu hori Iparraldean egin behar da batez ere, ondasun eta kontsumo-jardunbide antisozialak murriztuz. Carlos Taibok (2011) «garapen iraunkorra den txantxa astun hori» esaten dio zuzenean.

Oso garrantzitsua da garapenaren kontzeptuak duen konnotazio antropozentrikoa gainditzea. Horretan, gizakia erdigunean kokatzen da, eta bera da inguruaren zergatia eta zertarakoa. Aitzitik, bizitzaren balioa aintzat hartu beharra dago, nola edo ahala; izaera etnozentrikoko eta ekitateari eta justiziari lotutako balioak eskuratu behar ditugu; izaera androzentrikoa kontuan hartu behar dugu, emakumeen emanzipazioa; izaera logozentrikoa onartu behar du, planeta konplexu eta anitzaren ikuspegi multidimentsionala (tokiko eta munduko partaidetza demokratikoko aukerak zabalduz, kontuan hartuz kultura aniztasuna, planetaren mugak, baliabideak eta ekosistemen karga-ahalmenak, bizitza eta biodibertsitatea…).

> Ingurumen-hezkuntzaren eremuak ezin du alde batera utzi kolapsoedo proto-kolapso-egoera, non hezkuntza-erantzunak lanean ari diren (edo jardun beharko luketen). Egoera horretan, garapen iraunkorra eta Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza inpugnatu egin behar dira. Desazkundea, Hezkuntza Ekosoziala, trantsizioan dauden komunitateak eta beste ikuspegi batzuk, ekoizpen- eta kontsumo-modu nagusietan gizarte- eta ingurumen-krisiaren arrazoi sakonak identifikatzen dituztenak, legitimitate berarekin eta eraldatzeko ahalmen handiagoarekin sartu behar dira, gutxienez, Ingurumen Hezkuntzaren praxian. Hazkundea, azken hamarkadetan hegemonikoa izan den merkatu-ekonomia globalak ulertu duen bezala, baztertu egin behar da zalantzan jarri ezin den

> premisa gisa, ez sorraraz ditzakegun baliabideak zuzentasunez eta belaunaldi arteko ekitatez banatzeko, ez eta gure artean eta beste izaki bizidun batzuekin bizitzen eta elkarbizitzen ikasteko ere, bizi garen puntu urdin argi honen mugetan. (Meira y Gutiérrez-Bastida, 2024)

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) ONU. La Guía de los vagos para salvar el mundo**.** www.un.org/sustainabledevelopment/es/takeaction/**.**

(gaz) ONU. Aprendiendo sobre el desarrollo sostenible desde una edad temprana. www.un.org/sustainabledevelopment/es/student-resources/.

Erlazionatutako topikoak

Iraunkortasuna, Trantsiio ekosoziala, Nahikotasuna.

GIZARTE-JUSTIZIA

Gizarte justizia printzipio etikoa da, eta giza duintasuna, guztion ongia, elkartasuna edo aberastasunaren banaketa ekitatiboa bezalako printzipioetan oinarrituta, honako hauek bilatzen ditu gizarte global bidezkoagoa eta ekitatiboagoa eraikitzeko: gizarte-berdintasuna, aukera-berdintasuna, ekitatea, giza eskubideak, ongizate-estatua, pobreziarekin amaitzea, lan-aldarrikapenak, feminismoa, hezkuntza eta osasuna. Hori ezinbestekoa da gizabanako bakoitzak bakean bizitzeko eta bere burua garatzeko aukera izan dezan.

XIX. mendean, nabarmenak ziren Industria Iraultzaren ondorio sozial latzak, hala nola klase proletarioen pobrezia, osasungarritasun eta higiene falta eta hezkuntza beharra. Ondorio horiek protestak eta kezkak eragin zituzten klase politiko, akademiko eta erlijioso jakin batean, eta arazo horri «gizarte-auzia» deitu zioten. Gizarte auziaren esparru horretan, L. Taparelli apaiz jesuitak —Elizaren doktrina sozialaren sortzaileetako bat—, bere *Saggio teoretico di dritto naturale, appoggiato sul fatto* («Egitateetan oinarritutako zuzenbide naturalaren saiakera teorikoa») liburuan, gizarte justiziaren adierazpena sortu zuen. Bere esanetan, «gizarte justiziak gizon guztiak berdindu behar ditu, gizatasun eskubideei dagokienez» (Velasco, 2021).

Urte batzuk geroago, bokazio etiko argia duen termino hori Europako sozialisten artean erabiltzen eta zabaltzen hasi zen, eta mundu-politikara hedatu zen.

Terminoak bilakaera historiko propioa izan zuen, eta kontuan hartu zituen genero-berdintasunaren sustapena, giza eskubideen errespetua,

edota herritarrok gure garapen profesional eta pertsonal egokia bilatzean aurkitzen ditugun eguneroko oztopoak ezabatzea, hain zuzen ere, generoari, arrazari, erlijioari, kulturari edo desgaitasunari dagozkion horiek.

Gaur egun, muturreko polarizazio politikoaren eta populismo ultraeskuindarraren garaian, honako printzipio etiko hauetan oinarritzen da justizia soziala: gizarte-berdintasuna, aukera-berdintasuna, ongizate-estatua, aberastasunaren birbanaketa eta giza eskubideen, lan-eskubideen eta eskubide sindikalen defentsa. Horien bitartez, pobrezia, gosea, osasun-falta eta hezkuntza bezalako arazoekin amaitzeko helburua du.

Zenbait politika gizarte justizian oinarritu dira, hala nola hezkuntza-bekak, genero-berdintasunerako legeak, berdintasunezko ezkontzari buruzko legeak, trans legeak, desgaitasun-egoeran dauden pertsonen laneratzea, herri indigenen eskubideak zaintzea, etxebizitza soziala, etab.

Kontzeptu horren barruan, edo harekin estuki lotuta, justizia ekologikoa, klimatikoa edo animaliekiko justizia sortzen dira.

Justizia ekologikoaren arabera, beharrezkoa da gizakiok krisi ekologikoan dugun erantzukizuna aintzat hartzea. Halaber, neurriak hartu beharra dago, garapen ekonomikoan oinarritutako paradigma batetik giza garapen jasangarrian oinarritutako batera igarotzeko, hain zuzen ere, biosferaren zikloetara eta planeten mugetara egokitzen den paradigma batera.

Justizia klimatikoa, bestalde, mundu osoan klimaren aldeko mugimenduetan sortutako gizarte-eskakizunei dagokie. Horien arabera, krisi klimatikoa ezinbesteko faktore bat da pertsonen eta lurraldeen arteko desparekotasunak sortzean eta areagotzean, arazo etiko, sozial eta politiko gisa. Giza eskubideen eta eskubide zibilen aldeko mugimendua da, eta pertsona eta komunitate zaurgarrienak erdigunean jartzen ditu, klima ondorioei dagokienez.

Justizia klimatikoa, aldaketa klimatikoaren kausak eta ondorioak modu bidezkoan konpondu eta arintzeko printzipio etiko eta politiko, erabaki eta ekintzen multzoa da. Printzipio horien artean gizabanakoen, erakundeen eta gobernuen ardura bereizia dago, komuna baino. Ildo horretatik, Lehen Munduko herrialdeek klima-aldaketan izan duten erantzukizuna nabarmendu behar dugu, eta, horregatik, ezinbestekoa da herrialde horiek transferentzia ekonomikoak bideratzea herrialde pobreetara, beren ekonomiak modu jasangarrian eraldatu eta aldaketa klimatikoaren ondorioei aurre egin ahal izateko. Horretarako, beharrezkoa da zor ekologikoaren kontzeptua garatzea eta inplementatzea. Beste printzipio batzuk ere badaude, hala nola sistema sozioekonomikoen eraldaketa arrazional eta demokratikoa, justizia klimatikoa eta gizarte justizia uztartzea, elikadura burujabetza eta herrialde indigenen defentsa[70].

[70] gizapedia.org/justizia-klimatikoa

Justizia klimatikoak aldarrikatu egiten du planetaren gaur egungo suntsipen ekologikoak pobrezia eta desparekotasun sozialak eragiten eta betikotzen dituela.

Kontzeptu hori ezin da beste gizarte posible baterako bide honetatik bereizi: bidezko trantsizio ekosoziala.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(es-in) Environmental Justice. (s. f.). *Mapa Mundial de Justicia Ambiental*. ejatlas.org/.

(eus) Farapi Koop. Elkartea. Finantzaz haratago. ecosfron.org/wp-content/uploads/Finantzaz-hartago-eus.pdf.

(eus), Elkartasunerako Elkarcredit Elkarteak. Bonboa, kaxa eta finantza etikoak Rap musika, eraldaketa sozialerako tresna gisa. finantzazharatago.org/wp-content/uploads/Bonboa-kaxa-eta-finantza-etikoak-argitalpena.pdf.

(eus-gaz-in) Generación G. generacion-g.org/#SOMOS-ACCI%C3%93N.

(eus-gaz) UNEtxea (2022). Naciones Unidas y pueblos indígenas. unetxea.org/portfolio-item/naciones-unidas-y-pueblos-indigenas/.

(eus-gaz) UNEtxea (2023). Mobilizatu giza eskubideen alde! Mugi zaitez! / ¡Actívate por los derechos humanos! unetxea.org/portfolio-item/fichas-didacticas-para-la-exposicion-activate-por-los-derechos-humanos-mugi-zaitez/ / https://unetxea.org/eu/portfolio-item/mobilizatu-giza-eskubideen-alde-mugi-zaitez-erakusketarako-fitxa-didaktikoak/

(gaz) Escuela Global (2 de febrero de 2024). *Clase 2: Justicia klimatikoa*. escuelaglobal.org/lecccion/clase-2-justicia-climatica.

(gaz) Marisnaty-Corbella, Berta; Rius-Miralles, Joan, y Flores, Mariano (2021). *Propuesta didáctica para las jóvenes de educación secundaria. Actividades y recursos para transversalizar la temática a distintos ámbitos de la vida desde la justicia social*. Edualter. www.entrepueblos.org/wp-content/uploads/2021/12/Guia_EmergenciaClimatica_ES.pdf.

(gaz) Unesco. La justicia social en el aula. www.unicef.es/educa/dias-mundiales/dia-mundial-de-la-justicia-social#:~:text=La%20justicia%20social%20se%20basa,para%20una%20sociedad%20en%20paz.

Erlazionatutako topikoak

Ekoherritartasuna, Ekofaxismoa, Etika ekosoziala.

GLOBALIZAZIOA

Globalizazioa ekonomiak, gizarteak eta kulturak bateratzen dituen prozesua da, eta komunikazio teknologien aurrerapenean eta munduko herrialdeen arteko interakzioan oinarritzen da. Horretarako, aldaketa sozial, ekonomiko eta politiko batzuk ematen dira, eta horiek dira, hain zuzen ere, izaera orokorra edota globala ematen diotenak. Hala, produkzio-bideak eta kapital-mugimenduak planeta osoaren arabera itxuratzen diren heinean, gobernuek beren konpetentziak galtzen dituzte, «sareko gizartea» deritzonaren mesedetan.

Becken ustez (1998), «Estatu nazional subiranoak eragile transnazionalen bidez eta bakoitzak dituen botere-probabilitateen, orientazioen, identitateen eta hainbat bilbaduraren bidez nahasten eta inbrikatzen diren prozesuak biltzen ditu globalizazioak».

Lehen mugimendu globalizatzaileak XV. eta XIX. mendeen artean sortutako itsasoz haraindiko lehen inperioei lotuta daude. Esan dezakegu globalizazioa, lehendabizi, tesi ekologisten helburua izan zela; izan ere, hainbat herrialdetan ingurumenarekin sentsibilizatuta zeuden erakunde eta talde ekologistek mundu mailako ekimen bat eskatzen zuten, industrializazioak zeharkatuz. Baina beste kontzeptu askorekin gertatu den bezala, desarrollismoak hitz horren esanahia bahitu eta aldatu zuen.

Hala ere, globalizazio terminoa Theodore Levitt (1983) ekonomialari estatubatuarrak sortu zuen, *Merkatuen globalizazioa* artikuluan::

> Indar boteretsu batek komunitate bakar eta konbergente baterantz darama mundua. Indar hori teknologia da. Komunikazioa, garraioa eta bidaiak proletarizatu ditu, eta, bere erraztasunagatik eta kostu txikiagoagatik, munduko leku isolatuenetara eta talderik pobreengana heldu da. Ia pertsona guztiek, leku guztietan, bitarteko teknologiko berrien bidez ikusi edo esperimentatu dituzten gauzak nahi dituzte; teknologia horiek beren beharrak eta nahiak pizten baitituzte. Horrek gero eta gehiago, komunitate global batera garamatza, eta, beraz, toki guztietako merkatuak homogeneizatzen ditu.

Eta Levittek hori esan zuen ia ordenagailu pertsonalik ez zegoenean eta Internet AEBen arma sekretua zenean.

1980ko hamarkadaz geroztik, globalizazio prozesua eta hura garatzeko ahalegina ez da inolaz ere neutroa izan; aitzitik, bere eraginak erabat erabakigarriak dira herrialdeen zein kulturen etorkizunerako, baita gizarte horiek sostengatzen dituzten baloreei dagokienez ere.

Erantzun bateratua eta mundu mailako eragina duen fenomeno baten aurrean gaude, mota askotako ekintzetan oinarritzen dena: informazioaren nahiz hedabideen teknologietan, Internet bidezko komunikazio anitzean... hau da, sareko gizartean.

Globalizazioaren fenomenoak gizateriaren azken hamarkadetako historia markatu du, eta hainbat ingurumen-arazo suntsitzaile ekarri ditu berekin. Hala, planeta modu kezkagarrian degradatzen lagundu duten inpaktu ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak eragin ditu.

- Ekonomikoki, globalizazioak baliabide naturalen ustiapenean oinarritutako garapen-eredu bat sustatu du, planetaren mugak kontuan hartzen ez dituena. Irabaziak maximizatzeko etengabeko ahaleginak ekarri egin du baliabideak gehiegi ustiatzea, baso-soiltzea, airea eta ura kutsatzea, biodibertsitatea galtzea eta abar. Horrek, bada, kalte larria egin die ekosistemei eta ingurumen-krisiak eragin ditu mundu osoan. Gainera, baliabide naturalak agortzen eta klima-aldaketa eragiten dituen neurrigabeko kontsumoa sustatu du. Hala, batez ere garapen-bidean dauden herrialdeak kaltetu ditu, horiek baitira erantzukizun gutxien dutenak baina arazo horiek gehien pairatzen dituztenak.
- Sozialki, globalizazioak herrialdeen arteko desparekotasunak areagotu ditu, eta, horietan, hazi egin dira pobrezia, gizarte-bazterkeria, eta egoera ahulenean dauden komunitateek ingurumen-inpaktuen aurrean duten kalteberatasuna, besteak beste.
- Politikoki, globalizazioak botere ekonomikoa eta politikoa kontzentratzen lagundu du, enpresa eta herrialde gutxi batzuen eskuetan, eta horiek beren interesak inposatzen dituzte, herritar gehienen eta ingurumenaren interesen gainetik. Hala, estatuek enpresa transnazionalen jarduerak arautzeko eta kontrolatzeko duten gaitasuna ahuldu du, izan ere, horiek, maiz, giza eskubideak eta ingurumena errespetatu gabe jarduten dute, inolako zigorrik gabe.
- Kulturalki, globalizazioak tokiko kulturak homogeneizatu ditu, eta Mendebaldeko kontsumo- eta bizitza-ereduak inposatu ditu, nortasuna eta kultura-aniztasuna galtzea eragin dutenak. Gainera, natura merkantilizatzen lagundu du, baliabide naturalak kontsumo-ondasun huts gisa tratatuz, planetako bizitzarako funtsezko elementu gisa tratatu beharrean.

Globalizazioak hainbat ingurumen-arazo sortu ditu, eta arriskuan jarri ditu planetaren iraunkortasuna eta etorkizuneko belaunaldien bideragarritasuna. Beharrezkoa da egungo garapen-eredua birpentsatzea eta justizia soziala, ekitatea, ingurumenaren babesa eta kultura-aniztasuna sustatzen dituzten ekintzak sustatzea, mundu bidezkoagoa, solidarioagoa eta iraunkorragoa eraikitzeko.

Globalizazio prozesuak aldaketa garrantzitsu batzuk eragin ditu munduko dinamiketan:

- AEBen erabateko hegemonia geopolitikan, ekonomian, teknologia berrietan, arlo militarrean edota kulturan.
- Balio Estrategiko kontzeptuaren aldaketa.
- Nortasunaren krisia nazio-estatuan, Mega Estatua kontzeptuaren sorrera; globalizazioaren eragileen (Munduko Bankua, NDF edo MME) erabateko protagonismo aldaketa; globalizazioak dena homogeneizatu nahi du eta «ez-lekuak» agertzen dira toki guztietatik (Mayer, 2022).
- Babes sozial eta ekonomikorik gabeko aldaketa politikoak, liberalismorako joera dutenak; botere eta autoritate aldaketa.
- Pertsonalitatearen mutazioa, eta nortasun soziala eta politikoa galtzea; mutazio teknologikoa.

Aldaketa horiek guztiak kontuan hartuta, globalizazioak badu nolabaiteko hegemonia izaera (AEBen aldetik, batez ere). Kontzeptu horrek honako hauekin kontrastatzen du: autonomia, pertsonalitatea, nortasuna edota herrien burujabetza. Hori horrela, ez da harritzekoa galdera hau egitea: globalizazio ala globalitarismo prozesu baten aurrean gaude?

Askotan globalizazio hitza entzutean herri aberastuetatik txirotuetara eramaten den Internet, freskagarririk aipatuena eta abarrei buruzko burutazioak egiten ditugu. Baina, batez ere beste gauza batzuk eramaten dituzte: hondakin elektronikoak, produktu toxikoak, gaixotasun berriak…

Arazoen erroa lantzen ez duten erreakzioak ez dira inoiz konponbide izan. Adibidez, arrantza-lekuan arrain gutxiago harrapatzen badira ere, konponbidea ez da sare handiagoa erabiltzea, arrain urritasun horren zergatia aztertzea baizik, hor baitago erantzuna.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

«Globalitarismo» prozesu horren aurrean, Auzotasun Unibertsala erreklamatzen duen erreakzio bat sortu beharko litzakeela uste dugu, eskubide horren eskubide orokor jakinak aldatuko lituzkeena. Horren helburua, gure diskurtsoan adierazpide berriak sartzea litzateke, hala nola, internazionalismoa; hitzak duen elkartasunezko esanahia berreskuratuz.

Gure baitan ere baditugu berreskuratzen ari diren elkartasunezko ohiturak, hala nola auzolana. Gaur egun, Euskal Herrian, auzolanaren inguruko mugimendua gero eta indar gehiago hartzen ari da. Horri buruz gehiago jakin nahi izanez gero, egin diren topaketei buruzko informazioa dago sarean (www.gazteaukera.euskadi.eus/blog-sarrera/2013/auzolana-lehen-eta-orain/webgaz00-search/eu/).

Hona hemen globalizazioaren gaia lantzeko proposamen batzuk:

- Globalizazioak eragindako ingurumen aldaketa eta gizarte, kultura, ekonomia eta teknologia eraldaketak aztertzea eta deskribatzea.
- Munduan dauden desparekotasunen arrazoiak identifikatzea eta baloratzea.
- Erabiltzen ditugun arropak, tresnak, jostailuak edo janariak non egin dituzten begiratzea etiketan. Hala, horiek gugana heltzeko garraiatu diren distantzia kalkulatzea, eta horren ondorioez hausnartzea.
- Industria-jardueretan, eremuetan eta paisaietan gertatzen ari diren aldaketak deskribatzea; Euskal Herriko, Espainiako eta munduko ekoizpen-gune nagusiak non dauden kokatzea; eta azkenik, sektorearen egungo errealitatea aztertzea, industriaren deslokalizazioa eta ekonomiaren globalizazioa oinarri hartuta.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Ingurugela (2006): Kontsumoa: kalte guztien eragilea? *IHITZA 10*. www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ihitza0/es_def/adjuntos/ihitza_10.pdf.

(eus-gaz) Educaplay. [recurso interactivo] Globalizazioa. es.educaplay.com/recursos-educativos/?q=globalizazioa.

(eus-gaz) Edukalboan. Mugetatik haratago. recursoseducativos.ongdeuskadi.org/eu/recurso.php?id=93.

(eus-gaz) Ingurugela (1996): *Actividades económicas y medio ambiente*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Lurralde Antolamendua eta Ingurumen Saila. Gasteiz. www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/ud_primaria_ea/es_def/adjuntos/actividades_economicas1.pdf.

(gaz) Axial. Globalización. es.tiching.com/globalizacion/recurso-educativo/29235.

(gaz) Estévez, C. Voces contra la globalización. www.youtube.com/playlist?list=PLA9C2A7DF17D94AB1.

(gaz) Nodo Universitario. [recurso interactivo] Clase digital: Globalización. blogs.ugto.mx/rea/clase-digital-3-globalizacion/.

(gaz) Programa Paula: Comprometidos con la Educación para el Desarrollo. Etapa guztietarako proposamen bat: http://portalpaula.org/comprometidos-la-educacion-desarrollo/

(gaz) Read. La Globalización. www3.gobiernodecanarias.org/medusa/ecoescuela/recursosdigitales/2015/03/21/la-globalizacion/

(gaz) UNAM.[recurso interactivo] Globalización. uapas1.bunam.unam.mx/sociales/globaliza/.

Erlazionatutako topikoak

Zor ekologikoa, Ekosozialismoa, Azelerazio handia.

GOZAMENA GAUZA SINPLEETAN

Ikus *Borondatezko sinpletasuna*, *Nahikotasuna*.

GREEN NEW DEAL

Green New Deal edo «Itun Berde Berria», Franklin D. Rooseveltek sustatu zuen, 1933an AEBetako presidente bilakatu zenean, *New Deal* programa politikoari erreferentzia eginez sortutako terminoa da. AEBetako historiaren beste une horretan gertatu zen bezala, proposatutako neurri politikoak ezartzeko Estatuaren baliabide administratibo eta ekonomikoen mobilizazio handia egin beharra zegoen, eta hortik analogia.

Hala ere, terminoa zabaldu eta ohiko eslogan politiko bihurtu ahala, jatorrizko ñabardurak desitxuratu egin ziren, eta, azkenean, Estatuak ehun ekonomikoa deskarbonizatzeko asmoz egindako esku-hartzea adierazteko erabili zen. Deskarbonizazio-proiektu horrek, klima-politikaren eremu osoa hartu beharrean, berotze globala arintzeari dagokio bakarrik. Eskaintzaren aldetik, iturri berriztagarrietatik sortutako elektrizitatean oinarritzen da; eskariaren partetik, etxeen klimatizazioaren, garraioaren eta prozesu industrialen elektrifikazioan.

Helburuetan bat egiteko joera hori izan arren, ezin da esan *Green New Deal* delakoa proiektu bateratua eta homogeneoa denik. Aitzitik, hainbat *Green New Deal* daude, oso jatorri eta garapen zehatzak dituztenak, lan gutxi batzuetan identifika daitezkeenak. Genealogia horren bidez, azaldu dezakegu, batetik, bere agerpenaren testuingurua eta, bestetik, zer kasuetan izan zuen arrakasta.

Green New Deal terminoa *The New York Times* egunkariaren iritzizutabe batean agertu zen lehen aldiz (Friedman, 2007). Bertan, egilea kontzeptu horretaz baliatzen zen, honako hau adierazteko:, energia berriztagarriko iturrietara igaro nahi bada, Estatuak energia iturrien prezioen eraketan esku hartu behar du. Agerpen anekdotiko horretatik harago, Erresuma Batuko krisi ekonomikoaren testuinguru espezifikoaren lehen azterketa sakona urtebete geroago argitaratu zen (Green New Deal Group, 2008). Egileen artean hainbat ekonomialari eta parlamentuko kide garrantzitsu zeuden. Hala ere, proposamenak Erresuma Batuko ezkerra osoa interpelatu nahi zuen.

Taldearen arabera, herrialdeak bizi zuen finantza-krisi sakona aukera bikaina zen suspertzearen aldeko politika ekonomikoaren forma hartuko

zuen politika klimatikoa hedatzeko. Kasu horretan, krisi ekonomiko orok Estatuari ezartzen dizkion zereginak baliatu nahi zituzten, ehun ekonomikoa jarduera berdeetara bideratzeko; hala nola, jatorri berriztagarriko ahalmen elektrikoa handitzera. Horretarako, funtsezkoa zen kutsu keynestarreko diru-pizgarrietan -ez bakarrik zerga-pizgarrietan- oinarritutako programa handi bat abian jartzea, kreditua eta inbertsioa industria berdera bideratzeko, banku-sistemaren erregulazio berrien eta dirulaguntza jakin batzuen bitartez (Green New Deal Group, 2009).

Ia aldi berean, baina *Group* horren lan aitzindariak bultzatuta, Nazio Batuen Ingurumen Programak mundu-mailako *Green New Deal Global* baten beharra zegoela onartu zuen (UNEP, 2009). Britainiarren esparru berean kokatuta, erakundeak susperraldi ekonomiko berde baten alde egiten zuen. Krisi ekonomikoaren testuinguruan, gobernuek 2009ko eta 2010eko zerga-pizgarrien zati handi bat -munduko BPGaren % 1- azpiegitura berdea eraikitzera bideatzeko aukera zuten, hain zuzen ere, energia berriztagarriak, energetikoki eraginkorrak diren eraikinak eta garraio elektrifikatua. Nazioarteko zenbait politika berrikustea ere proposatu zen, mundu-mailako karbono-merkatu bateratuta eratzeko eta herrialde periferikoetara bideratutako transferentziak sistematizatzeko.

Iritzi publikoaren eremu zabal batengana heldu nahi zuen proposamen intelektual hori, laster, alderdi batek jaso zuen, hain zuzen ere Alemaniako Berdeak alderdiak (Worldwatch Institute, 2009). Aurreko garapenen ildotik -horiek ere aipatzen zituen-, txostenak «ekonomia eta ingurumena koiuntura kritikoan daudela» adierazi zuen. Alemaniarren eraginez, Europako Alderdi Berdeak ere bere egin zuen *Green New Deal* programa hura, urte horretan ospatutako europarlamenturako hauteskundeen ondoren (Wuppertal Institute, 2009).

Hala ere, horren ostean geldialdi bat iritsi zen, eta jatorrizko *Green New Deal* proiektua ahaztu egin zuten denbora batez, ez baitzuen ezkerreko alderdien programa inspiratzea lortu. Hala ere, proiektua hasieratik besarkatu zuten intelektual horiek hura garatzen jarraitu zuten, nahiz eta bere eragin politikoa txikiagoa izan zen. Aldaketa horren arrazoi nagusia izan zen krisiak sortutako abagunea -politika klimatikoa planteatzeko baldintzak ezarri zituena- beste irtenbide baten alde itxia zela ordurako: diru-pizgarri eta zerga-pizgarri kontserbadoreak. Horiek, bada, krisi aurreko ehun ekonomikoari eustea errazten zuten, eta birbanaketa-asmo oro blokeatzen zuten.

Baina, krisi finantzarioarekin batera, *Green New Deal*-aren aldeko apustua, teorizazioa eta defentsa politikoa inspiratzen zituen beste elementu bat zegoen, hain zuzen ere, klima-krisia eta, bereziki, berotze globala. Denborak aurrera egin ahala, klima-politikaren beharra areagotu egin zen. Horrela, 2018an, bederatzi urte geroago, *Green New Deal*-ari buruz idazten eta hitz egiten hasi ziren berriro. Orduko hartan, proposamena

Atlantikoaren beste aldean garatu zen hasiera batean, eta azaldutako lehen ziklo hartan egindako ahaleginek baino oihartzun politiko handiagoa izan zuen.

2018ko azaroan, *mid-term* estatubatuarren ostean, Sunrise Movement mugimenduak Nancy Pelosi bozeramaile demokrataren bulegoa okupatu zuen, jatorri berriztagarriko energiarako trantsizio azkarra bermatu beharko zuen *Green New Deal* bat eskatzeko. Alderdiaren ezker hegalak ordezkaritza ezaren sintoma gisa interpretatu zuen hori, eta politikoki kapitalizatzeko aukera ikusi zuen. Hala, Alexandria Ocasio-Cortez kongresistak babestutako ebazpen batekin erantzun zuen Ordezkarien Ganberan (Recognizing the duty of the Federal Government to create a Green New Deal, 2019). 2050. urtea karbono neutraltasuna lortzeko muga gisa hartuta, sektore horrek Estatuko aurrekontuaren kopuru handiak mobilizatzeko eskatu zuen, erregai fosilak mailaka ezabatzeko helburuarekin. Trantsizio energetikoak «bidezkoa» izan behar zuela azpimarratzen zuen, hau da, ezin zuela langabeziarik edo soldata baxuko enplegurik sortu, ezta gabezia edo prezioen igoera eragin ere.

Ebazpena printzipio politikoen adierazpen bat baino ez zen. Hala, Alderdi Demokratako kideak hura sustatzera gonbidatuz, eztabaida bereganatzeko helburua zuen. Testuinguru horretan, alderdiko ezker hegalak *Green New Deal* ideiaren bultzada aprobetxatu zuen, eta, alderdiaren primarioetan, Bernie Sandersen kanpainaren ardatz nagusi bihurtu zuen (Sanders, 2019). Aurreko zikloan, finantzen erregulazioak eta monetapolitikak zentraltasuna zuten; oraingoan, aldiz, gastu publikoa nabarmentzen zen. Hauteskunde-programa bilakatzean, ebazpenaren asmo lausoek forma hartu zuten, eta Gobernu Federalak finantzatu beharreko berrindustrializazio berdeko proiektu anbiziotsu bilakatu ziren. Helburuak argiak ziren: 20 milioi enplegu berri 2024. urterako eta elektrizitate guztia iturri berriztagarrietatik ekoiztea 2030. urterako. Horretarako, 16,3 bilioi dolarreko gastua aurreikusten zen lehendakaritza berrian zehar, hau da, 2019ko BPGaren % 75 baino gehiago.

Atlantikoaren beste aldean, aldi berean eta eskema bera jarraituta (hauteskunde-kanpaina bat lege-proposamen baten ondoren), *Green New Deal* proiektua politikaren lehen lerrora itzuli zen. Caroline Lucasek lege-proposamen bat aurkeztu zuen, Britainia Handiko ekonomiaren deskarbonizazio ahalik eta azkarrena lortzeko (Decarbonisation and Economic Strategy Bill, 2019). Lucas Alderdi Berdeko parlamentaria zen, baita *Group*-eko kidea ere. Hori dela eta, bere ekimenak mahai gainean jarri zituen taldeak askotan landutako hainbat gai; hala nola, banku- eta finantza-sistemaren erregulazioa, hain zuzen ere, inbertsioak azpiegituretara eta obra berdeetara erakartzeko. Proposamenaren ausardiak zail egiten zuen Alderdi Laborista osoaren atxikimendua lortzea, eta bere ezker hegaleko kide batzuena baino ez zuen izan. Hala ere, hori nahikoa izan zen 2019ko

laboristen manifestuan (hauteskunde-programaren antzeko dokumentua) lehen puntua «industria-iraultza berdea» izan zedin.

Hauteskundeei aurre egin behar izan zietenean, plataforma politiko horiek porrot egin zuten. 2019ko abenduan, Jeremy Corbynek Erresuma Batuko hauteskunde orokorrak galdu zituen, eta hilabete batzuk geroago, Alderdi Laboristatik kanporatu zuten. Bestalde, AEBetan, Bernie Sandersek, 2020ko apirilean, bere porrota onartu zuen Alderdi Demokrataren primarioetan, eta prozesutik irten zen. Horrela, *Green New Deal*-aren bigarren ziklo politikoa itxita geratu zen.

Hala ere, 2019ko abenduan, Europako Batzorde berriak iragarri egin zuen Itun Berde bat abian jarriko zuela (Consejo Europeo, 2025). Horren anbizioa *Green New Deal*-aren defendatzaileena baino askoz txikiagoa zen, eta Batzordearen legegintza- eta betearazpen-eskumenak ez ziren Europan programa eraldatzaile bat ezartzeko nahikoak. Politika horren garapena eta mugak aztertzea testu honen kanpo geratzen bada ere, aipatzekoa da legegintzaldi horretan EBk hainbat lege-ekimen eta aurrekontu-betearazpen egin zituela energia-iturri berriztagarrien instalazioa sustatzeko, pestiziden erabilera murrizteko, karbonoan intentsiboak diren altzairuaren eta aluminioaren inportazioak erregulatzeko edo barne-errekuntzako motorreko autoen salmenten amaiera ezartzeko.

Hala ere, 2020ko pandemiak eta 2022ko Ukrainaren inbasioak azkar berbideratu zituzten Europako Batzordearen lehentasunak. Erresuma Batuan, austeritate fiskala agendan dago. AEBetan Trumpen administrazio berria kapital fosilaren babesle nagusia da. Baldintzak aldatu egin dira; ez dira 2009koak, baina ezta 2019koak ere. *Green New Deal* proiektuaren hirugarren ziklorik izango da? Kapitalismoak eta berotze globalak dirauten bitartean, klima-politikak politika ekonomikoaren forma hartu beharko du, izena edozein dela ere.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Bernes, J. Entre la espada y el Green New Deal https://contraeldiluvio.es/entre-la-espada-y-el-green-new-deal/

(gaz) Martínez, R. & López, I. ¿El Nuevo Pacto Verde o el Viejo Bulo Europeo? https://ctxt.es/es/20200501/Firmas/32329/Ruben-Martinez-Isidro-Lopez-nuevo-pacto-verde-viejo-bulo-europeo.htm

(gaz-in) [Bideoa] Green New Deal. www.youtube.com/watch?v=GxIDJWCbk6I.

(in) [Web interactiva] Common Wealth: Green New Deal. www.common-wealth.org/interactive/green-new-deal-city.

(in) Medium: Green New Deal. medium.com/the-art-of-the-green-new-deal/the-art-of-the-green-new-deal-a-next-generation-journal-of--creative-culture-shift-d0a3608a65f9

Erlazionatutako topikoak

Antropozenoa, Ekonomia ekofeminista, Ekosozialismoa, Iraunkortasuna.

GREENWASHING

Bistan denez, ingelesetik hartutako hitza da. Ekologismoaren eremu kritikoek, kontsumitzaileen defentsarako elkarteek eta, gero eta maizago, komunikabideek ere erabiltzen dute hitz hura, ingurumenarekiko irudi arduratsua eman nahi duten enpresei buruz ari direnean; hain zuzen ere, enpresa horiek ingurumenarekin bateraezinak diren praktikak ezkutatzen dituztela salatzeko. Esan dezakegu kalifikatzaile hori erabiltzea enpresa horien zintzotasun korporatiboa gutxiesteko edo, gutxienez, zalantzan jartzeko modu bat dela.

Oxford hiztegiak honela definitzen du: «Erakunde batek ingurumena errespetatzen duen irudi publikoa aurkezteko emandako desinformazioa». Hura Greenpeacek argitaratutako definizio honekin osa dezakegu: «Kontsumitzailea engainatzea, enpresa baten produktuak eta helburuak ekologikoki arduratsutzat har ditzat».

Jay Westevel ikertzaileak sortu zuen kontzeptu hori. Westevelek, 1986an, salatu egin zuen hotel batzuek toallak berrerabiltzera animatzen zituztela bezeroak, ustez, ura aurrezteko helburuz. Haien benetako helburua, ordea, garbiketan dirua aurreztea zen. Nolanahi ere, *grenwashing* terminoa 1980ko hamarkadan sortu zen arren, praktika hori zaharragoa da. Izan ere, horren adibide bat aurkitzen dugu 1884an Estatu Batuetan sortutako Westinghouse elektrizitate konpainian. Enpresak bere segurtasunari eta ingurumenerako kaltegarriak diren jarduerei buruzko salaketak desbideratzen saiatu zen, bere planta nuklearren garbitasuna eta segurtasuna erakusten zuten iragarkien bidez. 1961ean eta 1966an, bi istripu gertatu ziren lantegi horretan, hainbat heriotza eragin zituztenak. Hortaz, enpresa hura *grenwashing* praktika erabili zuten lehen enpresetako bat dela uste da.

1990ko hamarkadan, Greenpeace izan zen praktika horiei buruzko txostenak egin zituen lehen erakundeetako bat. Txosten horiek oihartzuna izan zuten batez ere Estatu Batuetako gizartean. Espainian, *Ecologistas en Acción* taldearen «*Consume hasta morir*» txostena izan zen *grenwashing* horri buruzko lehenengo ikerketa-proiektu ezagunetako bat, 2005ean.

Lan horrek ondorioztatu zuen merkatuan eskaintzen ziren produktuen % 95ek praktika horren zantzuak zituztela.

Wikipediaren euskarazko bertsioak «Zuriketa berde» terminoa erabiltzen du *grenwashing* hori azaltzeko[71]. Ikus dezagun zer informazio ematen duen:

> Zuriketa berdea erakunde batek bere jarduera ingurumena errespetatuz burutzen duela zabaltzeko egiten dituen gezur eta iruzurrezko ahaleginen multzoa da, jendaurrean bere irudi korporatiboa hobetzearren».

Sasi-ekologismo mota horrek hainbat ahalegin egiten ditu: produktu baten izena edo etiketa aldatzen dute, ingurumenean edo osasunean duen eragina aldatu gabe natura-ingurunea gogora ekartzeko, eta milioi askoko publizitate-kanpainak egiten dituzte, oso kutsatzaileak diren eta natura errespetatzen duten enpresak erretratatzeko.

Azken batean, *White Wash* edo irudia zuritzearen bilakaera da. Esanahi positiboa duten hitzak publizitate-erabileretarako baliatzea da, hala nola, jasangarria, berdea, ekologikoa, organikoa, naturala, bio, *ecofriendly*, birziklagarria, eta abar. Askotan ez dago publizitate-etiketa horiek bermatzen dituen agentzia, lege edo araudirik. Ondorioz, termino horien erabilerari buruzko mesfidantza sortzen ari da kontsumitzaileen artean. Gainera, kalte egiten die ingurumena, haurrak, langileen eskubideak eta abar benetan errespetatzen dituzten produktuak eskaintzen dituzten enpresei. Horixe da, hain zuzen ere, proiektu agroekologikoen kasua. El País (2024) egunkariak iraunkortasun-ziurtagiriei buruzko «*La controversia de los sellos de sostenibilidad» cuando ni son tan verdes, ni garantizan menor impacto*» artikuluan argitaratu duen bezala, adierazgarria da 456 ziurtagiri egotea 25 kontsumo-sektorerentzat —horien artean moda— eta gehienen helburua markaren irudia garbitzea izatea. Izan ere, oso gutxik argitzen dute jantzi bat benetan jasangarria den. Erresuma Batuko Changing Markets elkarteko Urska Trunkek adierazi duenez, «zuriketa ekologikoaren» taktikak arropa gehiago erostera bultzatzen du jendea, arropa horiek makina magikoren batean birziklatu daitezkeelakoan[72].
Wikipediak –bere gaztelaniazko bertsioan– konpainien zuriketa berdeko edo ekoiruzurreko praktika hauek aipatzen ditu:

---

[71] https://es.wikipedia.org/wiki/Ecoimpostura

[72] «Taktika komun bat da artikuluak «jasangarri» edo «arduratsu» gisa etiketatzea, baina baieztapen horiek babesten dituzten ebidentziarik eman gabe». Trunken arabera, gehien errepikatzen den *greenwashing* prozedura bat da jantzi bat birziklatu edo birziklagarri gisa etiketatzea. «Hala ere, hainbat zuntz mota dituzte, eta, horren ondorioz, horiek birziklatzea zaila edo ezinezkoa da». Bezeroak ez du zertan iraunkortasunean aditua izan, eta zenbait erreklamoren gainazalean geratzen da.

- Esanahi argirik ez duen terminologia erabiltzea. Adibidez: ekoarduratsua.
- Ustez «berdeak» diren produktuak merkaturatzea eta, aldi berean, ingurumena gutxi errespetatzen duten ekoizpen-prozesuak mantentzea. Adibidez, ibai bat kutsatzen duen fabrika batean sortutako «bio» kosmetiko bat saltzea.
- Inpaktu berde batean pentsatzera gonbidatzen duten irudi iradokitzaileak erabiltzea. Adibidez, tximinietatik loreak botatzen dituen fabrika baten irudia.
- Produktu baten alderdi «berde» bat nabarmentzen duten leloak erabiltzea, nahiz eta produktu horren gainontzeko alderdiak edo enpresa berak eskaintzen dituen produktu gehienak eta lortzen dituen diru-sarrerak berdeak ez izan. Adibidez, petrolio- edo gasenpresek (Repsol[73] edo ENI, esaterako) bioerregaiak, gasa edo hidrogeno berriztagarria sustatzen dituzte.
- Konparatibak egitean, iragarleak bere esparruko onena dela esatea. Adibidez, petrolio enpresa batek esatea bera dela gutxien kutsatzen duena.
- Adituek bakarrik uler ditzaketen hitz teknikoegiak erabiltzea.
- Hirugarrenen edo ziurtagiri baten bermea erakusten duten etiketak erabiltzea.

Bestalde, Greenpeacek honako modalitate hauek aipatu ditu «*Stop Greenwashing*» (Alejos, 2013) izeneko kanpainan:

- Negozio zikina. Enpresak produktu ekologikoa aurkezten du, baina horri lotutako jarduera nagusiek ez dute ingurumena errespetatzen.
- Publizitate engainagarria. Publizitatea kontsumitzailearen arreta bereganatzeko tresna gisa erabiltzen dute, eta, horretan, beren lorpenak erakusten dituzte. Askotan, horiek puztu egiten dituzte eta, aldi berean, ezkutatu egiten dituzte ingurumen-arazorik garrantzitsuenak.
- Biraketa politikoa. Enpresa batek ekimen jasangarriak proposatzen ditu, eta, aldi berean, ingurumena babesteko araudia egiten duten erakundeei presioa egiten die.
- Legea betetzea. Enpresa batek herrialde bakoitzean indarrean dagoen ingurumen-legeria betetzen du, besterik ez, baina hori lorpen pertsonal gisa iragartzen du.

[73] Repsolek, 2024ko publizitate-kanpaina batean, ustez «berriztagarria» den erregai bat iragarri du: «Zure betiko erregaia, orain % 100 berriztagarria» (https://www.repsol.es/particulares/vehiculos/carburantes/combustibles-renovables/).

Carro de Combate elkarteak, bere *Blanqueo de Ropa. Los numerosos «lavados de reputación» de la industria de la moda* (Arropa zuritzea. Modaren industriaren «izena zuritzeko» ahalegin ugariak) txostenean, modaren *greenwashing* adibide batzuk aztertzen ditu[74]. Klima Aldaketari buruzko Konferentziaren (COP26) ondoren, H&Mk produktu-lerro bat merkaturatu zuen *Conscious* etiketarekin. Norvegiako Kontsumo Agintaritzak engainagarritzat jo zuen hura, «jasangarri» izateko adierazpen batean oinarritzen baitzen, baina informazio hori ez zegoen kontsumitzailearentzat eskuragarri eta ez zen ulergarria.

Beste adibide bat *Innovation Circular Design Story* bilduma da. Hura monomaterialez (lehengai bakarrez) eginda dago, eta birziklatzea errazteko pentsatuta dago. Changing markets erakundeak salatu du hura «konponbide faltsua» dela, materiala poliesterra baita. Hau da, industria petrokimikotik datorren plastikoa da, klima-aldaketaren kausa nagusia eta, gainera, garbiketan ehunka mila mikroplastiko askatzen dituena.

Hirugarren kasu bat Inditex taldearen Oysho markarena da. 2020an Yoga & Meditation jantzien lerroa merkaturatu zuen, BC (hau da, *Better Cotton*) ziurtagirirako trantsizioan zegoen kotoi organikoan oinarrituta. Baina ziurtagiri hori oso polemikoa da, izan ere, kotoi transgenikoa baimentzen du eta Xinjiangeko (Txina) uygureen lan esklabizatuaren eskandaluari lotuta egon da. Bestalde, deigarria da Inditex enpresak *Join Life* deitzea Inditexek berak ezarritako estandar bati. Horrek bere burua eta bere iraunkortasuna ziurtatzeko helburua du, baina ez du bere metodologia zehazten; beraz, izen engainagarri hori erabiltzen du marka guztietan *greenwashing* egiteko..

Termino erakargarri horien jabetzea muturreraino irits daiteke, Adibidez, Iberdrolak iraunkortasunari buruzko webgune bat du[75]. Bertan, «GIHak [NBEk babestutako Garapen Iraunkorrerako Helburuak] bultzatzeko eta klima-aldaketa ekiditeko liderrak» direla adierazten dute. Webguneak ekonomia zirkularrari, jasangarritasunaren kudeaketari, gardentasunari, konpromiso sozialari, berrikuntzari eta beste gai batzuei buruzko fitxak ditu. «Trantsizio energetikoa» fitxan, *greenwashing* praktikei buruzko informazio hau ematen du, praktika horien arriskuari buruz ohartarazteko:

> Gero eta zabalduago dagoen praktika bat da *greenwashing*a. Horren bidez, konpainia batzuek aditzera ematen diete kontsumitzaileei beraiek edo beren produktuak jasangarriak direla. Hori lortzeko, gezurrezko edo

[74] https://www.carrodecombate.com/2022/11/02/el-greenwashing-de-la-moda-en-3-ejemplos/

[75] https://www.iberdrola.com/sostenibilidad. BBVA también dispone de una web similar: https://www.bbva.es/finanzas-vistazo/sostenibilidad/greenwashing-practicas-sostenibles-de-forma-enganosa.html

> zalantzazko baieztapenak erabiltzen dituzte. Garrantzitsua da erabiltzaile kontzienteek praxi hori detektatzen jakitea; izan ere, benetazko trantsizio ekologikoa bakarrik lortuko da ingurumenarekin, energia berriztagarriekin eta ekonomiaren elektrifikazioarekin eta deskarbonizazioarekin benetan konprometitutako erakundeen eskutik. Ekintza eta neurri zehatz eta kuantifikagarriekin, epe jakin batean egitekoak.

Hara, Iberdrolak, Espainiako eta beste herrialde batzuetako oligopolio energetikoan parte hartzen duen enpresak, «enpresa batzuen» jardunbide engainagarriez ohartarazten digu, ingurumena zaintzearekin benetan konprometituta dauden beste erakundeekin alderatuta.

Volkswagenek izan zuen *greenwashing* eskandalu deigarrienetako bat, *Dieselgate*, alegia. Enpresak, bere autoen ingurumen-onurak goraipatzen zituen marketin-kanpaina egin zuen, baina argitara eman zen enpresaren hamaika milioi unitatek, gutxienez, kutsatzaileen isurketa proba bat egiten ari ote zioten detektatzeko softwarea instalatuta zutela, emaitza faltsutzeko. Gero, zirkulaziora itzultzean, ibilgailu horien isuriek berrogei aldiz gainditzen zituzten nitrogeno oxidoaren legezko mugak. Eskandalu hori enpresak berak onartu zuen, baina ondorio negatibo handiak izan zituen enpresaren izenean, ingurumenean eta herritarren osasunean, arnas gaixotasunei dagokienez.

Gaur egun, gero eta kontzientzia handiagoa dago ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko beharrari buruz. Horrez gain, erakunde independenteek gehiago kontrolatzen dute enpresen jarduera. Presio horien ondorioz, konpainia batzuek *greenhushing* (isiltasun berdea) estrategia erabiltzen dute; hau da, ingurumena babesteko egiten dituzten jarduerei buruzko informazio gutxi ematen dute, kritikatuak ez izateko.

Administrazio publikoak berak ez dira oso arduratsuak jarduera jakin batzuen inpaktu-maila kontrolatzeko edo ziurtatzeko orduan. Adibide bat da ibilgailuen kodeen araberako bereizketa, gehienetan zigorrik gabe zirkulatzeko aukera ematen dietena, nahiz eta oso kutsatzaileak izan. Gauza bera argudia daiteke etxebizitzen energia-ziurtapenari dagokionez. Hura ezinbesteko baldintza da hori saltzeko edo alokatzeko, baina izapide hutsa bihurtu da. Ziurtagiri horren bidez jakinarazten da gehienek ez dutela oinarrizko isolamendurik, eta, beraz, berotegi-efektuko gasen emisio-iturri direla («f» edo «g» kalifikazioak). Hala ere, ez ditu jabeak behartzen neurri zuzentzaileak hartzera edo etxea merkatutik kentzera.

Bestalde, ekoitxurakeria komertzialaz gain, *greenwashing* estrategiak indar handiz sartu dira gizarteko beste esparru batzuetan, batez ere politikoetan.

Alde batetik, erakundeen eremuan, gobernu-egiturek ingurumena zaintzeko erantzukizun-irudia eskaintzen duten hainbat sail eta zinegotzi ezarri dituzte.

Gaur egun, ohikoa da gobernu-organigrametan honelako ministerioak aurkitzea: garapen iraunkorra eta ingurumena, garapen soziala eta habitata, ingurumena eta ura, iraunkortasuna, garraioak eta mugikortasun iraunkorra, klima-aldaketa eta trantsizio energetikoa, garapen iraunkorra eta ingurumena, etab. Izendapen horiek errepikatu egiten dira Espainiako autonomia-erkidegoen eta udal nagusien kasuan (iraunkortasuna eta ingurune naturala, lurraldea eta iraunkortasuna, garapen iraunkorra eta ingurumenaren kontserbazioa, klima-aldaketa...). Baina kasu gehienetan *greenwashing* politikoa besterik ez da. Hori honako hauetan ikusten da: sail horien aurrekontu-garrantzi eskasa, hazkunde ekonomikoaren alde egiten duten ildo politiko liberalen aurrean duten bigarren mailako eginkizuna eta, nola ez, sail horietako politikarien eta talde teknikoen profilean. Ekoitxurakeria politiko hori aldian-aldian berragertzen da hauteskunde-aldietan. Une horietan, alderdi lehiakideek promesak egiten dituzte beren programetan, eta ahaztu egiten dituzte botoak zenbatzeko gau berean.

Beste erakunde batzuek ildo horri jarraitzen diote, itxurazko berdetze-politika baten bidez. Adibidez, hondakinak biltzeko koloreen bidez bereizitako ontziak jartzen dituzte unibertsitateetan, aireportuetan edo merkataritza-guneetan, baina ez dituzte ingurumen-inpaktuaren funtsezko alderdiak aldatzen.

Era berean, noizean behin, *greenwashing* estrategia jardunaldi, kongresu, urteurren edo nazioarteko egunetan agertzen da. Izan ere, erakundeek honako hauen beharrari buruzko adierazpenak egiten dituzte: klima-aldaketari aurre egitea, ekonomia zirkularreko politikak ezartzea, deskarbonizazioa eta energia berriztagarriak bultzatzea, eta abar. Adierazpen horietan, herritarrei eskatzen diete arazoen konponbidearen ardura beren gain har dezaten, ingurumen arazoen eragile nagusiak izango balira bezala. Eta, amaitzeko, konpromiso edo adierazpen serio bat sinatzen dute. Praktika horien adibide dira gobernu-erakunde gehienek larrialdi klimatikoaren aurrean edo urteroko COPetan (Klimaren Munduko Goi Bilera) egiten dituz adierazpenak.

Eremu hurbilean, Urdaibaiko Biosfera Erreserban bi egoitza izango dituen Guggenheim museo berri bat eraikitzeko proiektuan *greenwashing* politikoaren adibide bat aurkitzen dugu. Proiektu hori Bizkaiko Foru Aldundiak eta Solomon Guggenheim Fundazioak babesten dute, eta «artea eta natura» izenpean, bi elementu horien arteko lotura irudikatu nahi du. Baina museoaren eraikuntzak, batez ere paduren ertzean bertan egongo liratekeen Muruetako eraikinak, arriskuan jarriko luke espazio hori. Kontuan izan behar da hura Biosfera Erreserbaren babes goreneko gunea dela, Unescok gizateriaren ondare gisa aitortua, baita Europar Batasunak (Natura 2000 Sarea) eta hegaztiak babesteko Ramsar nazioarteko hitzarmenak ere. Naturaren balioespena eta abangoardiako arte-sorkuntzarekin duen harremanaren sustapena goraipatu nahi badu ere, proiektuak negozio tu-

ristiko bat ezkutatzen du, udan bakarrik 140.000 bisitari baino gehiago erakarriko lituzkeena (sustatzaileen kalkuluen arabera).

Jendetza horrek ingurumen-inpaktu latza eragingo luke babes-estandar handienak behar dituen eremu batean. Gainera, azpimarratzekoa da proiektuaren kudeaketan demokrazia falta larria dagoela. Ondorioz, tokiko biztanleak baztertu dituzte, eta museoa eraikitzea oztopatuko luketen legeak eta araudiak *ad hoc* aldatu ere. Gainera, funts publikoekin egitea aurreikusita dago, erakunde pribatu baten mesedetan.

Kapitakismoak berak ere aurpegia garbitzeko grina hori du. Eragile askok ulertzen dituzte planetak bizi duen krisi-egoera orokorra, biodibertsitatearen galera, klima-aldaketa eta gainerako zorigaitzak, baita hazkunde-ereduarentzat mehatxu horiek dakartzaten arriskuak ere (batzuk oso errealak eta gaur egungoak). Beraz, kapitalismoaren aldekoek kapitalismo berdera bideratzeko proposamenak egiten ari dira aspalditik. Proposamen horiek, funtsean, Iparralde Globaleko aukera politiko sozialdemokratek eta alderdi liberal eta berde batzuek aldarrikatzen dute. Akaso Europa izango da eredu horren gidari nagusia. Horri dagokionez, interesgarriak dira Alfons Pérezek 2019ko Europako Itun Berdeari buruz egindako gogoetak. Izan ere, Ituna Europako politika ekonomikoen bihotzean dago. Europar Batasunak, neokolonialismo berde bat ezkutatzen du ekonomia eredu jasangarri baterako trantsizio berdearen atzean. Hain zuzen, Europak ez dituen lehengaiak bereganatu nahi ditu; izan ere, nazioarteko beste eragile batzuekin lehian dago, eta, gainera, besteek dute abantaila, batez ere Txinak eta Ameriketako Estatu Batuek. COVIDaren ondoren, Europar Batasunak NextGenerationEU zor-fondoak jaulki zituen. 800.000 milioi euro baino gehiago pandemiaren susperraldi ekonomiko berde eta digitalerako. Gero, Ukrainako gerrak arriskuan jarri du Errusiako gasaren hornidura mendebaldeko herrialdeetan, eta hainbat neurri hartzera eraman du Europar Batasuna: Alemanian ikatz meategiak berehala irekitzea, Italian ikatzarekin elektrizitatea sortzea, Frantziak zentral nuklear berriak eraikitzeko erabakia hartzea... eta gas naturala eta energia nuklearra energia berdeen zerrendan sartzea. Azken batean, Alfons Pérezek ondorioztatzen du Europako Agenda Berdea hazkunde-estrategia berri bat bihurtu dela, kapitalismo berdearen tesiak indarrez babesten dituena. Gainera, agenda sekuritario eta militarista da, hornikuntza-kate globalak hautsi direlako eta energiarekiko, materialekiko eta teknologiarekiko mendekotasun handia dutelako.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Red Alimentacción. Larrialdietarako kita. Mentira podrida. Publizitatean gehien erabiltzen diren elikadura-gezurrak. redalimentaccion.org/recurso-educativo/mentira-podrida-publizitate-engainagarria-elikaduran/.

(eus) Red Alimentacción. Nork ematen digu jaten? Gure osasuna eta planetarena multinazionalen eskuetan. Lehen Hezkuntzan Elikadura Burujabetza lantzeko Unitate Didaktikoa. redalimentaccion.org/recurso-educativo/nork-ematen-digu-jaten-gure-osasuna-eta-planetarena-multinazionalen-eskuetan-lehen-hezkuntzan-elikadura-burujabetza-lantzeko-unitate-didaktkoa/

(gaz) Fuhem. Materiales didácticos para trabajar el uso sostenible de los recursos naturales en todas las etapas. www.economiasolidaria.org/wp-content/uploads/2021/11/gu%C3%ADa-recursos-did%C3%A1cticos-recursos-naturales.pdf.

(gaz) Hegoa/UPV-EHU. Taller sobre Etiquetado de alimentos. redalimentaccion.org/recurso-educativo/taller-sobre-etiquetado-de-alimentos/.

(gaz) Photovoice para el cambio climático. Greenwashing.

Erlazionatutako topikoak

Krisi ekosoziala, Garapen iraunkorra, Balioak.

H

HEZKUNTZA EKOSOZIALA

Egungo krisialdi ekosozialaren aurrean, eta ingurumen hezkuntza abiapuntu hartuta, justizia soziala eta planetaren mugak aintzat hartzen dituen hezkuntza eraldatzailea da hezkuntza ekosoziala.

Ikuspegi horrek gizakiaren hausnarketa eta ekintza ororen erdigunean bizitza jartzen du. Eta bizitza erdigunean jartzeak espezie gisa gure existentzia markatzen duten bi printzipio onartzea esan nahi du, hain zuzen ere, gizakia interdependentea eta ekodependientea dela.

Hezkuntza ekosozialak gizarte eta ingurumen krisiari prestakuntzako erantzuna ematea du helburu, gure artean eta naturarekin erlazionatzeko moduetan aldaketak eragiteko. Aldaketak baloreetan, tokiko mailan zein maila globalean, biosferaren eta gizakion arteko harremana errazten dutenak. Aldaketak jakintzetan, eta gizartea eta ingurumena ezagutzeko, irudikatzeko, interpretatzeko eta komunikatzeko moduetan. Aldaketak biztanleen jokabideetan, ohituretan eta gaitasunetan, beren bizimoduetan eta garapen-prozesuetan. Eta aldaketa sozialak, herritarrak eraldaketa politikoak gauzatzeko mobiliza daitezen.

Eta hori lortzeko bidean hezkuntza ekosozialak zenbait alderdi eta erronka jorratzen ditu: eredu kontsumista lantzen du, naturaren suntsiketaren eta gatazka belikoen aurka borrokatzen da; giza eskubideen urraketari, desberdinkeriari eta pobreziari aurre egiten die; generoa, desgaitasuna, identitatea, jatorria, adina, erlijioa edo kultura sustatzen ditu; emantzipazioa eta haurtzaroa ahalduntzen ditu; eta honako hauek ezabatzeko lan egiten du: axolagabekeria eta sumindura, lan-prekarietatea, migrazio behartua eta zaintza-lanen krisia.

Hezkuntza ekosozialaren oinarrizko elementuak honako hauek dira:

- Bizitzaren zentralitatea. Manu etiko horrek ekonomia gaur egun erabakiak hartzen dituen zentrotik aldentzen du, eta haren ordez bizitza, prozesuak, bilakaera, aniztasuna, beharrak eta zaintzak jartzen ditu. Maxima horrek bi printzipio aitortzen ditu:
  - — Interdependentzia: ulertu behar dugu baliabide naturalak mugatuak direla; hala, ezinbestekoa da elkartasuna eta justizia soziala bezalako baloreak bereganatzea, baliabideen zaintza eta komunitatearen babesa bermatzeko.
  - — Ekodependentzia: izaki bizidunak, oro har, eta gizakiok bereziki, natura behar dugu. Izan ere, gizakiok gure jarduetarako erabiltzen ditugun baliabide eta ondasun guztiak naturan dute oinarri. Hala ere, natura muga fisikoei lotuta dago eta, beraz, gure bizitza ere.
- Ikasleen ezinbesteko protagonismoa. Ikasleek eginkizun aktiboa izan behar dute ikaskuntza-prozesuan. Ikasleen kontzepzioak, ekimenak eta parte-hartze aktiboa dira ardura pertsonal zein kolektiboak hartzeko abiapuntua.
- Ekintza eraldatzailea. Ikastetxeko edo inguruko alderdi ekologiko eta sozialen gaineko ekintza bateratua, baita pentsatzeko moduaren eraldaketa ere.

Azken urteotan hezkuntza ekosozialaren paradigmak bere presentzia indartu du, krisialdi ekosozialaren diagnostikoarekin batera. Horren ondorioz, ingurumen hezkuntzak, lehenengo, eta jasangarritasunerako hezkuntzak, gero, bidea eman diote hezkuntza-erronka berri horri, modu natural batean, hau da, lehia eta etena sortu gabe. Izan ere, hezkuntza ekosozialak ezinbestez jorratzen ditu ekodependentzia eta interdependentzia, bizitza erdigunean jarri nahian.

Hezkuntza ekosoziala eraikitzen ari den eremua da —izenburuan «hezkuntza ekosoziala» terminoa duen lehen erreferentzia bibliografikoa 2017koa da— eta oraindik ere eztabaidak daude hainbat ikuspegiren artean. Batzuk hazkunde ekonomikoan zentratzen dira, beste batzuek garapen jasangarriari aurre egiten diote, beste batzuk desazkundean oinarritzen dira, eta azken batzuek etikan (edo bere faltan) jartzen dute arreta. Kontua da zer hartzen den diagnostikoaren oinarri gisa.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Antúnez, A., y Quiroga, E. (2023). *Jasangarritasunerako hezkuntza ikaskuntzaegoeren bidez. Irakasleentzako gida teoriko-praktikoa*. Unesco Etxea. unetxea.org/eu/portfolio-item/jasangarritasunerako-hezkuntza-ikaskuntzaegoeren-bidez-irakasleentzako-gida-teoriko-praktikoa/.

(eus-gaz) [Bideoa] UIK. Hiztegi jasangarria: hezkuntza ekosoziala / Diccionario sostenible: Hezkuntza ekosoziala.

(eus-gaz) Alboan y Entreculturas. *Guztion etxearen defendatzaileak*. Amazonia gara. www.somos-amazonia.org/eus/.

(eus-gaz) Zabalketa. Konpetentzia ekosoziala / Competencia ecosocial https://zabalketa.org/eu/proyecto/competencia-ecosocial / https://zabalketa.org/proyecto/competencia-ecosocial/

(eus-gaz) Alboan. Edukalboan. www.edukalboan.org/es/materiales-educativos.

(gaz) [Bideoa] Cátedra Unesco de la Universidad Veracruzana de Educación y Sustentabilidad. Hezkuntza ekosoziala en el Antropozenoa. [Bideoa] youtu.be/D85-fZNyZ98?si=ydSeOXlpUrLGrAu5.

(gaz) [Bideoa] Museo Reina Sofía. Pedagogías del mañana 2. Proyectos de Educación Ecosocial en la escuela. http://youtube.com/watch?v=jCjHZdK2uSI.

(gaz) [Bideoa] Sobrevivir al Descalabro. Hacia una Educación Ecosocial. d.docs.live.net/a7f953d08de37110/Documents/2025/0-HEZEKOS/0-JasotakoHitzak/Mak/Hacia%20una%20educación%20ecosocial

(gaz) [Bideoa] Sociedad Iberoamericana de Pedagogía Social. Mesa redonda / Coloquio: Educar para la (trans)formación ecosocial. www.youtube.com/live/vTrMOCyKxUQ?si=K7ms86JR2unWmmGk.

(gaz) Assadourian, E. (2017). *Educación Ecosocial. Cómo educar rente a la crisis ecológica. La situación del mundo 2017. Informe anual del Worldwatch Institute*. Madrid: Fuhem Ecosocial e Icaria Editorial.

(gaz) Chuliá, C., Morán, Ch. & González Reyes, L. (2024). *152 propuestas para situaciones de aprendizaje ecosociales*. Fuhem. www.fuhem.es/2025/01/10/152-propuestas-para-situaciones-de-aprendizaje-ecosociales/.

(gaz) Díaz, V. C., & de la Cruz, M. A. S. (2022). La Educación Geográfica ante el enfoque ecosocial: el interés didáctico de los espacios naturales periurbanos. *Didáctica Geográfica*, (23), 125-150.

(gaz) Fuhem. HADEES - Herramienta de Autodiagnóstico del Desempeño en Educación EcoSocial. [Bideoa] www.youtube.com/watch?v=BTlvZNp4R_A.

(gaz) Fuhem. Educación Ecosocial. www.fuhem.es/educacion-ecosocial/.

(gaz) Fuhem. Jornadas de Educación Ecosocial. [Bideoa] www.youtube.com/@fuhemtv/playlists.

(gaz) Gutiérrez-Bastida, J. M. & De Guzmán-Alonso, J. I. (coords.) (2024). *Educación Ecosocial a la luz de los siete saberes de Edgar Morin*. bit.ly/EE_ALaLuz7SaberesMorin.

(gaz) Gutiérrez-Bastida, J. M. (2018). *Educatio ambientalis. Invitación a la Educación Ecosocial en el Antropozenoa*. Madrid: Bubok. bit.ly/Trilogia_blog.

(gaz) Gutiérrez-Bastida, J. M. (2022). *Competencia ecosocial. Krisi ekosoziala, alternativas y educación*. Ed. Bubok. bit.ly/Trilogia_blog.

(gaz) Marcén, C., Benayas, J., Guzmán, J. I., Gutiérrez, J. M., Velázquez, S., Bermúdez, V., ... & Moraleda, M. (2024). *Guía para la introducción de un módulo de educación ambiental para la sostenibilidad en el Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional*. Ceneam. www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/materiales/guia-eas-al-aula.html.

(gaz) Marcén, C., de Guzmán, J. I., Gutiérrez-Bastida, J. M., & Benayas, J. (2022). *La ciudad ecosocial. Situación de aprendizaje para Secundaria*. Fuhem. tiempodeactuar.es/blog/la-ciudad-ecosocial-situacion-de-aprendizaje-para-secundaria/?amp=1.

(gaz) Martín, D. T. S., Hernández, A. J. M., & Crespo, I. H. (2021). Educación ambiental y proyectos educativos: Iniciativas escolares de transformación ecosocial. *Iber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia*, (102), 20-26. portal.edu.gva.es/ceipmediterrania/wp-content/uploads/sites/790/2021/02/educacion-ambiental-y-proyectos-educativos-ib102100234.pdf.

(gaz) Martínez Villoslada, M. J. (2023). *Un Proyecto de Educación Ecosocial a través de la Materia Orgánica en Educación Infantil* (Bachelor's thesis, Facultad de Ciencias de la Educación). udimundus.udima.es/handle/20.500.12226/2748.

(gaz) Morales, A. J., Caurín, C. & Lacruz, I. (2023). Didáctica de la educación socioambiental: orientaciones metodológicas para la transformación ecosocial. *Ar@ cne. Revista Electrónica de Recursos en Internet sobre Geografía y Ciencias Sociales*, *27*. revistes.ub.edu/index.php/aracne/article/view/43291.

(gaz) Oxfam Intermon. *Educar para la ciudadanía global*. www.oxfamintermon.org/es/como-puedes-colaborar/educacion.

(gaz) Teachers for future Spain. Currículo ecosocial. teachersforfuturespain.org/propuesta-curriculo/.

(gaz) Teachers for future. Recursos. teachersforfuturespain.org/recursos-educativos/.

(gaz) Vargas, M. T. D., & Reig, N. M. (2023). Implicados en una Educación Ecosocial comprometida con el entorno. *Aula de innovación educativa*, (324), 15-20.

(in) Unece (United Nations Economic Commission for Europe) (2012). *Learning for the future: Competences in Education for Sustainable Development*. Geneva: Unece. unece.org/fileadmin/DAM/env/esd/ESD_Publications/Competences_Publication.pdf.

Erlazionatutako topikoak

Bizitza erdigunean, Ekoherritartasuna, Ekoalfabetizazioa, Ingurumen hezkuntza.

I

INGURUMEN HEZKUNTZA

1960ko hamarkadan gertatu ziren aldaketa sozial eta akademiko handien babesean, ingurumen-hezkuntzaren lehen definizioa agertu zen Stappen eskutik (1969): «IHa ingurumen biofisikoa eta hari lotutako arazoak ezagutzen dituzten herritarrak sortzera bideratuta dago, gai horiek konpontzen laguntzeko moduaz jabetzen direnak, eta horretan lan egiteko motibatuta daudenak».

Gutiérrez Bastidaren arabera (2018), ingurumen-hezkuntza tradizio eta historia pedagogikotik sortu zen, hezkuntza-eremu gisa, eta berria eta bakarra bezain baztertua eta mespretxatua izan da. Halaber, eremu gaztea eta originala da; izan ere, balio ekosozialetan eta teleologia berezi batean, hau da, ideal antropozentrikoak gainditzen dituen harreman etiko berri batean oinarritzen da. Ingurumen-hezkuntzak iraunkortasunerako kultura sortzen du. Ulertzeko modu bat da, ezagutzeko eta jakiteko modu bat, ikasteko eta irakasteko modu bat, pentsatzeko eta jarduteko modu bat bizitzeko modu bat. Sozialki. Ekologikoki. Politikoki.

Bere ibilbide laburrean, ingurumen-hezkuntzako korronte eta eredu ugariak ez dira nahikoak izan krisi globalaren erronken aurrean, edo irteerarik gabeko bideetarara eraman gaituzte.

Ingurumen-hezkuntzan hainbat irakaslek, ikertzailek, pedagogok, animatzailek, elkartek, erakundek, energia-enpresak, multinazionalek eta abarrek egiten dute lan; eta horiengan guztiengan ingurumen-arazoekiko kezka eta hezkuntzaren aldeko apustua aurkitzen ditugu krisia gainditzeko. Jakina, bakoitzak bere ikuspegia garatzen du, eta, gainera, hori egiteko modurik zuzenena, metodologiarik onena, programarik onena edo talde-dinamikarik onena erabiltzen ditu. Hainbeste ikuspegi, metodologia eta programa izanik, oso jardunbide desberdinak ikus ditzakegu, eta guz-

tiek ingurumen-hezkuntza deitzen diote beren buruari. Adibidez, harrituta gaude finantza-erakundeen antzerkiarekin; izan ere, armen industria bultzatzen dute eta, aldi berean, ikasle gazteentzako ingurumen-hezkuntzako programak eskaintzen dituzte. Gure geografian zehar aurkitzen ditugun ingurumen-arloko interpretazio-zentroek ere (2008ko krisiaren ondorioz itxi ez zuten horiek) ingurumen-hezkuntza egiten dutela esaten dute. Lucie Sauvé-k (2004), *Una cartografía de corrientes en educación ambiental* lanean, ingurumen-hezkuntzaren hamabost karakterizazio aztertzen zituen garai hartan. Are gehiago, Meirak (2002) Ingurumen-hezkuntza neoliberalaz ere ohartarazten digu.

Ingurumen-hezkuntzaren arloa etengabeko tentsioan dago, eta politika, administrazio edo merkataritza arloetako jarraibideen eragina jasaten du. Eraikitzen ari den eremu bat da, finkatzeko dagoena, eta, hortaz, ziurtasun gutxi eta ziurgabetasun asko dituena, definizio asko eta beste horrenbeste indefinizio dituena. Giro teorikoaren (kontzeptuen ekoizpena, kategorizazioa, sistematizazioa…) eta eremu praktikoaren (ekintza soziala, esku-hartze zuzena, tokiko eraldaketa…) artean mugitzen den arloa da, eta tentsio handiak jasaten dituena.

Gizarte Iraunkorretarako eta Erantzukizun Globalerako Ingurumen Hezkuntzari buruzko Itunak (Rioko Foro Globala, 1992) honela definitzen du:

> Gizarte iraunkor eta bidezko baterako ingurumen-hezkuntza, bada, etengabeko ikaskuntza-prozesua da, eta bizimodu guztiak errespetatzean oinarritzen da. Horrelako hezkuntza batek giza eta gizarte eraldaketan eta babes ekologikoan laguntzen duten balioak eta ekintzak indartzen ditu. Gizarte bidezkoak eta ekologikoki orekatuak sustatzen ditu, interdependentzia eta aniztasuna zainduko dutenak. Horrek ardura indibiduala eta kolektiboa eskatzen du, tokiko, nazioko eta nazioarteko mailan.

1997an Tesalonikan egindako Ingurumen Hezkuntzari buruzko 3. Nazioarteko Konferentzian (Tbilisi'77 eta Mosku'87ren ondoren), Unescok ingurumen hezkuntzatik garapen iraunkorrerako hezkuntzara aldatzea proposatu zuen. Proposamen horrek eztabaida eta haustura handia sortu zuen ingurumen-hezkuntzaren munduan.

Gaur egun, hezkuntza ekosoziala deitzen diogu ikuspegi ekosoziala eta argi eta garbi antikapitalista eta ekofeminista duen ingurumen-hezkuntzari.

2. Taula. *Ingurumen-hezkuntzaren laburpen historikoa erakundeetan eta ikastetxeetan*

Instituzioetan	Ikastetxeetan
70eko hamarkada. Ingurumen-hezkuntzaren lehen erreferentzia akademikoak (1969) eta lehen erreferentzia instituzionalak (Stockholmeko Goi-bilera, 1972). IPEE ((ingelesezko siglen arabera, Ingurumen Hezkuntzako Nazioarteko Programa, IHNP) 1973an, eta Belgrado (1975) eta Tbilisi (1977) nazioarteko bilerak abian jarri ziren. Horietan ingurumen-hezkuntzaren helburuak eta xedeak ezarri ziren. IHNPk ingurumen-hezkuntzako programa ugari garatzen ditu mundu osoan (80ko hamarkada).	70eko hamarkada. Proiektu ekologikoen irakaskuntza-ekimen indibidualak (urmaela, horma, basoa edo hondartza…). 80ko hamarkada. Problematikekin lotutako proiektu ekologikoen irakasletalde baten ekimenak (giza jarduerak putzuan, harresian, basoan edo hondartzan duen eragina…). Lehen ekipamenduak. Sukarrietako Eskolako Saiakuntzarako Zentroa sortzen da (1982).
90eko hamarkada. Garapen jasangarria munduko helburu bihurtu zen Rioko Goi-bileran (1992), eta Gizarte Jasangarrientzako Ingurumen Hezkuntzako Ituna idatzi zen goi-bilera horretako Gizarte Foroan. 1995ean, IHNP desagertzen da. Tesalonikako Konferentzian (1997), Unescok Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren (GIH) aldeko apustua egin zuen, ingurumen-hezkuntzaren ordezko eta ondorengo gisa. Instituzionalak ez diren sektore zabal batzuk ez daude ados.	Klaustroko proiektuak: ekoikuskaritzak. Gaiak: hondakinak, energia, ura… Ingurugela-CEIDA (Euskadiko Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak) sortu zen.
2000ko hamarkadatik aurrera. Antropozenoa eta klima-aldaketa bezalako kontzeptu berriak sortzen dira. NBEk eta Unescok GIHren eta Garapen Jasangarrirako Helburuetarako Hezkuntzaren (GIHH) aldeko apustua egiten jarraitzen dute.	Hezkuntza-komunitatearen proiektuak (Eskolako Agenda 21, Eskolako 2030 Agenda, Eskola Jasangarriak…). Gaiak: klima-aldaketa, biodibertsitatea, zarata, osasuna, herritarren parte-hartzea, kontsumoa, aztarna ekologikoa, ekitatea… eta GJH. Ingurugela desagertu egin zen (2023). Eta ikuspegi berriak, hala nola Hezkuntza Ekosoziala, deshazkunderako eta hezkuntza klimatikoa…

Erlazionatutako topikoak

Hezkuntza ekosoziala, Ekoalfabetizazioa, Ekogarapena.

INTERDEPENDENTZIA

Latinezko *inter-* aurrizkiak eta *dependēre* (eseki) hitzak osatzen duten terminoa da, RAEk elkarrekiko mendekotasun gisa definitzen duena. Beraz, mendeko izateko ekintzari nahiz mendekotasunaren gaineko erantzukizunari dagokie.

Kontzeptu paradigmatikoa da Hezkuntza Ekosozialean, eta gizakien, izaki bizidunen eta naturaren elementuen arteko elkarrekintza beharrezkoa eta onuragarria nabarmentzen du, krisi ekologiko eta soziala gainditzeko. Hala, gizarte-harremanak eta naturarekiko harremanak birpentsatu eta eraldatu nahi ditu, gizarte bidezkoa eta ekologikoki iraunkorra eraikitzeko. Interdependentziak funtsezko hiru dimentsio hauek ditu: belaunaldi berriekin ezartzen den harremana, une jakin batean dauden helduen artekoa eta ekosistemetan gizakiak ez diren animaliekin ezartzen dena.

Hezkuntza Ekosozialean, paradigma horrek lotura estua du ekofeminismotik sortutako bi printzipiorekin, hain zuzen ere, bizitza erdigunean kokatzen duen printzipioarekin eta ekodependentziaren printzipioarekin. Halaber, kontuan hartzen du bizitzeko aukera eta gizabanakoaren nortasuna bestearen begiradaren eta laguntzaren bidez gauzatzen direla.

Interdependentzia kontzeptuaren beste adiera komun bat sistemen teoriari badagokio ere, interdependentzia interakzio beharrezko eta onuragarri gisa ulertzen duen ikuspegiaren jatorri edo aurrekari gisa kontzepzio budista bat dugu, hain zuzen ere, interdependentzia unibertsala dakarren existentziaren lege unibertsalaz ari gara. Lege horren gainean eraikitzen da izaki bizidun guztien —gizakiak, animaliak eta landareak—, natura ez-kontzientearen eta gauzen arteko elkartasunaren etika. (Tola eta Dragonetti, 2003) Bizitza soziopolitikoari dagokionez, terminoa Indian ere agertu zen; hain zuzen ere, 1929an, Mahatma Gandhik itxurazko paradoxa hau planteatu zuenean: interdependentzia pertsonaren ideala zen eta izan behar zuen, hura autosufizientzia edo Swadeshi bezala ulertuta; bada, lankidetza India independenterako proposatzen zuen sistema ekonomiko eta politikoaren oinarrizko laugarren printzipio gisa (López Areu, 2019)

Mendebaldeko tradizioan kontzeptu hori independentziaren ideiarekin kontrajarri izan dute, eta, hala, eremu anglo-saxoian interdependentzia aldarrikapen ugari izan dira. Lehenengoak gizakien arteko dimentsioei buruzkoak izan ziren. Esate baterako, 1933an, Henry A. Wallacek, New Deal delakoaren esparruan lehendakariorde izango zenak, aintzat hartu zuen oinarriko batasuna eta batzuen eta besteen arteko erabateko menpekotasuna. (Wallace, 1933). Gero, 1945ean, II. Mundu Gerraren traumaren ondoren, AEBetako Kongresuaren adierazpena etorri zen, Ellis E. Pattersonek sustatuta (Patterson, 1945). Pentsamendu-ingurune horretan, bada, giza eskubideen interdependentzia-printzipioa identifikatu zen. Ha-

ren arabera, ezinezkoa da edozein giza eskubide gainerako eskubideetatik bereizita gauzatzea.

Ikuspegi ekologistatik, nabarmentzekoa da Greenpeace erakundearen Interdependentzia Adierazpena; izan ere, hark ekologiaren lehen lege gisa ezartzen du bizimodu guztiak interdependenteak direla (Greenpeace, 1976). Eta pentsamendu antropozentrikoaren kritikaren ildotik, Frans de Waal-ek «antroponegazioa» salatzen du; izan ere, horren arabera, gizakiok, aukeratutako espezie gisa, beste animalia batzuekin ezer ez edo oso gutxi dugu komunean eta partekatutakoa alderdi biologikoetara mugatzen da (De Waal, 2007). Hala, kontzientzia gizakiaren salbuespena litzateke, gainerako espezieen artean. Alabaina, Kontzientziari buruzko Cambridgeko Adierazpenak kolokan jarri zuen ideia hori. Ikuspegi ekosozialetik, interdependentziaren paradigmak errealitatea ulertzeko erabiltzen dugun diskurtso mekanizista gainditzea proposatzen du. Izan ere, diskurtso horren arabera errealitatea osatzen duten elementuak makinen ereduari jarraituz banantzen edo erlazionatzen dira; baina, benetan, elkar determinatze eta interakzio etengabea dutelako dira diren modukoak (Cambridgeko Adierazpena, 2012).

Ikuspegi ekosozialak arrazoiaren eta emozioaren arteko bereizketa Ilustratua ere gainditzen du, arrazoi abstraktuaren garapena «gizasemearen» bilakaerarekin identifikatzen zuena. Ikuspegi horrek, bada, arrazoimena idealizatzen du eta indibidualtasun maskulinoarekin lotzen du, emakumearen ezaugarri den emoziotik bereiziz:

> Gizadiari eta gizakiari buruzko zientziek dituzten ebidentzietan oinarritzen da gainditze hori. Horrela, antropologian oinarrituta adierazten du gure espezieko kumeen ezaugarriek giza taldeen barruko lankidetza-dinamikak egituratu zituztela. Hain zuzen, gizakumeen garuna beste animalia batzuenak baino askoz denbora luzeagoan hazten da eta, hortaz, potentzialki adimentsuenak dira, baina baita hauskorrenak eta animalien erreinu osoko mendekoenak ere. Izan ere, jaiotzeko unean hain heldugabeak izanik, lehen urtean zehar oso egoera pasibo eta hauskorra dute, umetokiaren barruan dutenaren antzekoa (Rodrigo, 1997).

Psikologiak, bere aldetik, adierazten du harreman pertsonal hori funtsezkoa dela nortasuna, talde baten kide izatearen sentimendua eta taldearekiko lotura afektibo hori eraikitzeko; izan ere, hura kideen arteko lotura emozionalaren bidez eratzen da. Nortasun hori, ezinbestekoa izateaz gain, gizaki ororen estrategia ukaezin bakarra da, bere biziraupen-gaitasunari buruzko segurtasuna sentitu ahal izateko.

> Ildo horretan, esan dezakegu mendekotasuna gure bizitzako hainbat unetan beste pertsona baten laguntza materialik gabe bizirauteko ezintasuna dela. Gure hauskortasuna eta zaurgarritasuna direla eta, pertsona zainduak izatea, eta ez bakarrik geure burua zaintzea, konstante bat da

> gure bizitzan, eta zaintzak interdependentziaren etikaren adierazpen bihurtzen dira. (Mauleon, 2017)
>
> Zaintza horiek, askotan, modu altruistan ematen dira, eta emankortasun hori maitasunarekin lotuta dago; izan ere, zaintza den heinean, pertsonen biziraupena ahalbidetzen du. Baina eskuzabaltasun hori modu desparekoan banatzen da; izan ere, gehienbat, emakumeek ematen dute eta gizonek jaso. Hala, gizakiok bestearen beharra dugulako aintzatespen hori erraz ahazten eta gutxiesten da, batez ere familian eta hainbat lanbidetan emakumeek egiten duten lana delako (Jonásdóttir, 1993).

Ahanztura hori iraultzea eta zaintza balioestea da hezkuntza ekosozialaren ardatza, emakumeen eta femeninotasunaren gutxiagotzeari aurre egiten diona, biztanleriaren erdi maskulinoak kontzientzia argia har dezan eta interdependentziaren bizipena praktika dezan. Eta zaintzaren ikuspegi hori bizitza politikora eramaten da, gizarte-politikak interdependentziaren balioaren eta beharraren aintzatespen sozial eta politikoan oinarritzen baitira.

Interdependentziak, gainera, arazo garrantzitsu bat planteatzen du autonomiaren balioarekin duen erlazioan. Autonomia, bada, pertsonek beren erabakiak hartzeko duten gaitasuna da, beren arau arrazionala eraikiz edo onartuz, eta erabaki horiek dakarten erantzukizuna hartuz. Gizakien interdependentzia erradikalak ez du esan nahi harreman hori indibidualtasuna deuseztatzen duen fusioa denik. Bereziki garrantzitsua da hori emakumeen kasuan nabarmentzea, mendeetan zehar beren indibidualtasuna ukatu egin baitute kultura gehienetan. Interdependentzia ez da fusio gisa pentsatu behar, baizik eta gatazka suntsitzailerik gabeko bereizketa gisa, elkarri laguntzeko bereizketa gisa. Hortaz, komunitatea ez da autonomia pertsonala kritikatuz eraiki behar. Gizarte-antolaketa ulertzeko modu bat da, botere partekatuan oinarrituta. Boterea besteekin, ez boterea besteen gainetik.

> Gaur egungo krisi ekosozialaren ondorioz, hezkuntza ekosozialak ulertzen du borondate eskuzabalen sare interdependente batek osatutako mundu bat eraiki behar dela krisia gainditzeko, eta horrek hezkuntza eta politika mailan lan egitera behartzen gaitu, interdependentzia aintzat hartzeko, errealitate ontologiko gisa, paradigma etiko gisa eta gizarte parekide, ekologiko eta solidarioko proiektu gisa (Puleo, 2024).

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) [Bideoa] Ministerio de las Mujeres, Géneros y Diversidad Gobierno de Argentina 2020. [Bideoa] ¿De qué hablamos cuando hablamos de cuidados? www.youtube.com/watch?v=M-HJTZR476M.

(gaz) [Bideoa] RTVE-El bosque habitado. Somos radicalmente interdependientes. www.rtve.es/play/audios/el-bosque-habitado/bosque-habitado-somos-radicalmente-interdependientes-13-01-19/4937026/.

(gaz) [Bideoa] Sustainable Human. Cómo los lobos cambiaron los ríos. youtube.com/watch?v=lixMoek2Uv8.

(gaz) [Web] Ajuntament de Barcelona. Qué son los cuidados? | Ciudad Cuidadora. www.barcelona.cat/ciutatcuidadora/es/que-son-los-cuidados.

(gaz) Fuhem (2021). Aprender de la Historia de los siglos XX y XXI. Situaciones de aprendizaje.

(gaz) Fuhem (2021). El amor. Situaciones de aprendizaje.

Erlazionatutako topikoak

Ekodependentzia, Ekofeminismoa, Gaia teoria.

IPARRALDE GLOBALA - HEGOALDE GLOBALA

Gaur egun, Iparraldea eta Hegoaldea kontzeptuak botereari buruzko hausnarketen emaitza dira, ez geografikoak. Beraz, bereizketa horrek, alde batetik, nazioarteko harremanen sistemaren botere-banaketa adierazten du (nagusitzeko boterea duten herrialdeen eta menderatuak izateko arriskuan dauden herrialdeen artekoa). Beste alde batetik, herrialde bakoitza —edo, hobeto esanda, une jakin batean boterean dauden agintariak— talde jakin baten parte izateari dagokio; hau da, eredu ekonomiko, sistema politiko eta balore jakin batzuk partekatzeak dakarren taldekatzeari. Munduko herrialdeak bitan banatzeko egiten den izendapena da:

- Iparraldean planetako herri industrializatuak sartzen dira, munduko merkatuak kontrolatzen dituztenak. Munduko biztanleen % 20 daude multzo honen barruan eta planetako baliabide guztien % 80 kontsumitzen dute. Iparraldea osatzen dute Ipar Amerikak, Japoniak, Mendebaldeko Europak eta Australiak.
- Hegoaldean, berriz, gainontzeko herrialdeak aurkitzen dira; industria-maila txikiko eta menpekotasun handiko ekonomiak dituztenak, alegia. Hegoalde horrek, beraz, Afrika, Asia, Latinoamerika, Karibea eta Ozeano Bareko lurraldeak hartzen ditu.

Baina bi multzo horien barruan ere desparekotasunak daude. Iparraldeko hirietan ere badaude pobrezia, arazo sozialak eta bazterkeria nabarmentzen diren inguruak. Inguru horien egoera Hegoaldeko herrialdeenari parekoa da. Era berean, Hegoaldeko herrialdeetan ere giza talde gutxi batzuek —eliteek— inguru oso pribilegiatuetan eta Iparraldeko erara bizi dira. Gainera, eliteen eta maila sozioekonomiko baxuenean dauden taldeen arteko desparekotasunak handiagoak izan ohi dira Hegoaldeko herrialdeetan.

Iparraldea eta Hegoaldea kontzeptuak herrialde aberatsak eta herrialde pobreak bereizteko erabiltzen dira. Baina «aberats» eta «pobre» terminoak ere, ez dira egokiak. Justiziaz eta koherentziaz jokatu nahi badugu, «Herrialde aberastuak» eta «Herrialde pobretuak» moldeak erabili behar ditugu. Hona hemen zergatiak:

- Aberatsa/Pobrea adjektibo soilak dira; aldiz, Aberastua/Pobretua hitzek efektua izendatzeaz gain, efektuak eragiteko erabiltzen diren prozesuak ere barne hartzen dituzte.
- Pobretua ez da pobreak berak pobrea izatea hautatu duela, kanpoko mekanismoek miseriara behartu dutela baizik. Hau da, aberastasunaren banaketa bidegabeak kanpoan utzi dituen gizon-emakumeak dira pobretuak.
- Gehienetan ez dago pobreziarik pobre esaten diegun lurralde horietan. Natura eta giza baliabide asko daude baina ez bertakoen eskuetan.

Gizakien oinarrizko premia fisikoak eta psikikoak asetzeko baliabiderik ez izatearen ondorioz sortutako egoera edo bizimodua da pobrezia, edota baliabide horiek eskuratzeko ezintasunaren ondorioz ere. Nelson Mandelak argi adierazi zuen pobrezia ez dela konponbiderik gabeko fenomeno naturala eta konponezina, gizateriak berak eragindako egoera baizik. Ondorioz, konponbidea eman dakioke eta eman behar zaio.

Pobreziaren barnean, bi maila bereizten dira: muturreko pobrezia, hau da, elikadura-beharrak betetzeko beharrezkoak diren diru-sarrerak ez edukitzea, eta pobrezia, besterik gabe, elikagaiak ez diren gutxieneko beharrak ere barne hartzen dituena. Horrez gain, pobrezia motak bi kategoriatan bildu daitezke: gizarteko talde zehatz batzuei eragiten dietenak (haurren pobrezia edo landa-pobrezia, esaterako) eta gizarte osoan eragina dutenak (pobrezia absolutua eta erlatiboa, esaterako).

Planetako aberastasuna era bidegabean dago banatuta. Herrialde aberastuak gero eta aberatsagoak eta boteretsuagoak dira ekonomia, kultura (nagusitzen den horretan) eta politika militarraren arloetan; aldiz, gero eta jende gehiago bizi da pobrezian. Biztanleriaren % 20k munduko aberastasunaren % 80 du. Datu bat: munduko 356 pertsona aberatsenen aberastasunak munduko gizon-emakume guztien % 40ren urteko errenta gainditzen du. Joera hori proiektatzen badugu, 2050ean 2.000 milioi lagun pobrezia gorrian biziko dira munduan.

Zibilizazioen sorreran eta gizarte bateko gizabanakoen kategorizazioan, berebiziko garrantzia izan zuten ekoizpen-soberakinek. Izan ere, lurralde batek bizirauteko behar duena baino gehiago ekoiztu ahal duenean, bertako biztanleen oinarrizko premiak asebetetzeaz gain beste zeregin batzuetarako erabili ditzake ekoizpen horiek. Gainprodukzio horrek

merkataritza ahalbidetu zuen. Bada, biztanleentzat jakiak ekoitzi edo biltzeaz gain, sektore batzuek beste ardura batzuk hartu ahal izango zituzten, eta, hala, ogibide desberdinak sortu ziren. Beste alde batetik aisialdi uneak agertzean, herrialde horietako zenbait biztanlek zientzia, filosofia edo artea bezalako alorrak garatzeko aukera izango zuten. Ekoizpen-soberakinen kudeaketaren ardura ere hartu beharko zuen norbaitek, eta hala sortuko ziren lehenengo klase sozialak ere, eta herrialde, lurralde edo hiriestatu bereko biztanleen artean ere aberats eta pobreak egotea ahalbideratuko zuten.

Horrez gain, zientzien alorrean lorpen handienak egiten zituen lurraldeak botere militar handiena izaten zuenez, ingurukoei gailentzen zitzaien, eta herrialde menperatuen baliabide ekonomiko, material eta giza baliabideak (esklabuak, kasu) ustiatu ohi zituen. Dena dela, aintzinako zibilizazio askoren zabalkundean (greziarrak edo feniziarrak, adibidez), merkataritza-harremanek konkista militarrek baino garrantzi handiagoa izan zuten. Hala, ekoizpen-soberakinak beste lurralde batzuekin trukatzen zituzten. Eta konkista militarraren bidea aukeratu zuten inperioen kasuan (asiriarrak, pertsiarrak…) ezin dugu esan beraien nagusitasuna erakutsi zutenik munduaren eremu jakin baten gainean; izan ere, ondoko eremua okupatzen zuten herrialdeen aurkakoak izaten ziren haien gatazkak.

Erdi Aroan, gauzak aldatuz joan ziren. Lehenengo, Islamaren hedapenarekin. Geroago, gurutzadekin eta «errekonkista» izenaz ezaguturiko mugimenduekin, kristauek Ekialde Hurbileko hainbat lurralde menperatu zituzten. Halaber, Erdialdeko Asia Europa erdialderaino zetozen turkiarren konkistarekin batera, nazioz gaindiko entitateak (erlijiosoak edo etnikoak, kasu hauetan) nagusitzen ikusten ditugu.

Baina Aro Modernoa heltzean (XV. mendearen azken hamarkadatik aurrera), eta lurralde berrietan aurkituriko aberastasun iturrien ustiaketari lotuta, ikusten dugu mundua bi bloketan banatu zela lehen aldiz. Izan ere, konkistatzaileek (Mendebaldeko Europako herriak eta Ingalaterra) ez zuten inolako errukirik erakutsi zilar eta urre meategiak edota kafe eta azukre plantazioak ustiatzeko orduan. Horretarako, konkistatu berriak ziren lurraldeetako indigenen esku-lana erabili zuten, eta, hura nahikoa ez zenean, Afrikako esklabuena ere. Gainera, lurralde horietako baliabideen ustiaketa zein europar potentziari zegokion erabakitzeko hitzarmenak sinatu ziren. Horietan, bada, koordenada geografikoak ezartzen ziren konkistatzaile bakoitzaren mugak zehazteko (1494ko Tordesillaseko Hitzarmena, adibidez). Argi dago, beraz, menperatzaileen eta menperatuen artean banatzen zela planeta.

1945ean, Bigarren Mundu Gerra amaitzearekin batera, bi potentzia nagusi gailentzen hasi ziren: Ameriketako Estatu Batuak, alde batetik, eta Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna —SESB— bestetik. Bi potentzia hauek antagonikoak ziren ekonomia arloan (kapitalismoa vs. ko-

munismoa), eta bakoitzak hainbat herrialde edo « estatu satelite» erakarri zituen (Kanada, Erresuma Batua, Europako iparraldea, erdialdea eta mediterraneoa, Japonia eta Australia AEBek; Ekialdeko Europa, Kuba eta Vietnam SESBek). Afrikaren gehiena, Hegoamerika, Asiako hainbat herrialde eta Ozeaniako uharteak ez ziren bloke batekin edo bestearekin elkartu. Ondorioz, horiei «Hirugarren Mundua» deitu zieten. Azken horietako gehienek, Aro Modernoan eta Inperialismo garaian, potentzia kolonizatzaileen esplotazioa jasan zuten. Halaber, herrialde horiek ez dute bloke batean zein bestean garatutako aurrerapen teknologiko, zientifiko, industrial zein sozialez gozatu (Afrika edo Asiako zenbait lurraldek Europako herrialdeen kolonia izaten jarraitu zuten XX. mendeko bigarren erdialderarte). 1990eko hamarkadaren hasieran SESBa hondoratzearekin batera, «Hirugarren Mundua» osatzen zuten nazio horiek eta SESBari lotutako asko ere «Hegoaldeko Herriak» deituriko blokea osatzera pasatu dira. Paradoxikoa da Australia Iparraldeko blokean egotea eta Haiti, aldiz, Hegoaldekoan.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko arrakala zabaltzen ari da. Hala, ingurumen arazoei irtenbidea emateko eta ingurumenaren etorkizuneko belaunaldientzat kontserbatzeko, Iparraldeko bizimodua eta kontsumo ereduak aldatu beharra dago.

Ingurumen Hezkuntzak kontzientzia hartzea bultzatu behar du problematika horien aurrean. Beti ere, kontuan izanik garapenaren eta ingurumenaren artean planteatzen den dilema faltsua dela. Hau da, problematika hori bakarrik konponduko da garapena eta ingurumena elkarren osagarri bezala ulertzen badira, eta ez elkarren aurka, iraunkortasunaren eta herrien arteko elkartasunaren bidetik.

Halaber, «Iparraldeko» herrialdeek «Hegoaldeko» herrialdeekin duten Zor Ekologikoaren ideia lantzea ere komeni da, ekonomiaz haratago, munduko herrialdeek elkarrekiko zorra dutelako ideia indartze aldera.

(eus) Ihitza aldizkaria: Etorkizuneko hiritar konprometituak: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4155/eu/contenidos/boletin_revista/ihitza30/eu_ihitza30/sumario.html.

(eus) Ihitza aldizkaria: Milurteko Helburuak http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4155/eu/contenidos/boletin_revista/ihitza32/eu_ihitza/index.html

(eus) Manzaneda, J. (2001). *Hegoari begira: 3. Kanpo zorra*. DVD. Izarbel S.L. Bilbao. [Aproposa DBH eta Batxilergorako]

(eus-gaz) Alboan: material didaktikoak: http://www.alboan.org/docs/MaterialesEducativos/euskera.html

(gaz) [Bideoa] Un mundo desigual: norte-sur: http://www.youtube.com/watch?v=Il4byUnxQ4I

(gaz) Intermon-Oxfam. http://www.intermonoxfam.org/es/page.asp?id=1765

Erlazionatutako topikoak

Zor ekologikoa, Ekologia politikoa, Taula planetarioa.

IRAUNKORTASUNA-JASANGARRITASUNA

Jasangarritasuna da giza-sistema biosfera-sistemara egokitzeko prozesuaren gaitasuna, hura arriskuan jarri gabe.

Ikuspegi ekosozialetik begiratuta, iraunkortasuna sistema naturalen eta sistema sozioekonomikoen arteko oreka eta harmonia mantentzeko gaitasunari dagokio, gizakion eta gainontzeko izaki bizidunen gaur egungo beharrak bete ahal izateko, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrak asetzeko izango duten gaitasuna arriskuan jarri gabe. Horrek ikuspegi holistikoa eta integratua eskatzen du, gizakien, naturaren eta ekonomiaren arteko lotura kontuan hartzen duena, baita ekosistemen osasuna zaintzearen eta gizarte-ekitatea eta ingurumen-justizia sustatzearen garrantzia kontuan hartzen duena ere.

Groberren arabera (2002), basogintzaren ekoizpen iraunkorraren sustatzaile Hans Carl von Carlowitz izan zen iraunkortasun terminoa erabili zuen lehena (alemanez, Nachhaltigkeit). *Sylvicultura Oeconomica* lanaren portada horixkan agertzen den azpititulu luzean aipatzen da hurrengo orrialdeetan basogintza egiteko etekin ekonomikoak eta jarraibide espezifikoak azalduko direla, haziak lortzeari, lurra prestatzeari, ongarritzeari, mozketari eta abarri dagokienez. Carlowitzen ustez, berokuntzarako, eraikuntzarako, garagardogintzarako, meatzaritzarako eta galdaketarako erabilgarritasunik onena eskaintzen duen egurra lortzeko, baso-baliabideen kudeaketa iraunkor arduratsua egin beharra dago. Horretarako, hiru jarduera-ildo zehaztu ditu: basoen ekonomiarekin bat datorren baso-kudeaketa iraunkor batean oinarritzea, aurrezteko arteak garatzea eta zura modu efizientean erabiltzea (etxeak hobeto isolatzea, ordezko beste material batzuk erabiltzea, hala nola zohikatza, etab.), eta gorri dauden mendiak basoberritzea, etorkizuneko belaunaldietan pentsatuz.

Jasangarritasuna terminoaren lehen aztarnak 1960ko hamarkadan aurkitzen ditugu, naturaren suntsipenaren inguruko sentsibilizazioa eta industrializatu gabeko herrialdeei laguntzeko lehen urratsak hasi zirenean.

1972an, iraunkortasunaren ideia ekogarapenaren kontzeptuaren inguruan kokatzen da. Gero, H. Kissinger-en esku-hartze autoritario baten ondoren, 1987an, Nazio Batuen Batzorde batek Brundtland txostena aurkeztu zuen, garapen iraunkorraren kontzeptua formalizatzeko. Argitalpen horren bitartez, kontzeptua mundu osora zabaldu zen, eta ordura arte erabilitako ekogarapenaren kontzeptua ordeztu zen. Txostenaren arabera, «garapena iraunkorra da gizakien eskuetan; hau da, egungo gizartearen beharrak asetzea, baina ondorengo belaunaldienak baldintzatu gabe».

Iraunkortasunaren kontzeptua onartzeak mugak onartzea esan nahi du: ingurumen-baliabideen mugak, teknologiaren eta antolaketa sozialaren gaur egungo mugak eta biosferak giza eraginak onartzeko dituen mugak.

Naredoren (2004) esanetan, mundu sozial eta ekologikoak orekatuago eta egonkorrago bat lortzeko nahia alferrikakoa da, ez badugu zalantzan jartzen egungo finantzen hedapen ekonomikoko eta merkantilistako joera. Joera horiek garapena ekologikoki eta sozialki iraunkorra egiteko helburua dute, baina helburu hori irreala da. Tresna faltsu moduan hartzen du zentzua, eta hartzekotan, kritikak zuritzeko da.

Riechmannen azalpenak ere ildo beretik doaz. Haren ustez, beren oinarri fisiko eta biologikoak hondatuz antolatzen eta funtzionatzen duten sistema sozioekonomikoak ez dira sistema iraunkorrak. Riechmannen ustez, iraunkortasuna bideragarritasun ekologikoa da, hau da, sistema sozioekonomikoek berriztatzeko duten gaitasuna, baina oinarrian duten ekosistemen narriadura eragin gabe. Printzipio orokor hori gizarte-eredu batean edo batzuetan gauzatu behar da.

Riechmannen arabera (2012), jasangarritasuna ezin da inola ere ulertu printzipio tekniko huts gisa, baizik eta printzipio etiko-normatibo gisa. Printzipio horrek «beharrezkoak diren ezaugarriak biltzen ditu, desiragarriak diren beste batzuekin batera, eta, beraz, ezin da bertsio bakar baten arabera eraiki; prozesu bat da, egoera bat baino gehiago, eta, beraz, ezin da behin betiko lortu, eta aldatzeko aukera du beti; ekologikoki arduratsuak diren kudeaketa-arauak batzen ditu, Dalyren proposamenen antzera, ekitate soziopolitikoaren, herritarren parte-hartzearen, deszentralizazioaren eta kultura-aniztasunaren printzipioekin.

Riechmannek azaltzen duenez (2003), zimendu biologikoak eta fisikoak suntsituz antolatzen eta aritzen diren sistema sozioekonomikoak ez dira iraunkorrak. Haren ustez, iraunkortasuna bideragarritasun ekologikoa da, hau da, sistema sozioekonomiko batek erreproduzitu ahal izateko duen gaitasuna, oinarritzat dituen ekosistemak hondatu gabe. Printzipio generikoa da, eta ekonomia kapitalistan oinarritutakoa ez den beste gizarte-eredu batean gauzatu behar da.

Jasangarritasuna etengabeko aldaketa-, ikaskuntza- eta partaidetza-prozesua izan behar da. Hala, biosferaren mugak kontuan hartuta (karga-

gaitasuna, berritzea...), gizakien eta naturaren arteko oreka ekosoziala berreskuratu nahi du. Bilaketa horrek efektu multidimentsionalak dakartza berekin, eta horiek pertsonen etikari, harreman sozialei (ekonomikoak, kulturalak, teknologikoak...) eta gizakiaren eta planetako gainerako izaki bizidunen arteko harremanari eragiten diete.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Marañon, J. A. (coord.)(2004): *Lur eta ingurumen zientziak. Unitate didaktikoak*. Ingurugela. CD-Rom. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-434/eu/contenidos/libro/lur_ingurumen_zientziak/eu_10672/indice.html.

(eus-gaz) Benito, J., Hernandez, R., & Marañon, J. (2007): *40 jardunbide Eskolako Agenda 21 programan*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Ingurumen eta Lurralde Antolamenduaren Saila. Gasteiz. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-434/eu/contenidos/libro/40_experiencias_a21escolar/eu_pub/indice.html.

(eus-gaz) Benito, J., Gutiérrez, J. M., Hernandez, R., & Marañon, J. (2008): *Guía de la Agenda 21 Escolar. Educar para la sostenibilidad*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Ingurumen eta Lurralde Antolamenduaren Saila. Gasteiz. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-4152/eu/contenidos/manual/guia_agenda21_escolar/eu_pub/adjuntos/guia.pdf.

(eus-gaz) Cantero, J. & Gutiérrez, J.M. (2004): *¡Vamos a hacer un huerto! Manuel práctico parael huerto escolar ecológico*. Fher S. A. / *Egin dezagun ortu bat! Eskola ortu ekologikorako gidaliburu praktikoa*. BIGE Gurasoen Elkartea. Bilbo.

(eus-gaz) Carta del jefe Seattle. culturainquieta.com/estimulante/la-carta-que-el-jefe-indio-seattle-envio-al-presidente-de-estados-unidos / Seattle indioaren Gutuna. www.arratia.net/es-ES/sostenibilidad/Curso%2020072008/Mensaje_jefe_indio_SEATHLE.doc.

(eus-gaz) Ingurugela: Ingurumen-Hezkuntzarako Materialak (karpetak). Lehen Hezkuntza. Bigarren Hezkuntza.

(eus-gaz) Sukarrieta Taldea (2005): *Ura, hamaika proposamen aniztasunari ekiteko*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Ingurumen eta Lurralde Antolamenduaren Saila. Gasteiz. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-6172/es/contenidos/libro/carpeta_agua/eu_9151/indice.html.

(eus-gaz) Sukarrieta Taldea (2008): *Hezkuntza-programa eta ebaluazio hezitzaile erdua, autoerregulazioa irakaste-ikaste prozesuan*. Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Eskola. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta BBK. Bilbo.

(gaz) [Bideoa] Furtado, J. (zuz.). (1989): *La isla de las flores.*

(gaz) [Bideoa] National Geographic (2008): *Informe Tierra 2007* [DVD]. RBA Ediciones. Madrid.

(gaz) [Pelikula] McTiernan, J (zuz.) (1992): *Los últimos días del Edén.*

(gaz) Gutiérrez-Bastida, J.M. (2011). *Sus tenere. Iraunkortasuna vs Tecnología y Mercado.* Editorial Bubok. bit.ly/SusTenere_JMGB.

(gaz) UNEtxea (2009). *Manual de educación para la sostenibilidad.*

(gaz) UNEtxea (2023). *Educación para la sostenibilidad a través de situaciones de aprendizaje. Guía teórico-práctica para profesorado.*

Erlazionatutako topikoak

Garapen iraunkorra, Ekogarapena, Planetaren mugak, Trantsiio ekosoziala.

J

JUSTIZIA KLIMATIKOA

Ikus *Gizarte justizia*.

K

KAPITALISMO BERDEA

Ikus *Ekokapitalismoa*.

KAPITALOZENOA

Ikus *Antropozenoa*.

KLIMA ALDAKETA

Ikus *Klima-larrialdia*.

KLIMA-LARRIALDIA

Klima-larrialdia mundu eta eskualde mailan eta denbora-tarte luzeetan gertatzen diren tenperatura-, prezipitazio- eta haize-ereduen aldaketa esanguratsu eta iraunkorrei dagokie.

Klima-larrialdiak ondorio latzak ditu, hala nola muturreko gertaera klimatikoen (urakanak, lehorteak eta uholdeak) maiztasuna eta intentsitatea areagotzea, itsasoaren maila igotzea, eta bioaniztasunari eta espezieen banaketari kalte egiten dieten aldaketak eragitea ekosistemetan. Halaber, eragin nabarmenak ditu giza osasunean, elikagaien segurtasunean eta ekonomia globalean ere, eta erronka kritikoak planteatzen ditu planetako bizimodu guztien iraunkortasunari eta ongizateari dagokienez.

Klima-aldaketaren kausa nagusia berotegi efektuko gasen (BEG) isurketa da. Hala, nazioarteko komunitate zientifikoak ondo dokumentatu eta onartu duen moduan, erregai fosilak (ikatza, petrolioa eta gas naturala)

erretzea da BEG horien iturri nagusia, batez ere, energia elektrikoa sortzeko, garraiorako eta industriarako. Prozesu horrek CO_2 kantitate izugarriak isurtzen ditu, aldez aurretik eta milioika urtez lurpeko hobietan gordeta egon direnak. Gainera, atmosferara isurtzeko erritmoa oso azkarra da, eta, hortaz, karbono biltegi naturalek —hala nola, ozeanoek eta basoek— ezin dute erritmo horretan xurgatu.

Deforestazioak, nekazaritzaren hedapenak, zuraren erauzketak eta hirigarapenak bi modu nagusitan bultzatzen dute klima-larrialdia. Lehenik eta behin, zura erretzeak edo deskonposatzeak basoko biomasan gordetako karbonoa askatzen du. Bigarrenik, zuhaitz-kopurua murriztean, planetak CO_2 xurgatzeko duen gaitasuna murrizten da, karbono globalaren balantzea aldatuz.

Nekazaritzak, batez ere intentsiboak, eta industria-jarduerek berotegi-efektuko beste gas batzuk ere isurtzen dituzte, hala nola metanoa (CH_4) eta nitrogeno oxidoak (N_2O…). Metanoa, adibidez, ikatza, petrolioa eta gasa erauztean eta garraiatzean askatzen da, baita hondakin organikoak zabortegietan eta nekazaritza-sistemetan deskonposatzean ere. Abereen digestio enterikoak ere metanoa isurtzen du Nitrogeno oxidoa, berriz, nekazaritzaren sektorean nitrogenodun ongarriak erabiltzean sortzen da nagusiki; izan ere, ongarri horiek deskonposatzean edo lurruntzean N_2O askatzen dute.

Atmosferara askatu ondoren, berotegi-efektuko gas horiek manta termiko baten antzeko efektua dute Lurraren inguruan. Hain zuzen ere, eguzki-erradiazioa harrapatzen dute eta beroa espaziora itzultzea saihesten dute. Berotegi efektua izenez ezagutzen den fenomeno hau naturala eta beharrezkoa da Lurreko tenperaturak bizitza ahalbidetzen duten mailetan mantentzeko. Baina giza-jarduerek efektu hori areagotu dute, eta gas horien kontzentrazioa handitu dute atmosferan, gizateriaren historian aurrekaririk ez duten maila batean kokatu arte. Ondorioz, berotze globala areagotu egin da, eta aldaketak gertatu dira planetako kliman. Berotze areagotu horrek klima-ereduen eraldaketa, muturreko klima-gertakariak, glaziarren eta izotz-geruzak urtzea eta itsas maila igotzea eragin ditu; eta horiek, aldi berean, ingurumen, ekonomia eta gizarte arloko inpaktuak eragiten dituzte mundu mailan.

Krisi klimatikoaren itzulerarik gabeko puntuak atalase kritikoak dira Lurraren klima-sistemaren barruan, eta horiek gurutzatzeak aldaketa esanguratsuak eta itzulezinak eragiten ditu ingurunean eta ekosistemetan. Hain zuzen, muga horiek gainditzean kate-efektuak eragin daitezke; izan ere, kolokan jartzen dira klima eta habitat naturalak, baita Lurrak bizitza ezagutzen dugun moduan mantentzeko duen gaitasuna ere. Hona hemen itzulerarik gabeko punturik garrantzitsuenak:

- Groenlandiako eta Mendebaldeko Antartikako izotz geruzak urtzea. Horiek erabat kolapsatzeak itsasoaren maila zenbait metro

igoko luke, eta horrek munduko biztanleriaren zati handi bat bizi den kostaldeko eremuak urpean utziko lituzke.

- Koralezko arrezifeen heriotza. Itsasoaren tenperaturaren igoerak eta ozeanoen azidifikazioak koralezko arrezife gehienak suntsi ditzakete datozen hamarkadetan, horien beharra duten milioika espezieengan ere eraginez.
- Permafrosta desizoztea: Permafrosta urtzean, aurretik harrapatutako metano eta karbono dioxido kantitate handiak askatzen dira. Horiek berotegi-efektu handiko gasak dira, eta, hortaz, horrek klima-aldaketa bizkor dezake.
- Ozeano artikoko izotza murriztea: Itsas-izotzak eguzki izpiak islatzen ditu, eta, hortaz, hori galtzean, berotzea bizkortzen da, agerian geratzen baitira bero gehiago xurgatzen duten ur ilunagoak.
- Aldaketak korronte ozeanikoetan, batez ere Atlantikoaren Hegoaldeko Itzulerako Zirkulazioan (AMOC): korronte horiek ahulduz edo kolapsatuz gero, klima-ereduak nabarmen alda litezke, eta horrek eragina izango luke prezipitazioetan eta tenperaturetan mundu mailan.

Puntu horiek kritikoak dira; izan ere, horiek gaindituz gero, klima-sistema egoera berri eta ezegonkorrago batean sar liteke, eta, ondorioz, oso zaila izango litzateke —ezinezkoa agian— giza esku-hartzeen bidez aldaketak itzultzea edo arintzea.

Nola egin aurre klima-larrialdiari: bizitzari lehentasuna ematen dioten erabakiak hartzea, etekin ekonomikoen gainetik .

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) [Bideoa] EITB. El tiempo: El cambio climático y el CO_2. www.youtube.com/watch?v=1pbKIdb2vNk.

(eus) Amarauna. Unitate Didaktikoa: «Zain dezagun planeta». www.amarauna.euskadi.eus/baliabidea/unitate-didaktikoa-zain-dezagun-planeta/8ba1cc21-476c-43c4-a2e5-a31d08cf4218.

(eus) Edukalboan. Mugetatik haratago: Klima-aldaketa eta migrazioak. www.edukalboan.org/eu/jarduera/klima-aldaketa-eta-migrazioa.

(eus) EITB. [Bideoa] Zeintzuk dira berotegi efektuaren ezaugarri nagusiak? www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoa/9089968/bideoa-zeintzuk-dira-berotegi-efektuaren-ezaugarri-nagusiak/.

(eus) Nafarroa Hezkuntza. Iraunkortasuna sustatzen duten eskolen sarea. Klima aldaketa. www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/red-sostenibles-cambio-climatico.

(eus) Planeta Dantzan. Klima aldaketa. Noe Unitate didaktikoa. educacionambiental.pamplona.es/wp-content/uploads/2023/01/UnidadDidacticaNoe-20230104-EUS-V3.pdf.

(eus) UNetxea. Fitxa 13. GHU 13: Klima babesteko ekintza. www.unetxea.org/dokumentuak/Unitate-didaktikoa-EU-Fitxa-13.pdf.

(eus-gaz) Berde verdea. [Bideoa] Klima aldaketa youtu.be/3wUzs-WDZus?si=J2dH3J7Ntcw_Z19M / Cambio climático. youtu.be/R3V842MkXs8?si=Z1gSXPM00TiwKKPN.

(gaz) [Bideoa] National Geographic. Seis grados que podrían cambiar el mundo. youtu.be/vzPqP5GLY_A?si=1pf2D0rJ7ogUahgA.

(gaz) Fernández, A. G., et al. (2021). El huerto educativo ante el cambio climático: Propuesta de una hipótesis de transición sobre el agua y la alimentación humana. revistascientificas.us.es/index.php/IE/article/view/15495.

(gaz) Fuhem. Efecto dominó: un Jolasa didáctico para comprender mejor las tramas complejas del cambio climático desde un enfoque ecosocial. tiempodeactuar.es/blog/efecto-domino-un-Jolasa-didactico-para-comprender-mejor-las-tramas-complejas-del-cambio-climatico-desde-un-enfoque-ecosocial/.

(gaz) Herrero, Y. (2022). *Competencia climática: una propuesta transversal sobre capacidades en Acción por el Ahalduntzea Climático*, (Serie Documentos Técnicos EUROCLIMA+ nº 15), Programa EUROCLIMA+. Comisión Europea, Dirección General de Asociaciones Internacionales. www.miteco.gob.es/en/ceneam/recursos/pag-web/competencia-climatica.html.

(gaz) Intermon Oxfam. El reto climático. www.kaidara.org/eu/recursos/7602-2/.

(gaz) Thunberg, G (2022). *El libro del clima*. Penguin Random House.

(gaz) UNEtxea (2012). *Propuestas para la integración del cambio climático y la cooperación al desarrollo*. unetxea.org/portfolio-item/propuestas-para-la-integracion-del-cambio-climatico-y-la-cooperacion-al-desarrollo/.

(gaz) URA. [Bideoa] El cambio climático. www.eitb.eus/es/eltiempo/videos/detalle/7278822/video-el-cambio-climatico/.

Erlazionatutako topikoak

Biodibertsitatea, Ekologia politikoa, Energia eta trantsizio energetikoa.

KOLAPSOA

Kolapsoa hainbat diziplinatan aztertu den fenomenoa da, hala nola historian, ekologian, ekonomian edo ingeniaritzan. Oro har, kolapsoa sistema baten egitura-, antolaketa- edo funtzio-konplexutasunaren murrizketa zakarra eta esanguratsua da. Kolapso-prozesuak gerta daitezke finantza-merkatuetan edo sistema teknologikoetan, hala nola sistema elektrikoan; baina, oraingo honetan, ekosistemen eta, batez ere, giza-gizarteen kolapsoaz ari gara. Hala, egonkortasun eta garapen egoera mantentzeko ezintasuna eragiten duten barneko eta kanpoko faktoreekin lotzen dira kolapsoak.

Historiari dagokionez, historialariek eta antropologoek zibilizazioen kolapsoa aztertu dute. Joseph Tainterrek *The collapse of complex societies* (1988) lanean argudiatzen duen bezala, gizarteak, garapenaren eraginez, gero eta konplexuagoak dira, askotariko arazoei aurre egiteko: elikagaien ekoizpen handiagoa, kanpoko mehatxuen aurkako defentsa, eta abar. Tainterren arabera, konplexutasun horrek errendimendu beherakorrak ditu, eta, hala, konplexutasun horrek, puntu batetik aurrera, konpontzen dituenak baino arazo gehiago sortzen ditu. Bestela esanda, gizarteak konplexuago bihurtzen diren heinean, gero eta inbertsio handiagoa egin behar da burokrazian, azpiegituran eta defentsan, eta horrek eutsiezin egiten ditu. Fenomeno horien adibide dira Erromatar Inperioaren, maien zibilizazioaren edo Pazko uharteko zibilizazioaren gainbeherak. Horietan guztietan, baliabideen gehiegizko ustiapena, krisi ekonomikoak eta ingurumen-aldaketa kaltegarriak izan ziren nagusi.

Ikuspegi ekologiko batetik, kolapsoa da biodibertsitatearen muturreko galera, edo ekosistemen aldaketa, gizakiaren jardueraren edo aldaketa naturalen ondorioz. Jared Diamondek, *Colapso: Por qué unas sociedades perduran y otras desaparecen* (2005) lanean, aztertu egiten du nola eragin dezaketen gizarte oso baten kolapsoa ingurumenaren narriadurak, klima-aldaketak eta baliabideen agortzeak. Gaur egun, horren adibide dira Amazonaseko deforestazioa eta Saheleko desertifikazioa. Izan ere, fenomeno horiek arriskuan jartzen dute erresilientzia ekologikoa, eta ondorioak dituzte elikagaien segurtasunean eta giza ongizatean.

Ekonomian, kolapsoa finantza-krisirekin eta merkatuak desagertzearekin lotzen da, burbuila espekulatiboen, bankuen kolapsoen edo hiperinflazioaren ondorioz. 1929ko Depresio Handiak eta 2008ko finantza-krisiak erakusten dute nola finantza-sektorearen porrot sistemikoak atzeraldia eragin dezakeen.

Ingeniaritzaren arloan, aldiz, azpiegituren eta sistema teknologikoen porrot katastrofikoarekin lotzen da kolapsoa. Egituraren fidagarritasuna eta erredundantzia funtsezkoak dira huts horiek prebenitzeko. Izan ere, horiek diseinu eskas baten, giza hutsegiteen edo hondamendi naturalen emaitza izan daitezke, baina, oro har, horien guztien konbinazioaren ondorioz gertatzen dira.

Nahiz eta oso onartua izan, kolapsoaren kontzeptua kritikatu ere egin da, prozesu konplexuak sinplifikatzeko joera eta joera katastrofistak dituela argudiatuta. Zenbait akademikok, hala nola Guy Middleton historialariak (2018), argudiatzen dute gizarte asko ez direla erabat kolapsatzen, baina eraldaketak eta berregituraketak izaten dituztela. Bat-batean desagertu beharrean, zibilizazio askok beste forma batzuekin jarraitu dute, hau da, migrazioekin, aldaketa politikoekin edo egokitzapen teknologikoekin. Gainera, Middletonek zalantzan jartzen du «kolapso» terminoa modu orokorrean aplika daitekeenik, horrek sistemen historiaren eta bilakaeraren ikuspegi lineala eta determinista eskatzen baitu. Testuinguru ekologiko eta ekonomikoetan, zenbait ikertzailek diote kolapsoa berrantolaketa-prozesu bat izan daitekeela, epe luzean egitura erresilienteagoak sortzea ahalbidetzen duena.

Kolapsoa dimentsio anitzeko fenomenoa da, eta aztertzen den testuinguruaren arabera aldatzen da. Kausa espezifikoak desberdinak izan daitezkeen arren, kolapso gehienek ezaugarri berberak dituzte, hala nola baliabideen gainkarga, sistema konplexuak kudeatzeko efizientziarik eza eta kalteberatasuna kanpo-krisien aurrean.

Hainbat egilek hainbat ikuspegitatik heldu diote zibilizazioen kolapsoaren kontzeptuari, eta nabarmendu egin dute hura atzeraezina dela eta konplexutasuna galtzearekin lotuta dagoela. Servignek eta beste batzuek (2020) honela definitu dute kolapsoa: Estatuko zerbitzuek biztanleria gehienaren oinarrizko beharrak betetzeari uzten dioten prozesua. Santiago Muiñok (2023) Estatuaren arauketa-porrot gisa deskribatzen du, Antropozenoaren testuinguruaren barruan. Fernández Duránek eta González Reyesek (2024) hiri-nekazaritza-industria sistema modernoaren amaiera markatzen duen krisi zibilizatzaile gisa interpretatzen dute; eta Diamondek (2005), berriz, biztanleriaren eta konplexutasun soziopolitikoaren murrizketa handi batekin lotzen du. Bardirentzat (2020), bestalde, klima-aldaketak eta baliabide urritasunak bultzatutako gainbehera azkarra eta kontrolik gabekoa da kolapsoa.

Aipatutako ikuspegiek Tainterren (1988) teoriaren eragina dute. Horren arabera, gizarte batek konplexutasun soziopolitikoaren galera handia duenean gertatzen da kolapsoa; hain zuzen ere, egiturazko arazoei aurre egiteko ematen dituen konponbideen errendimenduak beherakorrak direlako. Ikuspegi horren arabera, kolapsoa prozesu ekidiezina izango litzateke beren konplexutasuna etengabe handitzeko beharra duten gizarteetan. Ildo horretan, Taibok (2020), batetik, eta Fernández Duránek eta González Reyesek (2024), bestetik, uste dute gaur egungo zibilizazioaren kolapsoa ia saihestezina dela. Hala, haien ustez, kolapso horren ondorioak arintzea eta «gainbehera luze» baterako prestatzea beste aukerarik ez dugu.

Hala ere, garrantzitsua da kontzeptuari egindako kritikak aintzat hartzea, krisiak dituzten sistema guztiak ez baitira ezinbestean kolapsatzen.

Buenok (2024) inurrien gizartea aipatzen du adibide gisa; izan ere, zibilizazio konplexu horrek milioika urte daramatza kolapsoari aurre egiten. Hortaz, Buenoren esanetan, gizarte konplexuek kolapsoa ekidin dezakete, baldin eta egoera egonkor bat lortzeko gai badira eta egoera horrek modu koherentean funtzionatzen badu bere ekosistemarekin; hau da, ekosistemak ezartzen dizkion mugak onartuz eta erresilientzia bermatzeko beharrezkoak diren berrelikadura negatiboak egokituz.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(cat) [Jolasa] 10 turnos para el colapso. sites.google.com/xtec.cat/10torns/joc?authuser=1#h.op7pb1yc0tl1.

(eus-gaz) [Bideoa] Antonio Aretxabala, Carlos Taibo y Antonio Turiel. Desazkundea eta kolapsoa. Decrecimiento y colapso. youtu.be/VO3EZXS2rTc?si=4nZpJSw4CN8WTEu2.

(gaz) [Bideoa] Antonio Turiel: La metáfora de la piedra de oro y el colapso. youtu.be/mwDkfoDRdS0?si=3-rYdiDXJRPtJNhg.

(gaz) [Bideoa] Carlos Taibo: Decrecimiento y colapso. videos.unileon.es/video/65648bce8f4208dd488b4598.

(gaz) [Jolasa] Tiempo de actuar. El pico del petróleo mediante Jolasas. tiempodeactuar.es/blog/el-pico-del-petroleo-mediante-Jolasas/.

(gaz) World3 eredua giza-gizartearen hazkundearen simulazio zehatza da 1900tik aurrera. Hainbat ingurumen- eta demografia-faktore hartzen ditu kontuan (Meadows et al., 1972). insightmaker.com/insight/2pCL5ePy8wWgr4SN8BQ4DD/The-World3-Model-Classic-World-Simulation.

(in) [Jolasa] «Global Sustainability Crossroads». Simulazio-joko partehartzailea, berotegi-efektuko emisioak maila globalean murrizteko politikak testatzeko eta haien ekonomia- eta ingurumen-eraginak ikusteko. geeds.es/global-sustainability-crossroads/.

Erlazionatutako topikoak

Antropozenoa, Krisi ekosoziala.

KONPLEXUTASUNA

Konplexutasuna, Euskaltzaindiaren arabera, «konplexua denaren nolakotasuna» da. *Konplexu* hitzaz eta *-tasun* atzizkiaz osatuta dago. Halaber, konplexua hitza latinezko *complectere* hitzetik dator. Horretan, *com-* au-

rrizkiak adierazten du kontrako elementuak nahasten direla baina horien arteko aldea mantenduz, eta *plectere* hitzak txirikordatu edo lotu esan nahi du. Hala, kontzeptuak, bada, osagai batez baino gehiagoz osatua dagoenari dagokio.

Zentzu horretan, konplexutasuna hitzak hainbat unitateren artean interakzio eta interferentzia ugari daudela adierazten du. Kontzeptu horretan sartzen dira, besteak beste, ziurgabetasuna, zehaztugabetasuna eta ausazko fenomenoak izan daitezkela. Konplexutasuna, bere osagaiak ikusita, zoriarekin lotuta dagoela adierazi ohi da.

Konplexutasuna zati desberdinez osatuta dagoen sistemaren ohiko atributua da. Zati horiek oso ugariak izan daitezke eta elkarri eragiten diote era askotan. Zatien interakzio horren emaitza banakako osagaien batura baino handiagoa da; baina, Morinek adierazten duen bezala (2006), kontrakoa ere gerta daiteke, hau da, osotasuna bere atalen batura baino txikiagoa izatea.

1948an, Weaverrek «Zientzia eta Konplexutasuna» izeneko artikulua argitaratu zuen (Weaver, 1948). Horretan, gaia aztertzen zuen, eta sinpletasunaren, konplexutasun desantolatuaren eta konplexutasun antolatuaren ezaugarriak alderatzen zituen. Hala, osotasun organiko batean erlazionatzen diren faktoreen kopuru aldakor bat kontuan hartzera garamatzan ezaugarri gisa deskribatzen zuen konplexutasuna.

Konplexutasunaren ikuspegiak bilakaera bat izan du. Hasiera batean, ezinbestean elkarri eragiten dioten elementu heterogeneoak aipatzen ditu. Gero, errealitatea gertakari, ekintza, elkarrekintza, berrelikadura eta zehaztapen multzo gisa ikusteko garatzen da ikusmolde hori.

Errealitate konplexua ulertzea funtsezkoa da Hezkuntza Ekosozialean. Hezkuntzaren ikuspegitik, konplexutasuna lantzeko beharrezkoa da pentsamendu konplexuaren barruan bildutako trebetasun intelektualak garatzea. Pentsamendu konplexuak, jakintza zientifikoaren esparruan, munduaren uniformetasunei edo erregulartasunei buruzko proposamenak (baieztapenak) egiten ditu errealitatea azaltzeko eta iragarpen arrazoituak egiteko. «Zer gertatzen da» galderari erantzuten saiatzen da, eta fenomenoen konplexutasuna kontuan hartzen du. Halaber, «zer egin behar dugu» galderari erantzuten laguntzen digu, eta hori funtsezkoa da ekintzara bideratutako hezkuntzan.

Ikuspegi ekosozialak aurre egiten dio zientzia tradizionalean aurkitu ohi dugun joera erredukzionistari (hura eskola jakintzaren ezaugarria da). Izan ere, zientzia tradizionala positibista eta zatikatua da, eta kausalitate linealetarako joera du; eta, hortaz, mekanizista da, ez baitago diseinatuta fenomeno konplexuen berezko konexioak eta agerpenak «ikusteko».

Konplexutasuna lantzeko pentsamendu kritikoa ere garatu beharra dago. Pentsamendu kritiko horrek jakintza zientifikoari berari eragiten

dio. Kuhnek adierazi egin zuen zientzia gizakiek egindako egitura konplexua dela, eta, beraz, paradigmaren kontzeptua garatu zuen, bere bertute eta akatsekin[76].

Funtsezko aldea dago zailaren eta konplexuaren artean. Zaila den hori lantzeko, sinplifikatu behar dugu. Aitzitik, konplexua dena sinplifikatzen badugu, bidean baztertu edo ahaztu behar ditugu ulermen osoa izateko kontuan hartu beharreko hainbat elementu.

Konplexutasunaren paradigmak bi ohartarazpen egiten dizkigu: Mapa ez da lurraldea eta lurraldeak aldatu egiten dira.

Konplexutasunaren kontzeptua ez da paradigma teoriko berri baten abiapuntua —ezta teoria berri batena ere, konplexutasunaren teoriarena, alegia—, baizik eta haren emaitzetako bat. XX. mendeko azken hamarkadetan egindako dekonstrukzio eta elaborazio desberdinen emaitza da, oraindik osatu gabe dagoena, batez ere mendebaldeko pentsamenduan XVII. mendetik gaur egunera arte nagusi zen paradigma kartesiar-mekanizistaren sinplifikazioen aurka.

Zientziaren munduan, sistemen teoriaren eskutik egiten da konplexutasunera hurbiltzeko lehen ahalegina. Teoria horrek sistema konplexuetan ezartzen diren hainbat eskalatako loturak aztertzen ditu. Sistemen Teoria Orokorra 1930eko hamarkadatik aurrera biologoak garatzen dituen lanetatik sortu zen. Lan horietan, Von Betalanffyk aztertu egiten du, adibidez, termodinamikaren legeek sistema itxi eta irekietan duten eginkizuna (azken horien adibide gara izaki bizidunak). Horrela, holismoa nabarmentzen du erredukzionismoaren ordez, eta organizismoa mekanizismoaren ordez.

Ildo horretan, 1973an, Francisco Varela eta Humberto Maturana biologo txiletarrek autopoiesiaren kontzeptua proposatu zuten, sistema bizien antolaketak duen espezifikotasunaren berri emateko, horiek osatzen dituzten osagaien autoprodukzio-sare itxi gisa. Sistema autopoietikoen ezaugarri dira ingurumenarekiko interakzioak, beren biziraupena bermatzeko helburuz. Sistema horietan, bada, agertzen diren propietateak ikus daitezke, faktore- edo eragin-multzo baten ondorio gehigarriak; eta horiek ez ziren posible izango baterako ekintza hori gabe.

Ikuspegi horrek, halaber, Gaia teoriaren garapena erraztu zuen. Hura eboluzioaren teoria holistiko bat da, eta Mendebaldean hainbat mendez nagusi izan den paradigma erredukzionista eta, batez ere, antropozentrikoa baztertzen du. Gaia teoria ideia sinple honetan oinarritzen da: izaki

[76] Paradigmak zientzia egiteko arauak, moduak eta baldintzak ezartzen ditu garai jakin batean, eta erraz onartzen diren pentsamendu-korronteak eta kontzeptuak eta erresistentzia handia jasaten duten horiek ere ezartzen ditu.

bizidunek beren ingurunean eragiten dute, ez dira ingurura egokitzen soilik. Ekologia konplexu holistarentzat, komunitate edo antolaketa biologiko batek bere ingurune fisikoarekin duen interakzioaren emaitza da ekosistema. Teoria horren lehen teorizatzailea Lovelock izan zen.

Konplexutasunaren begiradak Margulisen teoria sinbiotikoa baloratzeko aukera ematen digu. Hala, haren bere ekarpenak ulermen neketsuko ariketa bat egitea eskatzen du, Darwinen eboluzionismotik abiatuta. Izan ere, Darwinek berak ere kreazionismo dogmatikoari aurre egin behar izan zion, antzeko modu batean.

Gaur egun, konplexutasunak ezagutza zientifikoko arlo bat osatzen du, eta bertan hainbat diziplina garatzen dira. Esate baterako, Bak-en (Bak, 1996) kritikalitate auto-antolatua dugu (Ibañez, 2007). Hark eskala txikian elkarreragiten duten sistema handiak aztertzen ditu, hala nola ekosistemak edo lurrikarak. Han kokatzen dira kaosaren teoria eta hura kontrolatzeko edo ulertzeko zientziak ere. Kaosaren teoriak, bada, linealak ez diren eta hasierako baldintzen aldaketarekiko oso sentikorrak diren sistema konplexu eta dinamikoak lantzen ditu. Edward Lorenz lehen aitzindarietako bat izan zen arlo horretan. Bere meteorologo-taldearekin deskubritu zuen egungo egoera meteorologikoak etorkizuneko egoera baldintzatzen duela, baina egungo egoerararako hurbilketak ez duela etorkizuneko egoerarako hurbilketa mugatzen. Hau da, aldaketa txiki bat: Brasilen hegoak arrotzen dituen tximeleta ospetsuak aldaketa handiak —tornadoa— eragiten ditu Texasen. Kaosaren teoriak eta hura kontrolatzeak ezagutza garatu dute atmosferaren zientzietan, medikuntzan edo ekonomian.

Konplexutasunaren kontzeptua berandu sartu zen gizarte-zientzietan, baina, gaur egun, eragile autonomoen ereduei (ABM) eta sare sozialak aztertzeko sistema konplexu moldakorrei (SNA) buruzko ikerketak egiten ari dira, eta horrek gizarteak eta kulturak modelizatzeko aukera ematen du. Lan horiek Stauffer-ek eta beste batzuek bultzatu dituzte, Journal of Artificial Societies and Social Simulations aldizkiaren inguruan (Stauffer).

Konplexutasuna lantzea funtsezkoa da ingurumen-hezkuntza ekosozialean: «*(...) zatikatzen, murrizten eta isolatzen duen sinplifikazioaren paradigmaren aurrean, eta ezagutzak pentsamendu konplexuaren bidez beste modu batera antolatzeko beharraren aurrean*» (Morin, *Introduction à la complexité*, 1993); izan ere, errealitatearen ezagutza lantzen dugunean, eskola-jakintzara eramatean, errealitatearen ulermena lausotzen eta desitxuratzen duten sinplifikazioak egin ohi ditugu, eta alde batera uzten dugu elkar indartzen edo elkarri eragiten dioten elementu berezi ugarien presentziak duen konplexutasuna. Izan ere, Zientziaren espezializazio izugarriak errealitate konplexua zatikatzera garamatza, eta haren irudikapena errealitatetzat hartzen dugu. Edgar Morinek dio bereziki garrantzitsua dela filosofiaren edo soziologiaren eremuko bereizketa, eta pentsamendu

konplexuaren araua proposatzen du, konplexutasuna pentsatzen eta horretan murgiltzen laguntzeko (Urteaga, 2010).

Errealitatea ulertzeko modu hori zazpi printzipioren inguruan antolatzen da[77] (Morin, 1999):

1. Printzipio sistematikoa edo antolakuntzakoa, Pascalen printzipioan oinarritua. Pascalek uste zuen ezinezkoa zela zatiak ezagutzea osotasuna ezagutu gabe, eta alderantziz. Morinek honako hau nabarmentzen du: «... osotasun baten antolaketak ezaugarri edo propietate berriak sortzen ditu, zatiak banaka hartzearekin alderatuta.
2. Printzipio hologramatikoa, hau da, osotasuna zatietan inskribatuta dagoela, isla gisa.
3. Atzeraeraginezko begiztaren edo atzeraelikaduraren printzipioa, kausalitate linealaren printzipioa hausten duena.
4. Begizta errekurtsiboaren printzipioa, auto-ekoizpenean eta auto-antolaketan datzana. Morinen esanetan: «... begizta sortzaile bat, zeinetan produktuak eta efektuak horiek sortzen dituenaren eragile dira...».
5. Autonomia/mendekotasunaren printzipioa (auto-ekoantolaketa). Zentzu horretan, organismo horiek beren ingurunea behar dute; izan ere, inguruneak ematen dizkie autonomia horri eusteko energia, informazioa eta antolaketa.
6. Printzipio dialogikoak «... kontzeptu kontraesankorren banaezintasuna arrazionalki onartzeko aukera ematen du, fenomeno konplexu bat kontzebitzeko...» Morinek logika bikoitz baten printzipioa azpimarratzen du, ordena eta desordena bezalako nozio antagonikoak ulertzeko eta antolaketa sortu ahal izateko.
7. Ezagutzen duena ezagutza guztietan birsartzeko printzipioa. Horren arabera, ezagutza oro pertsona batek egiten duen berreraikuntza/itzulpena dela, kultura eta denbora espezifiko baten arabera.

Hainbat egilek iraunkortasunerako konpetentziaren osagaitzat hartu dute konplexutasunaren lanketa. Halaber, irakasten dutenen prestakuntzan betetzen duten zeregina azpimarratu dute; izan ere, konplexutasuna bere aberastasun osoan ulertzeko, beharrezkoa da hainbat ezagutza-eremu eta ikuspegi aintzat jartzea, hala nola lehen adierazitakoak. Hori ikaskuntzaren xede eta helburu izan behar da herritarrak prestatzeko

[77] Zenbait egileren arabera zazpi printzipioetako hiru pentsamendu konplexuaren printzipio metodologikoak dira, ziurgabetasunari aurre egiteko eta errealitatea finkatzeko: printzipio hologramatikoak, begizta errekurtsiboa eta printzipio dialogikoa (Urteaga, 2010).

hezkuntza-sisteman. Hezkuntza-erantzun horrek ezinbestean garamatza zeharkakotasunera, hainbat modalitatetan, hala nola diziplina anitzekoan, diziplinartekoan edo habia egitean.

Europako Itun Berdearen esparruak, bere ekintzen barruan, Iraunkortasunaren arloko Konpetentzia (Green Comp) garatzen du. Konpetentzia horrek hezkuntza-programak orientatzea ahalbidetzen duten osagaien multzo bat identifikatzen du, ikasleek enpatiaz, arduraz eta zaintzaz pentsatzeko, planifikatzeko eta gure planeta babesteko moduak gara ditzaten.

Gaitasun horren funtsezko osagaia iraunkortasunaren konplexutasuna onartzea da, eta, horretarako, Europako Batzordeak funtsezkotzat jotzen du ikasleek pentsamendu sistemikoa, pentsamendu kritikoa eta arazoen testuingurua maneiatzeko duten gaitasuna (Bianchi, Pisiotis, & Marcelino, 2022):

> Pentsamendu sistemikoa: iraunkortasun-arazo bati alderdi guztietatik heltzea; denbora, espazioa eta testuingurua kontuan hartzea, sistemetan eta haien artean elementuek nola elkarreragiten duten ulertzeko. Bederatzi muga/atalase planetarioen proposamena ikuspegi bat izan daiteke.
>
> Pentsamendu kritikoa: Informazioa eta argudioak ebaluatzea, suposizioak identifikatzea, *statu quo*a zalantzan jartzea eta testuinguru pertsonalek, sozialek eta kulturalek pentsamenduan eta ondorioetan nola eragiten duten hausnartzea.
>
> Arazoak testuinguruan jartzea: Egungo erronkak edo erronka potentzialak iraunkortasun-arazo gisa formulatzea, zailtasunari, inplikatutako pertsonei, denborari eta eremu geografikoari dagokienez, arazoak aurreikusteko eta prebenitzeko ikuspegi egokiak identifikatzeko, baita lehendik daudenak arintzeko eta horietara egokitzeko ere.

Hezkuntza Ekosoziala bat dator Morinek konplexutasuna ulertzeari dagokionez planteatzen duen helburu etikoarekin. Ziurgabetasuna pentsamendu konplexuaren tresnekin lantzeak aukera ematen du, batetik, basakeriari aurre egiteko gaitasuna izateko, eta, bestetik, bizitza betea izateko gaitasuna izateko. Horrek hiru nortasun onartzea eskatzen du: banakakoa, soziala eta antropologikoa. Eta, gainera, kontua da desager daitekeen hori maitatzea; izan ere, zehatzena, onena, konszientzia, edertasuna eta arima hauskorrak eta galkorrak dira (Burotto & Ganga, 2011).

Morinek berak ohartarazten digu: konplexutasuna makurra da, osatu gabea. Ez du zentzurik espazio berri honen mapa oso batean pentsatzeak; hori arrazionalizazio murriztailearen eskema sinplifikatzailera itzultzea litzateke.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(cat) REDICS-Escola de Cultura de Pau. Decàleg de criteris de justícia global per a la valoració i l»elaboració de materials curriculars de ciències socials. escolapau.uab.cat/img/programas/educacion/decaleg/DecalegCriterisJusticiaGlobal_WEB.pdf.

(gaz) Filosofía para niños. Programa educativo. filosofiaparaninos.org/programa-filosofia-para-ninos/.

(gaz) Fuhem. Mbolo moy dole. La unión hace la fuerza. www.fuhem.es/product/mbolo-moy-dole-la-union-hace-la-fuerza/.

(gaz) Fuhem. Sembrar el aula viva. www.fuhem.es/product/sembrar_el_aula_viva/.

(gaz) Maldita.es. Desinformación. Toca igualdad Kit de recursos contra la desinformación y bulos. drive.google.com/file/d/1k58tjFHKm09JY-8ZIPl6a5BtsHu3a7a7Q/view.

(in) Montrose biology. Ecologies Jolasa de mesa. montrosebiology.com/collections/all.

Erlazionatutako topikoak

Biodibertsitatea, Zuhurtasun printzipioa, Sistema.

KRISI EKOSOZIALA

1. Egungo egoeraren diagnostikoa

Munduko egungo egoeraren argazki bat honako elementu hauekin lor daiteke:

a) Datu eta ebidentzia zientifiko ugarik adierazten dute garai aldaketa baten aurrean gaudela: baliabide ugari, merkeak eta itxuraz mugagabeak dituen garai batetik, hazkunde mugagabearen mitoaren aurrean mugak (energetikoak, materialak, biologikoak...) erabat erabakigarriak izango diren batera, gero eta degradatuagoa dagoen eta ekologia hauskorragoa eta hondatuagoa duen planeta batean. Hala adierazten dute klima-aldaketa globalak edo biodibertsitatearen murrizketa azkarrak; izan ere, espezieen seigarren desagertze masiboa da.

b) Zientziarik onenak argi eta garbi ohartarazten digu planetaren mugen aurka gabiltzala. Muga ekologikoen zeharkatzea[78] egungo errealitatearen datu bazterrezina da. Eta, gainera, gainditze hori desberdintasun sozial gero eta handiagoen testuinguruan gertatzen da [79], ezaugarri hauekin: prekarizazio gero eta handiagoa, gizarte- eta lan-eskubideen suntsipena, ondasun komunen pribatizazioa eta zerbitzu publikoak eta gizarte-babesekoak hondatzea. Horren ondorioz, zaintza etxeetara transferitzen da [80], eta, horrekin batera, gizarte patriarkal horietan emakumeek —batez ere— horretan ematen duten denbora konfiskatzen da.

   Gero eta handiagoa den desberdinkeriaren esparru horretan, **etorkizuneko belaunaldiek eta pobreek**, hain zuzen ere, muga ekologikoak gainditzean erantzukizun gutxien duten horiek, horrek eragindako arrisku handienak jasaten dituzte. Etorkizuneko belaunaldiak, hain zuzen ere, gu oraina jaten ari garelako; izan ere, planetaren baliabide mugatuak arduragabekeriaz xahutzen eta bizitzari eusten dioten oinarriak narriatzen ari gara, eta, hortaz, etorkizuna modu dramatikoan hipotekatzen[81]. Eta pobreek, adibidez, oso ahalmen txikia dutelako, bai larrialdi klimatikoari aurre egiteko (kalteberagoak dira[82], azpiegitura eskasak dituzte, haien oinarri ekonomikoa ahulagoa da[83]…) eta bai erabaki handietan eragiteko.

---

[78] Azken ikerketena arabera, planetan giza bizitza segurua bermatzeko gainditu behar ez liratekeen 9 muga planetarioetatik 6 gainditu dira dagoeneko (Science Advances, 2023; Rockstrom, 2009). 2025ean, zazpigarren muga gainditu dela ziurtatu da.

[79] Munduko % 1 aberatsenak 2020tik sortutako aberastasun berriaren ia bi heren (42 bilioi dolarretan baloratua) bereganatu dituzte mundu mailan, gizateriaren gainerako % 99ren bikoitza ia (OXFAM, 2023ko urtarrila).

[80] Zaintza-lanak, sistema honetan, soldatapeko lanaren ezkutuko aurpegia dira, haren hondakina eta oinarria; pribatizatu, feminizatu eta ikusezin bihurtzen den lana. Deitu ditzagun *zainketa-txarrak* (Pérez Orozco, 2017). Giza bizitza «planetaren hondoko ondasunetan (uraren zikloa, polinizazioa, fotosintesia...)» eta erreprodukzioaren «lan ikusezinetan» oinarritzen da (Pérez Orozco, 2019).

[81] Gizarte tekno-industrialaren metabolismoa bizitza sortzen duten elementuetatik elikatzen da, eta atzetik uzten ditu hondakin toxikoak, basamortuak, lurzoru pobre eta kutsatuak, ibaiertz hilak, gainazal zementatuak, erradioaktibitatea, buru homogeneoak eta etorkizun zalantzagarria Lurreko pertsona eta espezie gehienentzat»(Fernando Cembranos, 2010, Yayo Herrerok aipatua, 2020).

[82] Azken txostenaren arabera (IPCC, 2022), «giza zaurgarritasun handiko gune kritikoak munduan bereziki Afrika mendebaldean, erdialdean eta ekialdean, Asia hegoaldean, Erdialdeko eta Hego Amerikan, garatzen ari diren uharteetako estatu txikietan eta Artikoan daude». Horrek adierazpen izugarria du zenbakitan: «2010etik 2020ra bitartean, uholdeen, lehorteen eta ekaitzen ondoriozko giza hilkortasuna 15 aldiz handiagoa izan zen oso zaurgarriak ziren eskualdeetan, oso zaurgarritasun txikiko eskualdeekin alderatuta».

[83] Munduko Bankuak, 2012ko txosten batean, adierazi zuen herrialde pobreentzat hain handia dela denboraleen, lehorteen eta uholdeen kostuaren igoera, *ezen garapeneko hainbat*

Izan ere, **botere kontzentrazio** izugarria dago, gutxiengo bereganatzaile eta asegaitz baten eskuetan (benetan erabakitzen den tokietan elkartzen dena, hala nola Davosen eta antzekoetan). Gutxiengo horrek, funtsean, bere interesak eta pribilegioak defendatzen ditu. Pobreek, mundu anker honetan, ez dute axolarik [84].

c) Bestalde, metaketa kapitalistaren dinamikak —gogora dezagun sistemaren nortasun-ikur nagusia dela— aspaldi ari dira alarma-seinaleak ematen. Horiek ez dituzte inoiz *30 urte loriatsuen* [85] hazkunde-tasak berriz ere lortu, eta Munduko Bankuak ziurtatu egin du 2020-2024 bosturtekoan % 20 murriztu dela 2010-2019 aldiko joera-hazkundea. Eta hori, gainera, familien, korporazioen eta estatuen zorpetze izugarriaren esparruan gertatzen da (...). Kontuan izan behar dugu zor globala 300 bilioi dolar ingurukoa dela (munduko BPGa baino 3,5 aldiz handiagoa) edo 2022an zor publikoa % 7,8 handitu dela 2021arekin alderatuta (...)» (Fernández y Hernández, 2022).

d) Baliabide gero eta gutxiago dituen mundu batean («eskasiaren aroan» sartzen ari gara), eta kapitala erreproduzitzeko zailtasun nabariak dituen mundu batean. Hau da, irabazi-tasa ona lortzeko, eliteek, beren pribilegioei eta bizimodu «inperialei» eusteko, «esplotazioa areagotuz» erantzuten dute. Dagoeneko, «geratzen dena beregarantzeko lasterketa neurrigabea» ikusten ari gara; izan ere, bizitzarako oinarrizko baliabideak (ura, lurra, arrantza, basoak, geneak, airea...) pixkanaka merkantilizatzen eta bereganatzen ari dira. Ondorioz, baztergarritzat jotzen diren gizakiak bere habitatetatik botatzen ari dira, eta gero eta gehiago esplotatzen ari dira baliabide naturalak (estraktibismoa eta neokolonialismoa) eta giza baliabideak (lan-esplotazioa). Horrek, bada, inpaktuak eragiten ditu. Argi eta garbi bidegabeagoa eta eutsiezinagoa den mundu baterantz goaz, eta, horri eusteko, beharrezkoa izango da komu-

---

hamarkada atzera egiteko arriskua baitago. Eta biztanle gehienek planeta osoko karbono-estilo baxuenak dituzte (Klein, 2015).

[84] «IPCCren VI. txostenak argi eta garbi esan zuen bezala, ehunka milioi bizitza hari batetik zintzilik egongo dira, ahalbidetzen edo saihesten dugun berotzearen gradu erdi bakoitzarekin» (Klein, 2022). OXFAMen 2023ko azaroko txostenaren arabera, klima aldaketaren ondorioz 1,3 milioi pertsona hilko dira, gehienak hamarkada honetan.

[85] Kapitalismoaren urrezko aroa edo urrezko urteak —frantsesez *Trente Glorieuses* edo Hogeita Hamar Urte Loriatsuak bezala ere ezagutzen direnak— 1945eko Bigarren Mundu Gerraren amaieratik 1973-1975eko Atzeraldira bitarteko aldi historikoari egiten dio erreferentzia; hain zuzen ere, hazkunde ekonomiko handiko eta enplegu beteko ia hiru hamarkada izan ziren Mendebaldeko herrialdeetan.

nikabideak, sare sozialak eta gero eta autoritarioagoak[86], errepresiboagoak[87], militarizatuagoak[88] y belicistas.

2. **Krisi ekosoziala**

> Ez daude bi krisi, bata ingurumenekoa eta bestea soziala, baizik eta gizarte eta ingurumen krisi bakar eta konplexu bat. (Frantzisko aita santua, 2015).
>
> Krisi ekologikoa eta soziala txanpon beraren alde biak dira. (Yayo Herrero, 2024).

Egungo egoeraren diagnostikoa egitean, ondo ulertzen da zergatik den **krisia** kontzepturik erabiliena. Dena den, badirudi hau ez dela kapitalismoaren beste krisi bat; itxura guztien arabera, egungo zibilizazio-ereduaren krisi bat da, hau da, ekoizpen eta kontsumo eredu eutsiezin horren krisia, planetaren bizitza eta gizateriaren etorkizuna arriskuan jartzen ari dena. Krisi globala da, mundu globalizatu baten eta dimentsio anitzeko krisi baten ondorio (klimatikoa, biodibertsitatearena, energetikoa, ekonomikoa, soziala...).

Krisi ekosoziala da, gure ustez, zibilizazio-krisi hori ondoen definitzen duen kontzeptua. Komunikabideetan ohikoa da haren alderdietako batzuk aipatzea (batez ere, krisi klimatikoa), baina, betiere, alderdi horien artean inolako loturarik egongo ez balitz bezala. Krisi ekosozialaren kontzeptuak, aldiz, alderdi horien guztien arteko lotura nabaria azpimarratzen du[89], eta nabarmentzen du adierazpen horiek egungo gizarteek naturarekin duten interakzio-moduaren ondorio zuzenak direla.

---

[86] Iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera, politika autoritarioek adierazpen eta elkartze askatasuna kaltetu zituzten, genero berdintasunari eraso zioten eta sexu eta ugalketa eskubideak kaltetu zituzten (Amnistia Internacional, 2024).

[87] Krisi ekonomikoek, klima-aldaketak eta ingurumenaren narriadurak neurriz kanpo kaltetzen dituzte baztertutako komunitateak. Komunitate horien alde agertzen diren giza eskubideen defendatzaileek erasoak jasaten dituzte, disidentziaren aurkako errepresioaren esparruan. Emakumeen eta nesken eskubideen eta LGBTI pertsonen eskubideen aurkako erasoa areagotu egin da. Arraza-talde batzuen aurkako gorrotoa eta Interneteko beste eduki kaltegarri batzuk areagotu egin dira. Adimen artifizialaren arloko aurrerapenak, berriz, askatasunak murrizteko eta giza eskubideak urratzeko erabiltzen dira (Amnesty International, 2024).

[88] Munduko gastu militarrak beste marka bat hautsi zuen % 6,8 igotzean. Izan ere, gastu hori eskualde guztietan hazi da, eta 2,44 bilioiko zifrara iritsi da, Stochkholm International Peace Research Institute zentroaren azken txostenaren arabera (SIPRI, 2024).

[89] Adibide gisa, besteak beste, krisi klimatikoaren eta sozioekonomikoaren arteko lotura dugu: Egokitzapen Batzorde Globalaren txosten baten arabera (2019), «krisi klimatikoaren ondoriozko lehorteak, beroak eta muturreko klimak nekazaritza errendimendua % 30 murriztuko lukete 2050r. urterako», eta horrek eragina izango luke krisi ekonomikoan (prezioen igoera...) eta sozialean (gero eta gose gehiago...).

> Klima-aldaketa sintoma da, baina kapitalismoa da gaixotasuna (Riechmann, 2017).
>
> Kapitalismoaren aparteko ezaugarria da apokalipsia eragiten duela, eta gero bere burua apokalipsiaren arrazoizko irtenbide bakartzat saltzen saiatzen dela (Hickel, 2020).

Instituzioen adierazpenei (*Eusko Jaurlaritzaren Larrialdi Klimatikoaren Adierazpena*, 2019...) eta prentsako titular askori begiratuz gero, badirudi nolabaiteko adostasuna dagoela bizi dugun egoeraren larritasun ikaragarriaren inguruan.

> Hala ere, adostasun hori desagertu egiten da kausak eta erantzuleak aipatzerakoan. Elite ekonomiko, politiko eta mediatikoek *statu quo* bat defendatzen dute, hain zuzen ere, beren pribilegioak mantentzen dituena (...) gaur egun tentsio handian dauden dinamika ekonomiko, ingurumeneko eta geopolitikoen azterketa integrala saihesten dute (...), eta arazo bakoitzari irtenbide partzialak eta/edo teknologikoak (digitalizazioa, kapitalismo berdea, atlantismoa) ematen dizkiote, gaur egun behar ditugun eraldaketa sistemiko sakonak ekidin nahian. (Fernández y Hernández, 2022)

Izan ere, egoera horren arrazoi sakonak argitzea saihesten dute; eta, ondorioei aurre egiteko, egoera honetara ekarri gaituen bidean sakontzea proposatzen dute: merkatu gehiago eta teknologia gehiago, gero eta gehiago erauzten, ekoizten eta kontsumitzen jarraitzeko. Hau da, hazten jarraitu nahi dute, hori bai, modu «berde eta digitalean», baina baliabide beherakorrak dituen planeta batean. Orain arte ez da horrelakorik gertatu, hazkundeak materialen eta energiaren kontsumo handiagoa[90] eta inpaktu handiagoak ekarri dituelako. «Kapitalismoa eta teknozientzia errealitatearen printzipioaren aurrean matxinatu dira» (Riechmann, 2022).

Krisi ekosozialaren konponbidea ez da etorriko, ez «gauza guztien» merkantilizaziotik (oinarrizko baliabideak eta oinarrizko giza beharrak), ezta aldaketa teknologiko miragarri baten eskutik ere: fusio nuklearra (ITER) ez da beti aipatzen den energia-iturri mugagabea eta ez-kutsatzailea izango, hura ez baita inoiz gauzatzen; energia berriztagarriek ezin dute erregai fosilek orain arte eman duten prestazio-maila bera eskaini; karbonoa harrapatzea eta biltzea ilusionismo teknologiko bat besterik ez da, nekez gaindituko ditugun oztopo tekniko, finantzario eta ingurumeneko asko dituena; hidrogenoa ez da izango panazea energetikoa elektrifikatu ezin diren erabilera guztietarako etab.

[90] «NBEren arabera, munduan erauzitako lehengaien kopurua % 70 handitu zen 2002tik 2017ra bitartean» (Reyes eta Almazán, 2023). Adibide argigarri bat: ordenagailu bat fabrikatzeko beharrezkoa da haren pisua materialetan mila aldiz erauztea eta prozesatzea, eta horietako asko urriak dira gainera.

Agerikoa bada ere, azpimarratu beharra dago: nahiz eta «berdez eta digitalez jantzi», hazkunde mugagabearen bidea ezinezkoa da baliabide mugatuak dituen planeta batean, eta, gainera, horretan tematzeak larriagotu egiten du krisi ekosoziala. Baina hazkunde ekonomikoa kapitalismoaren DNAren sakonean dago, eta, izan ere, hori lortzen ez duenean, krisian sartzen da. Horregatik, eliteek bultzatutako irteera guztiek kosta ahala kosta mantendu nahi dute hazkunde hori, nahiz eta horrek amildegi batera eramango gaituen.

Krisi ekosoziala gizarteek naturarekin duten interakzio-moduaren ondorioa dela ulertzen badugu, horren konponbidea bakarrik lortu daiteke interakzio horren paradigman eta garapen-eredu nagusian aldaketa sakon bat eginez. Norabide aldaketa hori inolako atzerapenik gabe egiteko deiak gero eta toki gehiagotik datoz. Hona hemen adibide batzuk:

> Oina azeleragailuan trabatuta daukagu eta amildegirantz goaz (Ban Ki-Moon, NBEko idazkari nagusi ohia, 2009).
>
> Mundua zaintzeko eta hobetzeko asmoak aldaketa sakonak eskatzen ditu gaur egungo gizartearen bizimoduetan, ekoizpen- eta kontsumoereduetan eta botere-egitura finkatuetan (Frantzisko aita santua, 2015).
>
> Beharrezkoa da kapitalismoaren oinarri den hazkunde ekonomikoa bertan behera uztea (IPCCren seigarren txostenaren zirriborroa, 2021).
>
> Bidegurutze historiko baten aurrean gaude: edo bide okerretik jarraitzea edo norabidea aldatzea (...). Eraldaketa hori bultzatzeko beharrezkoa da (...) Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkunde erantsian oinarritzen den garapen-eredua bertan behera uztea (...) (COVID19aren osteko Euskal Herriko ekonomia ekologiko baten alde, 2020)

Berandu samar da. Ezinbestekoa da ahalik eta lasterren Trantsizio Ekosozial bat abian jartzea. Hark hazkunde mugagabearen paradigmatik urrundu beharko gaitu, eta, orain arte bezala irabazi ekonomikoa etengabe bilatu beharrean, honako helburu nagusi hau izan beharko du: pertsonen zein ekosistemen bizitza zaintzea eta babestea.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Berria. *Kutsaduraren erraldoiak*. www.berria.eus/euskal-herria/kutsaduraren-erraldoiak_1258049_102.html.

(eus-gaz) Federación de MRPs de Madrid y Ecologistas en Acción. *99 galdera eta 99 esperientzia mundu bidezko eta iraunkor batean bizitzen ikasteko* www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/adjuntos-spip/pdf/99-preguntas-euskara.pdf/ *99 preguntas y 99 experiencias para aprender a vivir en un mundo justo y sostenible* www.ecologistasenaccion.org/wp-content/uploads/adjuntos-spip/pdf/99-preguntas.pdf.

(gaz) Área de Educación de Ecologistas en Acción. *Nueva cultura de la Tierra*. tienda.ecologistasenaccion.org/home/2771-libro-nueva-cultura-de-la-tierra-9788412777406.html.

(gaz) Centro de Investigación para la Paz (CIP-Ecosocial). *La crisis ecosocial en clave educativa. Guía didáctica para una nueva cultura de paz.* www.fuhem.es/media/ecosocial/file/Proyecto%20Dimensiones%20de%20la%20paz/Guia%20ecosocial/GUIA_ECOSOCIAL_texto_completo.pdf.

(gaz) Fuhem (2020). *El mundo actual.* www.fuhem.es/product/el-mundo-actual-una-mirada-ecosocial-e-interdisciplinar-4o-eso-2/.

(gaz) González Reyes, L. (2024, noviembre 12). Cómo enseñar Geografía e Historia desde la mirada ecosocial. El Diario de la Educación. eldiariodelaeducacion.com/2024/11/12/como-ensenar-geografia-e-historia-desde-la-mirada-ecosocial/

(gaz) Nieto, Mara y Monsó, G. (2021). *El uso sostenible de los recursos naturales. Propuestas educativas ecosociales y transformadoras.* Fuhem.

(in) Our World in Data. ourworldindata.org/.

Erlazionatutako topikoak

Antropozenoa, Hezkuntza ekosoziala, Trantsizio ekosoziala.

N

NAHIKOTASUNA

1993an, Ernest Garcíak, *Sostenibilidad, suficiencia, sociología* («*Iraunkortasuna, nahikotasuna, soziologia*») izeneko artikuluan, nahikotasun-kulturaren kontzeptua sortu zuen, balio, arau eta bizimodu sistema gisa; oreka-modua arautzeko eta haientzat esanahia lortzeko; «nahikoa den horren» betetzea arautzeko, eta ez hazkunde mugagabea; eta galtzen ari garen horren eta zergatik galtzen ari garen jakitun izanik.

Gure planeta sistema itxi eta mugatu gisa ulertzen da, eta sistema horren barruan ez dago hazkunde mugagabea izan dezakeen azpisistema ekonomikorik edo sozialik. Hala ere, egungo ekonomiek eta erauzketa-politikek Lurraren mugak gainditzea behartu dute (Richardson et al., 2023). Azken hamarkadetan, gero eta lehenago amaitzen da urtero eskuragarri dagoen kapital naturala; hala, 2023ko abuztuaren 2an amaitu zen kapital hori (WWF, 2023). Izan ere:

> Bizirik irauteko mailaren gainetik, bilakaera kulturala eta gatazka politikoak dira bete beharreko premiak ezartzen dituztenak. Beraz, premiak sozialki eraikitzeko prozesuak aztertzea beharrezkoa da; ekonomiak sortutako ondasun eta zerbitzuekin edo sortu gabeko eta, oro har, sor ezin daitezkeen ingurumen-funtzio erabilgarriekin asetzen dituzten prozesuak aztertzea bezain beharrezkoa, behintzat. (García, 1993)

Beraz, gure sistema sozial eta ekonomikoa bi elementu hauek kontuan hartuta diseinatu behar dugu: planetaren mugak eta gure ekodependentzia. Hau da, gure beharrak betetzeko premia dugu, baina mugak ere baditugu.

Hala, eztabaida bat agertzen da, hain zuzen ere, lurreko populazioaren hazkunde esponentziala horren kausa garrantzitsua den edo gizarte-

eredu kapitalistak eragin handiagoa duen. Hau da, aztertu behar dugu ea Lurraren bioahalmena nahikoa litzatekeen, egungo kontsumo-gizartearen gehiegikeririk gabe; kontuan hartuta hura, gaur egun, 1,6 hektarea globalekoa dela pertsona/urte bakoitzeko (WWF, 2022).

> Nahikotasun-kultura sustatzeko herrialde aberastuek desazi behar dute, gehiegizkoa eta nabarmena den hori murriztu behar dugu; eta horrek, bada, materiaren eta energiaren kontsumo txikiagoa eta hondakinak murriztea esan nahi du. Nahikotasun-kultura sortzea giza premiak ekintza kolektibo, sozial eta politikoaren bidez asetzea da, tokiko eta eskualdeko mailan. Horretarako, aldaketak egin behar dira ekoizpen, banaketa, garraio, kontsumo, aisialdi eta elikadura ereduetan. Baina, batez ere, planetako pertsona guztientzako «bizitza ona» ekarriko duen eredua ezartzea da. Ondo bizitzea gutxiagorekin! (Hernández *et al*., 2009)

Borondatezko soiltasunaren pentsamendu-korrontea xumetasunez bizitzearen aldekoa da, hobeto bizitzeko; eta elkarrizketa sozial zabalago bat sortu nahi du, hazkundean oinarritutako kontsumo-gizarteetatik nahikotasun materialean eta energia berriztagarrian oinarritutako gizarte erresilienteago, berdinzaleago eta atseginagoetara igarotzeko beharrari buruz (Simplicity institute, 2024).

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Fuhem. (2022). DOSIERES Ecosociales Diálogo sobre calidad de vida y necesidades humanas. Fuhem. www.fuhem.es/wp-content/uploads/2022/07/DOSIER_Ecosocila-DIALOGO-SOBRE-CALIDAD-DE-VIDA-Y-NECESIDADES-HUMANAS.pdf

(gaz) González Reyes, L. (2018). *Educar para la transformación ecosocial*. FUHEM.

(gaz) Kois, Y. & Morán, N. (2022, septiembre 8). Educación Ecosocial: Entre la pedagogía del desastre y la anticipación de alternativas. *Raíces en el Asfalto*. raicesyasfalto.wordpress.com/2022/09/08/educacion-ecosocial-entre-la-pedagogia-del-desastre-y-la-anticipacion-de-alternativas/

(eus) [Cuento infantil] Alboan (2023). Adela igela. centroderecursos.alboan.org/ebooks/0000/1519/C-ALB-ADE.pdf

Erlazionatutako topikoak

Iraunkortasuna, Azelerazio handia, Bizitze ona.

O

OILOZENOA

Ikus *Antropozenoa*.

P

PLANETAREN MUGAK

Lurraren muga biofisiko seguruak erakusten dituzten adierazleen multzo batek definitzen ditu planeten mugak. Muga horiek gaindituz gero, planetako bizitzan hondamendia eragin dezaketen prozesu ez-linealak sor daitezke.

2009an, Stockholmeko Erresilientzia Zentroko Johan Rockströmek nazioarteko 28 zientzialari zuzendu zituen lurreko sistemaren egonkortasuna eta erresilientzia erregulatzen dituzten prozesuak identifikatzeko. Beren hausnarketak *A safe operating space for humanity* (*«Gizateriarentzako espazio operatibo segurua»*) (Rockström et al., 2009) lanean argitaratu zituzten, eta planeten mugen kontzeptua sortu zuten. Ikuspegi horrek erakutsi egin du iraunkortasun globaleko politiken garapenean eragiteko gai dela.

Muga planetarioek, beraz, jokaleku planetarioaren marjinak ezartzen dituzte gizakiontzat, mundu mailan aldaketa ekosozial atzeraezina saihesteko. Planetaren muga bat edo gehiago zeharkatzea kaltegarria edo katastrofikoa izan daiteke; izan ere, zenbait atalase zeharkatzean ingurumen-aldaketa malkartsu eta ez-lineala eragiteko arriskua dago, kontinenteko eta planetako eskalako sistemen barruan. Gizateriak dagoeneko hiru muga planetario hautsi omen ditu: klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera tasa eta nitrogenoaren ziklo globalaren aldaketak (Yus, 2015).

Rockströmek eta bestek (2009) kontuan hartu beharreko bederatzi muga proposatzen dituzte, bi multzo hauetan sailkatuta:

- Planeta mailako prozesu sistemikoak: klima aldaketa, ozeanoen azidifikazioa eta ozono estratosferikoa.
- Tokiko eta eskualdeko eskaletatik agregatutako prozesuak: nitrogeno eta fosforo ziklo globalak, atmosferako aerosolen karga, ur kontinentalen erabilera, lurren erabilera aldaketak, biodibertsitatearen galera eta kutsadura kimikoa..

2015ean, Steffenek eta bestek planetaren mugen azterketa eguneratua eta zabaldua eskaintzen dute. Hasieran proposatutako bederatzi mugetatik, Lurraren sistema egoera berri batera bultza dezaketen hiru identifikatzen dituzte (klima-aldaketa barne), horiek zeharkatuz gero. Identifikatutako hiru mugek, halaber, eragin orokorra dute gainerako mugetan ere. Era berean, planetaren mugen esparrua garatzen dute, hori eskualde-testuinguruan modu erabilgarrian aplikatu ahal izateko.

2023an, Richardsonek eta bestek planeten mugen esparruaren eguneraketa bat argitaratu zuten. Bederatzi mugetatik sei hautsi egin direla ikusi dute, eta horrek aditzera ematen du Lurra gizateriarentzat segurua den eremu operatibo horretatik oso kanpo dagoela orain. Ozeanoen azidifikazioa gainditzear dago; aerosolen kargari dagokionez, berriz, muga gainditu dugu eskualde mailan. Ozono estratosferikoaren mailak zertxobait suspertu dira. Gainditze-maila handitu egin da lehen ere gaindituta zeuden muga guztietan. Lehen mailako ekoizpenak lurreko sistemaren biosferaren funtzioak bultzatzen dituenez, gizakiak lehen mailako ekoizpen garbiaz jabetzea proposatzen da biosferaren osotasun funtzionala kontrolatzeko aldagai gisa. Bada, muga hori ere urratu egin da. Klima-aldaketaren eta Lurreko sistemaren mugak hainbat mailatan gainditu izanak erakusten du Lurreko sisteman eragindako inpaktu antropogeniko horiek aintzat hartu behar direla testuinguru sistemiko batean.



3. *irudia*. SEQ Ilustración * ARABIC 2. *Azotek egina Stockholm Resilience Centre-rako*, Stockholm University. Richardson *et al.* (2023), Steffen *et al.* (2015), eta Rockström *et al.* (2009) lanetan oinarrituta.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

Aipatutako artikuluetan, hezkuntza-baliabide gisa erabil daitezkeen grafikoak agertzen dira. Gainera:

(gaz) BBC Mundo: Los 9 límites que mantienen a la Tierra en equilibrio youtu.be/ETHXpdx-blo?si=zDqNtbZUWfR79K3L.

(gaz) Territorios sostenibles: Gráficas territoriossostenibles.com/cambio-climatico/limites-planetarios/ .

(in) [Bideoa] Centro de la Resiliencia de Estocolmo: Johan Rockström on navigating planetary boundaries for a sustainable future. www.youtube.com/watch?v=QCFGS6z9CxM&pp=ygUUUGxhbmV0YXJ5IEJvdW5kYXJpZXPSBwkJsgkBhyohjO8%3D.

(in) [Bideoa] Centro de la Resiliencia de Estocolmo: Planetary Boundaries. youtu.be/Ga2zi3TWVE4?si=M0wmP2VY2gGSPkF1.

Erlazionatutako topikoak

Klima-larrialdia, Energia eta trantsizio energetikoa, Sistema.

S

SISTEMA

Sistema bat helburu komun bat lortzeko elkarrekin funtzionatzen duten elementu interkonektatuen multzoa da; haren egitura funtsezkoa da haren funtzionamendua eta eraginkortasuna ulertzeko.

1. **Sistema baten elementuak**

- Erreserbak (edo osagaiak): hauek dira sistema osatzen duten oinarrizko elementuak edo baliabideak. Sistema ekologiko batean, adibidez, erreserbak landareak, animaliak, ura eta lurzorua lirateke. Hezkuntza-testuinguru batean, ikasleak, irakasleak, material didaktikoa eta eskola-instalazioak izan daitezke.
- Erlazioak: Sistemaren osagaien arteko konexioak edo interakzioak dira. Erlazio horiek mugatzen dute nola lan egiten duten sistemaren elementuek elkarrekin, eta energia-, informazio- edo material-fluxuak har ditzakete. Harremanak funtsezkoak dira sistemaren kohesiorako eta funtzionaltasunerako, elkarrekintza horien bidez definitzen baita sistemaren dinamika.
- Helburua edo funtzioa: Sistema orok helburu edo xede bat du, eta horretara bideratuta dago haren funtzionamendua. Hezkuntza-sistema batean, helburua ikasleen ikaskuntza eta garapen integrala erraztea izango da. Sistema ekologikoetan, aldiz, helburuak zehaztea zailagoa izan daiteke, eta iraunkortasunarekin eta oreka ekologikoarekin lotutako funtzioei buruz hitz egiten dugu gehiago.

2. **Sistemaren egituraren garrantzia**

Sistema baten egiturak zehazten du osagaiak nola antolatzen eta erlazionatzen diren. Antolamendu hori funtsezkoa da, barneko eta kanpoko aldaketen aurrean sistemaren eraginkortasuna eta erresilientzia ekartzen duelako. Egiturak, beraz, baliabideak nola banatzen diren eta informazioa nola jariatzen den definitzeaz gain, sistema denborarekin nola egokitzen eta bilakatzen den ere definitzen du.

Adibidez, genero-berdintasuna eta iraunkortasun ekologikoa sustatzen dituen hezkuntza egitura batek bermatzen du ikasleen, irakasleen eta curriculumaren arteko harremanek, ezagutzak transmititzeaz gain, elkarrekiko errespetuko, ingurumenaren zaintzako eta justizia sozialeko balioak ere sustatzen dituztela. Egitura horrek pentsamendu kritikoa, lankidetza eta ikasleen ikaskuntzan eta komunitatean parte-hartze aktiboa sustatzen duten metodo pedagogikoak beharko ditu.

Kontuan hartu beharra dago sistema bera dela bere arazoen iturri nagusia. Izan ere, sistemaren egiturak bere dinamika mugatzen du.

Adibidez, bi erreserba eta erreserba batetik besterako fluxu jarraitua duen sistema sinple batek hurrengo grafikoarena bezalako bilakaera izan dezake. 1. erreserba (marratxoak grafikoan) betetzen den bitartean, 2. erreserba (puntutxoak grafikoan) hustu egiten da. Berdin da erreserbak bi ontzi izatea, batetik besterako ur-fluxua dutenak, edo bi talde sozial izatea, esate baterako, aberatsak eta klase ertainak, bigarrenetik lehenerako aberastasun-fluxua dutenak.



4. *irudia. Bi erreserba eta erreserba baten fluxu jarraitua duen sistema sinplea.*
Iturria: Geuk egina.

Sistemak irekiak edo itxiak izan daitezke. Sistema irekiek energia, materia eta informazioa trukatzen dituzte beren ingurunearekin, eta horrek aukera ematen die kanpoko aldaketetara egokitzeko eta horiei erantzuteko. Sistema itxiek, berriz, kanpoaldetik nahiko isolatuta mantentzen dituzte beren barne-prozesuak. Sistema horien barruan, feedback edo atzeraelikadurako begiztek funtsezko zeregina betetzen dute: indartzaileek aldaketak handitzen dituzte, hazkundea edo gainbehera sustatuz, eta konpentsatzaileek egonkortasuna eta oreka bilatzen dute, aldakuntzei aurre eginez.

Adibidez: tenperatura globalaren igoerak izotzaren urtze handiagoa eragiten du lurrazalean. Izotzak eguzki-erradiazioa islatzen —ispilu batek bezala— eta erradiazio hori kanpora bidaltzen duenez, izotza gutxiago egotean eguzki-erradiazio gehiago xurgatzen da eta, ondorioz, atmosferaren tenperatura igotzen da, berotze efektua handiagotuz.

Sistema baten erresilientzia sistemak perturbazioei aurre egiteko eta horiek leheneratzeko duen gaitasuna da, funtzionaltasunari eutsiz. Hala ere, sistemaren erantzunen atzerapenek prozesu horretan eragin dezakete, ekintzaren eta haren efektuaren artean atzerapena sortzen baitute, eta, hortaz, sistemaren kudeaketa eta egokitzapena zailtzen baitute. Testuinguru horretan, eragin-puntuak edo *leverage points* identifikatzea ezinbesteko zeregina da sistemak eraginkortasunez kudeatzeko; izan ere, sistemaren barruan dauden puntu horietan, esku-hartze txikiek aldaketa esanguratsuak eragin ditzakete.

Sistema baten konplexutasuna aniztasunetik eta osagaien arteko interakzio-sare korapilatsuetatik sortzen da, eta horrek, askotan, aurreikusteko zailak diren jarduera berriak sortzen ditu. Konplexutasun hori gorabehera, iraunkortasuna bilatzea funtsezko helburua da, eta egungo premiak asetzeko gai izango diren sistemen garapena sustatzen du, hurrengo belaunaldietakoak arriskuan jarri gabe.

Sistemen barruan, hierarkiak hainbat mailatan antolatzen ditu osagaiak, bakoitzak bere azpisistemekin, eta, horrela, sistema osoa ulertzea eta kudeatzea errazten du. Autoantolaketa funtsezko beste ezaugarri bat da, eta sistemek modu espontaneoan egitura ordenatuak garatzea ahalbidetzen du, kanpoko kontrolik behar izan gabe. Azkenik, moldagarritasunak adierazten du sistemak zer gaitasun duen giro-aldaketen aurrean moldatzeko eta eboluzionatzeko, eta horrek bere biziraupena eta eraginkortasuna bermatzen du denboran zehar.

Kontzeptu horiek integratzeak ikuspegi dinamikoa eta holistikoa —errealitatea osotasun gisa ikustea— eskaintzen du sistemei begiratzeko. Izan ere, oso garrantzitsua da sistemaren egitura eta funtzionamendua ulertzea, etengabe aldatzen ari den mundu honetan praktika jasangarriak eta erresilienteak sustatzeko.

3. **Ekosistema**

Ekosistema bat sistema konplexu bat da, eta haren elementuak izaki bizidunak —makroskopikoak eta mikroskopikoak, fotosintetikoak eta ez-fotosintetikoak— dira. Izaki horiek eremu jakin batean bizi dira eta beren artean eta ingurune abiotikoarekin (lurzorua, ura, argia, atmosfera) interakzioan daude. Ekosistemaren elementu bakoitzak erlazioren bat du gainerakoekin. Izaki fotosintetikoak argia eta airea behar dute materia organikoa sortzeko, eta, horrela, kate eta sare trofikoak sortzen dira. Horietan, materia eta energia izaki bizidun batzuetatik beste batzuetara mugitzen da. Kate trofikoaren amaieran, deskonposatzaileek (bakterioek, onddoek...) materia organikoa inorganiko bihurtzen dute, eta zikloa hasten da. Horiek guztiek ingurune abiotikoarekin ere elkarreragiten dute: argia, ura, mantenugaiak, substratu gisa balio dute, etab. Ekosistemak basamortua bezain handiak edo arroka bateko putzua bezain txikiak izan daitezke.

Ekosistemak funtsezkoak dira; izaki bizidunek bizirauteko eta ugaltzeko behar duten guztia aurkitzen duten espazio naturalak direlako. Espezieen eta haien ingurune abiotikoen arteko harremanek biodibertsitatea mantentzeaz gain, gizakiek eta beste bizimodu batzuek behar dituzten zerbitzu ekosistemikoak ere sostengatzen dituzte, hala nola uraren arazketa, oxigenoaren ekoizpena eta lurzoruaren ongarritze naturala.

3.1. *Erlazioak ekosistemetan*

Ekosistema baten harremanez hitz egitean ekologiaren alderdirik liluragarrienetako batean murgiltzen gara. Harreman horiek askotarikoak eta konplexuak dira, eta organismo bizidunen arteko interakzioak (harreman biotikoak) eta organismoen eta haien ingurune fisikoaren artekoak (harreman abiotikoak) biltzen dituzte.

3.1.1. **Harreman biotikoak**

Harreman biotikoak izaki bizidunen arteko interakzioak dira. Besteak beste:

- Harrapakaritza: Espezie bat (harrapakaria) beste batez (harrapakina) elikatzen da, eta horrek eragina du bien populazioetan, eta eremu bateko espezieen banaketa determina dezake.
- Lehiaketa: bi espezie edo gehiago baliabide mugatu berengatik (elikagaia, ura, argia, espazioa) lehiatzen dira. Horrek bietako baten bazterketa ekar dezake (espezie batek beste bat menderatzen du), edo biak aldi berean egotea, nitxoak bereiziz .

- Mutualismoa: Tartean dauden espezieentzat onuragarria den interakzioa da. Adibidez, erleak loreen nektarraz elikatzen dira eta, aldi berean, landareak polinizatzen dituzte, eta hori funtsezkoa da haien ugalketarako.
- Komentsalismoa: Harreman batean espezie batek ez du ez kalterik ez onurarik jasotzen. Adibidez, zuhaitzetan habiak egiten dituzten txoriak.
- Parasitismoa: Organismo bat (parasitoa) beste baten (ostalaria) kontura bizi da, normalean hura hil gabe. Parasitoek eragin nabarmena izan dezakete ostalariaren osasunean eta biziraupenean.

3.1.2. **abiotikoak**

Harreman abiotikoak organismoen eta haien ingurune ez-biziaren arteko interakzioak dira. Besteak beste:

- Klima: tenperatura, prezipitazioa, eguzki-argia eta haizea organismoen banaketan eta portaeran eragina duten faktore klimatikoak dira.
- Lurzorua: Lurzoruaren ezaugarriek, hala nola egiturak, konposizio kimikoak eta ura gordetzeko gaitasunak mugatzen dute eremu batean zer landare haz daitezkeen, eta, horrek, aldi berean, zer animalia bizi daitezkeen bertan.
- Ura: Uraren eskuragarritasunak ekosistema guztietako bizitzan eragiten du. Funtsezkoa da, bai prozesu biologikoetarako, bai habitata eratzeko.
- Nutrizio-elementuak: Mantenugaien eskuragarritasunak eragina du organismoen hazkundean eta osasunean. Adibidez, nitrogenoa eta fosforoa funtsezkoak dira landareak hazteko.

3.2. *Ekosistemen helburuak edo funtzioak*

Ekosistemen kasuan, helburuak baino gehiago funtzio edo rol ekologikoak aipa daitezke:

- Ziklo Biogeokimikoak: Ekosistemek funtsezko eginkizuna dute funtsezko mantenugaien zikloak mantentzeko, hala nola karbonoarena, nitrogenoarena, oxigenoarena eta urarena. Ziklo horiek bizitza ahalbidetzen dute bizitzarako elementuak birziklatzean, eta hori ekosistemaren «funtziotzat» har daiteke, Lurrean bizitza mantentzeko.

- Biomasaren ekoizpena: Ekosistemek eguzki-energia biomasa bihurtzen laguntzen dute fotosintesiaren bidez. Funtzio hori funtsezkoa da elikadura-katearen oinarrirako, landareen eta animalien bizitza mantentzen baitu.
- Habitata: Ekosistemek bizitzeko tokia eskaintzen diete hainbat espezieri, baita gizakiari ere. Izan ere, beharrezko espazioa eta baliabideak eskaintzen dizkiete, bizitzeko, elikatzeko, ugaltzeko eta bizi-zikloak osatzeko.
- Prozesu ekologikoen erregulazioa: klimaren erregulazioa, airearen eta uraren arazketa, landareen polinizazioa, higaduraren aurkako babesa eta hondamendi naturalak arintzea, hala nola uholdeak eta urakanak.

Ikuspegi antropozentriko batetik ere, eta interdependenteak eta ekodependenteak garen heinean, ekosistemen osasuna ezinbestekoa da. Izan ere, biztanle zaurgarrienak eta baztertuenak, maiz, tokiko baliabide naturalak behar dituzte, eta gehiago sufritzen dituzte kalte ekologikoak. Adibidez, kultura askotan, emakumeak dira ekoizle nagusiak; beraz, ekosistema baten narriadurak neurriz kanpoko eragina izan dezake. Babes eta leheneratze ekologikoaren alde egitea biztanle horien ekitatearen eta bizi-baldintzen hobekuntzaren alde ere egitea da.

Bestalde, ekosistemen kudeaketan parte-hartze demokratikoa benetan aplika daiteke. Tokiko komunitateei beren tokiko ekosistemei eragiten dieten erabakietan zuzenean parte hartzen uzteak iraunkortasuna eta justizia sustatzen ditu; izan ere, ingurumen-politikek gehien eragiten dietenek hitza eta botoa dute horiek formulatzean eta gauzatzean.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) [Bideoa] Ikusgela. *Nola iristen dira espezie inbaditzaileak ekosistema berrietara?* youtu.be/0wnqgZXeskM?si=eOEbw1DH-DBVeEyN.

(eus-gaz) CEEP-SESZ. 50 proposamen basoa ingurugiro ikuspegitik ikertzeko www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sos_inter_educa_publicaciones/eu_def/adjuntos/50_proposamen_basoa_ikertzeko_Irakasleei_orientabideak_e.pdf / 50 propuestas para estudiar el bosque desde una perspectiva medioambiental. www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sos_inter_educa_publicaciones/fr_def/adjuntos/50_propuestas_para_estudiar_el_bosque_Orientaciones_profesorado_c.pdf.

(eus-gaz) Sukarrieta Taldea. Ura: aniztasunari ekiteko hamaika proposamen: lehen hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza www.euskadi.

eus/gobierno-vasco/-/libro/ura-aniztasunari-ekiteko-hamaika-proposamen-lehen-hezkuntza-derrigorrezko-bigarren-hezkuntza/ / Agua : propuestas para abordar la diversidad. www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sos_inter_educa_publicaciones/es_def/adjuntos/AGUA_PROPUESTAS_PARA_ABORDAR_LA_DIVERSIDAD_c.pdf.

(gaz) Ceneam. Materiales didácticos sobre biodiversidad. www.miteco.gob.es/es/ceneam/recursos/mini-portales-tematicos/biodiversidad-recursos.html.

(gaz) Fuhem. ¿Dónde están los peces de nuestro río? Situación de aprendizaje para Primaria. tiempodeactuar.es/blog/donde-estan-los-peces-de-nuestro-rio/.

(gaz) Fuhem. ¿Hay animales que no sirven para nada? Situación de aprendizaje para Secundaria. tiempodeactuar.es/blog/hay-animales-que-no-sirven-para-nada-situacion-de-aprendizaje-para-secundaria/.

(gaz) Gobierno de Canarias. Materiales sore ecosistemas. www3.gobiernodecanarias.org/medusa/ecoescuela/recursosdigitales/tag/ecosistema.

(gaz) Intef. Procomún. Recursos sobre ecosistemas. procomun.intef.es/search-odes?f[0]=labelsstr_keyword:ecosistemas.

(in) Creative Learning Exchange: http://www.clexchange.org/ En especial, los siguientes:

(in) Learning through System Dynamics as Preparation for the 21st Century by Prof. Jay W. Forrester. Explains the advantages of a system dynamics education for the future. http://static.clexchange.org/ftp/documents/sdintro/D-4434-1.pdf.

(in) Road Maps: A Guide To Learning System Dynamics teaches the basic principles of system dynamics and introduces you to modeling and simulation. http://www.clexchange.org/curriculum/roadmaps/default.asp.

(in) System Dynamics and Learner-Centered-Learning in Kindergarten through 12th Grade Education by Prof. Jay W. Forrester. Presents the author»s views on how system dynamics may improve classroom learning. http://static.clexchange.org/ftp/documents/sdintro/D-4337.pdf.

(in) System Dynamics for Kids by Jim Hight. An overview of the use of system dynamics computer modeling in K-12 education. http://static.clexchange.org/ftp/documents/sdintro/D-4489-1.pdf.

(in) System Dynamics Meets the Press, an excerpt from The Global Citizen by Donella H. Meadows. Discusses the experiences of the author

in introducing system dynamics to the public and the mass media. http://static.clexchange.org/ftp/documents/sdintro/D-4143.pdf.

(in) The Beginning of System Dynamics by Prof. Jay W. Forrester. Provides a personal point of view about the development of system dynamics. http://static.clexchange.org/ftp/documents/sdintro/D-4165-1.pdf.

Erlazionatutako topikoak

Antropozentrismoa, Konplexutasuna, Interdependentzia.

SOLASTALGIA

Ikus *Ekoherritartasuna*.

SUMINDURA

Sumindura emozio zabala da, baina hemen Jasperrek (2011) aipatutako emozio moralaz ari gara, intuizioetan edo printzipio moraletan oinarritutako gaitzespen-sentimenduei dagokiena. Hura, zuzena (edo okerra) egitearekin erabat lotutako emozioa da, baita zuzena (edo okerra) sentitzearekin ere.

Hain zuzen, haserrearen forma moral bati buruz ari gara; norberari edo hirugarren bati egin zaion eta merezitakoa ez den kalte baten aurrean sentitzen dena —jarraibide moral, kultural eta historikoki espezifiko baten arabera— (Castillo, 2020).

Azken hogei urteotan, gizarte protesta edo gizarte mugimenduak bezalako fenomenoetan gertatzen diren emozioei buruzko ikerketak eta teoriak ugaritu dira. Horrela, sumindura hori mobilizazioaren eta ekintzaren emozio estrategiko bihurtu da (Jasper, 2011).

Freireren arabera (2012):

> Munduan dugun presentzia ez da neutroa, eta hautatzea eta erabakitzea eskatzen du. Behatzeko, alderatzeko eta ebaluatzeko gaitasuna, hain zuzen ere, aukeratzeko nola erabiliko dugun gure herritartasuna hiriko bizitzan, hala erabakitzen dugunean, funtsezko konpetentzia bihurtzen da.

Bere esanetan, pertsonen presentzia ez da neutroa Lurrean; izan ere, pertsonek, egokitzen ez ezik, eraldatzen ere saiatzen dira. Beraz, ahalik eta modu kritikoenean onartu behar dugu munduan izateak duen izaera politikoa, batez ere guk geuk edo gure inguruan bizi ditugun bidegabekerien

aurrean. Ildo horretan, aukera bideragarri guztiak erabili behar direla adierazten du, ez helburu gisa bakarrik, baizik eta horrekin koherenteak diren praktikak garatzeko.

Hezkuntzan, ikuspegi «freiriarrak» bi esanahi ditu aurrez aurre. Batetik, banku hezkuntza deituko duguna —Bourdieuren eta Gramsciren teoriekin bat—, jarrera akritikoa garatzen eta kontzientzia inozoa erreproduzitzen saiatzen dena, elite zapaltzaileen botereari eusteko. Bestetik, hezkuntza askatzailea, pertsonak beren egoeraz gehiago jabetzea proposatzen baitu, askeagoak eta humanoagoak izatea. Beraz, kontzientziazioan sakontzeko eta gizakia «munduarekin» aurrez aurre jartzeko hezkuntza problematizatzailea proposatzen du, gehiengo handiak marjinaltasun eta esplotazio baldintzetan bizitzea eragiten duten kausak gainditzen saiatzeko» (Morán eta Méndez, 2012). Testuinguru horretan, ikuspegi fatalista eta arazoen aurrean jarrera apatikoa gainditzen dituen suminduraren pedagogiak duen indarra baloratu behar da; suminduraren pedagogia eta itxaropenaren pedagogia (Freire, 2008, 2009).

2010eko hamarkadaren hasieran, pertsona suminduen mobilizazioak izan ziren hainbat tokitan: Egipto, Tunisia, Madril, Atenas, Wall Street... «Haserretik jaio zen nazismoaren aurkako erresistentzia eta haserretik sortu behar da gaur merkatuen diktaduraren aurkako erresistentzia», gogoratu digu José Luis Sampedrok 2011ko *¡Indignaos!* lanaren hitzaurrean (Shessa). Sampedrok axolagabekeria —jarrerarik txarrena— gainditzeko erronka botatzen du. Immigranteei, paperik gabekoei, emakumeei eta beren sexualitate fisikoa era askotara bizi duten pertsonei ematen zaien tratuaren aurrean indarkeriarik gabeko haserrea piztera animatzen gaitu. «Zuen ingurura begiratu, zuen haserrea justifikatzen duten kontuak aurkituko dituzue» (Hessel, 2011).

Ikasle batzuek arazo ekologiko eta sozialekiko sentsibilizazioa erakusten dute gazte-gaztetatik. Baina sentsibilizazioak, konpromisorik gabe, gure ikasleek jasotzen duten estimulu-oldearen ondorioz, axolagabekeria, apatia edo kezkarik eza eragin ditzake. Ez litzateke horrela izango sumindura piztea lortuko bagenu, hau da, arazoak hurbil sentitzea (maiz hurbil izango dira), bihotzean eta tripetan min ematea eta min hori ekintzaren motorra izatea lortuko balitz.

Kontuz! Ateak eta leihoak zabalik utzi behar ditugu, gure gazteek ikus dezaten irteerak daudela, itxaropena dagoela. Itxaropenerako hezi behar ditugu, jakin dezaten beren esku dagoela aldaketan parte hartzea. Eta transgresioan hezi behar ditugu, arauen mugekin jokatu behar dute, bakoitzaren eta guztien askatasunaren mugekin. Hala ulertu zuen Ipar Amerikako bell hooks idazleak (2024). Eskolan, ikasleek gatazkaren bat konpondu behar dute, irabazten utzi behar zaie, ahalegina, zailtasuna, porrota eta, zergatik ez, arrakasta bizi dezaten. Bi alderdi horiek, sumindura eta transgresioa, beharrezko ahalduntzearen eragile izango dira.

Sumindura bidegabekeriaren isla da, eta harekin lotzen dira, besteak beste, bi kontzeptu garrantzitsu. Batetik, haserrea barruranzko emozioa da, ekintzaren barne-eragile bihur daitekeena, eta errukia kanporako emozio gisa ikusten da (Castillo, 2020). Hala, haserreak errukia eta ekintza eraldatzailea sortzen lagun dezake. Eta bestetik, Dusselek dioenez (2011), «Sumindura beharrezkoa da, baina berehala parte-hartze demokratiko bilakatu behar da, horixe baita demokraziaren beste adarra».

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Emaus. Bidezko merkataritza. issuu.com/grupoemausfundacionsocial/docs/bidezko_merkataritza_ud_lh. Irakasle gida: issuu.com/grupoemausfundacionsocial/docs/bidezko_merkataritza_ud._dbh1.

(eus) IPES. Alfabetatze emozionala. cineddhh.org/eu/gida-didaktikoak/zinemateka-lehen-hezkuntza/6-alfabetatze-emozionala/.

(gaz) Caro Valverde, M. T. y Vicente Ruiz, P.A. Proyectos de innovación para aprender a argumentar en Educación Secundaria. (indignación) www.carm.es/web/descarga?IDCONTENIDO=20765&ALIAS=PUBT&RASTRO=c$m4330&IDADIC=15690&ARCHIVO=-Texto+Completo+1+Proyectos+de+innovaci%C3%B3n+para+aprender+a+argumentar+en+Educaci%C3%B3n+Secundaria.pdf.

(gaz) Economistas sin fronteras. Por una economía más justa. ecosfron.org/portfolio/guia-didactica-por-una-economia-mas-justa/.

(gaz) Economistas sin fronteras. Una economía de mucho cuidado. ecosfron.org/portfolio/o-una-economia-de-mucho-cuidado/.

(gaz) Educación y justicia social. Filosofía con niños y niñas para abordar aspectos de injusticia social. educacionyjusticiasocial.blogspot.com/2016/02/filosofia-con-ninos-y-ninas-para.html.

(gaz) Educación y justicia social. Por cuatro esquinitas de nada. educacionyjusticiasocial.blogspot.com/2016/01/algunos-recursos-para-trabajar-la.html.

(gaz) Fuhem. ¿Qué hay detrás del precio de un plátano? blogs.fuhem.es/tiempodeactuar/wp-content/uploads/sites/235/4.CosteReal_Platano.pdf.

(gaz) Infamusic. Ejemplo de privilegios e injusticia social con una papelera. www.infanmusic.com/educacion/experiencias/888-ejemplo-de-privilegios-e-injusticia-social-con-una-papelera.html

(gaz) Tres actividades educativas para jóvenes con las que combatir la discriminación. www.es.amnesty.org/en-que-estamos/blog/historia/

articulo/tres-actividades-educativas-para-jovenes-con-las-que-combatir-la-discriminacion/.

Erlazionatutako topikoak

Krisi ekosoziala, Ahalduntzea, Balioak.

T

TAULA PLANETARIOA

Lurra aldatzeko eragile nagusia, gaur egun, giza jarduera da, batez ere sistema ekonomiko kapitalista globala. Izan ere, hark sortzen ditu gure planetan elkarri eragiten dioten duten prozesu fisiko, kimiko, biologiko eta giza prozesuak. Ondorio hori agerian geratzen da *Anthropocene Review* aldizkarian, 2015eko urtarrilaren 16an argitaratutako «taula planetarioan», 24 adierazle global biltzen dituena (Steffen *et al.*, 2015).

Hamabi adierazle hauek giza jardueren joera sozioekonomikoak erakusten dute:

1. Populazioa
2. BPG erreala
3. Atzerriko inbertsio zuzena
4. Hiri-populazioa
5. Energia primarioaren munduko kontsumoa.
6. Ongarrien kontsumoa
7. Presa handiak
8. Ur-kontsumoa
9. Papergintza
10. Garraioa
11. Telekomunikazioak
12. Nazioarteko turismoa

Beste hamabi adierazle hauek aldaketak erakusten dituzte Lurra sistemaren osagai ekologiko nagusietan:

1. Karbono dioxidoa
2. Oxido nitrosoa
3. Metanoa
4. Ozono estratosferikoa
5. Gainazalaren tenperatura
6. Ozeanoen azidifikazioa
7. Itsas arrainen harrapaketa
8. Izkiren akuikultura
9. Nitrogenoa kostaldean
10. Baso tropikalak galtzea
11. Lur artifizializatua
12. Lurreko biosferaren narriadura

«Taula planetario» berri horrek agerian uzten du Lurraren ibilbideak eta giza garapena estuki lotuta daudela orain.

Ikerketak giza jardueraren bilakaera (edo «Azelerazio Handia») azaltzen du, 1750ean industria-iraultza hasi zenetik 2010era arte, eta horrek Lur Sisteman eragin dituen aldaketak ere, adibidez, berotegi-efektuko gasak, ozeanoen azidifikazioa, deforestazioa eta biodibertsitatearen narriadura.

Azken emaitza gisa, ia grafiko guztiek eredu bera erakusten dute. Aldaketa dramatikoenak 1950az geroztik izan dira. Beraz, esan dezakegu Azelerazio Handiaren hasiera 1950 inguruan izan zela.

> 1950az geroztik, sistema ekonomiko globalari dagozkion aldaketekin zuzenean lotuta egon dira Lur sistemaren aldaketa nagusiak. Hura fenomeno berri bat da, eta erakusten du gizateriak planetarekiko erantzukizun berri bat duela mundu-mailan. (Steffen et al., 2015)

Joera sozioekonomiko guztietatik, presa handien eraikuntzak bakarrik erakusten du kurbaren inbertsio baten edo desazelerazio baten zantzuren bat.

Halaber, Lur sistemaren joera batek bakarrik adierazten du gizakiak nahita egindako esku-hartze baten emaitza izan daitekeen kurba bat; hain zuzen ere, ozonoaren agortzearen aurrean lortutako arrakastaz ari gara. Bestetik, itsas arrainen harrapaketa egonkortu egin da 1980ko hamarkadatik, baina, tamalez, ez da itsas kudeaketaren ondorio, gehiegizko arrantzaren ondorio baizik.

Jatorrizko 24 adierazleak Geosfera-Biosfera Nazioarteko Programaren (IGBP) lehen sintesian argitaratu ziren 2004an.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(in) Material del Centro de la Resiliencia de Estocolmo: es.slideshare.net/slideshow/great-acceleration-2015/43547922

Erlazionatutako topikoak

Antropozenoa, Azelerazio handia, Planetaren mugak.

TEKNIKA ETA TEKNOLOGIA

Teknika bat objektu baten, animalia-erabiltzaile baten (ez nahitaez gizaki batena) eta haren erabilera-praktiken batura da. Azken horietan, autonomia-maila desberdinak (eskuzko erremintatik hasi eta erabat automatizatutako makinaraino) eta energia-iturriekiko mendekotasun-maila desberdinak (gorputz-energiaren behar esklusibotik energia-kantitate handien erabateko mendekotasuneraino, adibidez, fosilak) bereiz daitezke.

Objektua, erabiltzailea eta praktikak definitzeko, ezinbestekoa da dagokien gizarte zehatzaren deskribapena izatea. Hori dela eta, teknikaz dugun definizioa osatzeko, arestian deskribatutako gizarte-harremanen multzoa barne hartzen duen esparru teknikoa sartu dugu.

Laburbilduz, teknikak munduan antolatzeko, ulertzeko, interpretatzeko eta orientatzeko moduen adierazpen material gisa defini daitezke. Objektu material eta geldo, neutralak izatetik urrun, teknikak materia zatiak dira, non animalien mugimenduak, ekintzak eta praktikak uztartzen diren, baina baita metabolismoak, desioak, sinesmenak, epaiketak, erakundeak, botere-harremanak eta borrokak ere. Hala, aldi berean, gizarte-sorkuntzak, gizartearen dimentsioak eta gizartea eraldatzeko bektoreak dira.

Definizio horretatik abiatuta, teknologiak gizarte moderno, kapitalista eta industrialen berezko teknika gisa deskriba ditzakegu. Bere funtsezko ezaugarriak lirateke, alde batetik, hazkunde kapitalistaren dinamiketatik bereizi ezina eta energia eta material kantitate handiekiko menpekotasun izugarria. Bestalde, izaera inperiala izango zuten. Existitzeko, planetako lurralde desberdinen arteko truke ekologiko eta ekonomiko desorekatu baten mende daude, eta, berez, desberdintasun horren adierazle dira. Azkenik, iruditeria modernoekiko lotura sakon batek zeharkatuko zituen: aurrerapena, kontrol arrazionala, menderakuntza, antropozentrismoa, etab. Teknologiak, aldi berean, horien produktua, egoitza materiala eta erreprodukzio-bektorea dira.

Bi kontzeptu horien arteko eztabaidak ia amaigabeak dira, eta, beraz, mapatzeaz arduratzen diren hainbat diziplina daude: teknologiaren filo-

sofia, teknologiaren historia, teknologiaren antropologia, etab. Hala ere, ibilbide polemiko horren lau mugarritan baino ez gara gelditukо.

Lehenengoa teknika eta teknologia bereizteari edo ez bereizteari buruzkoa da. Hemen egindako proposamena ez da hegemonikoena, eta esan genezake badirela teknika eta teknologia bereizteko orduan ohikoagoak diren beste irizpide batzuk. Gure definizioaren elementu nagusia gizartea bada, beste definizio batzuetan honako hauetan jartzen da fokua: konplexutasuna (teknologiak teknika sofistikatuak diren aldetik), eskala (teknologiak eskala handiko teknikak diren aldetik) edo zientziarekiko harremana (teknologiak oinarri zientifikoko teknikak diren aldetik).

Eztabaidarako beste eremu handi bat da teknika gizakion atributu esklusiboa den edo, aitzitik, beste izaki batzuena ere baden hausnartzen duena. Eta animalien etologiako azterketak gaur egun eztabaidaezinak diren arren, landare edo onddoetara zabaltzea ez da oraindik adostasunezkoa. Gainera, ikuspegi antropozentrikoek beren horretan diraute, eta teknologian ikusten dituzte haren konplexutasun-maila, eskala eta hedadura; gizakiaren elementu esklusibo eta bereizgarria, *homo faber* gisa ulertua. Baita, nolabait, bere garapenaren eta helmugaren iparrorratza ere (erabateko askapen teknologikorako etengabeko aurrerapena).

Gure definizioan kulturari emandako zentraltasunarekin kontrastean, literaturan ere aurki ditzakegu tresna huts gisa aurkezten dituzten teknikaren eta teknologiaren deskribapenak, hau da, sorkuntza neutral gisa aurkezten dituztenak. Ikuspegi horretatik, honako hauek jotzen dira teknikatzat/teknologiatzat: (i) erabilera librerako gai dira; (ii) edozein iritzi moral edo etikoren aurrean immuneak dira (bere erabiltzaile-agentearen gain erori behar du beti), eta (iii) autonomoak dira gizartearekiko eta historiarekiko independente diren aldetik.

Azkenik, eztabaida oso garrantzitsua izan da azken urteotan, arlo teknikoaren eta naturalaren artean muga argi bat ezartzea posible ote den zalantzan jartzen duena. Zenbait nozio hibrido erabiliz (cyborg, sare-aktorea, etab.) gaur egungo zenbait autorek proposatzen dute teknikak eragile gisa ulertzea. Horrela, gizatasunaren, kulturaren eta/edo naturaren baliokide eta banaezin bihurtzen dituzte. Gure definizioan, hala ere, argi eta garbi bereizten da muga hori, nahiz eta, jakina, onartzen den oso lotura eta harreman sakonak daudela.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(gaz) Fuhem. González-Reyes, L. ¿Qué se esconde detrás de la tecnología? Aprendizaje y Servicio. tiempodeactuar.es/blog/que-se-esconde-detras-de-la-tecnologia/.

(gaz) Fuhem. González-Reyes, L. La inteligencia artificial a debate. tiempodeactuar.es/blog/la-inteligencia-artificial-a-debate/.

(gaz) Fuhem. González-Reyes, L. Software libre. Situación de aprendizaje ecosocial. tiempodeactuar.es/blog/software-libre-situacion-de-aprendizaje-ecosocial/.

(gaz) Fuhem. González-Reyes, L. Tecnología y sostenibilidad. tiempodeactuar.es/blog/tecnologia-y-sostenibilidad/.

Erlazionatutako topikoak

Antropozenoa, Krisi ekosoziala, Energia eta trantsizio energetikoa, Teknozenoa.

TEKNOZENOA

Ikus *Antropozenoa*.

TRANTSIZIO/ERALDAKETA EKOSOZIALA

1. Krisi ekosozialari buruz

(Ikusi diagnostiko osoagoa Krisi ekosoziala topikoan) Krisi ekosozialaren larritasuna ezin da gehiago ezkutatu, eta ez da ezkutatu behar ere. Hainbat argitalpen zientifikok argi eta garbi ohartarazten digute ezikusiarena egiteak gero eta gehiago hurbiltzen gaituela amildegira. Argi dago planeta berotzen ari dela, eta badakigu tenperatura zenbat eta gehiago igo orduan eta handiagoa izango dela faktura ekologikoa, ekonomikoa eta soziala. Eta argi dago, era berean, baliabideen «eskasiaren aroan» sartzen ari garela. Ondorioz, gutxiengo batek bere gaur egungo bizimoduarekin jarraitu ahal izateko, gero eta pertsona gehiago miseriara eta marjinaziora kondenatuko ditu, eta, aldi berean, naturaren narriadura larriagotuko da, Hegoalde Globaleko herrialdeekiko zor ekologikoa areagotuz.

Nazio Batuen Erakundeak ezinbestekotzat jo du berotegi-efektuko gasak urtean % 7,6 murriztea, tenperatura globala 1,5 °C baino gehiago igo ez dadin, industriaurreko garaiarekin alderatuta (UNEP, 2019). Larrialdi klimatikoari aurre egiteko azkartasun hori behar dugu, halaber, hain agerikoa ez den baina erabakigarria den beste larrialdi bati aurre egiteko, biodibertsitatearen galerari, alegia.

Planetako bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik, honako hau esan dezakegu:

> Hamarkada honetan gaur egungo norabide jasanezina zuzentzeko gai ez bagara, ekozidioa (ekosistemen eta ziklo naturalen desegonkortze nabarmena eta biodibertsitatean hekatombea) ezaugarri duen agertoki batean murgilduko gara, eta, horrekin batera, genozidioa ere. Horren neurria aurreikusteko zaila da, baina, jakina, ondorio kaltegarriak izango ditu; izan ere, jokoan daude milioika pertsonaren bizitza eta datozen belaunaldien etorkizuna. (Euskal Gune Ekosozialista, 2020)

2. **Trantsizio ekosoziala**

Horregatik, ezin dugu denbora gehiago galdu aldarrikapen hutsetan eta aldaketa kosmetikoetan. Hiztegi honetan jasotzen den «krisi ekosoziala» kontzeptuaren azken paragrafoan hitzez hitz agertzen den bezala:

> Berandu samar da. Ezinbestekoa da ahalik eta lasterren Trantsizio Ekosozial bat abian jartzea. Hark hazkunde mugagabearen paradigmatik urrundu beharko gaitu, eta, orain arte bezala irabazi ekonomikoa etengabe bilatu beharrean, honako helburu nagusi hau izan beharko du: pertsonen zein ekosistemen bizitza zaintzea eta babestea.

Trantsizio ekosoziala «pertsona guztien oinarrizko beharrak betetzen direla bermatzeko garatu behar den prozesua da, baina naturaren oinarrizko mugak eta orekak errespetatuz». Hau da, haren helburu nagusia honako hau izan beharko da: «bizitza duinak pertsona guztientzako, lurralde orekatu eta osasuntsuetan.

Bizitza —eta, hortaz, lurraldearen defentsa ere— erdigunean jartzen duen trantsizio horrek honelakoa izan behar da:

- Sozialki BIDEZKOA, giza eskubide guztiak pertsona guztientzat betetzen direla bermatu beharko duelako, inor atzean gera ez dadin.
- Ekologikoki IRAUNKORRA; izan ere, egungo gehiegikeriaren aurrean, planetaren muga biofisikoetara egokitu beharko da. Horretarako, ezinbestekoa da ekonomiaren esfera materialaren desazkunde bidezkoa sustatzea. Hau da, krisi ekosozialean erantzukizun handiena izan duten eta oraindik duten horiek gehiago murriztu beharko dute, eta, horrela, behar den espazio sozio-ekologikoa askatu beharko dute, «gaur egun esplotatuta, baztertuta eta umiliatuta daudenen bizitzak duinak izan daitezen, eta gainontzeko izaki bizidunekin batera ondo bizi gaitezen, etxe komuna baitugu, Ama Lurraren biosfera, alegia» (Riechmann, 2023).
- Erabat DEMOKRATIKOA, pertsona guztiok dugulako trantsizioaren norabidean parte hartzeko eta erabakitzeko eskubidea. Izan

ere, horixe da trantsizioa gehiengo sozialen —eta ez eliteen— interesak eta beharrak aintzat hartzen eta lehenesten direla bermatzeko bide bakarra.

Yayo Herreroren (2024) hitzetan, trantsizio bidezko hori honelakoa izan behar da:

> bizitza amankomunean berrantolatzeko prozesu partekatua, planifikatua eta desiratua, pertsona eta komunitate guztientzat existentzia duina bermatzeko helburua duena; jakinda eskubide hori dagoeneko mugak gaindituta dituen planeta batean asebete behar dela, eta planeta hori gainerako izaki bizidunekin partekatzen dugula eta belaunaldi gazteenentzat eta oraindik jaio ez diren horientzat gordetzeko ardura dugula.

Horrelako trantsizio batek dakarren erabateko norabide-aldaketa kontuan hartzen badugu, agian egokiagoa litzateke sistema-eraldaketaz hitz egitea, justizia klimatikoaren aldeko adierazpen askoren lelo honekin bat: «Sistema aldatzea, ez klima».

Hain zuzen ere, honako hauek eraldatu behar dituen trantsizio ekosozialaz ari gara: gure ekoizpen, kontsumo eta bizitza eredua eta ekonomia (eredu produktiboa...), energia-eredua (energia-iturriak...), gizartea (zaintza-lanen, osasunaren edota hezkuntzaren antolaketa soziala), kultura (kontsumismoan oinarritutako ohitura indibidualak zalantzan jartzea eta nahikotasuna eta autokontrola bezalako balioak sustatzea...), legeak (ondasun komunak leheneratzeko eta horien kudeaketa publiko-komunitariorako legeak...), lurraldeak (lurraldearen antolamendu ekosoziala...)...

3. **Trantsiziorik eza eta irtenbide faltsuak**

Trantsizio ekosozialaren definizioak dagoeneko martxan dauden proposamen batzuk ebaluatzeko balio du.

Horixe da elite ekonomikoek, bereziki korporazio handiek, bultzatutako trantsizio «berde eta digitalaren» kasua. Trantsizioa negozio-aukera berri gisa planteatzen dute, merkatu berriak irekitzeko eta kapital-metaketaren gurpila berrabiarazteko nitxo berri gisa. «Trantsiziorik eza» da: gehiago, beti gehiago, baina hori bai, «*greenwashing*» askorekin, oinarrizko ezer ez aldatzeko. Ironikoki, botere handiek konbentzitu nahi gaituzte irtenbidea errezeta berak aplikatzea dela, eta krisi ekosoziala sortu duten eragileek berek gidatuta. J. Borderak eta A. Turielek (2021) adierazi duten bezala, lehen «negazionismoan» zeuden eta orain «negozionismoan».

Baita GND (*Green New Deal*) delakoena ere. GNDa eztabaidatzen ari den kontzeptua da, eta planteamendu oso desberdinak hartzen ditu, baina Europar Batasuna bezalako erakundeek sustatutakoak dira garatzen ari direnak. Erakunde horiek egungo krisiari aurre egiteko benetako trantsizio gisa aurkeztu nahi dute *European Green Deal* delakoa, baina hura eliteek proposatutako «irteera faltsuetako» bat besterik ez da. Izan ere, egia esan,

> Ez da hain *green*, ekonomia marroiko proposamen kontinuistak dituelako; ez da hain *new*, kasu askotan iraganeko politikak bakarrik biltzen dituelako; eta ez da hain *deal* ere, kontrako alderdi bat falta zaiolako, behintzat proposamenaren oinarrian dagoen aliantza estrategiko publiko-pribatua konpentsatuko lukeen benetako kontrapisu bat» (Pérez, 2022).

Kapitalismo berdearen aldeko apustu hori ere hazkunde mugagabearen paradigman kokatzen da. Hala, ez du krisi ekosoziala konponduko eta, aitzitik, larriagotu ere egingo du, dominazio-ardatz guztietan desberdinkeria handituz.

Elite ekonomiko, politiko eta mediatikoen trantsizio-proposamenek lehiakortasun eta hazkunde ekonomiko handiagoa bilatzen jarraitzen dute, baliabide naturalak amaigabeak balira bezala eta planetan inolako muga biofisikorik ez balego bezala. Ez dute argitzen «urritasunaren aroan» trantsizio hori nola gertatuko den, horren oinarri materiala eta energetikoa zein izango den eta zer inpaktu ekologiko eta sozial izango dituen.

4. **Trantsizio ekosozialista**

Esan bezala, bidezko trantsizio ekosozial horrek benetako eraldaketa sistemikoa sustatu beharra dagoela onartu behar du. Eraldaketa hori diziplina anitzeko prozesu gisa ulertu behar da, bidezko desazkundeko klabean, eta ekonomiaren, energiaren, gizartearen, kulturaren, legegintzaren edota lurraldearen ezinbesteko eraldaketak egiteko gai izan behar da. Horretarako, honako hauek behar dira gutxienez:

4.1. ***Bestelako ikuspegiak***

Krisi globalaren eta hark planteatzen dituen erronken diagnostiko egokia egiteko aukera emango diguten bestelako ikuspegiak:

- Ezinbestekoa da trantsizio ekosozialaren konplexutasunari heltzeko gai izango den **dimentsio anitzeko** ikuspegia izatea. Izan ere, eko-

nomiaren eta, bereziki, hazkunde ekonomikoaren balioa hipertrofiatzen duen ikuspegi okerrarekin ezinezkoa da hori lortzea. Frasser-ek (2022) adierazten duen bezala:

> Ekonomiaren eta naturaren arteko erlazioak ez digu azaltzen ordena sozial horri buruz jakin behar den guztia. Izan ere, aztertu behar dugu nola zeharkatzen duen harreman hori honako hauen arteko erlazioak: produkzioa eta erreprodukzioa, Estatua eta merkatua erdigunea eta periferia. Pieza guztiak aldi berean daude jokoan; beraz, alderdi bakar batean zentratzea akatsa da, ikuspuntu teoretiko eta kontzeptual batetik ere.

- Halaber, beharrezkoa da ikuspegi ekofeminista ere. Hark ekonomia konbentzionalaren ikuspegia gainditu beharko du, azken horrek alde batera uzten baititu ekodependentzia eta interdependentzia eta horiek gizarteei ezartzen dizkieten mugak. Hain zuzen ere, ekonomia horrek «bere azterketa-eremutik kanporatu ditu bizitzarako ezinbestekoak diren baina diruaren ikuspegitik neur ezin daitezkeen baliabideak, prozesuak, praktikak eta subjektuak (Naredo, 2006, hemen aipatua: Herrero, 2016). Horregatik, ekonomia ekologikoak eta ekonomia feministak eskaintzen dituzten ikuspegiak ezinbestekoak dira. Izan ere, adibidez:

> Ekonomia ekologikoak ekonomia eta gizartea biosferaren barruan kokatzeak dakartzan baldintzatzaileak aztertzen ditu. Hala, ekonomia azpimultzo bat izango da biosferaren barruan, eta ez alderantziz. Eta ekonomia feministak arreta jartzen du giza bizitzaren egoera immanentean, bizitzaren eguneroko erreprodukzioa bermatzen duten lan eta zereginen ezinbesteko egoeran eta gizarte patriarkaletan emakumeak azpiratzen dituen egiturazko desberdinkeria ekonomikoan (…). Bi ikuspegi horien arteko batura hutsak balio handiko analisi bat ematen du, baina ekarpen hori biderkatu eta anplifikatu egiten da banakako analisiak erlazionatzen eta elkartzen direnean, ikuspegi ekofeministak proposatzen duen bezala. (Herrero, 2016)

4.2. *Bestelako indar-ideiak*

Trantsizio ekosozialaren norabidea bideratzeko balio duten bestelako indar-ideiak Yayo Herrerok (2024) aipatu egiten ditu:

> Elkarri lotutako zazpi ideia giltzarri hauek: mugaren ideia (gure planetaren errealitate materialera egokitzeari dagokiona), beharren ideia (gizakiak interdependentetzat hartzen dituena), birbanaketaren ideia (eskasia materialeko testuinguru batean pertsona guztien beharrak betetzeko aukera ematen diguna), demokraziaren ideia (eztabai-

dak ezartzea eta trantsizio hori burutzeko akordioak lortzea lehenesten duena), premiaren ideia (krisi ekosozialaren dinamika bizkortuari eta haren ondorioei buruzko arreta pizten duena), zuhurtziarena (trantsizioa ustekabeko kontingentziaz betetako testuinguru batean gertatuko dela kontuan hartzen duena) eta irudimenaren ideia (testuinguru ekologikoarekin bateragarriak diren helburuko etorkizunak eraikitzeko funtsezkoa).

4.3. *Bestelako ardatz estrategikoak*

Trantsizio ekosozialistaren zutabeak diren beste ardatz estrategiko batzuk (Euskal Gune Ekosozialista, 2020):

- Desazkundea ekonomiaren eremu materialean. Desazkunde horrek «energia-kontsumoa eta kontsumo materiala murriztea ekarriko du, muga ekologikoen barruan kokatu arte, justizia globaleko irizpideekin» (Almazán & González Reyes, 2023). Adibidez, berotegi-efektuko gasen (BEG) isurketak premiaz murriztu behar dugu energiaren azken eskaera, baita Iparralde Globaleko herrialdeetarako gaien eraldaketa eta garraioa ere. Ekologistak Martxan taldeak (2015) adierazi duenez, «2050. urtean, gutxi gorabehera, 2015eko azken energiaren heren bat eta lehen mailako energiaren % 27 baino ez litzateke kontsumitu behar».
- Plangintza demokratikoa. Merkatu kapitalista —lehia itsuan eta epe laburreko onuran oinarritua— ez da behar den aldaketa sakona gauzatzeko edo bideratzeko gai. Hona hemen adibide zehatz bat: behin eta berriz errepikatu dute merkatuaren esku ikusezina berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko gai izango zela, baina hamarkadak igaro dira eta gora egiten jarraitzen dute. Horiek murrizteko bidean aurrera egiteko, ezinbestekoa da sozialki bidezkoa den plangintza bat egitea, besteak beste, sektore produktibo eta energetikoen birmoldatzea, zaintza-lanen antolaketa soziala eta ondasun komunen birjabetzea landuko dituena, besteak beste. Baina hori bakarrik izango da posible plangintza erabat demokratikoa bada, hau da, herritarren parte-hartze zuzenean oinarritzen bada. Funtsezko erabakiak ateak itxita hartzen badira edo «adituen» eskuetan bakarrik uzten badira, ez da bermatuko desazkundea benetan bidezkoa dela.
- Birbanaketa. Birbanatu behar ditugu «erabat eta modu multidimentsionalean aberastasuna (lurra eta jabetza pribatua ere bai), lanak (produktiboak eta erreproduktiboak) eta eskubide guztiak pertsona guztientzat (etorkinen erregularizazioa...) (Amaia Pérez Orozco, 2020). Honako hau dio Riechmannek (2021): «Trantsizio

energetikoa ezin da ona izan, desazkundearen eta berdintasunaren aldekoa ez bada».

- Desmerkantilizazioa eta bizi-beharren kolektibizazioa-komunalizazioa. Botere publikoen lehentasuna gehiengo sozialak babestea eta zaintzea izan behar da, zaintza publiko, duin, doako eta unibertsaleko sistema bat garatuz, oinarrizko zerbitzuen sare publikoak indartuz (osasuna, hezkuntza, zaintzak...), eta herritar guztiei elikadura, ura, energia eta etxebizitza bezalako ezinbesteko premiak bermatzeko politikak bultzatuz. Horretarako, sare eta ekimen publiko-komunitarioak indartu behar dira, baita gizarte berri horren oinarriak eraikitzen ari diren esperientzia aberatsak eta askotarikoak ere (tokiko elektrizitate berriztagarria eta partekatua sortzeko herritarren esperientziak...), gizarteak berak sustatuak.
- Ekoizpenaren, kontsumoaren eta zerbitzuen birlokalizazioa, komunitateak beren lurraldeetan errotzeko, zirkuitu laburrak eta jasangarritasun handiagoa bultzatzeko, gizarte parte-hartzaileagoa eta autogestionatuagoa errazteko eta, egungo desoreka handien aurrean, lurralde kohesio eta oreka handiagoa lortzen laguntzeko.
- Herritarren eta komunitateen ahalduntzea, eskubideei zein betebeharrei dagokienez. Trantsizioa ingurumenaren eta gehiengo sozialen mesedetan egiten dela bermatzeko modurik onena da. Horretarako gakoetako bat hezkuntza ekosozial feminista bultzatzea eta garatzea da. Hark honako balio hauetan trebatuko ditu pertsonak: gizarte justizia, berdintasuna eta ekitatea, natura errespetatzea, aniztasuna onartzea eta demokraziarekin konprometitzea.
- Eguneroko bizitza berrorientatzea. Jakin badakigu kontsumo-ohitura eta bizimodu aldaketa indibidualen batuketak ez dituela egiturazko beharrezko eraldaketak ordezkatzen. Baina badakigu, halaber, aldaketa pertsonal horiek ezinbestekoak direla. Horregatik, esparru indibidualean ere, kontsumismoa, axolagabetasuna edo indibidualismoa baztertu, eta mugen eta nahikotasunaren kultura, sumindura eta komunitatea sustatu behar ditugu. Beharrezkoa den mutazio antropologiko hori lortzeko, funtsezkoak dira eguneroko esperientzia praktiko alternatiboak eta «beste mundu posible» hori eskatzeko gizarte-mobilizazioak.

5. **Gatazka soziala jorratu eta gure burua prestatu behar dugu**

> Sakoneko arazo bat dago, hain zuzen ere, gutxi garela honako hauek ulertzen ditugun gizarte sektoreak: batetik, kapitalismoaren barruan krisi ekosoziala konpontzeko aukerarik ez dagoela (eta kapitalismo berdea oximorona dela), eta, bestetik, gure gizarteak kolapsorako bidean daudela. (Riechmann, 2023).

Gizarte mobilizaziorik gabe ez dago aipatutako trantsizio edo eraldaketa ekosozialik. Horretarako behar den funtsezko paradigma-aldaketa bakarrik izango da posible gehiengo sozial handiek hala eskatzen badute. Hori da, zalantzarik gabe, funtsezko eta ezinbesteko gakoa. Bestela, elite politiko-ekonomikoek bideratzen ari diren «trantsizioaren» ondorioak pairatu behar izango ditugu.

Horrelako eraldaketa bat lortzeko, ez da errealista gizarte-adostasunean eta inork galtzen ez duen «herri-akordio» moduko batean oinarritutako estrategia bat planteatzea. Aipatutako ardatz estrategikoetan oinarritzen den trantsizio batean irabazleak eta galtzaileak egongo dira, eta horrek ez du adostasunik ekarriko, gatazka soziala baizik. Eliteek oso argi daukate.

Trantsizio ekosozial «onaren» bidetik aurrera egin nahi badugu, gatazka sozial saihetsezin hori jorratu eta gure burua prestatu behar dugu. Eta, horretarako, ezinbestekoa da norabide horretan bultzatzen duten gizarte-mugimendu guztien aktibazioa sustatzea eta guztien artean sare bat sortzea, elkarrekin jardun dezaten. Almazánek eta Riechmannek (2021) adierazi bezala: «Gaur egun ekologikoki beharrezkoa denaren eta politikoki egingarria denaren artean dagoen arrakala ixteko gai diren gizarte-mugimenduak behar ditugu».

Izan ere, gizarte aktiboa eta ondo artikulatua eta gizarte-mugimendu antolatuak eta koordinatuak dira «larrialdiko balaztak» aktibatzeko eta bidezko desazkundearen bidea hartzeko bermerik onena. Halaber, ezinbestekoak dira egungo antropologia neoliberalari lotutako balioak berriz konfiguratzen laguntzeko.

6. **Euskal Herriko trantsizio ekosozialari buruzko zenbait ohar**

Hasteko, Euskal Herrian bidezko desazkundea ekarriko duen trantsizioaren premia eta egokitasuna erakusten duten datu batzuk azpimarratu nahi ditugu:

- IHOBEren arabera (2019), Euskadiko aztarna ekologikoa 2,6 planetakoa da:

> Egindako kalkuluaren emaitzek erakusten dute nola adierazten diren EAEko biztanleriaren kontsumo-ereduak azalera-unitateetan, lurraren ekoizpen-ahalmenari dagokionez. Planetako biztanle bakoitzak 1,63 hag azalera biologikoki produktiboa du bere kontsumo-beharrak asetzeko; euskal gizarteak, berriz, 4,32 hag kontsumitzen ditu pertsona bakoitzeko, eta, hortaz, 2,69 hag/pertsonako defizit ekologikoa du. Planetako biztanle guztiek Euskadiko biztanleen kontsumo-eredu bera izango balute, planetaren azalera biologikoki produktiboak erabilgarri dagoena baino 2,6 aldiz handiagoa izan beharko luke.

- Hainbat egilek adierazi dutenez, planetaren mugak errespetatuta pertsona guztiek bizitza duina dutela bermatuko lukeen energia-kontsumoa 1,2 PTB[91]. Euskal Herrian, 3 PTB-koa da.
- Riechmannen arabera (2023), planeten mugak errespetatuta «pertsona guztiek bizitza duina dutela bermatuko lukeen materialen kontsumoa 6 tonakoa izango litzateke biztanleko eta urteko. Herrialde aberatsek (horien artean, Euskal Herriak) urtean 70 tona baino gehiago erabiltzen ditugu».
- 2030ean, tenperatura gehienez 1,5 ºC igotzearekin bateragarriak diren CO_2 isurketak ezin dira izan 2,3 tona CO_2 baino handiagoak biztanleko eta urteko (OXFAM International, 2021). Euskal Herrian 8,4 tona CO_2 dira (IHOBE, 2019).

Esan bezala, desazkundeko trantsizio hori bultzatzeko ezinbesteko baldintza da gizartearen aktibazioa. Azken hilabeteotan Euskal Herrian urrats garrantzitsuak egin dira norabide horretan:

- Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren ekimenez, *Su txikien itsasoa/Mar de fueguitos* dinamika abian da 2023tik. Hura Euskal Herriko gizarte mugimendu guztiei zuzendutako dinamika da eta bere helburu nagusia da guztien artean «bizitza eta lurraldea zaintzeko eta babesteko» sare bat osatzen laguntzea. Partekatutako ikuspuntuak nabarmentzen dituen dinamika bat da, topatzeko guneak eta erakundeak indartu nahi dituena eta, ahal den neurrian, elkarrekin jarduteko eta mobilizatzeko oinarriak adostu nahi dituena.
- Gizarte-mugimenduen arteko oinarri komun horien ekarpen/zehaztapen gisa *2030 Txoke Plana: Hego Euskal Herriko bidezko trantsizio ekosozial baten alde* (2024) dokumentua aurkeztu da. Bertan adierazten den bezala:

> Txoke Plana ez da helmuga, abiapuntua baizik. Haustura puntu bat, dinamika metabolikoaren bira bat, lokomotora kapitalistaren lehen balaztada bat (...). 36 proposamen zehatz jasotzen ditu, bideragarriak eta berehala aplikatzekoak, herriaren presioak eta borondate politikoak bat egiten badute.
>
> Plan horrek, beste ezeren gainetik, «bizitzarako sarea» eta elkarrekin jarduteko eta lan egiteko gaitasuna indartzen lagunduko duen tresna izan nahi du.

Era berean, ezinbestekoa da «behetik» egindako esperientzia alternatibo ugariak nabarmentzea, bidea egiten ari direlako eta paradigma-aldaketa sakon hori posible dela erakusten ari direlako. Elikadura-burujabetza-

[91] PTB: petrolio tona baliokideak, hau da, petrolio tona batek duen energia.

ren (agroekologia...), energiaren (energia-komunitate eta kooperatibak...), zaintza-lanen (zaintzako tokiko ekosistemak...), industriaren (Mecanerren Plan Ekosoziala...), lurraldearen (Busturialdea-Urdaibaiko trantsizio ekosozialerako jasangarritasun indizea...) eta beste esparru batzuetako esperientziak. Esperientzia horiek indartu eta berrelikatu daitezen, oso komenigarria litzateke esperientzia esanguratsuenen artean sare bat sortzea. Sare hori eta gizarte mugimenduena Euskal Herriko trantsizio ekosozialaren funtsezko bi oinarri izango lirateke.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus-gaz) UnEtxea (2021). Unidad didáctica. 17 Objetivos para Transformar Nuestro Mundo. Retos primaria. 3.er ciclo. unetxea.org/portfolio-item/unidad-didactica-17-objetivos-para-transformar-nuestro-mundo-retos-primaria-3er-ciclo/.

(eus-gaz) UnEtxea (2021). Unidad didáctica. 17 Objetivos para Transformar Nuestro Mundo. Retos secundaria. 2.º ciclo. unetxea.org/portfolio-item/unidad-didactica-17-objetivos-para-transformar-nuestro-mundo-retos-secundaria-2ociclo/.

(eus-gaz) UNEtxea (2022). Garapen Jasangarrirako Helburuak. Bigarren hezkuntzarako gida didaktikoa. / Los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Guía didáctica para Secundaria. unetxea.org/portfolio-item/los-objetivos-de-desarrollo-sostenible-guia-didactica-para-secundaria/.

(gaz) González-Reyes, L. (2021). El uso sostenible de los recursos naturales. Propuestas educativas ecosociales y transformadoras. Fuhem.

(gaz) González-Reyes, L. (2025). Religión y transición ecosocial. El legado del Papa Francisco. Fuhem.

(gaz) Serrano, A. (2021). *En el filo de la navaja. ¿Reconstrucción ecosocial en España?* Foro Transiciones.

Erlazionatutako topikoak

Krisi ekosoziala, Klima-larrialdia, Zor ekologikoa.

Z

ZAINTZA LANAK

Zaintza-lanak dira bizitza bere forma guztietan sostengatzen duen lanak (lan erreproduktiboak, bizitzaren hasierakoak eta amaierakoak, osasunekoak, ingurunekoak...).

Zaintzea, bada, babestea edo mantentzea baino gehiago da, izan ere, gizakien arteko erantzukizuna eta interdependentzia eta gizakiaren eta ingurumenaren arteko ekodependentzia ere barne hartzen ditu.

Feminismoak eta ekologismoak bat egiten dute sistema patriarkal eta kapitalistaren aurkako kritikan. Hain zuzen ere, sistema horrek bigarren maila batean utzi ditu eta ikusezin egin ditu zaintza-lanak. Hala, gutxietsi egiten ditu, batetik, lan erreproduktiboa eta pertsonak babesteko eta zaintzeko lana (tradizionalki emakumeei esleitua), eta, bestetik, ekosistemak babesteko lana (hazkunde ekonomikoaren aurrean bigarren mailakotzat hartua).

Hortaz, beharrezkoa da zaintza-lana aintzat hartzea eta balioestea, hura ikusezina eta gutxietsia izan baita gure gizartean. Zaintza-lanak funtsezko praktika etiko eta politiko gisa ulertu behar dira.

Yayo Herreroren hitzetan (2023):

> Bizitzaren iraunkortasunak giza bizitzaren ekodependentzia barne hartzen du. Natura gara. Naturarik gabe ez dago ez ekonomiarik, ez teknologiarik, ez gizarterik. Gainera, interdependenteak gara. Giza bizitza gorputz zaurgarrietan garatzen da, komunitatean artikulatutako emakumeek historian zehar emandako zaintzak edo arretak behar dituzten gorputzetan.
>
> Ekodependenteak eta interdependenteak garenez, muga fisikoak —lurrarena eta gorputzena— eta zaurgarritasuna giza bizitzaren be-

rezko ezaugarriak dira. Dependentzia edo beharra ez dira gainditu beharreko patologiak, baizik eta giza izaeraren alderdi intimoa, eta bizitzaren sostenguaren inguruan antolatzeko hura aintzat hartu beharra dago.

Fernández Duránek eta González Reyesek (2014) lan ordainduaren eta zaintza-lanaren arteko banaketa modernoaren jatorria ikertzen dute. Horrela, lan ordaindua (lan bakartzat hartzen dena) eremu publikoan egiten da; zaintza-lanak, aldiz, esparru pribatuan, eta gehienbat emakumeek egiten dituzte:

> Kapitalismoaren hasieratik, patriarkatuak goranzko joera bat izan zuen, behin berdintasunaren aldeko erresistentziak eta aurrerapenak menderatu zituenean (gogora dezagun Sorgin Ehiza).
>
> (...) Industria Iraultza hasi zenean, zaintza-lanen krisia gertatu zen. Horri aurre egiteko, emakumeak etxeko lanetara baztertu ziren pixkanaka. Prozesu horretan, berebiziko garrantzia izan zuen familia-ereduaren berrantolaketak. XVIII. mendera arte, familiaren kontzeptua etxearena izan zen (elkarrekin bizi diren eta ekoizpen- eta kontsumo-prozesuak elkarrekin antolatzen dituzten pertsonak). XIX. mendean zehar, ahaidetasun hurbileko harremanetara mugatutako eta ugaltzera eta sozializaziora bideratutako familiaren kontzeptua hedatu zen burgesiaren eraginez. (...) Aldi berean, zaintza komunitarioko eremuak hautsi ziren. Horrela, arlo produktiboa eta erreproduktiboa bereizi ziren.
>
> Era berean, populazio industrializatu bat elikatzeko, garraiatzeko eta ostatatzeko metodoak aldatzearekin batera, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko arrakala sakondu zen. Eremu publikoak (merkatua eta botere politikoa) irabaziak gurtzen zituen; eta eremu pribatua, zaintza-lanak hartzen zituena, lehenengoaren menpe geratu zen.
>
> Emakumeek, hasiera batean, zaintza-lanak eta lan ordaindua egiten zituzten. Baina eremu publikoa eta pribatua bereizi ahala, emakumeak, pixkanaka, etxeko eremura soilik zokoratu ziren. Hori hainbat politikaren bidez gauzatu zen, hala nola emakumeak eta haurrak lantegietatik kanporatzen zituzten «babes» legeen eta ezkontza-erakundearen bitartez (Narotzky, 2004; Federici, 2014). Horrela, «ogia irabazten duen gizona/emakume etxekoandrea» eredua eraikitzen joan zen, baina hori ez zen XX. mendera arte finkatu. Emakumeei oinarrizko bi balio inposatu zizkieten zaintza-lanak egin zitzaten: maitasuna eta sakrifizioa. Adibidez, etxeko lana eskoletan neskatoei irakasten zieten eduki nagusi bihurtu zen (Federici, 2014). Eredu horrek, emakumeei xantaia emozional handia egiteaz gain, beren denborari buruz erabakitzeko gaitasuna usurpatu zien, zainketek ez baitute ordutegirik izaten.
>
> Horrela, kapitalismoak etxekoandrea sortu zuen lan-indarraren erreprodukzioa doan konpontzeko, eta horrek honako ideia hau finkatu zuen: genero biak berez desberdinak direla, eta, femeninoa, maila txikiagokoa dela.
>
> Aurrerapenaren ideia eraikitzeari dagokionez, XIX. mendeko gizonezko pentsalari europar gehienek ez zituzten aintzat hartu emakumeek ordainik gabe egiten zituzten bizitzaren produkzio- eta erreprodukzio-lanak, horiek merkatutik kanpo geratzen baitziren eta «ez-produktibotzat» jotzen baitzituzten. Are gehiago, «ez-emankortzat» ere jotzen

> zituzten. Aberastasun-iturria lana (industriala) eta kapitala zirenez, esparru horretatik kanpo geratzen zen guztiak ez zuen garrantzirik. Horren ondorioz, «industrializazioaz geroztik, lana terminoa gatibu geratu da, merkatuko lana bakarrik izendatzeko». Hala, lanaren eta soldatapeko lanaren arteko baliokidetasuna ezartzen dute (Carrasco, 2009). Hain zuzen ere, soldata zuten horiek bakarrik izan zituzten herritartasun-eskubideak. Horrela, dualtasun berriak finkatzen ziren: ekonomikoa-ez ekonomikoa, produktiboa-erreproduktiboa.
>
> Marxismoak emakumeek lan-indarraren erreprodukzioan betetzen zuten eginkizuna jorratu zuen (zeharka, Smithek ere egin zuen bezala), baina ez zuen nabarmendu eremu pribatuan egindako lan horrek bizitza eta gizartea mantentzeko zuen garrantzia. «Produkzio-indarren garapena» gehiegi baloratzeak itsutu egin zuen. Arlo «produktiboan» jarritako enfasiak ez zuen aukerarik ematen arlo «erreproduktiboa» aztertzeko edo baloratzeko. Dikotomia artifizial horrek poloetako bat baztertzen zuen (ia). Berriz ere, naturak pairatzen zuenaren antzeko zerbait gertatu zen emakumeekin». (Fernández Durán y González Reyes, 2014)

Beraz, gaur egun gorputzen immanentzia eta zaintzen beharra erdi ezkutuan geratzen dira komunitateetan eta etxeetan; eta esparru horietan emakumeek (batez ere) doan egiten dituzte lan horiek. Gainera, zaintza ordaintzen denean ere, emakume pobretuak, migratuak eta arrazializatuak izaten dira lan horiek beren gain hartzen dituztenak, Izan ere, lan horiek dira lan-merkatuan okerren ordaintzen direnak eta babes gutxien dutenak.

Zaintzak erdigunean kokatzea izan beharko da trantsizio ekosozialeko edozein prozesuren ardatz nagusietako bat. Zaintzak gizarteen berezkoak dira, eta horregatik elkar zaindu beharra dugu (interdependentzia). Gainera, Naturaren parte garenez, haren beharra dugu bizirik irauteko (ekodependentzia), eta, hortaz, hura zaindu behar dugu. Zaintzak ahaztuak izan dira; izan ere, sistemak onura pribatuak lehenesten ditu eta zaintza lan horiek ikusezin, feminizatu eta prekario mantentzen ditu.

Zaintza ikuspegi hura, praktika moral indibidual gisa ez ezik, gure egitura ekonomiko, politiko eta sozialak berrantolatzeko printzipio gidari gisa ere aurkezten da, eta feminismoa eta ekologismoa batzen ditu. Izan ere, aitortu egiten du krisi ekologikoa eta bidegabekeria sozialak sistema globalaren ondorioak direla; hau da, pertsonen ongizatearen gainetik eta iraunkortasunaren gainetik, irabazia lehenesten duen sistemaren ondorioak. Beraz, paradigma-aldaketa egin beharra dago, hain zuzen ere, zaintza eta iraunkortasuna baloratzen eta lehenesten dituzten sistemetara.

Politikaren ikuspegitik, zaintzaren etikak politika publikoak inspiratu behar ditu. Politika hauek ekosistemak babestu eta birsortu behar dituzte, gizarte justizia sustatu behar dute eta giza eskubideak guztiontzat bermatu behar dituzte, pertsona zaurgarriak eta baztertuak ahaztu gabe. Gobernantzak ikuspegi inklusiboak izango ditu, parte-hartzea eta lankidetza

sustatuko ditu, eta komunitateei aukera emango die beren inguruneari eta bizitzari eragiten dieten erabakietan hitza eta botoa izateko.

Gizarte-mailan, ikuspegi horrek gizakien arteko errespetuan eta enpatian oinarritutako harremanak eraikitzeko deia egiten du. Gainerako izaki bizidunekin eta sistema naturalekin dugun interdependentzia ere aintzat hartzen du. Kultura-eraldaketa sakona da, kontsumo-eredu eutsiezinak, indibidualismoaren gorespena eta desberdinkeriaren betikotzea zalantzan jarriko dituena. Eredu berri horretan, izaki guztiek, gizonek zein emakumeek, hartuko dute zaintzaren ardura.

Ekonomiaren arloan, eraldaketa horiek eredu birsortzaileak garatzea ekarri behar dute. Eredu berri horiek iraunkortasuna, hondakinak minimizatzea eta ekosistemen muga naturalak errespetatzea izango dituzte helburu. Zaintza-lana ere aintzat hartuko dute, horrek, esan bezala, balio soziala galdu baitu historikoki. Ez da ahaztu behar zaintzea funtsezkoa dela bizitzaren iraunkortasunerako, eta, beraz, aintzatespen ekonomiko eta soziala izan behar duela.

Zaintza indar eraldatzaile bihurtzen da, pertsonak eta komunitateak ekintza kolektibora mobilizatzeko gai den indarra. Ekintza iraultzaile horrek zalantzan jartzen ditu gure egungo sistema patriarkalaren oinarriak, eta, horien ordez, bizitza erdigunean jartzen duten beste oinarri batzuk ezarri nahi ditu. Izan ere, zaintzan oinarritutako gizarte baten aldeko mugimendu horrek birpentsatzea eskatzen du, ez bakarrik nola bizi eta lan egiten dugun, baita gure artean eta planetarekin zer nolako harremana dugun ere. Azken batean, naturarekin eta gure artean birkonektatzeko deia da, etorkizun bidezkoago eta iraunkorrago baten oinarri izango diren laguntza- eta elkartasun-sareak ehuntzeko.

Hezkuntza-baliabideak eta irakaskuntza-prestakuntza

(eus) Edukalboan. Bizitzaren zaintzak erdigunean. www.edukalboan.org/eu/unitatea/bizitzaren-zaintzak-erdigunean-0.

(eus) Edukalboan. Zaintzak sustatuz. www.edukalboan.org/eu/jarduera/zaintzak-sustatuz.

(eus) Edukalboan. Zaintza-lanen hausnarketa teorikorako gida. www.edukalboan.org/eu/node/1887.

(eus) Zaintza eskubide kolektiboaren alde Herri Akordioa https://www.feministas.org/IMG/pdf/herri-akordioa_eus.pdf /Acuerdo Social a favor de un derecho colectivo al cuidado https://www.feministas.org/IMG/pdf/herri-akordioa_cas.pdf.

(gaz) Ayuntamiento de Sant Joan D´Alacant. Taller de la Ética del cuidado. www.santjoandalacant.es/wp-content/uploads/2023/08/EticaCuidado14.pdf.

(gaz) Coordinadora de ONGD Euskadi. Guía para la reflexión teórica en torno a la ética de los cuidados. recursoseducativos.ongdeuskadi.org/recurso.php?id=323.

(gaz) Eduforics. Un decálogo para educar desde la ética del cuidado. oes.fundacion-sm.org/eduforics/experiencias-y-recursos/top-10-decalogos-practicos/un-decalogo-de-criterios-y-pautas-para-educar-desde-la-etica-del-cuidado/.

(gaz) Ética de los cuidados [revista]. www.index-f.com/eticuidado/estilo.php.

(gaz) Fuhem. *Guía para educar desde la perspectiva ecosocial en el cuidado y defensa del medio natural*. www.garuacoop.es/wp-content/uploads/2022/02/Guia-para-educar-perspectiva-ecosocial.pdf.

(gaz) Fuhem. Material didáctico sobre cuidados. tiempodeactuar.es/blog/unidad-didactica-sobre-cuidados/.

(gaz) InteRed. Unidad didáctica: al otro lado del cuidado. www.intered.org/es/recursos/unidad-didactica-al-otro-lado-del-cuidado.

(gaz) Nieto, M. & Monsó, A. (2021). *El uso sostenible de los recursos naturales propuestas educativas ecosociales y transformadoras*. Fuhem. tiempodeactuar.es/wp-content/uploads/Guia-uso-sostenible-recursos-naturales.pdf.

Erlazionatutako topikoak

Ekofeminismoa, Hezkuntza ekosoziala, Interdependentzia.

ZOR EKOLOGIKOA

Zor ekologikoa da herrialde batek epe jakin batean bertako lur eta baliabide naturalak birsortzeko ahalmenetik gora kontsumitzen duen baliabide-kantitatea. Adibidez, egurrari dagokionez, herrialde bateko basoen ekoizpen-ahalmena 100.000 t-koa bada, eta herrialdeak 150.000 t kontsumitzen baditu, 50.000 t-ko zorra izango du planetarekin. Zor ekologikoa kontzeptu historiko gisa ere planteatu da, herrialde aberatsek beste herrialdeetatik harrapatu dituzten baliabideen balioa eta horien ustiapenean eragin dituzten kalteak kontuan hartzen dituena.

Zor ekologikoa kontzeptu bat da, eta herrialde batek kontsumitzen dituen baliabide naturalen kantitatearen eta modu jasangarrian birsor dezakeen kantitatearen arteko tartea adierazten du, baita sortzen duen hondakin eta kutsadura kantitatea, eta planetak horiek modu seguruan xurgatzeko duen gaitasuna ere. Zor ekologikoa, beraz, Iparraldeko herri aberastuek herri pobretuetan eragindako baliabide naturalen erauzketa

etengabeagatik duten zorra da, hau da, merkataritza desorekatuagatik, konpondu gabeko ingurumen-kalteengatik, aldaketa klimatikoaren ondorioengatik, kutsadura orokorrarengatik, eta elikadura burujabetza kaltetzeagatik. Tarte hori, oro har, kontsumitutako baliabideen arabera neurtzen da, hala nola aztarna ekologikoaren arabera eta Lurrak baliabide horiek birsortzeko duen gaitasunaren —hau da, biogaitasunaren— arabera.

Zor ekologikoa barnekoa zein kanpokoa izan daiteke. Barneko zor ekologikoa herrialde baten barruko baliabide naturalen ustiapen eutsiezinari dagokio; izan ere, horrek ingurumenaren narriadura eta biodibertsitatearen galera ekar ditzake. Kanpo-zor ekologikoa herrialde batek beste herrialde edo eskualde batzuen baliabide naturalekiko duen mendekotasunari dagokio; izan ere, horrek baliabide horien gehiegi esplotatzea eta mundu mailako ingurumen-arazoak areagotzea ekar dezake.

Herrialde industrializatuek izan ohi dute zor ekologikorik handiena, baliabide natural asko kontsumitzen dituztelako eta hondakin eta kutsadura ugari sortzen dituztelako. Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeak izan ohi dira zor ekologiko horren hartzekodun handienak, askotan baliabide naturalak emateko eta herrialde industrializatuetako hondakinak eta kutsadura xurgatzeko esplotatzen baitituzte.

Zor ekologikoaren nozioak azpimarratzen du garrantzitsua dela garapen jasangarriko praktikak ezartzea, orekatu ahal izateko, batetik, garapen ekonomikoaren beharra eta, bestetik, planetako baliabide naturalak babesteko eta etorkizuneko belaunaldientzat gordetzeko beharra.

Zor ekologikoaren kontzeptua Hegoamerikan sortu zen 1990 inguruan, Txileko Ekologia Politikoko Institutuaren ekimenez. Kontzeptu horrekin zera salatu nahi zuten: kanpo zorrarekin gertatzen denarekin kontrajarrita, herrialde aberastuak zorretan daudela herrialde txirotuekin, gehiegizko esplotazioa eta munduko baliabideen xahutzea dela eta.

Ganteko Unibertsitateko Garapen Iraunkorraren arloko ikertzaileen ustez, herrialde baten zor ekologikoa neurtzeko, honakoak hartu behar dira kontuan:

1. Herrialde batek, bere ekoizpen eta kontsumo ereduaren ondorioz, beste herrialde batzuetan edota herrialde horien jurisdikzio-eremuetan eragiten duen ingurumen-kaltea.
2. Herrialde batek, bere ekoizpen eta kontsumo ereduaren ondorioz, bere jurisdikziotik kanpoko ekosistemetan historikoki eragindako ingurumen-kaltea.
3. Herrialde batek, denboran zehar, ekosistemak edota ekosistema horien ondasun eta zerbitzuak erabiltzea eta ustiatzea, beste herrialde edota norbanako batzuei dagozkien ekosistemen bidezko eskubideez baliatuz.

Zor ekologikoa, beraz, biosferarekiko obligazio bat da, funtsezko sistema eta prozesu ekologikoekin bateragarriak ez diren esku-hartzearen ondorioz sortzen dena. Era berean, gizateriarekiko obligazioa ere bada, urteetan zehar atzera jotzeko aukerarik gabe eskuratu dena. Horren guztiaren ondorioz, gehiengo sozial asko eta asko baztertu eta txirotu dituzte, etnozidioaren bidez eta kulturak zapaldu bitartez.

Argi dago zor ekologikoaren kontzeptuak erantzukizuak ezartzen dituela; eta, zentzu horretan, Iparraldeko herrialdeak zorretan daude Hegoaldeko herrialdeekin. Izan ere, mendeetan zehar etnozidioa eta ekozidioa elkarrekin burutu dituzte. Nola liteke, ordea, natura, gizakia, gizartea, ekonomia nahiz funtsezko baliabideak horren maila nabarmenean xahutzera heldu izana? Nola liteke inolako zigorrik jaso gabe berdin jokatzen jarraitzea?

Galdera horiei erantzuteko *bestetasunaren edo alteritatearen* kontzeptu filosofikoa oinarritzat hartzen badugu, ekintza guztiz ezeztatzaileak aktibatu ditugula esan genezake.

Bestea aintzat hartzea, bizitzaren oinarrizko printzipioetako bat da. Aniztasunik gabe ez dago bizitzarik. Idealki, giza kulturak adiskidetu egin beharko lirateke, biosferarekin elkartasun loturak eta erkidego ontologikoa bermatzen dituen jokabide-eredu baten bidez. Eredu horrek ez du bakarrik morala edo etikoa izan behar, kognitiboa ere izan behar da; eta gu gainerako biosferarekin bat izatea eragiten duten harremanen inguruko ezagutza identifikatu beharko luke.

Giza kulturen ibilbidea, elkarren arteko dependentzia sareen eta loturen bitartez zehaztuta dago, eta arlo gizatiarra eta biosfera uztartzen ditu. Zor Ekologikoaren kontzeptua tresna zehatz eta eraginkorra da Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko injustiziaz hitz egiteko. Era berean, kontzeptu horren bidez, hainbat gauza lortu nahi dira: baliabide naturaletan eragindako gutxitzea eta sortutako kutsadura aitortzea; prebentzioa, hau da, zor berria sortzea eragotziko duten ingurumen eta ekonomia arloko politikak lantzea; erreparazioa, diruzkoa eta politikoa; dagoeneko dagoen zorra ordaintzea (ahal den neurrian) eta kanpo zorra kitatzea.

Iparraldeko gizarteek arazoari «konponbidea» eman nahi izan diotenean ere, gehienetan konponbide okerrak izan dira, beste batzuetan alperrikakoak, eta kasu batzuetan baita kaltegarriak ere («garapenerako laguntza», «iraultza berdea», «garapenerako lankidetza» e.a. bezalako programen hainbat ekimen horren adibide dira).

Konponbide horiek nagusi den sistema ekonomikotik etorri dira. Hala, ekimen gehienek ez dute arrakastarik izan, behin eta berriz, egoera konplexuak ikuspegi ez-sistemiko batetik aztertzen dituztelako, inolako ikuspegi holistikorik gabe.

Egungo sistema ekonomikoak *kanpokotasun*tzat hartzen du merkatulegeekin bat ez datorren oro, merkatuaren funtzionamendu teorikotik al-

dentzen delako. Ikuspegi sinple hori biosfera bezalako kontzeptu konplexuari aplikatzen zaionean, argi dago gertatzen ari den guztia modu okerrean interpretatzen ari garela. Mundu mugagabe batean oinarritzen den eredu batentzat, mugak kanpokotasunak dira. Horrela interpretatzen du mundua indarrean dagoen ordena ekonomikoak, kanpokotasun gisa alegia. Kanpokotasunean oinarritzen dira, beraz, txirotasuna, baliabideen agortzea, eskulan merkea… Badirudi oraindik ez ditugula ez ulertu ez onartu gure planetaren berezko mugak, ez eta hazkundearen mugak ere.

Zor ekologikoa litzateke kanpokotasun faktore handienetariko bat, mundu mailan sistematikoki gertatzen diren etengabeko ekitate ezaren ondorioetako bat.

